



JUAN JOSE IRAZUSTA

NORK BERE BIDEA - I

NORK BERE BIDEA

(I)

AUSPOA LIBURUTEGIA

(143)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa
Teléfono (943) 67 12 82

JUAN JOSE IRAZUSTA

NORK BERE BIDEA

I

AUSPOA LIBURUTEGIA
1980

Oarra: Nobela au Argentina'n gertatzen da: Tierra del Fuego'n, Buenos Aires'en eta, zatirik aundiena, Patagonia'n, ango gautxoen oituraketa azalduaz. Azalaren apaingarri dan *grabado* ori orregatik aukeratu degu. *La Ilustración Española y Americana* aldizkarian agertu zan, 1878.IX.15'eko zenbakian. Goi eta bean onela dio: «*Tipos de la América del Sur. París, Familia de «gauchos» establecida actualmente en el jardín de aclimatación*». Jardin ori zer dan, beste orri batean adierazten da: «*Así como durante el año último se han presentado en el Jardín de Aclimatación de París, instalándose en él temporalmente, con permiso del Gobierno y del Municipio, pequeñas tribus de iroqueses, de esquimales y de pieles rojas, hoy se halla en el mismo sitio una numerosa familia de gauchos...*».

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)

Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz

ISBN 84-7158-084-5 Obra completa

Depósito Legal: S. S. 352/80

ISBN 84-7158-085-3 Tomo I

Depósito Legal: S. S. 351/80

Agosto - 1980

ARKIBIDEA

| | |
|--|-----|
| <i>Itzaurrea</i> | 9 |
| Martiñek bere guraso eta senideeri ... | 19 |
| Aitak semeari | 29 |
| Kaxildak Martiñi | 33 |
| Martiñek On Ramon apaizari | 39 |
| Martiñek Kaxildari | 45 |
| On Ramonek Martiñi | 51 |
| Martiñek Ixidrori | 57 |
| Ixidrok Martiñi | 63 |
| Ate aundia | 69 |
| Itxasontzia | 77 |
| Anitaren aitorketa | 83 |
| Martiñen aitorketa | 91 |
| Buenos Aires | 97 |
| Lanean | 115 |
| Zañak moztutako landarea | 119 |
| Azken agurra | 123 |
| Martiñek Ixidrori | 133 |
| Martiñek Kaxilda eta Josetxori | 141 |
| Kaxildak Martiñi | 149 |

ITZAURREA

Juan Jose Irazusta Mitxelena degu nobela onen egillea. Nor ote dan galdetuko du batek baño geiagok. Izan ere, ez-ezaguna izateak zer arriturik ez dauka. Ez baitu orain artean ez libururik, ez artikulorik, ez lerro bakar bat ere jendearentzat idatzi. Eta, bat-batean, nobela luze bat argitara eman.

Lerro auen bidez, bi gauza argitu nai genituzke. Bata, euskal nobelagille berri au nor ote dan; bestea, nobela au nola idatzi dan.

Orain ia bost urte, 1975'eko udaran, Donostia'n nere gelan lanean ari nintzala, telefonoz dei bat izan nuan. Gizaseme bat zan. Gutxi gorabera, onela esan zidan:

— Berorrek ez nau ni ezagutzen. Bañan nere lendabiziko artikuloa idatzi dut eta berorri erakutsi nai nioke.

Bestela ere lanaren morroi bizi baigera, zama berri ori nere bizkarretik bota nai izan nuan. Beste edozeñi erakusteko erantzun nion; ni baño

maixu obeak dozenaka arkituko zituala bazterretan.

Besteak, ordea, nere igesbide guziak arrazoi bakarrarekin ixten zituan:

— *Ez. Nik berorrekin nai dut. Nik berorrekin nai dut.*

Azkenean, egia esan bear badet, nere gogoaren kontra eta ezin bestean, onela esan nion:

— *Korreoz bialdu zazu, ba, eta nere iritzia ere korreoz bialduko dizut.*

Andik egun batzutara, sobre lodi xamar bat zertifikatuta etorri zitzaidan. Bañan emakume baten izena atzean: Irene Irazusta, C/ Juan de Olazabal 23, 7.º D, Rentería.

Sobrea idikita, eskutitz bat eskuz eta zenbait orri makinaz arkitu nituan. Eskutitzak onela zion:

«Aita Zabala, Colegio de San Ignacio:

Agurtu ondoren, nai nioke esan artikulo au dela lendabizikoa nik euskeraz idazten dutena. Badakit aldrebasa eta utsune asko dituela. Bañan obeto ez dakianak, al duen bezela egin bear. Ni Patagonia'n bizi izan naiz, eta an ezagutu nuan Ushuaia'n espetxean egondako bat. Onek esaten zizkidan presondegiko gorabera guziak, eta orregatik gogoratu zitzaidan, emen Euskalerrriari artikulu bat eskeintzea. Emen ez daukat iñor ori erakusteko, eta beorregana nator iritzi baten billa.

Protagonista da Martin. Ameriketara iges egin du, bere andregai Kaxilda aurdun utzita.

Baita ere idatzita daukat, bere aita Patxik egiten dion eskutitza, gogor xamarra. Eta beste bat Kaxildak egiten diona. Azkenik, etxeko gorabera guztien berri dakien apaiz On Ramonek egiten diona. Orain gelditzen naiz berorren iritziaren zai.

Irakurri ondoren, utzi beza mesedez or sarreran dagon emakume gazte orreri. Ni neronek jasoko dut emendik zazpi edo zortzi egunera.

Barkatu eta, eskerrak aurretik emanaz, agurtzen du adiskide berri onek: Juan Jose Irazusta.»

Ondoren, makinaz idatzitako orriak irakurri nituan. Irazusta'k zion bezela, euskaldun batek, Patagonia'tik, Argentina'ko presondegitik, Euskalerrira bere gurasoei egiten zien eskutitza zan; eta atzetik soka luzea etorri bearra. Orregatik, artikulorik ez; nobela baten asiera genduan. Eta, asiera ori ona iduritu baitzitzaidan, une berean egillearekin artu-emanetan astea erabaki nuan.

Bañan Irazusta'k etzuan bere zuzenbiderik jartzen. Orregatik, sobrearen atzean idatzita zegoan etxera joan nintzan arratsalde artan bertan.

Galdezka ibilli ondoren, Errenteri'ko etxe aundi berri oietako batera zuzendu ninduten. Zazpigarren bizitzako ate batean deitu eta emakume gazte bat agertu zan. Zer eta nola nenbilen adierazi nionean, onela erantzun zidan:

— *Gure aitak idatzia da. Nik makinaz pasa. Gustatu al zaio?*

— *Bai. Eta berarengana joan nai nuke.*

— *Poz ederra artuko du ba. Ondarrabia'n bizi da, Jaizubia ballaran, Zaldunborda-berri ba-*

serrian, Gaintxurizketa'tik beera asi, ezkerretara artu eta berealaxe.

Ara joan eta aiton ximel, argi eta bizi bat agertu zitzaidan, bere pipa eta guzi. Alkarren ezaguera egin ondoren, beraren artikuloaz izketan asi giñan.

Oso nere gustokoa zala eta lan ori aurrera eramateko esan nion nik.

Berak, idatzita zeuzkan gañontzeko puskak nere eskuetan jarri zituan. Bai nik an bertan irakurri ere. Ori egiteak badu bere garrantzia. Naiz eta letra garbia izan, illun xamar daudenak ere beti topatzen dira. Eta, etxera itzulitakoan, nori galdeturik ez dago. An irakurrita, berriz, duda guziak bereala argitu.

Ala, irakurri eta berriketa-aldi bat egin ondoren, etxera abiatu nintzan, idazki oiek nerekin nituala.

Andik aurrera, noizean bein, ni Zaldunborda-berri'ra joaten nintzan eta gauza bera egiten genduan. Juan Josek atal berria ekarri, nik bertan irakurri, dudak galdetu eta etxera. Orrela, pixkanaka, presarik gabe, liburu bukatu arte.

Bere lana egiteko, Juan Jose Irazusta goizean goiz jeikitzen zan, iru t'erdietan-edo. Kafetxo bat madalena batekin artu eta idazteari ekiten zion, etxeko sukaldean, gaueko ixiltasunean, egunsentira arte. Onela esaten du orain:

— Ez dakit zer aterako zan. Liburu dana illunpetan egiña da.

Auspoa'k baditu prosazko beste liburu batzuk, orain baño len argitaratuak. Bañan beste

*oietatik geienak lan geiago eman digute. Egillea-
rengana joan; askotan, esan bearrak galdezka
atera; sinopsis bat idatzi eta egilleari utzi. Bidea
markatu alegia, atal bakoitzean edo geienetan.*

*Oraingo ontan ez, ordea. Asieratik bukaera-
ño, Irazusta'k bere bideak ibilli ditu, guk ezer
ere lagundu gabe.*

*Obeto esateko, berak bere bideak asmatu di-
tu. Izan ere, beste prosa-liburu oietan, berari
gertatuak ezarri ditu egilleak paperean. Oroipe-
nak dira; memorias.*

*Irazusta onek berriz, nobela jator bat egin
du, kontraera-bidea edo argumentoa eta persona-
jeak ere asmatuaz, irakurleak ikusiko duanez.*

*Asmatu ez-ezik, bere iduripenetik sortutako
gertaerak eta kristau oien gora-berak bizi egiten
zitian. Bein baño geiagotan, beraren etxera joan
eta alkar agurtu orduko, onela esaten zidan:*

*— Martiñi gogorra pasa zaio. Ola eta ola
ibilli da.*

Edo bestela:

*— Gaur berri onak ditugu. Martin preson-
degitik atera dute. Orain Buenos Aires'en da.*

Azkenetako, aurea nik artzen nion:

*— Zer moduz bolara ontan Martin eta pa-
milia?*

— Ondo. Lanean txintxo-txintxo ari dira.

*Are geiago. Batean, despedidakoan, bere kon-
taera andik eta emendik eramango zuala esaten
jardun zitzaidan. Bañan urrena joan nintzanean,
onela esan zidan:*

— Ez. Beste bide bat artu dut. Persona geiegi kastigatzea zan.

Alegia, bere iduripenean beste inun bizi etziran kristau oietaz urrikaldu eta kontaera aldatu

Nobelagille jator baten sena erakutsi digu, beraz, Irazusta'k. Ori nundik zetorkion jakin naiean, onela galdetu nion bein batez:

— Nobelarik irakurri izan al dezuz?

— Bai. Nobela batzuk irakurria naiz.

— Eta zure gustokoenak zein izan dira?

— Nere gustokoenak, nik irakurri ditudan liburu danetan, Don Quijote eta Martín Fierro dira.

Nik bi lan izan ditut. Lendabizikoa, egillea txalotu eta berotu. Egilleak, batez ere berria bada, orixe bear du aurren-aurrena: bere buruarekin konfiantza artu.

Bigarrena, esku-idatziak makinaz pasa. Denbora berean, ortografia-akatsak zuzendu, puntuazioa ezarri, bi bider esandakoak batekin utzi eta abar.

Irazusta'k, alegia, lenengo idazkera egin du. Bañan ondoren zenbat gauza moldatu eta zenbat lan egin bear dan, idazten gutxi saiatu danak ere ondotxo daki. Bigarren zeregin ori neretzat gelditu da. Bañan beti ere azken itza Irazusta'rentzat. Nere lana nik erakutsi eta berak onartu egin duala esan nai nuke.

Orain, Irazusta'ren berri batzuk emango ditugu.

Ondarrabi'ko Kamino-txiki baserrian jai

zan, Jaizubia ballaran, 1901'eko apirillaren 25'an.

Irun'go Lasalle'n egin zituan bere ikasketak. Joan-etorriak askotan oñez. Ondoren, Irun'go denda batean lan egin zuan, dependiente edo saltzalle bezela.

22'ko kintoa baitzan eta orduan Afrika'ko gerra baitzebillen, beraren kinta deitu baño len eta gerratik iges egitearren, 1919'ko abenduan Barcelona'ra joan, Victoria Eugenia itxasontzira igo eta Argentina'ra, Buenos Aires'era, alde egin zuan.

Andik Babía Blanca eta Río Colorado'ra joan zan, eta artzantzan lan egin. Bi toki oietan nagusi bera izan zuan: etxalartar bat, Etxenike, bere osaba izandako baten sozio izana.

Urrengo pausoa Patagonia'ra eta emen ere artzantzan saiatu. Lenengo, Santa Cruz'en, Estancia Cañadón Sargento'n. Ondoren, San Julián'en, Estancia Lai-Haike'n. Indioen izkuntzaz, Lai-Haike itz orrek Haike-erreka esan nai omen du.

Patagonia'n oso banaka omen ziran euskaldunak. Andik ipar alderago, Pampetan alegia, asko.

Erri-izen oiek, Babía Blanca, Río Colorado, San Julián eta Santa Cruz, nobela ontan ere azaltzen dira. Izen oiek ez-ezik, lurralde aietako gorabera asko ere bai. Len esan bezela, kontraerabidea eta personajeak asmatuak dira. Bañan beste oiek ez. Oiek, an ikusiak eta ikasiak alegia, Irazusta'k liburuan ixuri ditu.

Alderdi aietan beti ondo artua eta ederki bizi izan zala aitortzen du Irazusta'k ao betean.

Bañan jaiotako lurrak beti tira egiten. Ala ere, prófugo joana baitzan, ezin onerako biderik artu.

Amabi urte egin zituan Argentina'n. Amabigarrenean, 1931'an alegia, España'n errepublika jarri zan, eta orduan ateak zabaldu eta etorri.

Bere aita zanak bi baserri zituan: bat, Kaminotxiki, familia bizi zana; bestea, Zaldunborda-berri, etxe xar bat, utsik. Onako au berritu, bertara emazte bat ekarri, familia azi, lurrak landu, Errenteria'ko esmalterian ogei eta bederatzia urtean lan egin; ori izan da, Ameriketatik etorri ezkeroztik, Irazusta'ren bizitza.

Orain, berriz, erretiroa artuta dago. Etxeko baratza eta lurrak zaintzen ditu. Seme-alabak kanpora ezkondu zaizkio. Etxean, senar-emazteak pake-pakean.

Eta une orretan, bere burua bizi bearraren burrukatik libre antzean ikusi duanean, liburu au idazteko buruzbidea artu.

Zorionak, beraz, Juan Jose Irazusta'ri. Zorionak eta esker milla. Makiña bat euskaldun or ibilli da, mundu guzian barrena: indianoak, mariñelak, pelotariak, mixiolariak, musikalariak, politikagatik alde egiñak eta abar. Zer kontatua geientsuenak izango zuten. Bañan papereratu dutenak, esku bateko beatzekin konta litezkela us-te det.

«Largos en facellas y cortos en contallas» esan zuan gugatik norbaitek. Eta esaera ori burua gora altxata errepikatzen degu. Ederki eman ere. Literatura egiteko oso motzak izan gerala esan nai du, bañan ez gera orretzaz jabetzen.

Eta ala, umildu bearrean, puztu. Berez lotsakizuna dana, arrokeri biurtu. Ondoren, euskeraren egoera larria nundik datorren galdetuko degu.

Itz batean esateko, tonto arroak baño, Juan Jose Irazusta bezelako umil argiak on geiago egi-ten diote Euskalerrinari.

Orregatik, berriz ere, zorionak eta esker milla.

A. Z.

MARTIÑEK BERE GURASO ETA SENIDEERI

Nere guraso eta senide maiteak:

Gaurko eskutitz onekin, orain Buenos Aires'en ez nagoela esan nai dizutet. Lenago baño urrutiago nago, Tierra del Fuego deitzen zaion ugarte batean. Bere kapitala. Ushuaia.

Onera etorri nintzan; obeto esateko, nerekin agintzen dutenak ekarri egin ninduten. Ez nuen ezer ere ordaindu bear izan. Itxasontzia eta gañontzeko gastu guziak utsean. Amar lagun, geuren zaintzalleekin, etorri giñan.

Tierra del Fuego, Buenos Aires'tik urruti dago. Sei egun iraun zuen gure ibillaldiak. Patagonia'ko itxas-ertzez etorri giñan. *Ballenato* batzuk ere ikusi genituen, ura gora botatzen eta jostatzen.

Itxasontzia portu danetan gelditzen zan: Puerto Madryn, Comodoro Ribadavia, San Julián, Santa Cruz, eta, azkenik, Punta Arenas eta Estrecho de Magallanes.

Emen, bi itxaso izugarri oien urak naasten dira: *Océano Atlántico* eta *Océano Pacífico*; eta noiz-beinka beren aserrea azaltzen dute, itxas-bazterrak jo eta puskatuaz.

Estrecho de Magallanes pasa ta gero, Tierra del Fuego dago, eta nere ibillaldia ortxe bukatu zan.

Emen bizi naiz orain, itxas-ertz zoragarri on-tan, nere lagunekin. Ez dut Buenos Aires'en aibat irabaziko. Oraindik ez didate ezer ere ordaindu.

Buenos Aires'en beldurrak bizi nintzan. An-go auto eta nunai bonba eta arriskua; eta, gañera, kiratsa alde guztietan. Emen, berriz, aize fresko eta osasungarriak. Zertarako da dirua, osasuna galtzezkerotan?

Etxe aundi batean bizi gera, munduan dan tokirik seguruenean. Emen ez digu iñork ezer egingo. Gau eta egun, gure segurantiagatik, iñork kalterik egin ez dezaigun, or dago *la guardia permanente*, beren pusillekin. Gaurko mundu beldurgarri ortatik urruti bizi gera.

Zenbat ordainduko ote luteke gaurko *millonario* askok, onelako toki batean bizitzeagatik? Naiz berak naiz beren semeak noiz sekuestratuko dituzten, beti urduri bizi dira. Emen balira, ez luteke orrelako kezkarik izango.

Gu bizi geran tokia, ugarte bat da. Emen artalde izugarriak omen dira; eta bei eta zaldi asko ere bai. Guk, barruko berri bakarrik dakigu; ez baigera iñora irteten.

Goizean, danok batean jaikitzen gera. Bazkaria ere, danok alkarrekin. Eta oera ere, danok ordu berean.

Jantziak ere danok berdiñak ditugu, bein ere modatik joango ez diranak: barratuak, fubolistak bezela. Aiek barrak goitik bera dituzte, eta guk zearka.

Bakoitzak geuren numeroak ditugu. Nik 56 daukat. Mordoska bagerala esan nai du orrek. Numeroz deitzen digute. Bañan neri *el vasquito* esaten didate.

Emen, berrogei ta amar urte daramazkitenak ere badira. Eta, esaten dutenez, sekulan etzan onera euskaldunik sartu. Ni lenbizikoa. Orrek poza ematen dit. Alegia, euskaldunak ere, besteak muturra sartzten duten tokian sartzten dutela.

Goizean, arrobian lana egiten degunak, danok geuren karretillakin irteten gera; eta, erdaldunak esaten duten bezela, bide txiorrean barrena *en fila india* joaten gera, zaintzalleak fusillakin bazterrean ditugula. Arrobian karretillak betetzen ditugu, gero berreun bat metroan eraman eta an ustu. Orrela goiz guztian. Arratsaldean, berriz, arri ori artu eta ostera arrobira. Sekulan bukatuko ez dan lana, beraz.

Nere lagunetan badira batzuek, anketatik anilla bat kate bati lotu eta muturrean bola bat arrastaka dutela, beren karretillakin gu bezela dabiltzanak. Eta oraindik umorea badute, beste lagun kateduneri desafioa egiteko, laixterketan zein baño zein arrobira lenago joan eta zein le-

nago etorri. Oek dira mutillak! Denbora gutxiko izaten dira laixterketa oiek. Ankak zauritu egiten zaizkate eta odoletan asten dira. Urrikalgarriak benetan.

Kate eta bola oiek, oso biurriak diraneri jartzzen dizkiote. Gabean, lotarakoan, kendu; eta goizean, arrobirakoan, berriz ipiñi.

Emen ez dira danak arrobian ibiltzen. Badi-ra *cocinero*, *panadero*, *peluquero*, *sastre* eta beste lantegitakoak. Emen dana geuk egin bear izaten dugu. Emen ez dago neskamerik, ez *ama de llaves* eta *ayuda de cámara*'rik edo orrelakorik. Eta danok kaskamotz gera.

Ille-moztallea beltz bat da; ijito antzeko bat. Sarritan mozten digu illea. Makina aundi bat du, eta arekin ille batzuk moztu eta beste batzuk ondotik atera. Guk karraxi batzuk egiñagatik, etzaio ajolik.

Nere lagun bat mekanikoa da; eta makina ori lasaitua zegoela eta berak ondo ipiñiko ziola esan zion. Bañan ille-moztalleak erantzun zion:

— Ez; nik ordena daukat, makina ori dagoen bezela ibiltzeko. Ori ezin liteke ez estutu eta ez lasaitu.

Orregatik, astamoztalle orren aurrean jartzeko beldurrez gaude. Ez dugu ezer ere ordaindu bear; ez baitu *perfume* eta usai goxokorik botatzten. Guk begietatik malko ederrik bai.

Buru makur eta txintxo dabillenari ez diote ezer egiten; ondo ikusia izaten da. Bañan tontor arro diraneri, burua azkar asko makurtzen diote.

Emen, ugarte onetan, indioak era ba omen dira. *Los indios Ona* esaten diote. Nola ote dute izen ori munduaren azkeneko mutur onetan? Guk, euskaldunak, ez al dugu indio azkar eta indartsu oekin zerbait senidetasun izango?

Lenago indio asko omen zan. Bañan ganaduzaleak onera etorri ziranean, etzitzaioten emen indiorik komeni eta eiztariak jarri eta al zuten guztia iltzea erabaki zuten.

Gauza oek jakin nai badituzute, irakurri itzazute *Patagonia trágica* eta *Orgía de sangre*, Dr. Borrero'rena. Txeeetasun guztiakin kontatzen da or, ganaduzaleak edo, emen deitzen dioten bezela, *pobladores* dalako oiek, indio gizarajo oekin zer egin zuten.

Ganaduzale oiek, emengo lur eta gauza guztien jaun eta jabe izan nai zuten. Orregatik, indio gizarajo oiek iltzeko, iñon diran maltzurkeri guztiak asmatu zituzten. Eiztariak ipiñi eta indio bakoitzaren buruagatik onenbesteko bat ordaintzen zioten.

Gañera, erromeriak ere egiten zituzten itxasertzean, al zituzten indio guztiak iltzeko. Ortarako, tokirik oberenak billatzen zituzten, indioak itzul etzezaten. Erderaz esaten dan bezela, *lugares estratégicos*. Eta an soñua eta alkoola eta edari zikin guztiak eman, mozkortu eta zoratu arte. Gero, alde egiteko toki jakiña zuten. Bañan an zeuden eiztariak beren izkilluekin, banan-banan danak botatzeko.

Gezurra dirudi, bañan egia da. Gauza auek, orain dala urte asko gertatuak dira. Gaur egun

diran indioeri, ez diote tirorik botatzen; bañan bai pixkanaka-pixkanaka mendi aldera uxatu.

Ikusten duzutenez, nere guraso maiteak, gauza asko ikasi dut. Asko irakurtzen dut eta, iñora irteten ez baigera, emendik ilustratua irtengo naizelakoan nago.

Nere lagunak, arrobiko lanari *trabajos forzados* esaten diote. Ez baitute sekulan lanik egin. Ikusi bear da, onera datozenean, nolako esku legunak ekartzen dituzten. Ez nik ekarri nituenak bezela, zakarrak eta kalloz josiak.

Oetan batzuek, berak esaten dutenez, karteristak omen ziran, eta geienezan *en compañía* lan egiten zuten. Esan nai du: bost edo sei elkarrekin.

Bañan lagun-arte ortan sartzeko, proba asko egin bear dira lendabizi. Bata, gizon-irudi bat ipiñi, bere arropa guztiekin eta patrika bakoitzean kartera bana duala; gero, irudi orri txintxerri txiki batzuk jarri eta kartera kendu. Bañan txintxerriak ixilik egon bear; ots egiten bazuten, berriz ere proba berria, alik-eta ondo ikasi arte. Bestela etzegoen konpañi ortan sartzerik.

Danetan samurrena, jende asko dagoen tokian emakumeeri bolsoa ostutzea omen da. Geienak, bolso oiek bizkarretik zintzilik ibiltzen dituzte, eta, jende tartean estu dabiltzan tokian, oiek ostutzea jostaketa bat omen da.

Geiago ere kontatuko nizuteke, bañan geiegi luzatuko nintzake. Au bakarrik esango dizutet: arrobian tarteka egon-alditxo batzuk egiten

ditugu, zigarro bat edo beste erretzeko, eta len-
go egun batean onela deitu zidan batek:

— *Che, vasquito, venid p'acá.*

Joan nintzan eta esan zidan:

— *Dame fuego.*

Nik, eskua patrikan sartu eta esan nion:

— *He perdido las cerillas.*

— *No, no las has perdido. Aquí están.*

Nola demontre kendu zizkidan patrikatik
poxpolo aiek? Oiek sorgin-eskuak dituzte eta er-
ne, mutillak! Euskalerrian ere ba omen dira
orrelakoak.

Emen oiek duten naigaberik aundiena da,
beren esku legun oiek arrobiko lanetan zakartu
egiten zaizkatela, eta askotan odoldu ere bai.
Etzaizkit neri odoltzen, eta ez lenago baño geia-
go zakartu ere.

Izan ere, aitak eta gu bi anaiok, Euskalerrian,
gure baserri aldapatsu eta neketsu artan egiten
genituen lanak! Basoak bota, oianak garbitu eta
patata erein; garoak ebaki eta etxera eraman;
belarrak ondu eta metak egin; ganadu-jana eba-
ki eta askotan bizkarka etxeratu; gañera, urtero,
gure etxe ondoko aldapa izugarri ura aitak eta
arrebak goldetu, eta gu, bi anaiok, xextoketan bi
illera lur betik gora eraman.

Ura bai zala lana eta *trabajos forzados*; ez
emen kontu kontari karretillarekin ibiltzea. Ga-
ñera, ez digute pisu aundirik jartzen. Bere itxu-
ra batean arri batzuk ipiñi eta aurrera, mutillak!

Emen alkoolik ez dugu; danok *a régimen*
gaude. Egarritzen geranean, naiko ura edaten

dugu. Emengo urak, itxasora mendiak beiti sal-
toka datoz. Zenbait tokitan artuko lituzteke orre-
lako ur garbi eta osasungarriak. Onak dirala du-
darik ez da. Emen danok osasun ona daukagu
eta bizitzeko gogoia.

Onezkero, nun nagoen antzeman diozute.
Bai, emen nago, txoria kaiolan bezela, ariztiak
eta zelaiak amets. Barru ontatik, itxas-txori *al-*
batros eta beste txori batzuk, gure gañetik, egoak
zabal-zabalik, ikusten ditut, beren eguneroko ibi-
llaldian, noiz-beinka lepoa okertuaz eta guri be-
giratuaz. A, egoak baldin bagenitu!

Emen denbora askorako ez naizela uste dut.
Nere lagunekin eta agintzalleekin oso ondo era-
maten naiz. Beti zintzo eta umil nabil, eta emen
orixe bear da. Sorpresa aundiak izaten dituzte
batzuek emen. Gutxiena uste dutenean, aginta-
riak deitu eta esaten diote:

— Zu bazoazke zere etxera lendabiziko itxas-
ontzian. Emengo lanak zuretzat bukatu dira.

Noizik bein, batzuek etxera bialdi egin bear
dira. Bestela, datozen berrientzako ez litzake to-
kirik izango. Gero eta geiago datoz, eta ikusi
egin bear da, traje barratu ori jaztean, nolako
begiak jartzen dituzten.

Baita ere esan bear dizutet, arri jasotzen ere
noiz-beinka jarduten naizela. Emen arri zakarrak
aukeran daude. Tarteka saio batzuk egiten di-
tut, eta danak arrituta egoten dira, orrenbesteko
arria bizkarrera nola jaso liteken.

Aizkoran ere saiatzen naiz, surtarako egurra
txikituaz.

Gaurkoz bukatzera noa. Etzazutela nigatik kezkarik eduki. Nik osasun ona daukat; zer jana ere badago; lana ere bai; apetitu ona eta lo ondo egiten dut gau guztian.

Orain zuen berrien zai gelditzen naiz. Ez duzute nik ainbat denborarik izango, bañan zer edo zer jakin nai nuke: aita eta ama, anai eta arreba, danok nola zeraten. Eta auzoko nere lagun Ixidro eta gañontzeko guztiak nola arkitzen diran. Lenbailen biali neri orko goraberak.

Goraintziak daneri, eta Jaunkoikoak nai duen arte emen gelditzen naiz. Besarkada bat danori, zuen seme eta senide:

Martiñek.

Zuzenbidea: Martin Goikoa, *Penitenciaría Nacional. Ushuaia. Tierra del Fuego, Argentina.*

AITAK SEMEARI

Nere seme Martin:

Ire eskutitza orain dala illabete bat artu diagu, eta arriturik gelditu gaituk danok, ni lenda-bizi naizela. Ire amak ere, irakurri zuenean, onela zioken:

— Aitaren eta Semearen...! Au ezin dut nik sinistu; Nola liteke Martin orrelako toki batean egotea? Zer egin du? Bakarren bat edo geiago il edo zer?

Gañera, oraindik lendabiziko euskalduna airtortzen duk or sartua, eta onek poz aundia ematen dikela; euskaldunak ere besteak muturra sartzen duten tokian sartzen ditekela. Iri poza emango dik, bañan ez guri. Guk naigabe izugarria artu diagu.

Lenago ere alproja xamarra intzan, eta orain aundiagoa. Xuxen ibilli izan baintzan, ez uen traje barratu ori jantzi bearrik izango.

Alde batera, orain gertatzen zaizkiken nalezak mereziak dituk. Ik egin dituk izugarriak! Kaxilda postura artan utzi eta Ameriketara iges! Orain emen zegok bere Josetxorekin, indianoa noiz etorriko dan.

Gañera, ire eskutitzean jartzen duk, amar bat lagun itxas-ontzian Patagonia'ko itxas-ertzez joan ziñatela, bazterrak ikusiaz. Eta ezer ere ordaindu gabe. Ori duk suertea! Ire aita, urrutiena Bitori'ra eta Donosti'ra joan izan duk. Gañerako denbora guztian ementxe baserrian, sasi tartean, zozoak bezela. Bañan batere damurik etzeukat.

Orrenbeste portu ikusi eta gero, zuen ibillaldia bukatu zala, eta orain etxe aundi batean zaudetela, munduan dan tokirik seguruenean, zeuen zaintzalleekin. Bai, itxura ederra ematen zidak neri gauza orrek!

Gañera, or barruan dauden oiek ire lagunak omen dituk. Bejondeikela! Lagun onak dakazkik! Karteristak eta eriotzak egin dituzten salastrajorik aundienak.

Ire eskutitza artu nuenean, zer egin ez nekiela gelditu niñuen eta On Ramon apaizarengana jo nian. Eta, ire eskutitza erakutsi nionean, arriturik esan zidaken:

— Martin, Argentina'ko presondegirik gogorenean dago. Emen, nazio ortako gaiztoen-gaiztoenak arkitzen dira, batzuk lan gogorretan eta beste batzuk beren bizi guztirako giltzapean.

On Ramonek, iñori etziola ezer ere esango esan zidaken, eta eskutitz ori iñori ez erakusteko.

Etziogu iñori erakutsi, ez baita erakusteko modukoa. Bakarrik esan dugu, ire berriak badi-tugula eta oso ondo aizela.

Auzoan ori jakin zutenean, galdetu zuten:

— Zer egiten du orain Martiñek?

Eta guk zerbait esan bear eta:

— Martin orain transportean dabil.

— Bere kontu ibilliko da, ba?

— Bai, ala dabil.

Martin nun dagoen baldin balekite, a zer berriketak eta marmarrak! Bai, transportean dabil, bañan esku-gurdi edo karretillarekin, arria aruntz eraman eta onuntz ekarri.

Esaten duk, gañera, batzuk kate eta bola bat anketik lotu eta arrastaka daramatela. Motell, etzakela orrelakorik idatzi! Ura irakurritakoan, ama negarrez jarri uen. Esaten zuen:

— Gure Martin oiekin batean! Zer egin ote du?

— Ez dakigu! Bañan gauza onik ez!

Naiko ura edaten dukela ere aitortzen duk; mendian beiti saltoka datorren ur osasungarria. Ur ori ona izango duk, bañan nik naiago diat gure sotoan etzanda geldi-geldirik dauden botilla sagardo oietako bat edan.

Orko indioak *los indios ona* esaten duk. Bai, indioak izango dituk onak, bañan zuek gaiztoak.

Asko irakurtzen dukela aipatzen duk, eta, denbora asko or igarotzen baduk, oso ilustratua irtengo aizela. Bai, alaxe uste diat nik ere. Izan ere, orrelako lagunekin eta unibersidade ortatik, derrigor irten bear ilustratua.

Pelukeroa ere astamoztalle orrelako bat dala esaten duk, eta makina aundi batekin ille batzuk moztu eta beste batzuk atera egiten dituela. Bañan ezin litekela makina ori ikutu; orrela moz-

teko ordena duela. Ori zergatik? Zuek pixka bat zigortzeagatik.

Ire eskutitzean diok, emen baserrian egindako lanak *trabajos forzados* zirala, aldapan gora zestoketan lurra eramaten. Lenago bi anaien artean eramaten zenuten; bañan orain Pellok bakarrik eramaten dik, eta, gañera, txistik egin gabe.

Ez ori bakarrik; gañontzeko baserriko lan guztiak ere bai. Fabrikan erreleboan lan egiten dik. Zortzi ordu an pasa ta gero, gañontzeko denbora guztian etxeko lanetan. Orren bearra bazegok emen.

Terexak, amari lagundu eta goizean esnea Anbroxiori bide-bazterrera eraman.

Gu emen, len bezela bizi gaituk.

Bañan orain kezketan gatxiok, ire etorkizunari begira. Ik ez duk esaten zer egin duken; bañan zerbait gogorra bai. Bestela ez intzan or egongo.

On Ramonek ere idatziko dikela uste diat. Ik badakik gu zenbat maite gaitun eta zenbat aldiz berarekin aitortu aizen. Lenago, ondo baño obeto zekien ire berri. Bañan orain, zuen bien tartean ataka bat zegok.

Kaxilda noiznai etortzen duk gure etxera, bere eta ire Josetxorekin. Orain bost urte zeuzkak, eta oso mutil ederra duk.

Goraintziak danon partetik, eta etxe aundi ortatik lenbailen irten. Guk ola opa diagu.

Ire aita:

Patxi.

KAXILDAK MARTIÑI

Aspaldiko nere lagun Martin:

Zure aitaren ondoren, nik ere nere gorabera edo kezka batzuk idatzi nai nizkizuke.

Zuk emendik alde egin zenuela sei urte igaro dira, eta, zure gurasoeri egin izan dizkiezun eskutitzetan, ez nazu sekula aipatu ere. Gogoratu bear zenuke, besterik ez bada ere, emen utzi zenuen landare txiki ori.

Aunditzen ari da. Baditu bost urte eta geiago. Oso mutil polita da, eta pizkorra. Danak txoraturik daude berarekin, Josetxo andik eta Josetxo emendik, danen jostallua. Eta ni, beragatik zer egin ez dakidala. Berak ematen dit bizitzeko gogoia.

Gañontzekoan, nere inguruan alaitasunik ez dago. Emen, Beko-errota'n, egun guztiak berdin igarotzen dira neretzat. Bein irakurritako jakintsu baten itz auetaz askotan oroitzen naiz: «Maitasuna, biotza argitzen duen eguzkia da. Maitasunik gabeko biotzak, beiñere argitasunik sartzen

ez dan zoko illunak dira. Zoriontsua biotza eta maitasuna dutenak. Lurralde eta eguzkia oientzat dira.»

Bai, Martin, bai. Illuntasuna biotzean eta illuntasuna gu bizi geran erreka ontan. Noiz-beinka, eguerdi aldera, eguzkia pixka bat azaltzen da, aritzen ostotartetik zoko au argitzera, bañan berealaxe osteragordetzeko. Etxearen inguruguztian, basoa, untza, goroldioa eta erreka mospela. Ori da gure Beko-errota. Emen nago ni, gure Josetxo eta aita eta amarekin.

Aita ere askotan mintsu dago, eta ganadujanak eta gañontzeko lan guztiak neronek egin bear izaten ditut. Gañera, amari lagundu ere bai; eta goizean goiz esnea Anbroxiori bide-bazterreran eramana.

Aste guztian onela, eta jai-egunean auzoko emakume zar eta amonekin elkar-izketan. Oiek dira nere lagunak.

Nere edadeko gazteak or dabilta, batzuk ezkonduak eta beste batzuk beren mutillekin, alde batera eta bestera. Ni, ardi galdua bezela, zarretara urbildu bear.

Sarritan, nere etorkizunari begira negarrez egoten naiz. Oraindik gaztea naiz, bañan bide guztietan atakak ikusten ditut. Zer egin bear dut nik, Martin?

Nik badakit zuk okerren bat egin duzula eta presondegian orregatik zaudela. Zer egin duzun ez duzu esaten, bañan aundi xamarra noski. Nik oraindik ere maite zaitut, Martin, eta gizon bategin lezazken gaiztakeririk gogorrenak egin

badituzu ere, danak barkatzen dizkizut. Bañan nik, zu argi eta garbi mintzatzea nai nuke.

Etxe aundi orretan zenbat denboran egon bear duzun ez dakit. Irten eta gero zer pentsamentu dituzun ere ez. Bearbada, etzera onera geiago etorriko. Badirudi nitaz oroitzen etzerala. Orregatik, zuk zerbait esatea nai nuke.

Zuk alde egin zenuela urte batzuk badira; eta, seguru asko, etortzeko ere beste batzuk joango dira. Esan zaidazu, Martin, nitaz oroitzen zeran ala ez. Ez baduzu geiago nerekin ezer ere nai, denbora alferrik galtzen ari naiz eta beste bide bat artu bearra daukat.

Nik baditut ondo egiten didatenak eta bearbada nerekin ezkondu lirakenak. Bañan nik ez diot iñori ere aurrerabiderik ematen. Oraindik esperantza badut, zu noizbait etorriko zerala.

Zuk esaten duzunez, or uste gabeko sorpresak izaten dira, eta, konduta ona dutelako, asko etxera bialtzen dituzte. Ea, ba, Martin, zu oieta-ko bat zeran. Izan zaite danekin ona.

Nik zugatik egunero otoitz egiten dut, eta Jaunari nere lan eta naigabe guztiak eskeintzen dizkiot, zure askatasunerako izan ditezen.

Ni lerro auek idazten ari naizela, Josetxo etorri da eta galdetu dit:

- Zer egiten duzu, amatxo?
- Eskribitzen ari naiz, Josetxo.
- Nori?
- Nere aspaldiko lagun bati.
- Zein da lagun ori?
- Zuk ez duzu ezagutzen, urruti bizi baita.

Bai, urruti bizi zera; On Ramonek dionez, ia munduaren azkeneko muturrean.

Askotan egoten naiz pentsatzen, zergatik iges egin ote zenuen. Ez giñan beiñere aserratu, eta egun batetik bestera Ameriketara joan ziñan. Zergatik? Lotsagatik edo bizimodu berri bat arzteko beldurragatik?

Etzenuen orrelako erabakirik artu bear. Len ere orrelako gauzak gertatu izan dira, eta geroago ere gertatuko dira noski. Emen gelditu baziña, onezkero, oker ori zuzendu eta danok alkarrekin biziko giñan.

Jose txok askotan esaten dit:

— Nun da nere aita?

— Zure aita oso urruti da, Jose txo. Bañan diru askorekin etorriko da eta gero danok ondo biziko gera.

Bai, bearbada ondo biziko giñan. Bañan orain ni gaizki eta zu gaizkiago. Guk emen, zu transportean zabiltzala eta oso ondo zerala esaten dugu. Zer esango dugu, ba? Ezin liteke egirik esan eta zerbait asmatu bear.

Ixidro askotan oroitzen da zutaz, eta zer diozun galdetzen digu. Baita ere gañontzeko familiariko guztiak.

Sarritan zuen etxera gure Jose txorekin joaten naiz, eta zure amak, zu aipatu ezkerro, negar egiten du. Aita gogor xamarra da eta esaten du:

— Biurria baldin bazan ere, xuxenduko dute. Ez dago toki txarrean.

Pellok eta Terexak, zuregatik naigabe aundia daukate. Askotan esaten dute:

— Noiz ikusiko ote dugu berriz Martin? Auskalo!

Pelloc lan asko egiten du. Erreleboan lan egiten du eta al duen guztian aitari lagundu. Aita eta biak oso langilleak dira eta baserria oso txukun daukate.

Gañontzekoan, zer esango dizut? Emen na-goela ni zure berrien zai, eta lenagokoak baño obeak izaten ditezela.

Eskutitz onetan, nere eta Josetxoren argazkiak bialtzen dizkizut. Ikusi ezazu zeñen mutil polita dan, zuk ikusi nai izan etzenuen mutiko ura.

Gaurkoz besterik gabe, eta, eskutitz au zureganatzen danean, osasun onarekin arkitu zaitezela. Nik ala opa dizut.

Goraintziak zure guraso eta senideen partetik, eta oroitu zaite Beko-errota'ko Kaxilda emen gelditzen dala. Lenbailen idatzi zaidazu, mesedez.

Besarkada batekin, zure aspaldiko adiskide:

Kaxilda.

MARTIÑEK ON RAMON APAIZARI

On Ramon agurgarria:

Badakit berori neri idaztekotan dagoela; bañan oraingo ontan aurrea artu diot. Berorrek badaki ni nun nagoen, bañan ez zergatik. Ori geroxeago jakingo du.

Nik aitortu nai nuke. Bañan On Ramon emendikan ain urruti dago...

Emen ere badugu apaiza. Sarritan etortzen da gure artera, gurekin jardunaldiak egiten ditu, eta konseju onak eman ere bai. Batzuk berarekin aitortzen dira. Neri ere esaten dit:

— *¿Tú no te confiesas, vasquito?*

— *Por ahora no. Ya hay tiempo.*

Eta esan zidan:

— *No, no hay tiempo, porque puedes estirar la pata de un momento a otro.*

Onelako ateraldiak ditu apaiz orrek. Alde guztietan dabillen apaiza da. Onera zaldiz etortzen da; gañera, zaldi begi-bakarra dauka. Orain aurreko batean esan zidan:

— *¿Sabes montar a caballo, vasquito?*

— *No he montado nunca.*

— *Pues a ver cómo montas. La rienda del lado de montar siempre más corta. Al caballo siempre hay que doblarle la cabeza hacia ese lado, y sujetarle para que no salga corriendo. Ahora pisa el estribo y arriba.*

Eta ni nolabait ere igo nintzan, eta, makurtu eta eskubiko estriboa eskuekin ankan ipintzen ari nintzala, begi bakar arekin begiratu eta salto bat, eta Martin lurrera...

— *¡Qué chambón! Estás bueno tú para montar los caballos de aquí.*

Apaiz orrekin aitortzea bein baño geiagotan pentsatu izan dut, bañan nik ez dakit pekatuak emen nola esaten diran. Ni beti euskeraz aitortu izan naiz; gañera, On Ramonekin. Besterekin sekula ere ez. Eta orain, nola aitortuko naiz, ba, apaiz gautxo orrekin? Ezin asiko naiz, apaiz orri nik egindako pekatuak keñuka adierazten.

Ez dakigu, On Ramon, elkar noiz ikusiko dugun; bañan ezin al liteke eskutitez aitortu? Nik badakit, aurrez-aurre aitortzea bezela ez dala; bañan ez al litzake batere ez baño obea izango? Gero, berorrek eskutitz batean absoluzioa eta penitentzia ipiñi. Esan beza balio duen ala ez.

Esan bearrean nago, otoitzak ere batzuk aztuta dakazkitela. Aita gurea eta Salbea ondo dakizkit. Nere Jesukristo Jauna eta Ni pekataria aztuta dauzkat. Kredoa, berriz, erdizka bakarrik dakit. Oneraño, igo zala eta jetxi zala, ondo irixten naiz; bañan ezin ortik aurrera segi.

Orregatik, mesedez eskatzen diot, neri idazten didanean, otoitz oiek paper batean ipiñi eta onera bialtzea. Len nekizkien bezela ikasiko ditut.

Beste kezka bat ere badaukat. Ameriketara etortzerakoan, izeba Joxepak beti nerekin ibiltzen dudan gurutze bat eman zidan. Berandu xamar gogoratu zala esan zidan, eta ekartzera laixterka joan zala. Berak ipiñi zidan lepoan, esanaz:

— Jaunak, mundu ontako tentazio guztietatik libra zaitzala!

Bañan, nere ustetan, gurutze ori bedeinkatu gabea da. Izebak ez baitzuen ori bedeinkatzeko astirik izan. Nik, emen ere, Euskalerrian nere ondotik zebillen deabru ura berbera daukat. Ni nora, ura ara, beti nere atzetik, beti neri zirrikaka, belarri-ertzean esanaz:

— Martin, mundu au oso atsegiña da bizitzen dakitenentzat. Etzaite ain tontoa izan. Esnatu itzazu lozorroan dauden begi oiek, eta ainbeste gauza zoragarri ikusiko dituzu.

Nik, deabru madarikatu au nere ondotik bein betiko uxatzea nai nuke, eta pakean utzi nazala.

Orregatik, On Ramon, berorrek gurutze ori bedeinkatzea nai nuke. Nik kajatxo txiki batean bialduko nioke; eta berorrek, ni bataiatu ninduten ponte edo ur bedeinkatu ontzi aundi artan sartu beza, emengo gaizto-usaiak kentzeko. Gero, berorrek ondo dakizkien latifnezko otoitz batzuk esan, ondo bedeinkatzeko. Eta, urrena, al-dare nagusian ipiñi, eta datorrela berriz onera

gaiztoen ondora. Bañan etorri dedilla Euskalerriko eliz barruko argizai eta intzieso-udaiarekin gaiztoak ontzera, bedeinka gaitzala guztiok, pekatarri urrikalgarriok, eta bide zuzenean ipiñi gaitzala. Ala izan dedilla.

Gure artean, badira geiago lepoan gurutze edo medallaren bat zintzilik dabilkitenak, naiz erlijio kontuetan atzera egon. Emen asko dira, sinismena dutenak eta Jaungoikoaz gogoratzen diranak.

Emen guk, danetik itzegiten dugu: onetik eta txarretik. Batzuk, Jaungoiko bat dala diote; beste batzuk, bat baño geiago dirala; besteak, daren gañetik mundu arrigarri ontako goraberak dabilzkien norbait badala; eta beste ale batzuk, il ezkerok ez dagoela ezer: zuloan sartu eta kito.

Onela gure arteko berriketak, On Ramon. Batzutan onak eta beste batzutan txarrak, gaiztoak baigera.

Bañan, gaiztorik ez balitz, zenbatek gelditu bearko luken lanik gabe! Ez litzake bear, ez *Palacio de Justicia*, ez tribunalik, ez presondegirik, ez poliziarik. Lege-gizonak ere lan gutxi izango luteke, eta tarte ortan lan egiten dutenak ere bai. Milloika persona lanik gabe. Al duenak al duen tokira jo bearko luke ogi billa. Bañan gaiztorik gabeko mundua atsegiña izango litzake, zoragarria. Orduantxe bai bertan zerua. Bañan gaiztoak lenago ere baziran, orain badira eta gero ere izango dira.

On Ramon, Kaxildak ere eskutitz bat egin

dit, eta aretzaz oroitzen ez naizela esaten dit. Bai, oroitzen naiz; askotan gañera.

Berak dionez, etorkizun illuna ikusten du. Nik zer egingo diot, ba? Nerea ere ez da oso alaia. Nik, emen nagoen bitartean, ezin nezake erabakirik artu. Ez naiz nere buruaren jabe. Bestek esaten didatena egin bearuko dut, eta ez dakit noiz arte gañera. Emendik irteten naizeanean, orduan zer egin liteken ikusiko dugu. Bien bitartean, al duen ondoen bizi dedilla.

Nik badakit, erbestean geranok nola bizi geran askok jakin nai izaten dutela. Orregatik, berorrek nere guraso eta senideeri esan bear diote, zer esaten duten kontu izan dezatela. Asko eta asko entzuten dutena alde guztietara banatzeko prest izango baitira.

Gañontzekoan, zer esango diot, ba, On Ramon? Gure egunak danak berdin igarotzen dira. Egunero lan jakiña: bide txiorrean barrena karretillakin aruntz eta onuntz.

Tarteka lagun berriak ere ekartzen dizkigute. Munduan zear zer pasatzen dan, ango eta emengo gertakizunak, oiek esaten dizkigute. Gu ao zabalik egoten gera entzuten.

Orain negua da eta elur asko egiten du. Batzutan ez gaituzte arrobira eramaten eta barrenean egoten gera. Egun oiek guretzat jai izaten dira. Sua egin eta berotu. Egurra ere, onelako ekaitz-egunetarako beti aurreratua izaten dugu.

Gaurkoz besterik gabe, goraintziak Kaxildari eta nere guraso eta senideeri.

Esan bezela, on Ramon, emen gelditzen naiz ni berorren berrien zai, eta nere agurrik beroena artu beza:

Martin.

MARTIÑEK KAXILDARI

Nere Kaxilda maitea:

Orain dala egun batzuk zure eskutitza artu dut, eta egin nuenagatik lotsaz beterik nago. Garai artan burua arin xamar neukan; bañan gaur ederki makurtuta daukat.

Zure eskutitza artu dudanean eta zuen bion argazkiak ikusi, negar egin dut. Bai, Kaxilda: negar, malco ugariekin.

Zutaz oroitzen ez naizela esaten duzu. Oroituko ez naiz, ba? Gauza oiek ez dira aztutzen; bañan zuk nerekin bukatu zenuela uste nuen. Batetik, zu postura artan utzi eta onuntz etorri nintzalako; bestetik, orain nun nagoen ondo dakizulako.

Zuk badakizu, ni emen zerbaitegatik nagoela. Onera ez dituzte bide zuzenean dabiltzanak ekartzen, okerrak eta biurriak baizik. Eta ni oietako bat naiz. Zergatik nagoen esateak lotsa ematen dit. Bañan oraindik, Jaungoikoak ala nai badu'eta egunen batean biok elkartzen bagera, or-

duan dana esango dizut. Nola esango ez dizut, ba, zuri?

Esaten duzu: «Martin, gizon batek egin lezazken gaiztakeririk aundienak egin badituzu ere, danak barkatzen dizkizut.» Nik merezi ez bezelakoa zera, Kaxilda. Damututa nago Euskalerritik alde egiña, zu orrela utzita.

Etorkizun illuna ikusten duzula diozu. Bai, ez oso argia. Zurea eta nerea, biak berdiñak dira: ni ezin nitekela emendik atera agintariak esan arte, eta zuk zer egin ez dakizula. Bearbada, nik emen uste baño luzaroago egon bearco dut. Gañera, ezer gabe ezin joango naiz orrera. Emendik irtendakoan, berriz ere lanari ekin bear, zerbait aurreratu nai badut.

Emen alferrik daramaten denbora onekin, netzat atzerapen izugarria da. Emen ez baitut ezer ere irabazten; gastatu ere oso gutxi. Zigarrillo batzuk; besterik ezer ere ez. Arropa eta oñeta-koak ematen dizkigute; jaten eta ur freskoa ere bai. Tarteka musean edo trukean ekiñaldi batzuk egiten ditugu, bañan ezer ere jokatu gabe.

Guk ez daukagu emen dirurik. Onera sartzerakoan, danak agintarien eskuetan utzi bear izaten dira. Baita ere erloju edo zerbait balioko gauzarik ekartzen bada. Bakoitzaren arropa, oñetako, diru eta puska guztiak, ondo jasota egoten dira. Bakoitzak zer utzi duen, nota bat artzen dute; eta gero, emendik alde egiterakoan, dana osterara ematen diote. Bañan, zigarrilloak erosteko dirua bear badugu, ematen digute.

Bat, beste lanik gabe, gure diru eta gauzak

zaintzen *contable* bezela dago. Bañan jokurako ez digu dirurik ematen; ori presondegian debekatuta dago.

Ni, zuk dakizun bezela, ez naiz sekulan edarri-zalea izan. Bai, sagardoa gustatzen zitzaidan, bañan bere neurrian. Orregatik, ez dut ur utsarekin mira aundirik egiten. Bañan badira emen batzuk, botilla bat edarigatik zernai egingo lutekenak.

Nazio askok edariak jotako personekin zenbat diru gastatzen duten esan izan didate. *Lucha contra el alcoholismo* dute izena elkarte oiek. Ez al dute oraindik sumatu, gaixo oiek sendatzeko zer egin bear dan? Gu gauden toki onelako batzuk ipiñi, eta urtebete barru ur freskoarekin danak sendatuta.

Orra ba, Kaxilda: emen barruko gertaerak aipatu dizkizut. Bazterreko berririk ez dizut emango, nolakoak diran ez dakit eta.

Orain, gure Euskalerria zenbat aldiz gogoratzen zaidan esan nai nizuke: gure gazte denbora; jaietako mezak; illeroko luistarren biltzarra, On Ramon gidari genduelarik; arratsaldean bezperetara eta gero zozo edo biligarro-kabiak biltzera. Batek orrenbeste arrautzekin, besteak umeekin. Kirkirretan ere ibiltzen giñan, zeñek geiago arrapatu. Txapelan sartu eta etxera. Gero, tomate-potoetan jarri eta ederki kantatzen zuten.

Nik ordurako amasei bat urte baneuzkan, eta nere lagunak ere bai. Gure gazte denbora orrelaxe igaro zan. Gaur ez dut uste edade ortako

mutillik zozo eta biligarro-kabirik billatzen ibiltzen danik; eta kirkirretan gutxiago. Azkeneko tontoak gu izan giñan. Gaur gazteak espabilatua-goak datoz.

Kaxilda: baldin bakarren batek neri eskutitzen bat egin nai balit, bai al dakizu zer pentsatutudan? Nere zuzenbiderik ezin litzaioke iñori eman; eta, norbaitek eskatzen badu, oso aldrebesa eta zalla dala esan, eta On Ramonek makinan egingo duela.

Ortarako, jakiñean jarri bera, eta, edozein dala, eskutitza itxita eman On Ramoni; eta berak, iñork ezer ere igerri gabe, bialduko dit, orrenbeste malizi badauka eta.

Bai al dakizu orrera dijoazen eskutitzekin nik zer egiten dudan? Geienez bada nor edo nor emendik Buenos Aires'era dijoana. Batzutan, etxera bialtzen dituztenak; beste batzutan, gure zaintzalle oietako bat edo beste. Oietako bati eman eta Buenos Aires'en bota. Emen botako banu, selloa *Tierra del Fuego* alde guztietan ikusiko luteke, eta ori naikoa litzake begiak argitzeko.

Orrela ba, Kaxilda, al duzuten guztia lagundu neri, iñork ezer ere jakin ez dezan. Ez nuke nik zuen laguntzarik merezi. Nik egin nuena: zu utzi eta erbestera alde. Eta orain nagoen tokian egonda, zer egin dudan ez dakizularik, dana barkatzen didazula diozu.

Egindako txarkeri guztiengatik lotsaturik eta damaturik nago. Oraindik nigana azaltzen duzun ondo-naiaz, arriturik nago. Bai, zu bezelako gu-

txi daude gaur egun. Beste zenbait izan balitz, nik egindako oker guztiak berak zabalduko zituen. Gañera, zenbat eta geiagok jakin, ura eta naiago. Toki ederrean geldituko nintzan. Zenbaitekin, nun nagoen onezkero erri guztiak bazekien. Bañan zuk, dana nere errua dala jakiñik, ixilik igaro dedin zer egin ez dakizu.

Norbaitek esan zuen: Maitatzen duen emakumeak, eriotza ere barkatzen du; maitatzen ez duenean, ez du birtutea ere barkatzen.

Kaxilda: argi eta garbi itzegiteko esaten didazu. Ara emen nere erabakia: Zuk neri itxogin nai badidazu, bearbada denbora luzean, ni joango naiz eta elkarrekin biziko gera. Bañan zuk badakizu etorrera ori nere eskuetan ez dagoela. Orregatik, aukera oek jartzen dizkizut: Josetxo eta biak, zeure gurasoen ondoan, elkarri lagunduaz, itxogin nai baduzu, ez dakizu nik zer poza artuko nuken. Bañan oso luze izango dala iruditzen bazaizu, eta beste bide berri bat artu nai baduzu, zeure buruaren jabe zera, Kaxilda. Ez nintzake orregatik aserratuko.

Gauza oek ondo konprenditzen ditut, eta, alakorik egingo bazenu ere, len bezin adiskide gelditzen nintzake zurekin. Ni noiz etorriko naitzen zeñek daki? Bearbada emendik bost edo amar urtera, eta zuk bitartean zer egin bear duzu?

Aita askotan gaixo dagoela eta ama ere urtean aurrera doala, eta zuretzat gero eta lan geiago, gero eta bizimodu latzagoa. Bai, Kaxilda; urrikalduta nago zuri begira. Ez da txantxetako, nere erruagatik zuri gertatu zaizuna.

Zure argazkia eta Josetxorena nere aurrean emen dauzkat. Orain ere malkoak bi begietatik ateratzen zaizkit. Gaiztoa izan arren biotz bera bainaiz ni, eta erri-miña askotan sentitzen dut; zuek danok ikusteko gogoia. Bai, Jaungoikoak ala nai badu eta emendik bialtzen nautenean, lenbailen orrera joan nai nuke.

Kaxilda: Josetxo ere aunditzen ari da eta laixter eskola batean jartzea komeni litzake. Ikastetxea zuen etxetik urrun dago, eta Josetxoren joan-etorriak buru-auste bat izango lirake zuretzat. Nik Buenos Aires'en diru pixka bat badaukat, eta, emendik irteten naizenean, zeozer bialduko dizut, Josetxoren ikasketak ordaintzeko.

Bien bitartean, al duzun bezela saiatu zaite. Nik, nere gurasoeri ere zuri pixka bat laguntzeko esango diotet.

Gaurkoz besterik ere ezer gabe, amaitzera noa. Goraintziak nere guraso eta senideeri eta gañontzeko pamiliko daneri. Muxu bat Josetxori; eta zuk, zure lagun zar onen besarkada bat ar zazu:

Martin.

ON RAMONEK MARTIÑI

Nere adiskide Martin:

Orain dala egun gutxi zure eskutitza artu dut, eta beste gauza askoren artean, zuekin sarritan egoten dan apaiz bat or ere badaukazutela esaten didazu, eta tarteka aitortu-naia izaten duzula, bañan pekatuak or nola esaten diran ez dakizula. Ori aitzakia da, Martin. Gogoia izan ezkeroko gauza xamurra da, berak lagunduko lizuke eta.

Gañera, otoitzak ere aaztuta dauzkazula esaten didazu. Ori da lotsagarrikeria, ori! Orrenbeste zabartzea gogorra da orratio! Nun dago denbora bateko Martin, ain elizkoia eta zintzoa?

Gero, Euskalerrian zure atzetik zebillen deabru ura berbera zure ondotik dabillega esaten didazu. Ibilliko ez da, ba? Otoitzik egiten ez baduzu eta erlijioko gauzak alde batera uzten badituzu, ez duzu zure ondotik uxatuko. Gañera, onezkero ondo ezagutzen zaitu, eta alderdi aulazekin duzun badaki, an zirikatzeke.

Lepoan daramazun gurutze ori bedeinkatu gabea izango dala esaten didazu. Bai, ala da; Jo-xeparekin izan nintzan eta bedeinkatu gabea zala esan zidan. Or duzuten apaiz orrek ere bedeinkatuko lizuke gurutze ori. Bañan, onera biali nai baduzu, nai duzunean kajatxo batean ipiñi, nere zuzenbidea ondo jarri eta zertifikatu, galdu ez dedin. Nik bedeinkatuko dut, eta ostera zuregan-na joango zaizu.

Zuk, gurutze orrek joan-etorria egin bitartean, nik bialtzen dizkizudan otoitz oiek ikasi itzazu. Aaztuta badauzkazu, len bezela ikasi bear dituzu. Bestela alferrik gabiltza.

Nerekin eskutitzez aitortu nai zenukela ere esaten didazu, eta absoluzioa eta penitentzia nik gero bialtzeko. Nik ezin nezake ez absoluziorik eta ez penitentzirik eskutitzez bialdu. Ni apaiz soil bat naiz, eta ez naiz iñor Elizako kontuetan xixtima berriak ateratzeko. Orretarako or daude Elizako agintariak.

Zuk esaten duzun bezela aitorketak eskutitzez egitekotan, ez litzake aitor-leku bearrik. Aski litzake elizaren sarreran buzoi batzuk ipiñi, bakoitzak bere pekatuak an utzi eta or konpon. Ez, Martin; Elizako kontuak ezin litezke brome-tan artu. Gauza serioak dira oiek.

Nik konseju bat emango dizut. Zuk, or daukazuten apaiz orrekin aitortu bear zenuke. Noiz aitortu bear duzun berak galdetu zizula; zuk, gero ere denbora badala esan zeniola, eta berak esan zuela: Ez, usterik gutxienean anka luzatu liteke. Orrek badakizu zer esan nai duen: gauza

oiek ezin litezkela gerorako utzi, eta apaiz orrekin beldurrik gabe aitortu zindezke. Ori, onezkerok, gauza gogorak entzuten ederki jarrita dago, zuen artean.

Nerekin aitortu nai duzula esaten duzu; baina ezin liteken gauza da, orain beñepein.

Erbestean bizi zeratenok, or eta emen Jaungoiko bera dala oroitu bear duzute. Ez, or zurekin daudenak esaten duten bezela, bat baño geiago dirala. Eta beste batzuek, il ezkerok ez dagoe-laz; zuloan sartu eta kito. Ori, beoi ala komeni zaiotelako esaten dute.

Batek esan zuen, ateismoa edo ezin siniste ori gizonen ezpañetan geiago zegoela, biotzetan baño. Onek esan nai du, ezpañetatik ateratzen diran alferrikakok itz asko biotzak ez dituela ontzat artzen. Gizonen artean au gertatzen da: gauza bat esan eta beste bat sinistu.

Or duzuten apaiz ori zaldi gañean etortzen dala diozu. Bañan nundik ez duzu esaten. Gañera, zurekin ere jardunaldiak egiten dituela. Beraren adiskide egin zaite, asko lagunduko dizu eta.

Bai, zuek or artzai on bat bear duzute, lagun bat balitz bezela. Konseju onak emango dizkizute, eta zuen bizimodu latz eta urrikgarri ori pixka bat arindu ere bai.

Beste gauza bat ere esan bearrean nago, Martin: zure lagun zan Ixidro eta Juanita laixter ezkonduko dirala. Oeri ere, zueri gertatu zitzazuten gauza bera gertatu zaiote, eta orain or

dabiltza alde batera eta bestera, gauzak antolatzen.

Orra, ba, Martin: bi laguneri gauza bera gertatu. Jaungoikoak aurretik ematen du saria, bañan sari ori gero ordaintzeko izaten da. Ondotik, kezkek, larrialdiak, estuasunak eta abar datoz.

Zuk, berriz, saria artu eta iges egin zenuen. Bañan onezkero ederki damututa zaude, gizarajo ori. Zutaz askotan oroitzen naiz eta pentsatzen dut: zergatik alde egin zuen Martiñek? Emen gelditu izan baziña, onezkero, beste asko bezela, elkarrekin biziko ziñaten, eta familia azeitzen joango zan.

Orain, berriz, Kaxilda gaixoa Josetxorekin ikusten dudanean, pena izugarri bat ematen dit. Emakume zintzoa eta txukuna. Jaietan emen datoz elizara, bere semea eta biak. Orixe bai maite duela! Ez dauka ezkutuan uzteko!

Zure aita eta ama sarritan ikusten ditut, eta Pello eta Terexa ere bai. Aita oraindik gizon gordiña dago eta etxe-bazterrak txukun daude, eta zelaiak ere bai.

Zuen artera etortzen dan apaiz ori zaldiz etortzen dala esaten duzu. Naiago nuke nik ere bat baneuka. Urtetan aurrera noa eta ibilli bear aundiak izaten ditut; baserriak emen erritik urrun dira eta noiznai deia daukat.

Norbait gaixorik dagoela; beste etxe batean, gurasoak il eta gero, diru-banaketa dala eta elkarrekin konpontzen ez dirala; neska-mutillak

ere aserratu egin dirala, On Ramon alde guztietara, adiskidetasuna ezin zabaldurik.

Bai; naiko lan badaukat nik eliz-barruti ontan. Gañera, ezkontzak, bataioak, illetak eta eguneroko meza, eta oraindik gaztetxoeri dotriña erakutsi. Bai, Martin; orrenbeste lan eta aruntz eta onuntz ibilli bearra, beti zalapartaka eta beti pobre.

Nere sotanak bi kolore dauzka, beltza eta gorria, mendiko beor izuak Otsaillean dauzkaten bezelakoak. Nik, beste erri batera joaten naitzenean, apaizak sotana beltz-beltzarekin ikusten ditut. Bañan On Ramonek len daukanarekin ibilli bear.

Erri txiki ontan ez da dirurik ikusten. Erregalo batzuk egiten dizkidate, bañan dana jan-gauza: arrautzak, gazta bat edo beste, sagar batzuk, eta Gabon aldera ollasko bat edo beste ere bai. Bañan eliza zar onetan beste gastu batzuk badira, On Ramonek besteren laguntzarik gabe ezin konpondu dituenak.

Lenagoko batean, emengo jauntxo batekin nengoelarik, elizak gastu aundiak zeuzkala esan nion, eta berak erantzun zidan:

— Elizak zer gastu ditu, ba? Santuak ez dute jan-edanen bearrik.

Eliz au emen inguruetan danik zarrenetako bat da, eta konponketan ezer gutxi gastatu izan dute. Aitor-lekua ere pipiak janda dauka. Egunen batean or joango da goitik bera.

Amaitzera noa, Martin, eta esan bezela, guru-

tze ori nai duzunean bialdu zaidazu, eta nik be-
deinkatuko dizut, ostera berriz bialtzeko.

Goraintziak zure guraso eta sendi danaren
partetik, eta besarkada bat zure adiskide zar
onengandik:

On Ramon.

MARTIÑEK IXIDRORI

Aspaldiko lagun Ixidro:

Laixter Juanitarekin ezkontzen aizela jakin diat, eta gañera gauzak antolatzen presaka zabil-tzatela. Zer pasa duk, ba, Ixidro? Orain arte mutilzar lasai egon eta orain presaka eta mutur-ka?

Bazekiat zer pasa zaizuten: guri pasa zitzai-gun gauza ber-bera. Ezkontzearekin ik ori erre-mediatzen duk. Gu okerrago galditu ginduen. Ba-ñan oraindik ere ni etorriko nauk eta ezkonduko gaituk.

Nik bazekiat inguru ortako atsoak neregatik nola jardun zuten, eta orain iregatik jardungo di-tek. Bai; gure baserrietako andreak langilleak dituk, zintzoak, etxekoiak eta, itz batean, gutxi bezelakoak. Bañan, auzoan orrelako gertaera bat izaten danean, orduan bai pixka bateko jakia...

Askotan ikusi izan dizkiat, goizean errira es-nea eta baratze-gauzekin dijoazenean, batzuk xex-toa buruan eta besteak astoarekin, iru edo lau

emakume elkarrekin; eta, orrelako gertaera bat danean, orduan bai gustora maxiatzen:

— Bai, mutil alproja orrek engañatu du, ba, ori, onelako neska!

Onelako neska, besteak bezelakoa ori ere. Ni geiena arritzen nauena, emakumeak ez duela sekulan kulparik izaten. Neska kaxkarin xamarrek ere ezagutu izan dizkiagu. Bañan, aietako bati orrelako gauza bat gertatzen bazaio ere, beti mutillak dizkitek kulpa guztiak:

— Bai, engañatu egin du.

Engañatu badu, berak engañatzea nai izan duelako. Ez al zaik iri ala iruditzen? Emezortzi edo ogei urteko neska batek bazekik ankagorriak Paris'tik etortzen ez dirala, eta zigueñak ere ekartzen ez dituela. Gaztexeagoak ere bazekitek ori.

Engañatu egin dituztela... Engañatu baño len alde egin bear. Ezer gertatzea nai ez duenak, arriskua dagoen tokitik iges egin dezala; sua dagoen tokitik alde, erre baño len. Orain goazen lengo arira.

Len ere esan diat, baserrietako andre oiek, beren xexto eta astoekin, errira nola joaten diran. Batzutan, ia goiz guztia beren salmentak egiten igarotzen ditek; eta gero, etxerakoan, berri ere lenagoko kontu berak, auzoa antolatzen. Orrela beren etxe-inguruetara joan arte, eta an azkeneko maxiaketa.

Askotan, emakume gaixo oiek ikusiaz, urrikalduta egon izan nauk: beren xextoak buruan, bearbada pixu aundiarekin, lepoko zañak ere aun-

dituta... Bañan ala ere gustora bazterrak jorrazten.

Astoak, berriz, gertaera oiekin zer ikusirik ez baitaukate, aitzaki-maitzaki sasi-bazterrez bazter belar-muturrak janez ezkutatu eta bata bestearen xextoak miatu; eta, ogirik edo beste zer-bait jan-gauzarik baldin badago, amarretakoa egin.

Astoa ez baita askok uste duten bezin astoa. Astoak pentsatzen du; badu memoria. Astoari etzaio gaur ongi nun jaten duen aaztuko. Bigar ere toki artara joango da. Bai al dago, ba, animalirik, astoak ainbat pentsatzen duenik?

Ez dago ikusi besterik: lotzen dituzte eta orduetan antxe egon bear. Neguan otzak, eta udaran beroa eta euliak. Noiz-beinka, ostiko bat edo beste tripapera, eta belarriak eta isatsa astindu. Gero, euliak uzten badiote, lozorroan. Ori ere badu astoak: zutik lo egiten du, eta, lo ez dagoenean, pentsatzen ari da.

Astoa da gure baserrietako esne eta baratze-gauzak errira eramaten dituen, eta erritik baserriera ere bear diran gauza guztiak ekarri. Eta oraindik ez dira batzuk konturatzen, animalia gizarajo onek egiten duen serbitzuaz. Entzun izan dut, baserri batean, aitak semeari esaten:

— Aizak: beien majaretako pizarrak bota astoari.

Beiak nai etzituzten belarrak, astoarentzat... Orrelako estimazioa daukate toki askotan, ainbeste mesede egiten duten animalia gizarajo oiek.

Orrela, ba, Ixidro, naiko astakeri esan diat, eta orain goazen gure gazte denborako kontu batzuk aipatzera.

Gu biok gaztetan oso lagunak izan gaituk; biok beti elkarrekin ibiltzen giñuen. Gogoratzen al aiz, pixka bat ernatzen asi giñanean, erromerietara nola joaten giñan? Neska bat edo beste gustatzen, bañan ezin aotik itzik atera; mingañean korapilloa.

Nik orregatik eramaten nian askotan guardasola. Sirimiri edo euri pixka bat egin zezan desiatzen egoten niñuen, ori eskuetan eramateko. Askotan joan izan nauk, guardasola eta alpargata zuriekin, erromerietara. Esku utsik ezin neska baten aurrera joan.

Itzalditxo bati asera emateko, ez duk orrelakorik. Pixka bat astinduaz joan eta itz-bidea berak ematen dik. Gero, neskarekin izketan sitakoan, lurrean xuloak egin. Makiña bat xulo utzi izan diat nik bide-bazterretan. Ollagorrak bazkatutako tokia bezela gelditzen uen, dana xuloz beteta.

Gure gazte denbora orrela igaro zan: neska baten aurrera joan orduko, arpegia gorritu eta mingaña toteldu edo mututu. Gaur dakidan ainbat jakin izan banu, beste ollar batek joko zuen kukurruku.

Asko irakurtzen diat, eta neri geiena gustatzen zaidana psikolojia duk. Personak istudiatzeko zientzia bat duk ori; garrantzi aundi-koa bera. Nik uste dudanez, persona bati begiratu eta zer pentsatzen ari dan sumatuko diote

oraindik. Ori gogorra izango duk orratio. Nik orain, zer pentsatzen dagoen antzematen zioat gutxi gora-bera zenbait emakumeri.

Martiñek ez dik orain gaurdasola bearrik. Gabe ere bazekik emakumeetara urbiltzen eta lasai itzegiten. Gure amak amaika aldiz esana:

— Nora oa, motell, dagoen egualdia eta guardasolarekin?

— Ama, euria usterik gutxienean egin lezake, eta nik ez dut bizkarrik busti nai.

Gaztetako kontuak berritu egin dizkiat; bañan nola igaro ziran ik ere badakik. Orain goazen gaurko kontuekin.

Ik dakiken bezela, ni aruntz eta onuntz transportean nabillek, beti zeozer eramaten. Ez diat urrutirako lanik artzen. Katxarro txiki bat zeukat eta emen inguruan ibiltzen nauk beti. Ezaguera aundiak zeuzkat eta etzaidak lanik faltako. Eguneroko ogia irabazten diagu, bañan andik gora ezer gutxi.

Lan berean gabiltzanok elkarte bat zeukagu emen eta oso ondo konpontzen gaituk. Askotan entzun izan diat, elkarren aurka geien egiten dutenak ofizio berekoak dirala. Bañan emen ez; emen danok lan berdiña. Batek baño geiago besteak irabazten duela eta inbiria, emen ez. Danak adiskide, danak lagun, anaitasun batean bizi gaituk. Iñun ere etzegok orrelako elkartasunik.

Orra ba, Ixidro: danetik pixka bat ipiñi diat eta ik ere zerbait bialdu neri. Bañan etzaiekela ezer esan orko atso maxiatzalle oieri, bestela erregu ederrak egingo zizkidatek eta. Guk

ere badizkiagu geren auleriak, eta nik nere aldetik dana barkatzen ziotet, gañontzean emakume zintzo eta onak dira eta.

Besterik ezer ere gabe, gaurkoz bukatzera niak, eta goraintziak emaitzak nere guraso eta senideeri. Ala berean Kaxildari ere, eta ea nere eskutitza artu zuen galdetu zaiok.

Esan zaidak, idazten didakenean, noiz ezkontzen zeraten.

Ixidro: emengo karteroeri zuzenbidea garbi gustatzen zaiotek, eta orregatik, idatzi ondoren, eskutitz ori itxi eta On Ramoni ematea komeni duk. Berak nere zuzenbidea makinaz ipiñiko zio, ortan oso iaioa duk eta.

Goraintziak Juanitari, eta ik artu zak nere besarkadarik beroena:

Martin.

IXIDROK MARTIÑI

Nere lagun zar Martin:

Ire eskutitza artu diat, eta ondo aizela jakiteak poz aundia ematen zidak. Gu emen danok ondo, Jaunari eskerrak.

Umore ona daukakela ikusten diat. Ori, ondo bizi aizen señailea duk. Emengo emakume eta astoak jorratu dituk, eta gauza askotan arrazoi aundia ematen diat.

Ik esaten duken bezela, emakume bati zerbait gertatzen bazaio, beti mutillak dizkik kulpak. Bañan emakumeak ere, gizonak dituzten gaiztakeri berberak dizkitek. Disimulatzeraz alegiñak egiten dizkitek, bañan alferrik; zein anketatik erren egiten duten antzematen zaiotek.

Onekin ez diat danak berdiñak diranik esan nai. Emakume jatorrak ere badituk.

Batek esan zuen, lendabiziko maite-miñetan neska mutilla baño trebeagoa azaltzen zala; au beti lotsatiagoa. Ori esan zuenak zerbait bazekiken. Zerbaitegatik giñuen gu ere orren

lotsatiak. Ik ire guardasolarekin lurrean xuloak egiten, eta nik, beti lar-ostoa bat ezpañetan nuelarik, zer esan ez nekiela, larrialdi ederrak igaro izan dizkiagu. Bañan gero, poliki-poliki lotsak galduaz, aurrera joan giñuen. Bai; bear dan baño aurrerago.

Orregatik orain, Martxoaren amarrean, ezkondu eta bizimodu berri bat artu bear diagu. Etxe-bizitza bat artuta zeukat Oianalde'n. Ez duk aundia, bañan oso polita. Nere lantokia ortik urbil baituk.

Ik dakiken bezela, nik zerreri batean lan egiten diat, eta gure mendietako zugaitz ederrak or txikitzen dizkiagu. Lenagokoak bota eta berririk ipiñi ez, emengo mendiak soiltzen ari dituk. Orain piñua aldatzen ditek. Bañan ori ez duk gurea; ori atzerritik ekarria duk. Aritza duk gure-gurea; baita pagoa eta gaztaña ere. Oek danak, denbora asko baño len bukatuko dituk.

Emen, i joan ezkerreko, aldakuntza aundiak izan dituk. Lenago ez genian eletrizidade edo tximist-indarrik; bañan orain alde guztietan jarrita zegok. Kriselluak ganbaran zintzilik, nola-koak ziran ondorengoak ikusi dezaten.

Guk ere, orain tallerrean jarrita zeukagu. Lenago, motorra gasolinarekin ibiltzen uen, bañan orain tximist-argiarekin.

Juanitak, zearo gaiztotu aizela esan zidak; ire eskutitzean emakumeengatik epelak jartzen ditukela; eta, emengoak jakiten badute, onera etortzen aizenean bizkarra berotuko ditekela.

Gañera, ire ixtudioekin, psikolojia edo dalako orrekin, arrituta gelditu duk. Oiek ez omen dituk parte oneko ikasketak; oiek sorginkerri edo zerbait orrela omen dituk. Aizak: Elizak ixtudio oiek ontzat emanda al zeuzkak? On Ramonek jakiten baduk, ederki arrotuko au.

Ezagun duk, bai, zer egin aundirik ez daukakela eta ondo bizi aizela. Guk bezela lana egingo ba-u eta etxera nekatuta etorri, oera lenbailen joango intzake.

Izan ere, Buenos Aires aundi orretan egunero bolantean jarri eta aruntz eta onuntz ibilli, ezaguera berriak egiñaz, paraje berriak ikusiaz, mota askotako personekin tratatu eta asko ikusiaz... Bai, motell; ibiltzea bezelako maixurik ez duk.

Gu, berriz, ez gaituk mendi-tarte onetatik iñora irteten. Emen jaio eta emen bizi. Etxetik lantokira eta lanetik etxera. Jaietan mezetara joan, lagunekin jardunaldi bat egin eta ardo pixka bat edan. Pilotan ere saio batzuk egiten dizkiagu, eta gero bazkaltzera. Bazkalondoan siesta pixka bat egin, eta gero askotan ostera berriz ere errira, betiko arpegiak ikustera. Emen elkar ondo ezagutzen diagu, bai.

«Erri txikia, infernu aundia» esaten ditek. Egia duk, bai, ori. Emen elkarren berri danak zekitek: zeñek zer egin duen, zer egin bear duen, larritasunean bizi dala, onelakori zenbat diru zor dion, eta ordaintzen ez diola eta beiren bat edo beste kenduko diola eta abar.

Bein batean, goiko kaleko Krixantorenean,

eskaparatean abrigo polit bat bere baliorekin ikusi nian. Garesti xamarra uen; bañan Juanitari bere egunerako erregalo bat egin nai eta erosteia erabaki nian. Juanita eta biok joan giñuen, probatu zian eta oso ederki zeukaken; beretzako egiña bezela. Juanitak esan zidaken:

— Orrenbeste diru ordaindu bear al duzu?

— Bai, Juanita; abrigo ori zuretzako eginga bezela dago.

Eta ordaindu eta atera giñuen. Bañan zer gertatu uen? Abrigo ori eliz ondoan zegoken, erri guztiak bazekiken nolakoa zan eta zenbat balio zuen. Bere tokian etzegoela konturatu ziranean, emakume danak elkarri begiraka asi ituen, zeñek erosi ote zuen, eta nun Juanitari ikusten dioten. Onela esaten omen zioteken:

— Oso abrigo polita da, bañan garestia.

Gizasemeak ere konturatu ituen, eta onela esan omen zioten batek:

— Juanita: abrigo orrek, len zegoen tokian baño politagoa ematen du orain dagoen tokian.

Zer duk eta abrigo ura zenbat ordaindu nuen erri guztia oartu uen. Orregatik, ezin litekek erri txiki oetan orrelako gauzarik erosi. Zerbait erosi bear dudanean, kanpora joaten nauk.

Emen orixe zegok: elkar ezin ikusia. Lantegi batean ere, nagusiarekin askotan itzegiten baduk, txaketeroa aiz. Baserritarrak ere, orrelakok bei geiago dauzkala eta ura ezin eraman. Bei geiago baldin baditu, lana ere geiago izango dik. Norbaitek esan zian: Persona batzuek,

gure ondasunaren damua ain nabarmen azaltzen baitute, beuretaz ere urrikaltzeko gogoia ematen ditek.

Zuek, Buenos Aires aundi ortako txoperrak daukazuten elkartasun orrekin arrituta gelditu nauk. Urrutirako joan-etorririk ez dukela esaten duk; bertan ibiltzeko katxarro txiki bat daukakela; lan berean dabiltzan lagunekin elkartasun bat daukazutela; asko edo gutxi irabazi berdin zaizutela; orregatik iñor aserritzen ez dala. Bejondeizuela! Ori duk anaitasuna eta pakea!

Ez didak esaten katxarro ori zer dan. Etzekiat kamioneta bat ala esku-karroren bat dan. Zuen joan-etorriak bertatik bertara izaten dirala esaten duk; ez aizela urrutira joaten. Orregatik, *mudanzas* edo zerbait orrela izango ote dan pentsatzen diat.

Ez didak Buenos Aires eta bere inguruak nola diran esaten. Len bezela gelditzen nauk: or zabiltzatela aruntz eta onuntz; elkar ondo artzen dezutela; bañan ortik aurrera ezer ere ez. Zer arraio! Jaietan ez al aiz iñora joaten edo lo egiten al duk?

Onezkero, adiskideren bat ere izango duk, bai, ik. Or danetik izango dituk: beltzak eta zuriak. Ire eskutitzean, emakume batengana urbiltzeko orain guardasola bearrik ez dukela airtortzen duk. Naikoa esan duk; ortik aurrerakoak neronek asmatuko dizkiat.

Kaxilda lasai egon litekela uste diat. I onerra etortzerako, Beko-errota'tik bera ur asko

joango duk, bai. Kaxilda askotan ikusten diat ganadu-janak egiten: berak ebaki eta gero karretillarekin etxera eramán. Oiek ez dituk emakumeentzako lanak. Ik onera etorri bear uke. Danak ao batez esaten ditek:

— Emakume gaixo orrek daraman bizimodua!

Aita geienean mintsu zegok, eta lan guztiak berak egin bear. Zerbait pentsatu bearra zeukak, motell. Emakume orrek ezin lezakek luzaroan orrela jarraitu.

Josetxo ere aunditzen ari duk. Ire antza ederra zeukak. Ez al aiz urrikaltzen? Nun zegok ire biotza? Erdi utsik daukaken biotz aundi ori maitasunez bete zak, onera etorri adi eta lenbailen ezkondu zaitezte. Lana egin ezkeró, emen ere bizi litekek. Kaxildaren etorkizuna ire eskuetan zegok. Ik nai baduk, igarotako okerrak zuzendu litezkek.

Eskutitz au itxi eta On Ramoni emango zioat, ire zuzenbidea ipintzeko.

Gaurkoz besterik gabe, goraintziak Juanitaren partetik eta Kaxilda eta ire guraso eta senideengandik. Artu besarkada bero bat ire lagun zar:

Ixidro'rengandik.

ATE AUNDIA

Martiñek presondegiko lanak bukatu ditu. Ango agintariak deitu dio, esanaz:

— *Vasquito, he observado muy buena conducta en ti, y desde ahora estás ya en libertad. Mañana sale el barco para Buenos Aires y te daré el billete para que viajes gratuitamente.*

Martiñek zer egin ez daki. Txoratuta gelditu da. Bere lagunengana joan eta eman du berri ona. Ango besarkadak eta esku-emateak!

— *Felicidades, vasquito. Que tengas mucha suerte.*

— *Gracias, amigos.*

Egun ortan Martin ez da arrobira joan. Bertan gelditu da, urrengo egunerako gauzak antolatzen.

Etzaio urrengo egun ori nai ordurako etorri. Gauzez ez du bere pozarekin lorik egin. Goiz-goizetik or dago etzanta, begiak zabal-zabalik. Udara da eta leiotik eguzki-irripar bat sartzen zaio. Au duk egualdia! Pozik jeikiko

litzake, bañan emen ez dago nai danean altxatzerik. Deitzen dutenean, orduan bai danak batean.

Noizbait kanpanillaren otsa eta danak gora. Jeiki da eta, beti bezela, lendabizi gosaldü; eta segidan bere laguneri azken agurra, aiek eguneroko lan jakin ortara arrobira joan bear baitute.

Martiñi malkoak bi begietatik dijoazkio. Geientsuenak zer egin zuten badaki, egindako okerrak elkarrı aitortzen baitzizkioten.

Baita ere badaki Martiñek, ain maite dituen oietan, sekulan geiago aterako ez diran batzuk ere badirala. Beren bizi guztirako giltzapetuak. Presondegiko ate aundi ura igaro zutenean, mundu ontako gorabera guztiak bukatu ziran aientzat. Batzuek emazte eta familia badituzte. Beste batzuek andregaiia utzi zuten. Badira atzeritarrak ere; oek ez dituzte beren etxeoak sekulan ikusiko. Pixkana-pixkana urteak joango dira, zartuko dira eta gaixorik jarri. Oien zartzaroa urrikalgarria benetan. Ez baitute iñoren laguntzarik izango, lau pareta mospelen tartean azken arnasa eman arte. Gero, zulora eta kito.

Martiñek gauza oek danak badakizki eta ezin da bere lagunetatik apartatu. Onelako batean arrobirako deia, eta azken agurrak eta besarkadak.

Martin bakarrik gelditu da. Bere gauzak gordeta dauzkan orrengana joan da. Martiñen puska guztiak atera ditu. Lendabizi, erlojua artu eta orduetan ipiñi du. Gero, jantzi barratu

ura kendu eta galtza gris batzuk jantzi; danak zimurtuta daude. Urrena, alkandora eta jerse bat.

Bañan oñetakoak ezin ditu jantzi. Presondegian oñetako aundi batzuekin oitu da; naiz ezker naiz eskubi, edozein oñetan ondo datozen oietakoak. Lendabizi artzen dana edozein oñetan jantzi eta bale.

Martin, bere gauzak jaso eta alde egiteko gertu dago. Ainbeste aldiz amets egindako egun ura etorri zaio. Orain, presondegiko agintaria etorri artean, itxogin egin bear. Ezin egona dauka. Ate aundi artara begiratzen du. An daude bi zentinelak alde banatan. Ezagutzen ditu. Or barruan bizi diranak, danak alkar ezagutzen baitute. Oraintxe, bai, ate aundi ori pasa eta gero, agur, mutillak, agur betiko!

Pentsamentu oietan dagoelarik, agintariaren abixua etortzen zaio:

— *El director, que pases.*

— *Buenos días, señor director.*

— *Buenos días, vasquito. Ya estás en libertad. Puedes salir cuando quieras. El barco sale a las doce y toma el billete. Y éste otro para que los centinelas te dejen salir. Ya has probado una prisión. Dada tu buena conducta, se te deja en libertad antes. Pórtate bien y no vuelvas a caer. Te deseo suerte y felicidad.*

— *Muchas gracias, señor director.*

Eta esku eman eta alde egiten du. Presondegiko eskutitzak banatzen dituenarengana joan eta onela esaten dio:

— *Si llega carta para mí, téngala hasta que le dé mi nueva dirección. Adiós, amigo.*

— *Adiós, vasquito. Suerte.*

Martin ate aundira xuxenean dioja. Ara irixtean, agintariak emandako paper ura zentinelari eman diote, eta jardunalditxo bat ere egin du berakin; eta, elkar agurtu ondoren, badioja Martin.

Oñetakoak estu dauzka eta lasaiagoak erosi nai ditu. Ameriketako danetik saltzen dan denda oietako batera joan da. Nai baduzu, errebolberaren balak salduko dizkizute, edo jantziak, erropak, oñetakoak, zaldien tresnak eta abar. Emakume gazte bat dago eta Martiñi esaten dio:

— *¿Qué desea Vd.?*

— *Unas zapatillas o algo que sea holgado, porque estos zapatos no los puedo usar.*

Pare bat probatu du eta txiki xamarak. Beste pare bat ekarri dio, esanaz:

— *No hay más grandes.*

Jantzi ditu eta arrituta dago:

— *Len anka aundiak nituela? Orain bai galantak!*

Dendan dagoen ispillu aundi batean begiratu du, aspaldian ez baita ispillu baten aurrean jarri, eta izututa gelditu da:

— *Nora joan bear dut nik piura ontan? Illea moztu berria, burua soil-soilla! Presondegira etorri nintzanean, ille ederrarekin sartu nintzan ni. Bañan ori ere kendu didate.*

Txapela bat erostea pentsatu du, eta gazte orri esaten dio:

— *¿Tienen boinas vascas? Acá se llaman gorras vascas.*

— *No, no tenemos. Pero tenemos sombreros. Mire éste, con una plumita de ave del paraíso, qué lindo es. Y estos otros que usan los gauchos, de ala ancha. ¿Cuál de ellos le gusta?*

— *A mí ninguno, porque nunca he usado sombrero. Pero como tengo que taparme la cabeza, tendré que llevar algo.*

Martiñek zer egin ez daki. Zerbait bear, ba, kaska soil ura tapatzeko, eta besterik ezean sombrero bat artu du. Bazterreko luma kendu eta jantzi du. Ondoren, ispilluari begiratzen dio:

— *Oraintxe bai, tipo ederra daukak, Martin. Gaizki jazten asi ta ere, ezin okerrago jantzi: oñetako aundiak; galtzak tela txarra, gaizki josiak eta gañera zimurrak; eta gero sonbreroa. Bien, motell! Ori duk pailazo-tankeran jaztea! Aitak ikusiko baniñu, zer esango ote luke?*

Zapatillak eta sonbreroa ordaindu ditu, *boliche* edo taberna batean sartu da eta bermut bat eskatu du. Ez baitu ura besterik edan, barruan egon dan bitartean. Edari ori goxoa iruditu zaio.

Boliche ortan badaude geiago ere. Martiñek, danak berari begira daudela antzeman dio. Alako batean, aietako batek onela dio:

— *Patrón, sáquele otro vermut al hermano.*

— *Muchas gracias* —esaten dio Martiñek, eta bolitxeroari:

— *¿Cuánto le debo?*

— *Acá Vd. no paga nada, mi amigo. Ya me imagino de dónde sale Vd. Del lugar donde yo estuve largos años. Ahora trabajo aquí y me va bien. Si necesita Vd. plata, le puedo ayudar.*

— *Muchas gracias. Pero tengo algún dinero* —esaten dio Martiñek, eta daneri esku ematen diote, esanaz:

— *Voy a dar una vuelta, antes de ir al barco.*

— *¿Quiere que le acompañe?* —esaten dio presondegian egondako arek.

— *Pues sí.*

Badijoaz biak kontu kontari eta bazterrak ikusiaz. Martiñek, presondegiaren inguruak ikusi nai lituzkela esaten dio. Mendi-tontor ttiki batera igo dira eta or ikusten dute bean, arrobian, gizajo aiek nola ari diran.

Arrobia alde xamar dago, eta zutik nabarmen dala eta exeri egin dira. Or barruko bizi-modua ondo ezagutzen dute biak ere eta an ari diranak urrikalgarri egiten zaizkiote.

Martiñek, erlojuari begiratu eta portu aldera abiatu bearko duela esaten du, laister amabiak dirala eta. Biak alde egiten dute.

Martiñen laguntzalleak esaten dio, presondegitik irten zanean, lana bertan billatu zuela, eta gero bertako emakume batekin ezkondu zala; seme-alabak badauzkala eta oso ondo bizi

dala; bertan gelditu nai badu, lana billatuko diola. Bañan Martiñek Buenos Aires'era joan nai du.

Laguntzalleak Martin etxera eramaten du, bere seme-alabak ezagutu-arazteko. Sartu-atera bat egiten dute. Gero, itxas-ontziraño laguntzen dio eta elkar agurtzen dute.

ITXASONTZIA

Martin itxasontzira igo da. Bere pasajea erakutsi du. Gero, beste batek, zein kamarote tokatzen zaion erakustera eraman du. Giltza eman dio, armarioan bere puskak sartzeko.

Egualdi ederra dago. Martin, garbitu eta makutsik goiti atera da. Bere artean pentsatzen du:

— Au giroa, buru utsik prexko-prexko ibiltzeko. Bañan nundik natorren segituan antzemango dute eta sonbrero alu onekin ibilli bear. Bai; itxasontzia lendabizi gelditzen dan tokian, jeixten uzten badute, txapela bat billatu bear dut nik eta sonbrero au uretara bota.

Itxasontzian zeintzuk datozen ikusiaz, or dabil Martin aruntz eta onuntz. Elkar-izketan bata bestearekin ikusten ditu; bañan Martiñek ez dauka iñorekin itzegiteko gogorik.

Bazkaltzera deitu dute. Apetitu ederrarekin jan du. Gañera, ardo eta guzti; fruta ere bai.

Bazkalondoan, bere gurasoeri eskutitz bat bialtzea pentsatu du, berri ona emanaz. Emen aideportua portu guztietan dago, eta, egazkiñez edo abioiez, bera Buenos Aires'era baño len artuko luteke eskutitz ori Euskalerrian. Eta a zer poza bere guraso eta familiak!

Orrela, ba, eskutitz labur bat idatzi du, pre-sondegitik irten dala eta itxasontzian Buenos Aires aldera dijoala esanaz.

Río Gallegos deitzen dioten portura iritxi dira. Itxasontziak, portu geienetan bezela, ordu batzuk igaroko ditu, gauza batzuk artu eta beste batzuk uzteko. Martiñek, bazterrak ikusteko naiko denbora badauka.

Patxara ederrean or dabil, alde guztietan ikusmiran. Sello bat erosi eta eskutitz ori aideportuan utzi du. Gero, errira berriz jetxi da eta txapela bat nai luke. Denda batean billatu eta jantzi du. Orain bai; beste itxurarik dauka Martiñek.

Sonbreroa paper batean bildu diote eta eskuetan darama. Bañan Martiñek ez du oztoporik edo trabarik nai. Mutil koxkor bat ikusi eta esan dio:

— *¡Che! ¿Querés un sombrero?*

— *Pues sí.*

Jantzi dio eta mutil koxkor ori etxera korrika joan da.

Or barrena ibilli ondoren portura arrimatu da, eta an dago, itxasontziaren bazterrean, alde guztietara begira. Batzuk, arpegi ezagunak,

itxasontzira doaz; beste batzuk, ezagutzen ez dituenak, pasajero berriak.

Oien artean or ikusten du Martiñek neska beltzaran polit bat bere maletarekin igotzen, eta bere buruarekin onela dio:

— Orixe bai neska polita, iñun politik baldin bada.

Bera ere itxasontzira igo da. Exeri eta erre-bista bat irakurtzen asi da. Alde guztietara begiratzen du, bañan ez du begia bota dion neska polit ori ikusten.

Itxasontziaren eskallerak igo dituzte, aingura ere bai, eta irteteko prest dago. Batzuek itxasontzitik eta besteak legorretik, elkar agurtzen dute. Martiñek neska ori nun dagoen ikusi du, bañan ez dio iñori agurrik egiten. Zein ote da neska ori? Geienak, pamiliko edo ezagunen batekin etortzen dira portura; bañan ori bakarririk etorri da. Bai; Martiñek jakin bear du, luzaro gabe, ori zein dan.

Alako batean, or ikusten du, barandillan bi eskuak jarri eta itxasora begira dagoela. Martin pasa da ondotik, bañan ez dio ezer esan. Bueltatxo bat eman du eta xuxenean beragana dijoa.

— *Buenos días* —esaten dio.

— *Buenos días* —erantzuten dio, parra murriz batekin.

— *¿Va Vd. lejos?*

— *A Buenos Aires, ¿Y Vd.?*

— *Yo también.*

Neskak:

— *¿Viene Vd. de lejos?*

— *De las Islas Orcadas. Allí he trabajado cargando abono en los barcos.*

— *¿Qué abono?*

— *Abono natural de los pájaros marinos. El espesor del abono alcanza varios metros, y se lleva al extranjero por ser uno de los mejores fertilizantes.*

Au, guk emen txori-gorotza esaten dioguna da. Eta orain goazen lengo arira.

Martin eta gazte ori oso adiskide egin dira. Geienezan, biak elkarrekin kontu kontari doaz.

Martiñek neska orri, «*en las islas Orcadas*» lan egin duela esan dio. Gezurra da. Bañan zer egingo du gizajoak, ezin lezake egia esan eta?

Itxasontzia, Santa Cruz portuan sartzerada. Emen ere ordu batzuk igaroko ditu. Martin eta gazte ori jetxi dira eta bazterrak ikusten dabilta. Martin lotsatu ere egiten da: bera ain trakets jantzita eta neska txukun polit ori bazterrean. Gizasemeak pasaran begiratzen diote eta esan ere bai batek:

— *¡Qué linda la pebeta!*

Martin, neska polit orren ondoan, txorata dabil. Bere artean pentsatzen du:

—*Etzegok igualekoa an karretillarekin arriketan jardun edo onelako polit baten bazterrean ibilli. Onen irripar batek nere biotzeko naigabe guztiak uxatzen ditu, eta nork daki gure elkarrenganako maitetasuna oraíndik noraño iritxi liteken.*

Ibillaldi bat egin ondoren, pasteleri batean sartu dira, eta, pastel batzuk jan ondoren, ostera itxasontzira.

Itxasontzian eldu ziranak elkar ezagutzen dute, bañan orain arpegi berriak, emen igo diranak, ikusten dituzte. Martiñek, bi gizaseme elkarrekin euskeraz mintzatzen ikusi eta belarria tente jarri du.

Urrengo egunetan ere, Martiñek ez diote gizaseme oieri begirik galtzen. Bañan ez du iñondik ere ezaguerarik eman nai. Elkar-izketan asi ezkeru, lendabiziko gauza nundik datorren edo zer egin duen, eta Martiñi etzaio komeni iñori esatea ez nundik datorren eta ez zer egin duen.

Martin aulki batean exerita dago, eta bi euskaldun oiek beraren aurretik doaz. Batek onela dio bere lagunari:

— Aizak: or dagoen orrek, senide-parte ederra zeukak.

— Zer esan nai duk orrekin?

— Oin galantak dituela.

— Bai, motell; dexenteak zeuzkak.

Martiñek artu duen amorrua ez da nolanaikoa. Andik aurrera ez ditu ikusi nai ere.

Beragatik zer esan duten esan dio Anitari, izena onela baitu polit orrek; eta oieri ez itzik egiteko, arro batzuk dirala eta.

Itxasontzia beti aurrera doa. Urbildu dira San Julian deitzen dioten portura.

Itxas-ertzez dijoaz eta *lobos marinos* ikusten dituzte. Oek *anfibus* dira; legorrekoak eta

urekoak, esan nai du. Animali aundiak dira. Naiko arrai jan ondoren, etzan-aldi aundiak egiten dituzte legorrean. Emen oso motelak dira. Arrastaka ibiltzen dira, sugeak bezela. Bazterretan bi aleta aundi dituzte, eta, isatsarekin lagunduaz, poliki-poliki mugitzen dira. Lasai ikuitu litezke, bañan atzetik; ez aurretik. Izugarrizko letagiñak dituzte. Oiekin, *boquillas* egiten dira, zigarroak erretzeko. Legorrean daudenean, norbait ikusten badute, arrak oiuka asiko dira. Zezenak bezelako orrua egiten dute; eta lendabizi umeak joango dira itxasora, urren emeak, azkenik arrak. Itxasoan igeri izugarri iaioak dira. Danak zabaltzen dira, eta, oraintxe borobil xamar daudenean, bat-batean danak urpera arrantzara. Patagonia'ko itxas-ertzean oietakoak millaka dira.

Pingüino deitzen dioten egazti oietakoak ere asko dira. Ez dute egarik egiten. Egoak lumarik gabeak dituzte; obeto esateko, lumak bai, bañan motxak. Zuri-beltzak dira, eta oso politak. Oinka bakarrik egiten dute eta eskuekin aixa arrapatu litezke. Oek ere arraia jaten dute.

ANITAREN AITORKETA

Itxasontziak, San Julián deitzen dioten portura sartu eta aingurak bota ditu. Emen ere denbora pixka bat egingo du eta nai duena jetxi liteke.

Martin eta Anita, biak jetxi dira, eta, beste portuetan bezela, ibillaldi bat egin dute. Anitak eta beste gazte batek elkar ezagutu dute eta gazte orrek onela dio:

— *¿Cómo te va, vieja?*

— *Bien y ¿a vos?*

— *Bien gracias. ¿Qué haces por acá?*

— *Voy a Buenos Aires a bordo del José Menéndez y hemos desembarcado a dar una vuelta. Te presento a un compañero de viaje.*

— *Tanto gusto.*

— *Igualmente.*

— *Gracias.*

Bata besteari esku eman diote eta bakoitza bere aldera joan dira. Martiñek Anitari esan dio:

— *Gazte ori nola ezagutzen zenuen?*

— Bai, ni lenago emen egonda bainago. Martin, zuk ez nazu ni ondo ezagutzen. Zuk, ni neska gazte garbi bat naizela uste duzu; bañan ez, Martin.

Eskuetatik eldu dio, esanaz:

— Goazen. Exeri gaitezen or dagoen aulki orretan.

Exeri dira eta Anitak Martiñi onela dio:

— Nik badakit zuk maite nazula. Bañan, ni zein naizen esaten dizudanean, bearbada ez didazu geiago arpegira begiratuko. Ni emagalduta bat naiz, Martin. Gazte-gaztetandik, oraindik ezer ez nekiela, engañatu egin ninduten, eta gizon askoren jostallua izan naiz. Eta esku askotan dabillen jostallua, autsi edo ondatu egiten da. Ori gertatu zait neri. Ondatu egin naiz; gaixorik nago.

»Ni onera gazte batek ekarri ninduen; emen *caficho* esaten dioten oietako batek. Nere irabaziak berarentzat izaten ziran. Nere gastuetarako doi-doia uzten zidan. Esaten zuen:

»— Zuk emen diru bearrik ez duzu. Ez daukazu ezertan gastatzerik. Bañan nik bizitzeko dirua bear dut, eta neri zuk lagundu bear didazu.

»Zer bizimodu egiten zuen, beste batzuegandik jakin izan dut. Ni bezela, bai omen zeukan beste bat ere engañatuta, eta bearbada geiago ere bai. Berak, *hotel* batean jan eta lo; gero, nai zituen alderdietan autoan ibilli. Gañera, jokoan ere saiatzen omen zan. Bitartean, gu, *esklabak*, berarentzako lanean.

»Gaixorik nengoela oartu zanean, etzan nigana geiago azaldu. Zertarako? Ez baitzeukan nerekin irabazirik. Sendagilleak, Buenos Aires'era, gaixo-etxe batera, bialdu nau.

»Au da, Martin, nere naigabea eta larritarena. Ogei urtetik gora gutxi dituen gazte baten bizitza, ondatua, puskatua eta bizitzeko gogorik gabe gelditua. Gertatzen dana gertatu, datozen egun illunak igarotzeko konforme nago. Egun alaiak an gelditu ziran, nere jaioterri maitean.

»Ni Corrientes'ko probintzian jaio nintzan. Nere gurasoak, *chacareros* edo nekazariak ziran. Gazte denboran, nere anaiekin jostaketan, pozez bizi nintzan. Batzutan *a las bochas* eta bes-tetan *a la taba* aritzen giñan. Gañera, *petizos* edo zaldi ttiki oietakoak bagenituen, eta zabal-degi aundi aietan barrena anaiekin ibiltzen nintzan.

»Egun batean, nerekin nai duen guztia egin duen gazte ori, Arturo, gure etxera azaldu zan, asegurotako ajentea zala esanaz. Eta ala izan ere. Au aitzaki polita zuen nunai ibiltzeko, eta, bazterrak ikusiaz, txitoen atzetik dabillen miruak bezela, al zuen tokian atzaparrak botatzeko.

»Gazte ori, gure etxera maiz xamar etortzen asi zan. Egun batean, bakarrik nengoelarik, orrela mintzatu zan:

»— Bigar zure billa etorriko naiz. Zaude orrelako tokian.

»Eta, nik gizon danak onak zirala uste bai-

nuen, bigaramonean berak esandako tokian nintzan. Gizonekin konfiantza osoa neukan, eta arekin oraindik aundiagoa. Bera izan baitzan, neri lendabizi belarri-ertzera itz goxo eta leguak esan zizkidana. Orregatik, miru maltzur orren atzaparretan erraz erori nintzan ni, geiago bururik ez altxatzeko.

»Martin, nitaz urrikaldu zaite. Bizitzen lagundu nazazu. Badakit denbora gutxi iraungo dudala. Bañan gelditzen zaizkidan egun ale oiek, zure ondoan igaro nai nituzke.

»Nere bizimodua nolakoa izan dan sinistu ere ezin liteke. Patagonia'ra ekarri ninduen. Ia portu guztiak ezagutzen ditut. Artu-emanak mota guztietako personekin izan ditut: ikasiekin, ez-jakiñekin, mozkorrekin eta abar.

»Gañera, beste emakume bat beti bazterrean neukan. Nere irabaziak ondo zaintzen zituen arek, eta Arturorekin ondo konpontzen zan. Arturo, etorri orduko, lendabizi emakume orrengana joaten zan, nere irabaziak zenbatekoak ziran jakitera. Nik, sos bat ere gordetzerik ez neukan. Danak kendu eta batere gabe uzten ninduen.

— Zer diozu, Martin, nere bizitza ondatu eta purrakatu duen gazte orrengatik?

Martin ao zabalik egon da orain arteraño eta onela dio:

— Nik gazte orrengatik, jakintsu batek esaten duena esango nuke: Nere bizitzan ikusi dudan animalirik nazkagarrienari, kalterik aundienak egiten dituen xomorroari, *parásito* deitu

diot. Etzuen maitatu nai eta maitasunetik bizi nai zuen.

Martiñek, erlojuari begiratu eta Anitari esaten dio:

— Goazen. Itxasontzia laixter aterako da eta urbildu egin bear dugu.

Anita altxa da eta elkarri besarkada eta muxu bat eman diote. Anita negarrez asi da eta Martiñi ere bi begietatik malkoak dijoazkio, bera ere biotz bera baita. Zearo urrikalduta dago, gazte orrek egin dion aitorketa entzunda. Bere artean esaten du:

— Ori da gauzak argi eta garbi esatea.

Itxasontzira igo dira. San Julián portutik atera eta orain urrengo geldi-aldia Puerto Deseado'n. Emen ere, jetxi nai duenak, bazterrak ikusteko ordu batzuk izango ditu.

Martin eta Anita, beti biak elkarrekin. Ez daukate gañontzekoekin traturik. Itz neurtuak geienaz ere. Ez baitute ezer ere esan nai; eta entzun ez eta ere, etzaiote ajolik.

Martiñek ere zer pentsatu ederrak badauzka. Anitak bere gorabera guztiak aitortu ditu, eta orain berak bere gertakizun guztiak aitortu bear:

— Bai; nik Anitari dana dan bezela aitortu bear diot, berak neri esan didan bezela, adiskidetasun osoarekin.

Aize aundia atera du. Itxasoa aserre dago. Itxasontzia gora eta bera dabil. Arpegi zuriak ikusten dira bazterretan. Anitari ere txorabilla egin zaio eta bere gelara joan da.

Martin bakarrik gelditu da. Or dijoazen bi euskaldun oiek berarengana arrimatu eta onela diote:

— *Buenos días.*

Martiñen erantzuna:

— *Buenos días.*

Eta alde egiten du. Len, Martin anka aundia zala esan baitzuten.

Puerto Deseado bertan ikusten da. Itxaso bare dago. Anita igo da gora eta ostera biak elkarrekin daude. Laixter sartuko dira portuan, bañan iñor jeixten utziko ez dutela esan dute; itxasontziak portuan denbora gutxi egingo duela. Ala gertatu ere: ordu bete geldirik egin ondoren, tutua jo du eta berriz ere aurrera doaz.

Anitak Martiñi esaten dio:

— Zure goraberak noiz esan bear dituzu? Zaletuta nago, zu zein zeran jakiteko. Zuk nereak badakizkizu, egi-egiak, ezer ere gorde gabe. Orain nik zureak jakin nai nituzke.

Martiñek esan dio:

— Urrena jeixten geran portuan jakingo dituzu. Emen ezin asiko naiz zuri gauza oiek daren aurrean esaten. Ortarako, bakar-bakarrik egon bear dugu, len egon geran bezela. Au baño toki erosoagoa komeni zaigu. Comodoro Ribadavia portura irixten geranean, egonaldi aundia egingo du itxasontziak eta naiko denbora izango dugu. Garrantzi aundiko portua baita. Emen petroleoa dago eta mugimentu aundia.

Alako batean onela dio Anitak:

— Buenos Aires'en zer egin bear duzu, Martin?

— Ez dakit, ba, zer egingo dudan. Lenago almalzen aundi batean lan egin nuen. Bañan orain zerbait egokixeagoa nai nuke, billatzen badut beñepein.

— Entzun, Martin: nik badaukat Buenos Aires'en lagun bat. Ura ere nere antzekoa da. Elena dauka izena. Tratu aundiak ditu ango gazteriarekin. Oso neska polita da eta lagunak gera. Itxasontzia ordaintzeko dirua berak bialdu dit; nik ez baineukan ezer ere nerekin. Len esan dizudan orrek dana kentzen baitzidan. Bañan Elena nere aldean asko dakiena da. Berak dabilki zartagia kiderretik. Ez dio iñori uzten. Orregatik, diru pixka bat ere badauka. Baita ere *apartamento* bat oso polita. Biak elkarrekin ibilliak gera. Amaika aldiz esaten zidan:

»— Utzi ezazu gizon ori eta goazen biok Buenos Aires'era.

»Bañan nik berari bildur aundia nion. Bear baño len kabitik ateratako txoria nintzan ni, eta, iñora joan nai nuela esaten banion, esaten zuen:

»— Obe duzu orrelakorik ez egitea. Noranai joaten bazera ere, nik arrapatuko zaitut eta zer gertatuko zaizun ikusiko duzu.

»Nere etxeakoak, nik alde egin nuelako, zenbat negar egin ote duten, askotan bururatzen zait. Ez dakite ez bizi naizen, ez ilda ote nagoen ere.

»Sendatzen naizenean, beste bide bat artu

bearra daukat. Lenagoko bide ori betiko utzi bear dut. Bide ortan ibilli naiz, ez gogozkoa nuelako, gogorrean ipiñi nindutelako baizik. Txitoak miruari baño beldur geiago nion nik gizon orri. Ura ikusteko beldurrak beti. Iku-si orduko, lendabiziko galdera:

«— Diru asko al daukazu? Ekarrri dituzun guztien bearrean arkitzen naiz eta.

»Bera lasai eta ondo bizitzeko, nik egun naigabetsu asko igaro bear.

»Gaixotegitik irteten naizenean, lan polit bat billatu bear dut neretzat. Zikinkeriak alde batera utzi eta personak bezela bizi.

Martin ixil-ixilik egon da dana entzuten. Emakume gaixo orretaz urrikaldu egin da eta bere artean pentsatzen du:

— Nik ere laixter esan bearko dizkiot, ba, nere gertakizun guztiak.

Sartzera doaz, dana dorrez betetako portu orretara: Comodoro Rivadavia'ra. Itxasontziak petroleoa kargatzen ari dira. Martin eta Anita laixter jetxiko dira. Emen bi edo iru ordu gel-dituko da itxasontzia.

MARTIÑEN AITORKETA

Martin eta Anita jetxi dira eta elkar-izketarako toki polit bat aukeratzera doaz. Oraindik goiz da eta ez dago iñortxo ere aldamenean. Arbol baten azpian exerleku bat billatu eta exeri dira.

Elkarri begiratzen diote eta Martin mutututa dago. Ez daki nundik asi. Bi pekatu aundi baditu egiñak: bata, Kaxilda postura artan utzi eta Ameriketara iges egiña; bestea, Ameriketean gertatua, eta orregatik egon bear izan du lau urte luze espetxean.

Anitak galdetzen dio:

— Ez al duzu itzegin bear, Martin?

— Bai. Zu izango zera, nere okerrak lendarabizi jakingo dituzuna. Ain biotz zabalez mintzatu zera zu ere nerekin. Zuri dana dan bezela esango dizut, zuk neri esan didazun bezela.

»Anita, zu itxasontzira sartu ziñanean, begi beltz oiekin zein polita zeran bereala konturatu nintzan. Zure pauso guztiak zaindu nituen. Bakarrik etorria ziñala ikusi nuen. Geienak, pa-

miliko edo lagunen batekin etortzen dira portura. Zu, berriz, iñor ere gabe; itxasontzira igo eta barandillatik begira.

»Ni zure ondotik pasatzen nintzan; bañan ezer esan gabe. Alako batean, xuxenean joan eta agurtu zindudan. Zuk irripar batekin asera eman ere bai gu biok gaur daukagun adiskidetasanari. Eta orain or dijoaz nere aitorketak.

»Nik lendabizi gezurra esan nuen eta barkatu zaidazu. *Islas Orcadas*'tik nentorrela esan nizun; an itxasontziak abonoakin kargatzen jarduna nintzala. Bai aldakizu nundik natorren? Ushuaia'ko presondegitik, lau urte bertan igarota. Arrituko zera, Anita, bañan egia au da: lau urte *trabajos forzados* esaten dioten oietan. Arrobian karretillarekin arria eraman eta arria ekarri. Egunero lan berdiña.

»Zergatik espetxeratu ninduten? Orain jakingo duzu. Buenos Aires'en nengoelarik, igande batean trena artu eta urrun joan nintzan, bazterrak ezagutzera, Pampa deitzen dioten alde artara. Emen dana berdiña da. Egun guztian trenean joanda ere, ez da mendi koxkor bat ere ikusten. Alde guztietan beiak, ardiak, zaldiak eta gari-zelai izugarriak.

»Erri txiki batean gelditu nintzan. Bazkaldu eta bueltatxo bat ematera. An eta emen, *gaucho* edo *vaquero* oietakoak zaldiz zebiltzan, beren errebolbera eta kutxilloa gerrian zituztelarik. *Boliche* edo taberna batean sartu eta zerbeza bat eskatu nuen. Bolitxe dana gautxo zebeteta zegoen.

»Ni, bakarrik eta iñorekin mintzatu gabe, an nengoen mostradorean zutik. Alako batean, gautxo bat nere ondora etorri eta zernai esaten asi zan: *Gringo* emen eta *gringo* an. *Gringo*, zuk dakizunez, erbestekoari esaten diote. Gero, bultzaka asi zitzaidan eta nere zerbeza lurrera bota zuen.

»Nik, nere amorruan, mostradorean zegoen botilla bat artu eta buruan jo nuen, eta... lurrera erori eta ezaguerarik gabe gelditu zan, burutik odola zeriola.

»Poliziak, etorri eta Buenos Aires'era eramaininduten. Presondegian, beste ura mututu eta itzik gabe denbora luzean egon zala jakin nuen. Sendagilleak ere, oker aundiagokoren bat gertatuko ote zan oso beldur zirala. Bañan denborarekin sendatu eta bere onera etorri zala.

»Ni, berriz, presondegitik Ushuaia'ra aldatu ninduten. Emen mota askotako personak ezagutu ditut: oso gaiztoak, gaiztoak eta oen artean mutil onak ere bai.

»Nere gurasoak badakite ni presondegian egon naizena; bañan zergatik, ez. Zu zera lendabizi jakin duzuna.

Anita ere ixil-ixilik egon da, danak entzuten, arriturik; eta Martiñi esaten dio:

— Gezurra zergatik esan zenuen?

— Egia nola esango nuen, ba? Nik etziñudan zu ezagutzen, eta zeñek esango du: Ni presondegitik eldu naiz?

— Zergatik etzenuen gizon orren ondotik

alde egin, erronkaria zala ikusirik? Alde egin bazenu, obe berarentzat eta obe zuretzat ere. Nik uste baño gaiztoagoa izan zera, Martin.

— Oraindik ez ditut, ba, danak esan, Anita. Zuk badakizu ni Euskalerritik etorri nintzala. Bañan ez, an andregaiia aurdun utzita alde egin nuela. Bai, Anita: ori ere aitortu bearra daukat. Gaztea nintzan eta buru arro xamarra, eta orixe gogoratu eta egin: danak utzi eta Ameriketara. Nere andregaiak Kaxilda dauka izena; eta izan zuen semeak, Josetxo.

Martiñek bere kartera atera du eta Anitari onela dio:

— Ona emen Kaxilda eta Josetxo.

Anitak, ondo begiratu eta esaten du:

— *¡Qué hermosa es la Casilda y qué pibe (muchacho) más lindo! ¿No te da vergüenza haberlos abandonado?*

— Bai, damututa nago. Bañan oraindik biok ezkonduko gera. Ez gaude aserratuta. Bata besteari idazten diogu eta nik egindako gaiztakeri danak barkatzen dizkidala esan dit.

— Ea ba, Martin, emendik aurrera mutil ohea izaten zeran.

— Nik, Anita, gaiztakeriak bakarrik kontatu dizkizut. Egindako mesedeak ez ditut esan. An-emenka askori lagundu izan diotet. Bañan ez nijoa aipatzera, geiegi luzatuko nuke eta.

Orduak aurrera doaz. Biak altxa eta errian barrena bueltatxo bat eman dute, ostera itxa-sontzira igotzeko.

Buenos Aires gero eta urbillago dago. Oraindik portu batzuk badira, bañan ez dira geiago jetxiko. Beti aurrera doaz: Bata besteari konseju onak ematen dizkiote. Anitak Martiñi esaten dio:

— Emendik aurrera izan gaitezen zintzoak. Ona eta txarra zer dan, biok probatu dugu. Zu, izan zeran baño apalagoa izan zaite. Indar asko duzula eta ez geiegi arrotu. Zeure burua arriskuan ikusten duzun tokitik alde egin zazu. Obe zenuen lenago ere ori egin bazenu. Etzenituen lau urte presondegian igaroko. Lau urte oietan, bearbada diru-mordoxka bat irabaziko zenuen. Atzerapen aundia izan da zuretzat ori. Orain zer egin bear duzu?

— Zer egingo dudan ez dakit. Lenagoko almazen artara beñepein ez naiz joango. Beste zerbait lantegi billatu bear dut. Eta zuk, Anita, zer egin bear duzu?

— Ni, egun bat edo beste Elenarekin pasa eta gero, gaixo-etxera joango naiz. Eta, sendatzen naizenean, besterik ez bada, *mucama* edo neskame asiko naiz.

— Eta zergatik etzera zure etxekoen ondorra joaten?

— Aien aurrera berriz joateak lotsa aundia ematen dit. Naiago dut ezkutuan bizi. Nere ama bizi izan balitz, etzitzaidan orrelakorik gertatuko. Nik zortzi urte nituelarik il zan gure ama, eta bi anaiak eta ni aitarekin gelditu gihan. Etxeko lanak nik egin bear izaten nituen, eta gañera ikastetxera joan. Ezer gutxi ikasi

nuen. Gero, pixkanaka-pixkanaka, zeozer ikasi dut.

»Amarik gabe gelditzea zer dan, ederki probatuta nago ni. Ama baita mundu ontako arriskuak alabari esaten dizkiona; eta emakumeak bere-bereak dituen beste gauza geiago ere bai. Amarik gabe edo beste emakumerik gabe etxean bakarrik bizi dan gaztea, itxu-itxuan bizi da. Ori gertatu zitzaidan neri.

»Lur-lanetan zebiltzan mutil gazteak ezagutu nituen. Batzuk mutil onak, bañan ez-jakiñak gizajoak. Baita lendabiziko maite-miñetan bat edo beste gustatu ere.

»Bañan egun batean or azaldu zan Arturo bere automobillean: mutil polita, ondo jantzia, izketan berriz oso leguna, asko zekiena. Eta ni zearo txoratuta berari begira. Bai, alde ederra zegoen, lur-lanetan zebiltzan gizajo aiei begiratu edo berari begiratu.

»Martin, gañontzeko goraberak badakizkizu eta ez noa berriz aipatzera.

BUENOS AIRES

Bide guztian elkar-izketan joan dira. Batean, oraindik urrun, Buenos Aires aundi ori ikusten dute. Laixter an izango dira eta ibillaldi au bukatu egingo da.

Gero, bearbada, ez dute geiago elkar ikusiko, eta jakingo ere ez bata bestea nun dabillen. Bañan, bizi diran arte, gogoan izango dituzte elkarri aitortutako okerrak eta goraberak. Gertakizun oiek ez dira sekulan aaztutzen. Biotz barrenean beti-betiko eramaten dira.

Itxasontzia poliki-poliki doa. *Dársena Sur'* era urbildu da. Beste ontzi askoren tartean barrera, bere tokia artzera doa. Emen bazterrari lotuko dute, eta danak jetxi eta alde guztietara banatuko dira.

Portuetan askotan ikusten dana: maitasuna eta naigabea. Batzuek elkarri besarkada maitekorrek, bata bestea aspaldian ikusi ez dutelako. Beste batzuk negarrez, geiago elkar ikusiko ez dutelako.

Martin eta Anita itxasontzitik jetxi dira. Anitak bere lagun Elena ikusten du. Elkarren-gana korrika doaz eta bata besteari besarkada maitekor bat ematen diote. Elenak Anitari esaten dio:

— *Guardaespaldas*'ekin al zatoz, Anita?

— Bai, au nere adiskide bat da. Biok itxasontzian ezagutu degu elkar.

Bata besteari eskua eman diote eta abiatu dira irurak tasis bat artzera. Elenak bere etxera eramán ditu, esanaz:

— Emen daukazute zeuen etxea.

— Eskerrik asko —dio Martiñek.

Gero, bizkotxo batzuk eta edari goxoa aterra ditu, eta ekin diote berriketan. Anitak esan dio Elenari Martin zein dan, zer egin duen eta nundik datorren. Elena izutu egin da eta onela dio:

— Bañan gurekin ona izango zera. Ez da ala?

— Bai, zuekin ona izango naiz.

Martiñek Elenari begiratzen dio. Neska polita da; txukun jantzita. Tratu egokia dauka. Trebea izketan eta asko dakien emakumea iruditzen zaio.

Bañan gau-txori oietakoa baita au ere, oso arpegi zuria dauka; eguzkiak jo gabea. Eguzkia dagoenean, lotan; eta, ezkututzen danean, irten. Itzaleko xomorroa.

Elenak Martiñi, beurekin gelditu ditekela esan dio; oe bat ere utsik dagoela. Bañan Mar-

tiñek, lotara lagun baten etxera joan bear duela erantzun dio; an dauzkala len utzitako arropa eta puska guztiak, eta gañera lenbailen agurtu nai duela.

Anitak onela dio:

— Zu etzera geiago onera etorriko, Martin.

— Bai, etorriko naiz. Nik, zuk zer egiten duzun jakin bear dut. Gaixotegira joaten zereanean, tarteka azalduko naiz zu ikustera. Gaur irurok elkarrekin afaldu bear dugu, zeuek nai duzuten lekuan, eta gastu guztiak nik ordainduko ditut.

Elenari eta Anitari ondo iruditu zaiote Martiñen borondatea, eta elkarrekin afaltzera joateko gelditu dira.

Buenos Aires'ko arrabaletako *restaurant* batera joan dira. Bazegoen soñua ere, *bandoneón* eta guzti. Martin an dago, zabal-zabal, bere bi lagunekin, puroa ortzetan duela, *empresa* bateko *accionista* dirudielarik.

Elenak esaten dio:

— Martin, dantzatu egin bear dugu.

Eta Martiñek:

— Nik ez dakit *tango* oiek dantzatzen. Nik Euskalerriko dantzak bakarrik dakizkit.

— Oso xamurra da, Martin. Ez al duzu ikusten oiek nola dantzatzen duten? Lendabiziko, Anita eta biok dantzatuko gera, eta zuk begiratu ondo. Goazen, Anita.

— Nik ez daukat dantzatzeko gogorik.

Bañan Elena solu-joleengana joan da eta *la comparsita* jotzen asi dira. Anita altxa da eta ekin diote biak dantzan. Martiñek ez du begirik galtzen. Bere artean onela dio:

— Arraioa! Ori duk dantzatzea, ori, biak zein baño zein iaioagoak!

Etorri dira eta Elenak Martiñi esaten dio:

— Orain biok dantzatu bear dugu.

Martiñek Elenari eldu dio eta asi dira dantzan. Bañan Martin zarpalla eta desegokia da, eta Elenak onela dio:

— Arrimatu zaite geiago. Ez beldurrik izan, eta, buelta ematerakoan, sartu ezazu eskubiko anka ori aurrera.

— Beno, sartuko dut, ba. Zu etzera noski asko izutuko eta.

Anita ez da geiago dantzatu. Bañan Elena eta Martin, aspertu arte. Orduak aurrera doaz eta Anitak esaten diote:

— Goazen etxera, ni nekatuta nago eta.

Alde egin dute. Elena, lenago ere orrelakoak egiten oitua, oso alai dago. Arpegia ere pixka bat gorritu zaio, kopa batzuk edan egin baititu eta umore ona dauka. Martiñi gerritik eldu dio, Anitari ere bai, eta or dijoaz irurak tasis bat artzera.

Gaur berandu egin zaiote; bañan, beste egun batean, Anitari arrabal oiek erakustera etorriko dira. Martiñek eta Elenak lenagotik ezagutzen dituzte.

Martiñi ere berandu egin zaio, bere arro-

pak eta puskak dauzkan lagun arengana joateko, eta Elenak esan dio:

— Gaur gurekin lo egin bearke duzu.

— Nik zuekin ez. Nik bakarrik lo egin bear dut.

— Bai, gizona, bai. Guk txarkeriren bat egiteko beldurra baldin baduzu, giltza emango dizut, eta zuk atea barrundik itxi eta lo egin ezazu lasai.

— Nik, atea barrundik ixteko oitura dut lenago ere.

— Mutil pizkorra zaude zu orrenbestekoa eta orren beldurtia.

Tasis bat artu dute eta badoaz Elenaren apartamentura. Gaur gastu guztiak Martiñek ordaindu ditu. Urrengoan, Elenaren txanda. Anita gaixoak ez dauka xentimorik ere.

Apartamentura sartu dira eta exeri ere bai. Bañan Anita aspertuta dago eta lenbailen oera joan bear duela esan dio Elenari. Bañan Elena ez dago aspertuta. Jostatzeko gogoia dauka eta Martiñi tentatzen eta zirikatzen asi zaio. Anita onela dio Elenari:

— Utzi zaiozu Martiñi bakean. Gu biok, bide guztian anai-arrebak bezela etorri gera, errespeto guztiarekin; eta ez nuke nai orain, azken egunetan, guk elkarrenganako daukagun maitasun garbi ori zuk zikintzea. Ezagutzen zaitut, Elena. Kopa bat edo beste edan dituzu, eta orain prest zaude gaiztakerirako eta edozein gizoneri burua galtzeko.

Irurak oera doaz. Elena eta Anita oe banatan elkarrekin kuarto batean; eta Martin beste batean.

Martiñek erlojuari begiratu dio eta goizeko laurak. Onela dio:

— Oek al dira oera joateko garaiak? Orain-txe egunsentia, iri aundi oetatik urrun bizi izan geranok ainbeste aldiz ikusi dugun egunsenti zoragarria. Eta emen orain oera, gero eguerdi aldera edo geroxeago jeikitze.

Alako batean, Martiñen atean: *dan, dan, dan.*

— Zein da?

— Elena.

— Zer nai duzu?

— Idiki ezazu, Martin. Ezin dut lorik egin.

— Eta nik zer egingo dizut, ba?

— Idiki ezazu atea. Lo artzeko pildorak or dauzkat eta artu nai nituzke, ea lo egiten dudan.

— Nik emango dizkizut. Nun daude?

— Ez dituzu arrapatuko. Atea idiki ezazu. Martiñek atea idiki du, eta Elenak eldu eta musu bat eman dio. Martiñek, arriturik, onela dio:

— Elena, artu pildora oiek eta utzi nazazu bakean, lo egin bear dut eta.

— Nik ez daukat emen pildorarik. Idekitzearren esan dizut ori, bestela etzenuen idekiko eta.

— Orain zer nai duzu, ba?

— Zurekin izketan egin.

— Au ez da berriketarako garaia. Bada-
kizu Anitak zer esan duen. Orain esnatuko
balitz eta gu biok emen ikusi, aserratu egingo
litzake, eta nik ez nuke nai ain lagunak zera-
ten biok aserratzerik. Zoaz oera, Elena.

— Eman zaidazu, ba, musu bat, Martin.

— Orra, ba, musu bat.

— Bai zakarra zerala. Ez al duzu oraindik
ikasi musu nola ematen dan? Etzegok bazte-
rretan pizkorragorik! Nik ez dakit Kaxilda nola
engañatu zenuen zuk, tonto aundi orrek.

— Bai, tontoa izango naiz. Bañan zein an-
ketatik erren egiten duzun antzeman diot, eta
caprichito ori aaztu eta ondo lo egin.

— Barkatu, Martin.

— Barkatuta dago.

Martin oean sartu da eta ezin du lo artu.
Neska biurri orrek galerazi dio. Erlojuari be-
giratu eta goizeko seiak. Berriz ere jeiki da eta
ideki du leioa. Eguzkiak artuta dago iri aundi
ori. Bean jendea aruntz eta onuntz. Izparringi-
-saltzalleak, *canillitas* deitzen diote emen, oiuka:

— ¡Prensa! ¡La Nación!

Martiñek onela pentsatzen du:

— Nik ez dut orain lorik egingo. Jantzi
eta alde egin bear dut emendik bera.

Jantzi da eta joan da bien gelara. Atea ide-
ki eta deitu du:

— Anita.

— Zer nai duzu?

— Bera noa eta itxi ezazu atea barrendik.

Anita jeiki da eta Martiñi esaten dio:

— Nora zoaz dagoeneko? Oraindik goiz da.

— Bai, goiz da. Bañan ezin dut lo egin eta bueltatxo bat ematera noa.

Martiñek, bere lagunaren etxera joatea ere pentsatu du; bere erropak eta puskak dauzkan etxera. Emen apupilo bezela egoten baitzan. Bañan joaten bada, denbora asko igaroko duela eta gerorako utzi du.

Restaurant batean sartu eta gosari txikia egin du. Orain or doa, bazterrak ikusiaz, *Parque Zoológico* aldera. Emen denbora asko egin du.

Eguerdia da eta Martin etxera doa. Gora igo eta deitu du. Anita atera da eta esan dio:

— Nun ibilli zera, Martin?

— Buelatxo bat egin dut zoologikoan barrera. Zu nola zaude, Anita?

— Ni ez nago ondo. Zearo aulduta nago. Ez daukat indarrik. Nekatu egiten naiz. Bigar bertan gaixo-etxera joan bear dut. Elenak lagunduko nau.

— Nun da Elena?

— Oraindik oean dago.

— Jeiki dedilla, ba, bazkaltzera joateko. Arratsaldean, nere lagunaren etxera joan bear dut nik, eta, len bezela, bertan apupilo geldituko naiz.

Elena jeiki da eta or dator erdi jantzita, aozabalka. Egun onak eman ditu eta Martiñek esaten dio:

— Bazkaltzera nora joan bear dugun pentsatu ezazu, Elena.

— Atzoko tokira joango gera, eta Anitari, Buenos Aires'ko arrabal oiek nolakoak diran erakutsiko diogu.

Ikusi ez duenak ezin lezake sinetsi, personak nola bizi ditezken latazko txabola zikin oietan. Or bizi diranak, geientsuenak alfer purrakatuak dira. Beiaren buru-ezurak exerleku-tarako ikusi izan ditugu. Exerleku bat egitea ez da gauza zalla, bañan gogoan bear eta ura falta. Asko dira danak elkarrekin lo egiten dutenak ere: aita eta ama, anai-arrebak, eta gañera zakur bat edo beste ere bai. Orri *cama redonda* esaten diote. Orixe bai dala *redonda*. Udar-eran ezin diteke orrera arrimatu. Ango eulia, usaia eta pestea! Jende au *higiene* edo garbitasunarekin aserratuta bizi dala dirudi. Zerriak ere toki askotan obeto. Gezurra ematen du: Argentina'k ainbat milla kilometro alferrik iñor ere gabe eduki eta or jendea pillan bizitzea, danak zingurriak bezela.

Irurak prest daude bazkaltzera joateko. Taxis bat deitu dute eta badoaz lenagoko toki artara. Lendabizi, Anitari arrabaletako txabola zikin oiek erakutsi dizkiote. Anita arriturik gelditu da eta esan du:

— Ez nuen pentsatzen, Buenos Aires orren iri ederra izanik, bazterrak orrelakoak izango zituenik.

Bazkaldu dute. Soñua jotzen ari dira. Bañan Anitak makal-aldi aundia dauka eta ez dira dantzatu. Bazkaria Elenak ordaindu du eta alde egin dute. Anitak lenbailen etxera joan nai du.

Ez dago ondo. Oean sartu da eta bere bi laguneri onela mintzatzen zaie:

— Gaurko bazkari au izango da, seguru aski, guk elkarrekin egiten dugun azken bazkaria. Ni bigar gaixo-etxean sartuko naiz, eta ez naiz geiago aterako.

— Zergatik ez, Anita?

— Nik zer daukadan dakitelako. Nere ama ere oso gazterik il zan, eta nik bide bera daramat. Nere ama minbiziarekin il zan, eta nik ere gauza berbera daukat.

Martiñek eta Elenak, bata besteari begiratu eta esaten diote:

— Ez pentsatu orrelakorik, Anita. Zu sendatuko zera, bai.

— Ez; ni ez naiz sendatuko. Eta bigar goizean, ondo banago beintzat, aitortu egin naidut. Lagunduko al nazu, Elena?

— Bai. Lagunduko ez dizut, ba?

Martin ao zabalik dago. Neska gaixo orrek esan dituenak, gezurra iruditzen zaizkio. Bere artean:

— Nik ainbeste maite dudan neska gaixo onek il egin bear ote du, ba? Jaungoikoak lenbailen sendatu dezala.

Anita lo artzera doa. Begi beltz polit aiek ixtera doaz. Elenak Martiñi esaten dio:

— Lenago apupilo egon ziñan etxe artara, gaur joan bear duzula esan duzu. Bañan bigar arte geldi zaitte. Nik bigar Anitari elizara lagundu bear diot, eta gero gaixo-etxera eramán. Zergatik etzera zu ere gurekin etortzen?

— Geldituko naiz, ba. Badakizu nik ere aitortu naia daukadala. Urte batzuk badira lan ori egin ez dedala, eta bigar Anitarekin batean aitortu eta Jauna artu bear dut. Eta zuk, Elena?

— Ni ez naiz beñere aitortu.

— Orduan onezkero bekatu-mordoxka badaukazu.

— Bai; apaiza izutu egingo litzake.

— Ez, Elena; ez duzu apaizik izutuko. Apaizak, lenago ere epelak entzunda daude. Gañera, naiago dute iñoiz joan gabea edo bakan joaten danari entzun eta barkatu. Ez astean bein edo bi aldiz *lata* ematera joaten diran aiei. Oietako bat ikusi orduko, badakite zertsu esan bear duan ere.

— Nik ez dakit apaizari zer esan bear zaion, eta otoitz bat ere ez.

— Etzaitte geiegi estutu. Zer egin bear duzun, apaizak berak esango dizu. Zertan utsegin duzun eta zenbat aldiz, memori ona ez baduzu beñepein, gutxi gora-bera esan eta aski duzu.

Anita, lo-kuluxka egin eta esnatu da. Bañan ez dauka ibiltzeko gogorik. Ebainduta dago. Odolak auldu egin zaizkio. Ez dauka indarrik. Aitutzen ari da.

Arratsean ez dira iñora irtengo, eta Elena afaltzeko zerbait ekartzera joan da. Bien bitartean, Martin eta biak gelditu dira. Jardunalditxo bat egin dute. Martin, naiz mutil azkarra eta indartsua izan, oso bera da, negarra axalean

daukana, eta negarrari eman dio. Elena etorri da eta, orrela ikusirik, onela dio:

— Zer gertatzen da, Martin?

— Ezin dut sinetsi Anitak gure artetik alde egin bear duenik.

— Bañan, Martin: ikustera sarritan joango gera.

Eta Anitak:

— Bai; zuek joan beariko duzute. Ni ez naiz onera geiago etorriko.

Bere maleta artu eta eskutitz bat atera du. Itxita dago eta azalean onela ipintzen du: *Al Director del Centro Anticanceroso Nra. Sra. de Luján.*

Anitak onela dio:

— Emen barruan, *análisis* eta gañontzeko nerekin egindako proba guztiak dira. Midikuak, ez idekitzeko esan zidan, eta zuzendariari emateko. Orrela, ba, bigar danok banatuko gera: Ni, gaixo-etxera; Martin, lenago egoten zan toki artara; eta Elena, emen.

Aparia prest dago eta exeri dira irurak. Bañan gogo aundirik ez daukate. Saminduta daude, naigabetuta, urrikalduta. Martiñek eta Elenak, sobre itxi ura ikusi dutenean, antzeman diote, gutxi gora-bera, an barruan zertzuk ipiñiko zituzten Río Gallegos'ko midiku aiek. Anita mintzatzen da:

— Nere lagun maite Elena eta Martin: Bigar ez dut nik denborarik izango. Orregatik, gaur gauza batzuk esan nai nituzke. Martin, zer egin bear duzu orain?

— Lendabizi, lana billatu. Gero ez dakit zer egingo dudan.

— Bai al dakizu zer egin bear duzun?

— Zer egin bear dut?

— Kaxildarekin lenbailen ezkondu. Ekarrizazu onera Josetxorekin eta jarri zaitezte elkarrekin bizitzen. Emakume gaixo ori ez dezazula orrela eduki. Nigmatik negar egiten duzu. Eta, ez al zera urrikaltzen, orrenbeste urtean aaztuta dauzkazun emakume eta mutiko oietaz?

— Bai, oroitzen naiz. Bañan lendabizi lana egin bear dut eta diru pixka bat aurreratu. Nola ekarriko ditut, ba? Oraindik diru gutxi daukat, eta, zuk dakizunez, lau urtean ez dut xentimorik ere irabazi. Bañan, al dudanean, ekarriko ditut eta ezkonduko gera.

— Orain zuregana nator, Elena. Utzi ezazu alde batera orain arte egin duzun bizimodu ori, eta izan zaite garbia. Nik ondo dakit gauza oien berri. Ni gogorrean egon naiz zikinkeri artean. Bañan zu, zeuk nai izan dezulako. Orregatik, nai duzunean utzi zenezake. Zuk ez daukazu iñoren beldurrik. Zu, zeure buruaren jabe zera. Gañera, ikasitako neska zera, eta lana nun nai billatuko duzu. Bide garbi bat artuko al duzu, Elena?

— Bai, artuko dut, Anita.

Martiñek itzegiten du:

— Bigar goizean goiz xamar jeiki bear dugu, elizara baraurik joan, aitortu, meza entzun eta Jauna artzeko.

Elenak:

— Zer esan bear diot nik apaizari?

Martiñek:

— Belaunikatu zaite eta esaiozu: *Ave Maria purísima*. Eta berak esango dizu: *Sin pecado concebida María Santísima*. Gero galdetuko dizu: Zenbat denbora da azkeneko aitortu zerala? Eta zuk zer esan bear diozun? Sekula santan aitortu etzerala.

— Eta gero?

— Nik ez dakit, ba. Ni ez bainaiz apaiz istudiatua. Bañan zu bezelako bat, bere denborako pekatu guztiekin, zama astunarekin, damutu eta barkazio eske joatea, apaizarentzat nobedadea izango da. Orrelakoak gutxitan joango baitira. Seguru aski, pittinkeriekin dabil-tzan oiek baño obeto artuko zaitu. Bai, Elena, bai; gero ere joateko gogoarekin geldituko zera. Eta zuretzat, Anita, ez daukat ezer ere esan bearrik. Zu lenago ere aitortu izan zera eta zer egin bear duzun badakizu.

— Bai; nik badakit zer egin bear dudan.

Martiñek:

— Bigar goizean goiz deituko zaituztet eta oera lenbailen joan zaitezte.

Danak, oitura duten bezela, bata besteari musu bana eman diote eta oera joan dira.

Martin goizean goiz esnatu da. Asi da banan-banan zokoan dauzkan pekatu zar oiek gogoratzen:

— Orrenbeste urte dira On Ramonekin aitortu nintzala. Urte-mordoxka da eta aitor-

keta on bat egiteko premi ederra daukat nik ere.

Martin jeiki da. Esnatu ezker oean ezin egon diran oietakoa baita. Errebista bat artu eta ikusmiran asi da. Atea jo dute. Ideki du eta Elena da. Esaten dio:

— Gertu al zaude, Martin?

— Bai; berealaxe prest nago ni. Anita jeiki al da?

— Ez; bañan orain deituko diot.

Irurak etxetik atera eta eliz aldera doaz. Barruan sartu eta zutik daude, alde guztietara begira, betizuak bezela. Bakan joaten danaren señailea da ori. Astean bein edo bi aldiz joaten diran oiek, ez dira orrela geratzen. Oiek, bazterretara begiratu gabe, aurrera xuxenean dijoaz.

Banatzen asi dira. Martin aitortu batera joan da; Anita eta Elena beste batera. Martin, aitortu ondoren, Anita eta Elenaren ingurura urbildu da. Atera da Elena noizbait ere eta Anita jarri da. Elenak Martiñi esaten dio:

— Zer egin bear dugu orain, Martin?

— Meza entzun eta Jauna artu.

Eliza barrutik atera dira. Elena pozez beterik dago: apaiza oso sinpatikoa zala eta berriz ere joateko gogoarekin irten dala.

Anita ixilik dago. Pentsakizun aundiak dauzka. Ainbeste maite dituen bi lagun oiek, laixter betiko utzi bearko ditu. Elenak onela esaten dio:

— Anita, zu ez al zera elizatik pozez aterara?

— Bai; pozez atera naiz. Bañan nik badaukat beste kezka eta larritasun izugarri bat.

— Zer da ba?

— Laixter nora joan bear dudan ez al dakizute?

Martiñek:

— Aldaketa orrek orrenbeste kezkatzen al zaitu? Zu berealaxe sendatuko zera eta berriz ere elkarrekin ibilliko gera. Orain goazen *restaurant* batera. Nik oraintxe badaukat zeozer artzeko gogoia, eta zuek ere izango duzute.

Sartu dira *restaurant* batean eta gosaldute. Bañan Anitak ez dauka ezer artzeko gogorik. Aoa juxtu-juxtuan busti du. Gaixo-etxe artara lenbailen alde egin nai du. Tasis bat artu dute eta esan diote:

— *Al Centro Anticanceroso Ntra. Sra. de Luján.*

Iritxi dira. Anitak, sarreran dagoen mojatxoari eskutitz itxi ura eman dio. Mojak esaten diote:

— Itxogin ezazute pixka bat emen. Exeri zaitezte.

Anita barrura eraman du. Elena eta Martin bertan gelditu dira. Egonaldi luzea egin ondoren, mojatxoak deitu diote, nai dutenean barrura igarotzeko esanaz, eta Anita oean dagoen gelara lagundu ditu. Emen beste mojatxo bat dago eta au onela mintzatzen zaiote:

— Anita orain nerekin gelditzen da. Nik ondo zainduko dut eta berealaxe sendatuko da.

Eta alde egin du. Elena eta Martiñek, Anitarekin jardunaldi bat egin ondoren, elkarri musu bana eman eta badoaz. Bañan mojatxoa an zegoen zai, zerbait jakin naiean. Galdera batzuk egin dizkiote:

— Sendi edo pamilikoren bat al duzute Anita?

— Ez; onek ez dauka emen iñor ere bere aldekorik. Gure lagun on bat da, asko maite duguna eta lenbailen sendatzea nai genukena.

— Alegiñak egingo ditugu.

Elena eta Martin goibelduta doaz. Tasis bat artu eta iri barrura joan dira. Banatzeko ordua iritxi da. Elenak Martiñi esaten dio:

— Noiz joango gera Anita berriz ikustera?

— Ez dakit. Deituko dizut. Orain nik nere lagun orren etxera joan bear dut, eta lenbailen lantoki bat billatu.

Biak apartatu dira. Martin bere lagun orren etxera doa.

LANEAN

Lagun ori euskalduna da. Ushuaia'ra eramán zuten bitartean, Martin beraren etxean egoten zan apupilo, eta emendik joaten zan lanera, almazen aundi batera.

Atea jo du eta Joxepantoni atera zaio:

— Ondo al zerate?

— Ondo; eta zu, Martin?

— Nik ere ondo esan bearako. Nun da Bartolo?

— Or dabil nunbait ere. Laixter etorriko da. Aurrera, Martin. Zure lenagoko etxea emen daukazu. Zerbait artu nai al duzu?

— Ez; orain ez dut ezer ere nai.

Alako batean, Bartolok atea jo du eta Joxepantoni idekitzera joan da. Esaten dio:

— Ez dakizula zein dagoen emen!

— Nik zer dakit, ba?

Bartolok Martin ikusten du eta bata besteari besarkada aundi bat eman diote.

— Ateak idiki al dizkitek, motell?

— Bai, bialdu niotek; ez nik nai orduko.

Martiñek presondegiko gorabera guztiak kontatzen dizkio: zer egiten zuen eta nola igarro dituen lau urte bertan. Bartolok esaten dio:

— Orain zer egin bear duk?

— Etzekiat, motell. Nun edo an lana egin nai nikek.

— Ondo etorri aiz, ba! Nik lan asko zeukat. Bakarrik ezin moldaturik nabillek, eta askotan batedobat artu bear izaten diat laguntzeko. Lenagoko lan berean ari nauk ni orain ere: esnea banatzen. Goizean, lendabizi datorren trenean, marmita-mordo bat bialtzen zidatek, eta ni kamionetarekin joan eta alde guztietan banatu. Gañera, nai izan ezkeru, geiago ere bialduko zidatek. *Tambo* deitzen dioten ganadu-toki oietatik, esnea barra-barra zetorrek; eta emen, saldu ezkeru, irabazbide ona zegok. Gañera, ez duk egun guztiko lana: goizean banatu eta arratsaldean osteru marmita utsak bialdu. Esne-artzalle jakiñak zeuzkat. Eraman eta utzi besterik etzegok. Zer iruditzen zaik, Martin? Nai al duk nerekin lanean asi? Gu biok ondo moldatuko gaituk eta irabazbide ona izango duk. Gañera, arratsaldean ordu asko izango dituk libre, nai duken tokira joateko.

— Konforme negok, ba. Biok asiko gaituk.

— Bigar bertan asiko nauk esne-artzalle berriak billatzen, eta esne geiago bialtzeko deituko ziotet.

Bartolo eta Martin ondo konpontzen ziran

lenago ere, eta orain, biak elkarrekin, etxe be-
rean, bata besteari lagunduaz, etorkizun ona
daukate.

Martiñek Bartolori galdetzen dio:

— Esne ori nundik eldu duk?

— Tandil'tik bialtzen ditek. Emen izuga-
rrizko bei-pillak zeudek eta esnetara saiatzen
dituk. Neri, nai dudan aña esne bialduko zi-
datek. Ez al duk beñere entzun: *la piedra mo-
vediza de Tandil?*

— Zer duk ori?

— Ori, *una de las siete maravillas del mundo* uen. Arri izugarri bat, tonelada asko-
koa. Goian pisu ikaragarria eta bea meiarra,
txiba bezela. Bearbada, mundua mundu dan
ezkeroztik gelditu gabe balantzaka zebillena.
Amaika buru-auste eman ziotek orrek mundu
guztiko jakintsueri. Bata besteari galdetzen zio-
teken: Nola diteke arri orrek orrenbeste ur-
tean balantzaka eta zutik irautea? Arri orren
ondoraño, automobilak joateko bidea egin zi-
teken. Gañera, *hotelak* eta ostatuak jendearen-
tzako. Arri orren inguruan sekulako mugimen-
dua baitzebillen. Mundu guztitik zetozteken
ori ikustera. Mirari bat bezela zeukaken jen-
deak. Bañan zer duk eta egun batean or joan
uen goitik bera amilka, bazter guztiak porra-
katuaz. Seguru aski millaka edo milloika urte-
tan balantzaka zebillen arri ura, ilda zegok be-
ko zokoan.

Bartolo eta Martin elkarrekin lanean asi
dira. Esne-artzalle berriak billatu dituzte, eta

esne geiago ekarri ere bai. Biak mutil azkarrak izanik, ondo moldatzen dira esnea banatzeko.

Martiñek, leku askotara joaten baita, ezaguera berriak egin ditu, pixkana-pixkana beti arpegi berriak ezagutuaz.

Garai onerako egiten dituzte banaketa oiek, eta arratsaldean denbora asko dauka, nai duen tokira joateko.

ZAÑAK MOZTUTAKO LANDAREA

Martiñek Anitari bisita bat egitea pentsatu du. Elenari deitu eta biak elkarrekin joateko gelditu dira. Martiñek tasis bat artu eta Anita-rengana dijoaz.

Onek, gelan sartzen ikusi dituenean, oetik ia salto egin du bere pozarekin. Musu bana eman diote, galdetu ere bai nola dagoen, eta onela erantzuten du:

— Ni gero eta aulago nago. Ez daukat in-darririk, eta jateko gogorik ere ez. Zañak moztutako landare bat bezela naiz ni; pixkana-pixkana igartu egin bear. Denbora gutxirako nago emen. Laixter geldituko zerate Anitarik gabe.

— Ez, Anita, ez! Orrelakorik ez pentsatu! Sendatuko zera, bai, oraindik! —diote Elena eta Martiñek.

Bañan ez dute Anita engañatzen. Badaki zer gertatuko zaion denbora asko baño len. Elena eta Martin ere konturatu dira asko txartu dala eta, usterik gutxienean, ainbeste maite duten Anita gaixoaren azkena izango dala.

Martiñek, lanean ari dala esan dio; lenago-ko lagun ura eta biak esnea etxez-etxe banatzen dutela eta oso ondo dijoazela.

Elena, urrikalduta, ixil xamar dago eta Anita-k galdetzen dio:

— Eta zuk, Elena, zer egiten duzu?

— Nik orain ezer ez. Apartamentua salgai daukat eta, saltzen baldin badut, Bahía Blanca'-ra nere aizparengana joango naiz. Badakizu arek *Salón de Belleza* eta *Peluquería de Señoras* daukala, eta biak elkarrekin egingo dugu lana.

— Bai, bañan etzaita presaka ibilli, Elena. Ez nazazula ni emen bakarrik utzi. Zuk bada-kizu nik ez daukatela emen iñor ere; zu nere aizpa bat bezela zerala. Ain bakarrik arkitzen naiz ni mundu ontan. Zure eta Martiñen adis-kidetasuna bakarrik daukat nik. Etorri zaitzete biak al duzuten guztian, alaitasun aundia ematen didazute eta.

— Etorriko gera, Anita.

Eta musu bana eman eta alde egin dute. Martiñek Elenari esan dio:

— Goazen biok oñez, bazterrak ikusiaz, oraindik goiz degu eta.

Erri barrura badoaz eta or azaltzen zaiote *adivina* edo etorkizunaren berri dakien oietako bat, esanaz:

— *¿Les hago la buena ventura?*

— *Pues sí* —esaten diote biak.

Elenagandik asi da. Esku polit ura artu du bere esku beltzen artean eta onela dio:

— Zu, orain arteraño pauso txar asko emandako emakumea zera; loikeritan ibillia. Zeurezeurea duzu zuk griña ori. Bearbada damututa zaude eta garbitasunean bizitzeko asmoa ere badaukazu, bañan lenagoko zikin artean erortzeko arrisku izugarrian zaude. Gañontzekoan, maitasun eta biotz oneko emakumea zera. Zure etorkizuna, auleri ori alde batera uzten baduzu, ona; bestela, negargarria.

Gero Martiñi deitu dio, biai banaka itzegiten baitiote:

— Zuk askatasuna bear duzu. Besteren mendean egona zera, gaiztakeriren batzuk egin izan dituzulako. Eta oraindik etzaude oso damututa. Damutu zaite benetan. Gañera, zure ezpain lodi oiek, *sensuales* esaten diote, emakumeenganako zuk daukazu auleria erakusten dute.

Martiñek:

— Zer ikusteko daukate ezpain lodiak beste gauza oiekin?

— Bai, asko gañera. Edozein personak, jakinduri pixka bat daukanak, segituan antzemandio dio zu emakume-zalea zerala. Griña ori badaukazu, bañan ez duzu maitasunetan suerterik izango.

Martiñek Elenari:

— Zer esan dizu, Elena?

— Neri ia danak asmatu dizkit. Arrituta utzi nau. Badirudi, ni zein naizen norbaitek esan diola. Eta zuri, Martin?

— Neri ere ia danak asmatu dizkit. Bañan gauza bat ez diot sinisten noski. Nik ezpain lodiak ditudala eta emakume-zalea naizela. Zer ikusteko daukate ezpañak gauza oiekin?

— Bai, Martin, bai; asko gañera. Guk asko begiratzen diogu ezpain lodiak dituen gizonari. Gure kutiziaren atsegingarri oiek baitira. Zenbait gizonak, zuk dauzkazun ezpain mami-tsu oiek baleuzka, emakume danak txoratuko lituzke. Bañan zu gizarajoa zera eta...

— Beno, Elena; gaurkoa naikoa dugu. Anita ikustera noiz joango gera berriz?

— Deituko dizut.

AZKEN AGURRA

Martiñek eta Bartolok elkar oso ondo ar-tzen dute eta esne-banaketa ori gora doa. Arra-tsaldeetan, denbora baitute, tarteka Buenos Ai-res'en dagoen euskaldunen arteko elkartasun batera joaten dira. *Laurak Bat* deitzen diote. Au, Euskalerriko puska bat bezela da. Buenos Aires'ko eta inguruetakoko euskaldun guztiak emen biltzen dira.

Martin eta Bartolo ortxe daude. Biak mu-sean ari dira. Alako batean, Joxepantonik Mar-tiñi telefonoz deitu dio: etxera lenbailen joa-teko, emakume gazte bat zai daukala.

Bartolok, illea artzeko gogoia dauka eta esa-ten dio:

— Ixilkako adiskideren bat al duk ori? Ez didak neri ezer esan orain arte.

— Gero esango diat. Bazekiat gutxi gora-bera zer gertatzen dan. Gero arte, Bartolo.

— Gero arte, Martin.

Martin etxera lasterka doa. Elena an da-go zai:

— Goazen aguro, Martin. Mojatxoak deitu dit: Anita bizirik ikusi nai badugu, segituan joateko.

Tasis batean joan dira. Sartu eta an dago Anita gaixoa, mojatxoa bazterrean duela. Miruak txitoa bezela, eriotzak atzaparretan artuta dauka eta ezin dezake iges egin.

Elena eta Martin ikusi dituenean, eskua gora atera du, azken agurra egin naiean. Mutututa dago. Ezin du itzegin. Ezpain polit aiek itxita daude. Lenago ain gorriak ziranak, orain ubeltuta. Begi beltz polit aiek, lenago bi ikatzkozkor piztu berriak bezela argi egiten zutenak, orain itzalita.

Elenak eta Martiñek negarrari eman diote, eta ia oztu dan arpegi polit artan musuka asi dira. Pixka bat atzera egin dute eta Sor Katalinari galdetzen diote:

— Zer iruditzen zaizu? Laixter utziko al gaitu Anitak?

— Bai, laixter utziko gaitu. Orrenak egin du. Gaixoa! Bere gertakizun guztiak esan dizkit neri, etxetik atera eta orain arterañoakoak. Urrikaldu eta saminduta nago.

Urbildu dira. Sor Katalinak eskutik eldu dio eta onela esaten du:

— Oraindik bizi da.

Elena musu ematen asi zaio, bañan Sor Katalinak esaten dio:

— Utzi zaiozu, eriotzean dago eta.

Sor Katalinak petxuan gurutze aundi bat ipiñi dio. Anitak, begiak pixka bat azken aldiz

ideki, eskuak atera, gurutzeari eldu eta ilda geratu da.

Irurak negarrari eman diote. Sor Katalinak ere maite baitzuen eta pizkortzearren alegiñak egin baitzituen. Bañan aren egiñalak alferrik. Eriotza datorrenean, zer egiterik ez dago.

— Orain zer egin bear dugu? —dio Elenak.

Sor Katalinak esaten diote:

— Jantzi egin bear dugu. Gero, segituan *Chacarita*'ra eraman eta bigar arte depositoan utzi.

Martiñek:

— Ezin al diteke bigar arte bertan utzi?

— Ez, iñola ere. Emen ez da etxeetan bezela. Etxeetan, eun bat eta geiago bertan euki diteke. Bañan, Buenos Aires ontan, asko daude gaitz onekin beren etxeetan, emen oerik ez dagoelako. Bearbada, gaur bertan beste bat jarriko da oe ontan. Orain, Anita jantzi bear dugu —dio Sor Katalinak.

Armariotik beraren puska guztiak atera eta esan du:

— Ikusiko duzute zer apain jantziko dugun. Il da gero ere polita baita.

Sor Katalinak eta Elenak Anita apaindu dute eta kajan sartzeko prest daukate. Sor Katalinak, kajak bertan dauzkatela esaten diote, eta bat ekartzeko deitu du. Ekarki dute eta barruan sartu ere bai.

Martiñek kaja arlote orri begiratzen dio. Bere artean pentsatzen du:

— Anita gaixo orrek ez al zuen kaja poli-tagorik merezi? Kaja soil bat, juxtu-juxtuan barniz pixka batekin beztua, batere apaindu gabea.

Martiñek kaja dotore bat pozik ordainduko zuen, bañan ixilik geratu da. Sor Katalinari esaten dio:

— Ezin al diteke gurutze aundi ori Anita-ren eskuetan utzi? Ori eskuetan zuelarik il zan, eta nik berak eramatea nai nuke.

— Ez, Martin, ez. Ori, paretean zintzilik egoteko gurutzea da; gañera, oso aundia. Nik gurutze txiki polit bat ipiñiko diot.

Bai ala egin ere.

Bi mutil gazte etorri dira, furgoneta prest dagoela esanaz. Bien artean Anita artu eta an daramate Buenos Aires'ko kanposantu aundi artara. Irurak negarrez asi dira, eta Martin eta Elenak berarekin joan nai dute. Bañan Sor Katalinak esaten diote:

— Zertara joan bear duzute, an utzi eta alde egingo dute eta?

Martiñek Sor Katalinari esaten dio:

— Bigar nik meza bat atera nai diot, eta zer ordutan izango dan jakin nai nuke.

— Kanposantuko apaizari segituan deitu ko diot.

Deitu dio eta goizeko zortziretan izango dala, eta meza ondorenean lurperatuko dutela.

Sor Katalinak, berak ere Anitari azken agurra ematera joan bear duela esaten diote; eta,

gañera, Jauna artu eta meza entzun nai duela, beraren animaren alde.

— Gu biok ere orixe egin bear dugu, Elena.

— Bai, orixe egingo dugu.

Martiñek Sor Katalinari esaten dio:

— Bigar tasis batean etorri eta irurok elkarrekin joango gera. Bigar arte, Sor Katalina.

— Bai, bigar arte.

Anita egondako gelari azken aldiz begiratu diote eta ura utsunea! Biak bata besteari eskuetik eldu eta negarrez doaz. Beren lagunik maitteena galdu baitute.

Martin, goiz jeiki eta aitortzera joan da. Gauza bera egin du Elenak ere. Mirari au Anitari zor dio, bide zuzenean berak jarri baitzuen.

Elena ez da orain lengoa. Beste bat da. Lenago, ia gauero *Maipu Pigalls* eta onelako gau-txorien elkarte oietara joaten zan. Orain berri-ze, zearo damututa, bide xuxen eta garbi bat artuta dauka.

Martin tasis batean joan zaio eta Elena prest dago.

— Aitortu al zera, Elena?

— Bai, aitortu naiz. Eta zu, Martin?

— Ni ere bai. Goazen.

Badoaz Sor Katalinaren billa. Irurak tasi-sean igo eta *Chacarita* aldera. Iritxi diranean, kapillan sartu eta mojatxoak esaten diote:

— Oraindik denbora badaukagu eta beraren animaren alde errosarioa errezatuko dugu.

Sor Katalinak errosarioa atera du eta erre-
zatzan asi da. Bañan Elena ixilik dago, eta Mar-
tiñek, erdi euskeraz eta erdi erderaz, zeozer
esaten du. Mojatxoak ez du ezer konprenditzen
eta Elenari esaten dio:

— Ez al duzu ezer esan bear?

— Nik otoitzean ez dakit, eta Martiñek
euskeraz bakarrik daki.

Andik aurrera, Sor Katalinak ixilik esan du
errosarioa.

Mutil koxkor bat etorri da eta aldareko
kandelak piztu ditu. Apaiza ere segituan azaldu
da meza ematera. Aitaren egin ondoren, onela
dio:

— Meza au, Anita Ramos'en animaren al-
de izango da.

Eta asi da otoitzean. Meza-denboran irurak
Jauna artu dute. Bukatu ondoren, apaizarenga-
na joan dira, elkarrekin depositora eramateko.

Egualdi illuna dago, Elena eta Martiñen
biotzak bezela. Apaizak esaten diote:

— Goazemazute depositora.

An kaja geiago ere badira; bañan Anitare-
na ezaguna da, danetan arlotena eta kaxkarrena.

Zuloa eginda dago. Bi gizasemek, Anita gai-
xoa artu eta aruntz daramate. Apaiza aurretik
eta berak ondotik doaz, kanposantu izugarri
artan barrena. Euri-tanta batzuk asi ditu. Ba-
ñan ez Elena, ez Martin, ez dira oartzten. Beren
biotzetan beste pentsamentu sakonago batzuk
daramazkite.

Iritxi dira eta Anita zulo ondoan utzi dute. Negarrari eman diote eta Martiñek apaizari esaten dio:

— Ez al genezake azken aldiz Anita ikusi?

— Bai; ikusi dezakezute.

Eta bi gizaseme aieri esaten diote:

— Ideki ezazute kaja.

Martin, aurrean belaunikatu eta aitaren egin ondoren, otoitzean asi da. Euri-tanta aiekin Anitari arpegia busti zaio, eta Martiñek sakeletik pañuelo txuri bat atera eta legortu dio. Azken musua arpegi polit otz artan eman eta negarrez atzeratu da.

Elena, ia min eginda dago. Sor Katalinak besotik eldu dio. Ez dira gauza nola lurperatzen duten ikusteko eta alde egiten dute. Martiñek Elenari esaten dio:

— Bigar, nola gelditu dan ikustera etorri bear dugu.

— Bai —dio Elenak—. Gañera, lore batzuk ekarriko dizkiot nik, gañean ipintzeko.

Sor Katalinak Elenari esaten dio:

— Anitaren puska batzuk or gelditu dira eta oiek zuek eraman bear dituzute.

— Bai; eramango ditugu.

Sor Katalinak atera ditu danak: esku-muturreko erloju merke bat, beste txutxeri batzuk eta arropak, danak ere ezer gutxi balio dutenak. Bañan Elenak jasoko ditu, eta zaindu ere bai bere lagun maitearen oroigarri oiek.

Sor Katalinari, Anitarekin eta beurekin ain maitekorra izan dalako, eskerrik beroenak ema-

ten dizkiote; eta, agurtu ondoren, alde egiten dute.

Urrengo egunean, Elena eta Martin osterak kanposantura joan dira. Elenak lore polit batzuk daramazki. Anita lurpean dagoen tokira iritxi eta arriturik geratu dira. Lur gañean gurutze kaxkar bat. Onela ipintzen du: *R.I.P. Besterik ezer ez.*

Martiñek Elenari esaten dio:

— Anita ezin diteke onela utzi. Gaur edo bigar, nun dagoen ere ez dugu jakingo. Gurutze polit bat ipiñi bear diogu, beraren izenabizenakin. Nik ordainduko dut ori.

— Ez, Martin. Bion artean ordainduko dugu.

Eta kanposantuan gurutzeak ipintzen dituzten oiengana joan, beurek gurutze polit bat berexi, eta onela ipintzeko esan diote: *Aquí yace Anita Ramos, 1901-1924. R.I.P.*

Bañan lenbailen ipintzeko eta bigaramonean etorriko dirala. Kanposantutik alde egin dute eta Martiñek Elenari onela dio:

— Zer iruditzen zaizu, Elena? Dirudunen illetak ikusi eta gaixo onenak ikusi, alde ederra dago. Aiek kaja ederrak, inguru guztiak lorez beteta; gañera, lau lagun zintak eskutik dituztela; ondotik pamiliko eta aideak; oien atzetik lagun-mordo bat, askotan eliza betetzeraño; kanpai-soñuak, organoa, kantoreak, aldare guztietan mezak. Orrelakoetan, ildakoa norbait bazala ezagutzen da. Anitaren illetak, berriz, ixillak; iru lagun elizan, eta aldarean apaiz baka-

rra meza ematen, bere laguntzallearekin; dana ixilik. Beartsuaren illetak, baimenik gabe edo kontrabandoan egiñak dirala dirudite.

Martin eta Elena bigaramonean Chacarita'ra joan dira, Anitari gurutze berri ori nola ipiñi dioten ikustera. Biak diotenez, ondo dago; eta orain, nun dagoen jakingo dute beiñepein.

Kanposantutik irten dira eta oñez kontu kontari doaz. Elena, apartamentua saltzen duenean, Bahía Blanca'ra joango da. An aizpa bat dauka, *Salón de Belleza* edo emakumeak apaintzeko toki batekin. Eta bera ere pizkorra eta iaioa baita, laixter ikasiko du lantegi ori ere. Martiñek, berriz, lengo lanean jarraituko du, Bartolorekin esne saltzen.

MARTIÑEK IXIDRORI

Nere lagun zar Ixidro:

Aspaldi ontan ire berririk ez diat, eta gaur lerro batzuk iri bialtzea bururatu zaidak.

Nola ezkondu ziñaten jakin nian eta nere zorionik beroena bialtzen dizuet.

Ni, bakazio luze batzuk eginda, berriz ere Buenos Aires'era etorri nauk. Or ibilli nauk Patagonia aldean barrena, bazterrak ikusiaz. Tierra del Fuego deitzen dioten ugarte artarano joan niñuen, eta, an denbora-alditxo bat eginda, berriz ere lenagoko tokira.

Oraingo ibillaldi ontan ezaguera berriak egin dizkiat; personak ezagutzeko ibiltzea bezelakorik ez baituk.

Lan berri bat artu diat orain. Transporte alde batera utzi eta beste lagun batekin esne saltzen nabillek. Esnea trenean marmita aundi batzutan bialtzen zigutek, Tandil deitzen dioten erri batetik, eta guk bion artean geuren artzalleri banatu. Arratsaldean, marmita utsak oster trenean bialdu eta urrengo eguna arte jai.

Eta zuk? Zer diozute, ba, Ixidro? Nola bizi zerate Euskalerriko txoko orretan? Kabi berri ortan etsi al duzute? Zer diote Juanitak eta ire gurasoak eta Moxtok?

Onetaz ere tarteka gogoratzen nauk. Sekulan etzaidak aaztuko, jai-arratsalde batean zuen etxera joan eta egualdiak aserre-aldi izugarria nola izan zuen: euria eta aizea. Eta ire amak esan zidaken:

— Gelditu zaite, Martin. Nora joan bear duzu egualdi onekin? Guardasola ere txikitu-ko dizu aizeak. Zuretzat aña afari badago emen. Eta Ixidrok eta biok oe batean lo egingo duzute.

Ala, gelditu niñuen. Moxto, oraindik gazte xamarra, gu baño lenago joan uen lotara. Gu, izketan gelditu eta noizbait ere oera joan giñuen.

Sartu orduko, or inguruetako neska guztiak aipatu genizkin, eta, politena au zala edo ura zala, ixildu gabe ekin genioken. Alako batean, or esaten duk ik:

— Lo artu al duk, Moxto?

— Bai, lo negok.

Lo bai! Kabitik saltatzera doan erbia baño erneago zegoken ura, guk zer esaten genuen entzuten.

Beste batean, gaztetxoa nintzalarik, auzoko emakume gazte bat gure etxera etorri uen. Senarrarekin aserratu egin zala eta bere etxera joan nai zuela esan zioken gure aitari, eta bere puskak ere eramán egin bear zituela. Garai artan beorra eta karroa genituela badakik. Ai-

tak lotu eta prest jarri zian, eta arre! Martin an ziake andre orren puskek artzera. Puskek artu, andrea ere bai, eta beraren jaiotetxera eramanez nizekin, eta ondoren duro bat eman zidaken.

Garai aietan, bakoitza duroan, or inguruko andre guztiak beren etxetara eramango nizekin nik. Duro bat gauza aundia uen orduan.

Jai-egunetan, amak amar xentimo ematen zigukenez: bost, elizan botatzeko, eta beste bost bollo bat erosteko. Oraindik oroitzen nauk, sakristaua bandeja aundi batekin etorri eta kokotza azpian ipintzeko oitura nola zuen, onela esanaz:

— Purgatorioko animentzat!

Amak emandako bost xentimo txiki aiek an uzten genizkin bandeja aundi artan. Gu biok urte berdiñak zeuzkagu, eta gauza auetaz ere gogoratuko aiz.

Ordukoz ere, eliz ortan On Ramon zegoken. Onezkero, urte-pilla ederra badik gizajoak. Ikusten dukenean, nere partetik eskumuniak emaitzikiok.

Len esan dudanez bezela, goizean ia lan guztiak egiten dizkiagu, eta arratsaldean bueltatxo bat egiteko denbora izaten diagu.

Orain egun batzuk, bi lagun elkarrekin genbiltzala, emakume batek or galdetu zigukenez, *la buena ventura* edo etorkizunaren berri jakin naitote genuen. Baietz erantzun genioken.

Banaka deitu zigukenez, lendabizi nere lagunari, eta ia dana asmatu omen ziokeen. Arrituta

gelditu uen. Eta neri ere ia danak asmatu zizkidaken.

Bañan gauza batekin ez nauk konforme gelditu. Nik ezpain lodiak omen zeuzkat; *sensuales* esaten omen zaiotek ezpain oieri, eta ni emakume-zalea naizela esan zidaken. Nik esan nioken:

— Zer ikusteko daukate ezpañak beste gauza oiekin?

Eta baietz esan zidaken; edozeñek antzemateko modukoak nituela.

Orrelakorik sekulan entzun al duk? Nik bazekiat ezpain lodiak ditudala. Ezpain oek nainko bular gozo edanak dituk. Amaren bularra esku motzekin estutu eta esnea eta aparra dariotela sendotuak eta lodituak. Ez ttuttoa txupatzen aulduak, erdia aizea eta beste erdia esnea irentsiatz.

Gañera, maitasunetan suerterik izango ez nuela esan zidaken. Ederki negok ni, arek esan zituenak egiak badira.

Ezpain lodiak dituenari ezik, ezpain meari ere berdin gustatzen zaizkiotek emakumeak. Ezpain me askoak ere ikusi izan dizkiagu gauza oietan afizionatu xamarrak.

Ez diat zein zan esango; bañan bein, etxera ninjoalarik, an zegoken, bide txiorrean, ik ondo ezagutzen duken mutil bat, neskari bi eskuetatik eldu eta aurrean belauniko. Bearbada, ez intentzio txarrarekin. Bañan, orrela ikusi ezkeru, ik badakik zer pentsatzen dan. Gauza onik ez beñepein. Eta ura ere ezpain mea uen.

Orain aurretik, nere gurasoeri eskutitz bat bialdu nioteken. Etzekiat artu duten ala ez. Kaxildari ere egin bearrean negok.

Naiko buru-auste bazeukat nik ere. Emakume ori ezin ditekek orrela egon. Ni orain orrera joango banintz, zer egin bear nitek? Emen gañera irabazbide obeak zeudek. Berak nai badu beñepein, Josetxo eta biak onera ekarri nai nizkikek.

Nik bazekiat beraren gurasoak ez dutela nai-ko Kaxildak eta Josetxok alde egiterik. Bakarrik gelditzen baitituk. Bañan zer egingo diagu, ba? Guk ere geuren bideak artu bearra zeukagu, garaia duk eta, beti onela egon gabe.

Kaxilda eta Juanita lagunak dituk. Orre-gatik, Juanitari esan zaiok, Kaxilda poliki-poliki artzeko eta zer pentsamentu dauzkadan adierazteko.

Ni orrera joan, Kaxildarekin ezkondu eta Beko-errota zulo ortan bizitzen jarriko bagiña, zer etorkizun izango nitek? Orrenbeste lurralde ikusi, mota guztietako personakin artu-emanak eta ezaguerak izan, eta orain orrera joan eta erreka-zulo ortan sartu, zer egiteko?

Bi edo iru bei txarren ipurditik nere denbora guztian ezer ere irabazi gabe ibilli; goizean goiz jeiki, eta, aiek jetzi eta gero, Ambroxiori gora esne pizarrak eraman; egualdi ona bada eta txarra bada, egunero aldapa izugarri ori goiko gallurreraño igo bear; gero ganadujanak egin, eta ikulluko eta zelaietako lan guztiak.

Lan oek danak orain Kaxildak egiten dizkik. Bañan ez dituk oiek emakumeentzako lanak, eta nik alegiñak egin bear dizkiat, Kaxilda zoko ortatik atera eta onera ekartzeko.

Ez dizkik bere gurasoak nolainai utziko. Nik ondo ezagutzen diat. Bere aita eta ama asko maite dizkik eta aien ondotik ateratzeak lanak emango dizkik. Bere gurasoak ondo ikustearren, ortxe ibilliko uke ori osasuna galdu arteraño.

Onera etortzen bada, beste bizimodu bat izango dik. Emen emakumeak lan gutxi egiten dik. Geientsuenak lasai bizi dituk. Bat baka-rrik ere ez nitek arkituko, Kaxildak ainbeste lan egiten duenik.

Au dana nere errua izan duk. Guk, aspaldi ontan ezkondu eta elkarrekin bizitzen bear genian. Bañan garai artan gaztea nintzan eta bu-rua ere arro xamar; eta danak utzi eta alde.

Gaur izan bazan, ez uen orrelakorik gerta-tuko. Gaur Martiñek mundu geixeago zeukak. Gauza asko ikusi dizkik eta bizitzen ikasi ere bai. Bizimoduaren alderdi onak eta txarrak ba-zekizkiat; bai, oek geiago. Euskalerritik alde egin ezkeroztik, danetik probatu baitiat.

Egia esango diat, Ixidro: ni ez nauk orrera joango, len esan dudan bezela, bi edo iru bei-reakin nere bizi guztian madarikatzen ibiltzeko. Naiago diat emen urte batzutan saiatu eta ge-roxeago joan.

Orain nere kezkarik aundiena auxe duk:

Kaxilda etorriko dan ala ez. Ori nik lenbailen jakin nai niked, eta berari laixter idatziko zioat.

Bañan aurretik zuek, Juanitak eta biok, lan pixka bat egin dezakezute. Nik bat-batean berari esatea baño, ohea duk zuek biok aldez aurretik, poliki-poliki, bera jakiñaren gañean jartzea.

Etzekiat gañera ez ote dan komeni izango On Ramoni ere kontu au aitatzea eta laguntza pixka bat eskatzea. Onek lan asko egin dezakek.

Gauzak diran bezela ikusi ditzagun, Ixidro. Kaxildak ezin dezakek orrela luzaroan jarraitu: aita mintsu, ia ezertarako gauza ez dala; amak osasun ona, bañan urtetan aurrera. Eta zer egin bear ditek or ama-alabak bakarrik?

Nere iritzirako, onena izango litzakek errota zar ori saldu eta kalera bizitzera joatea. Ori, orain edo geroxeago egin bearra zeukatek. Etxe zar ori ain urruti zegok erritik, bear diran gauzak ekartzeko ere. Eta, gañera, beiak eta gañontzeko lanak Kaxildarentzat. Josetxorentzat eta danentzat bizimodu urrikalgarria benetan.

Ea, ba, Ixidro eta Juanita, zerbait egiten duzuten, Kaxilda eta Josetxo lenbailen onera etorri ditezen eta, merezi duten bezela, nerekin batean or baño bizimodu atsegiñago bat izan dezaten.

Besterik gabe agurtzen zaitu lagun zar onek:

Martin.

MARTIÑEK KAXILDA ETA JOSETXORI

Nere Kaxilda eta Josetxo maiteak:

Lenagoko egun batean Ixidrori idatzi nion, beren ezkontzagatik zorionak emanaz. Zueri ere eskutitz bat bidali nizuten, itxasontzitik jetxi eta aideplanoz. Ez dakit artu zenuten ala ez.

Ixidrok, Buenos Aires'en nik zer egiten du dan eta gañera zer pentsamentu dauzkadan esango zizun. Ni orain oso ondo ari naiz lanean, eta zuetaz ere askotan oroitzen naiz.

Nik badakit, gutxi gora-bera, zu nola bizi zeran: beti bezela, laixterka eta muturka; beti lanpean, burua ezin jasorik. Orixe jakin nai nuke: goizean zer ordutan jeikitzen zeran, beiak jetzi eta esnea Anbroxiori goiko gañera eramateko. Gero, askotan, andik errira, etxean bear diran gauzen billa. Eta berriz ere korrika etxera, gañontzeko lanak egitera, beti itxumustuan eta zalapartaka.

Ori ez da bizitzea, Kaxilda. Ezin diteke orrela jarraitu. Gaixorik geldituko zera.

Gañera, Josetxok ere zer etorkizun dauka or? Ikastetxeak urruti daude. Zoko ortatik norra bialdu bear duzu gizarajo ori? Orain du zer-bait ikasten asteko garaia, eta or ibilliko da jostatzen eta denbora alferrikan galtzen. Gero berandu izango da; gauzak beren garaiean egin bear dira.

Bai al dakizu, Kaxilda, zer egin bear duzuten? Etxe zar ori saldu, aita eta ama kalean bizitzen jarri, eta zu eta Josetxo onuntz nereganatorri. Oso zalla izango da gurasoak zoko ortatik ateratzea, beurek orrenbeste urtean bizitutako tokia maite izango baitute. Bañan, naita nai ez, utzi bearra daukazute etxe ori; eta, utzi bearra daukazutenez, zenbat eta lenago eta obeago.

Nik ere urte batzuk alferrik igaro ditut, xentimorik irabazi gabe, eta bizimodu berri bat artzeko garaia da. Bañan bizimodu orri bion artean eman bear diogu asera.

Ni orain ezin nindeke orrera joan. Irababazbide ona daukat eta lan au ezin nezake utzi. Lenagoko toki berean nago: Bartolorekin eta Joxepantonirekin. Esne-banaketa bion artean kamioneta batekin egiten dugu, arratsaldean marmita utsak trenean bialdu eta urrengo goiza arte lanik ez. Lan ontan pozik nabil.

Arratsaldean, tarteka, emen dagoen euskaldunen elkarte batera joaten gera. *Laurak Bat* deitzen diote. Ia danok euskaldunak biltzen gera. Beste probintzietatik datozen euskaldun geienak ere onera etortzen dira, eta, batekin

eta bestearekin elkar-izketan, ezaguera berriak egiten dira.

Orain aurreko batean, berriketa luze bat egin nuen Patagonia'n bizi dan euskaldun batekin. Onek, Santa Cruz deitzen dioten toki batean, artalde izugarriak omen dauzka. Guztira, amabost milla arditik gora. Eta geiago dituztenak, asko omen dira.

Gizaseme onek, *Los Andes* deitzen dioten mendi izugarri batzuen inguruan omen dauka etxea; emen *estancia* deitzen zaio.

Bere alabarekin —au bizi-alarguna—, eta onek daukan zortzi urteko nexkarekin, bizi omen da. Suia oso petrala zan eta apartatu egin ziran.

Gizon onek, ea berarekin joan nai nuen galdetu zidan; ni bezelako batek falta aundia egiten diola. Orduan nik esan egin bear, ba, eta gure bion arteko gertaera guztiak esan nizkion. Etzan batere arritu eta esan zidan:

— Zergatik ez duzu onera ekartzen? Ezkondu zaitezte eta gure etxera etorri, nai baduzute. Nik ondo ordainduko dizuet. Eta zuen seme orrek, oraindik ez bada beñere ikasketan ibilli, aukera ederra izango du. Nere alabak, bere alabari erakusteko, etxean *institutz* bat dauka; tituloduna gañera. Bati erakutsi edo biri erakutsi, berdin zaio ari, naiko denbora badauka eta. Frantsesa eta inglesa ere ikasiko ditu, izkuntza oek emakume orrek mendean dauka eta. Lendabiziko ikasketak egiteko, emen toki askotan daude orrelako emakumeak. An-

dik ezin litezke aurrak iñora bialdu, erritik oso urruti bizi baigera. Lendabiziko ikastaldi oiek etxean, eta gero, pixka bat kozkortzean, erri aundi batera edo Buenos Aires'era, ixtudio sakonagoak egitera. Ni Buenos Aires'era askotan etortzen naiz. Bañan zuk eskutitz bat bialdu nai badidazu, au da nere zuzenbidea: *Andres Mendigain, Estancia San José, Santa Cruz, Patagonia.*

Orra, ba, Kaxilda: emen lantegi bat ona eta beste bat ohea gizon orrek eskeñi.

Jakiñaren gañean jarri ninduen, Patagonia'n bakardadean bizi bear dala; eremu izugarriak dirala, eta askotan egunak eta asteak etxekoak besterik ikusi gabe igaro bear dirala. Bañan bizimodu lasaia dala, eta atsegiña. Gañera, errira joan bearra danean, an dauzkatela autoak.

Jan-edanaren faltarik ez dagoela. Alde guztietan naiko aragia omen da. Nai bada, ardikia; edo, bestela, zekorrak, olloak, antzarak, aatak, indi-olloak eta abar.

Eiza ere erruz omen da: eperrak eta beste egazti asko, or ezagutzen ez dituzutenak. Erbiak ere asko omen dira.

Oek, batere tirorik gabe, nai duten ainbeste arrapatzen omen dituzte. Etxe ondoan alpa pa daukate, alanbre-sarearekin inguru guztian itxita. Bestela dana jango omen luteke. Eta adar edo zartaka batzuk ipintzen dituzte eta sareari xulo bat egin, arratsean sartu ditezten. Gau erdi aldera jeiki eta xulo ura itxi; goizean sare

bat ipiñi eta bear dituztenak artu, eta gañontzekoeri atea idiki eta utzi.

Emen ondo nago, Bartolorekin oso ondo konpontzen naiz eta irabazbide ona daukat. Bañan nik mendirako gogoia beti izan dut. Ni mendi artean jaioa naiz eta mendirako zaletasuna daukat.

Uri aundi oetako bizimodua ere ez da oso atsegiña. Danok korrika eta muturka bizi gera, askotan nora goazen ere ez dakigula. Orduak eta minutuak kontatuak onelako edo alako to-kira joateko, eta beti korri, korri...

Onela bizi geranok, gaixorik gelditzeko ere arrisku aundian gaude. Nerbioak, buruko mi-ñak, biotza edo beste zerbait ez dabilhela ondo... Orrelakoak askotan entzuten ditugu, laix-terka dabilhazan oien aotik.

Orregatik, nik bakardadea eta bizimodu la-saiago bat nai nuke neretzat eta zuretzat.

Ikusten duzunez, Kaxilda, aukera daukat: Buenos Aires'en gelditu edo bestela Patagonia'-ra joan. Onera etortzen bazera, zuk naiago du-zuna egingo dugu. Zer pentsatzen duzun, lenbai-len jakin nai nuke.

Ni, lenago esan dizudanez, ezin nindeke orrera joan. Ea, ba, Kaxilda, gurasoak kale al-dera eramaten dituzun. On Ramoni esaiozu. Berak lagunduko dizute, eta bearbada etxe bat arkitu ere bai, zoko guztietako berri badaki eta:

Gañera, urruti bizi diralako eta egualdi txarra dalako, zure aita eta ama askotan meza-rik entzun gabe geldituko dira. Eta zer obeto

aienezat, kalean elizatik bertan bizitzea baño? Biak elizkoiak baitira, eta kaletik erosoago izango luteke eliza.

Gañera, kalean ez lirake bakarrik izango. Izeba Joxepa or daukate, zerbait gertatzen bazaiote laguntzeko. Eta guk ere al duguna egingo dugu, tarteka zeozer emendik bialduaz.

Amak baño lan geiago emango du zure aitak, Beko-errota'tik alde egiteko. Nik ondo eza gutzen dut ura. Esango du:

— Nola alde egingo dugu, ba, emendik? Onenbeste urtetan egindako puskez beteta daukagu etxea, eta orain danak utzi?

Beste toki askotan ere orixe egiten dute: merke edo utsean eman eta alde. Naiko lanak emango dizkizute. Bañan, saiatzen bazerate, eramango duzute.

Etxea segituan saltzen ez baduzute ere, etzaio ajolik. Gero ere, kalean bizi arren, noiz-nai saldu diteke.

Etorri zaite, Kaxilda. Nik lanerako gogo aundia daukat, eta gu irurok bizitzeko ainbeste irabaziko dut.

Ez dakizu zer poza izango litzaken neretzat, Buenos Aires ontako portu izugarri ortara joan eta itxasontzitik jeixten zuek biok ikustea. Amets bat iruditzen zait. Bañan ez dedilla amets utsa izan, egi-egia baizik.

Etorri nai baduzu, Josetxo eta biontzako dirua nik bialduko dizut, itxasontzia ordaintzeko eta gañontzeko gastuetarako.

Zure erabakiaren berri jakiteko gogoarekin gelditzen naiz, eta bai edo ez esan zaidazu, arren.

Nere aitari eta amari, Pello eta Terexari, eskumuñak eta ondo izan ditezela. Ala berean opa diotet zure aita eta amari.

Eta zuk eta Josetxok artu ezazute nere besarkadarik maitekorrena:

Martin.

KAXILDAK MARTIÑI

Aspaldiko Martin adiskidea:

Orain dala illabete, zure eskutitza artu nuen. Poz aundia ematen dit, ondo zerala jakiteak. Gu emen danok ondo, Jaunari eskerrak.

Zure eskutitz ori baño len, beste bat artu genuen, berri onekin gugana etorria. Lau urte luze egindako toki ortatik bialdu ziñuztela esaten zenuen; eta, gañera, zergatik sartu zinduzten ere bai. Guk, pamilikoak bakarrik, dakigu ori. Beste iñortxok ez daki. Ez eta Ixidrok ere. Onek ez du orrelakorik uste.

Azkeneko eskutitz orrekin buru-auste ederak jarri dituzu emen, Martin. Nik badaukat zurekin elkartu naia. Bañan, nere aitari eta amari zure eskutitza irakurri niotenean, gozoak jarri ziran biak. Dauzkaten urteekin utzi eta alde egiteko prest banago, ea zer egin bear duten biak bakarrik emen.

Gero, On Ramoni eta izeba Joxepari deitu nioten, eta danon artean poliki-poliki kon-

preni-arazi genizkioten zure arrazoiak: etzegoe-la onela luzaroan jarraitzerik eta, nai eta nai ez, erabaki bat artu bearra zegoela.

Nik ere nerean esan nioten: ez aurrera eta ez atzera zenbat denboran nagoen, zer egin ez dakidala. Beti gizasemeen lan pisuak egiten eta auzoko guztien urrikgarri. Orrela ezin diteke-la bizi.

Gañera, Josetxoren etorkizunari ere begi-ratu bear niola. Au aunditzen ari dala eta zeo-zer ikasteko garaiean dagoela. Gero berandu izango dala. Bere bolara igaro ondoren, damu-tzea alfer-alferrik dala. Josetxoren urteak dituz-tenak, asko daude poliki ikasiak, eta au, gi-zajoa, oraindik ezer ere ez dakiena; beti amari zerbaitetan laguntzen. Jostatzeko ere ez baitu emen lagunik; ama da bere lagunik oberena.

Gauza oek danak nere gurasoeri esan niz-kioten eta ixilik geratu ziran. On Ramon eta Joxepa ere tarteka mintzo ziran, eta arrazoi-a ematen zidaten. Esan nioten:

— Nik erabakia artuta daukat. Josetxo eta biok Ameriketara Martiñengana joango gera. Ondo dagoela esaten du eta irabazbide ona dau-kala. Bearbada, emendik urte batzutara, berriz ere zuen ondoan gera. Orain etxe bizitza bat kalean arkitu bear dugu, izeba Joxeparen ingu-ruan. On Ramonek bai omen daki bizitza bat utsik goiko kalean nun dagoen, eta ez dago Joxe-pa bizi dan lekutik oso urruti. Bera saiatuko omen da, eta zeñena dan edo nola dagoen iku-siko du.

Aitari beiak saldu bearko dituela esan diot eta onela erantzun dit:

— Bai, orain salduko ditut, urtean danik garairik txarrenean. Merkeen-merkeena oraintxe dago aragia. Irabazi ederrak atera bear ditut nik. Gañera, ez dira beiak bakarrik. Beko-errota'n puska asko dago, eta oek danak zeñi salduko dizkiot nik? Errota, nai izan ezkerero, lanerako noiznai prest dago. Orrenbeste urtean bere etekiña eman duen errota au, ez dago baztertua eta alde batera utzia.

— Bañan, aita: gaur errota onek ez du ezertarako balio. Ori bezela badira geiago ere geldirik daudenak eta sekulan geiago ibilliko ez diranak. Eta beste kontu bat: bei gorri ori erosten duenari, ostikolaria dala esan bear diozu.

— Ez; nik ez diot iñori ezer esango. Neri ere etzidan iñork esan, eta, ekarri nuen egun berean, bere atzetik konejueri jaten ematera ninjoalarik, bi ostiko ederrak eman zizkidan arunzkoan eta onunzkoan, *ida y vuelta*. Gañera, ezkeroztik eman dizkidanak. Zerbaitegatik nago ni anketatik, nagoen bezela. Midikuak reuma dala esaten dit. Bañan, reuma izan balitz, onezkero sendatuta zegoen, onek ematen dizkidan masajeekin.

— Aita, erostunari zuk egia esan bear diozu. Bei ori ez da segurua.

— Bai, segurua da. Orrek ez du golpe utsik.

On Ramonek goiko kaleko etxe ori zeñena dan jakin du eta errentan artu dugu. Bereala

an gera danok bizitzen. Pixka bat zuritu eta apaindu besterik ez dauka.

Oso toki polita da. Eguzkiak atera orduko bete-betean jotzen duen etxea; gure gurasoak bizitzeko toki aproposa, eta Joxepa bizi dan tokitik urbil, zerbait gertatzen bada ere bata besteari laguntzeko.

Ameriketako bideak artu baño len, Josetxok eta biok ere emen bizi bear dugu, aita eta amari etxea apaintzen lagunduaz eta gauzak antolatzen.

Ixidrok, puskak ekartzen berak lagunduko digula esan digu. Baita zure anai-arreba Pellok eta Terexak ere.

Beko-errota salgai jarri da. Bereala azaldu dira erostunak. Danak merke nai dute: urrutiko dagoela; toki aldapatsua dala; etxea ur-bazterrean eta mospela; etxe ondoraño basoa eta itzala; eta errira joateko, malda izugarria eta bide txarra.

Gure aita diru-zalea da, eskeñi txikiak egi-ten dizkiote eta onela esaten du:

— Ez dut, ba, merkeago emango. Onek gero ere or dauka bere balioa. Orain beiak, astoa, ollo eta konejuak salduko ditut.

Beiak arakin batek erosi dizkio. Astoa, ollo eta konejuak ere saldu ditu. Gurdi, golde eta gañontzeko tresna guztiak, batzuk saldu eta beste batzuk utsean eman ditu. Beko-errota utsik geratu da. Danon artean puska guztiak gora ekarri ditugu, eta orain kalean gaude.

Aitak egunero emendik Beko-errota'ra alde egiten du, puska zarrak erre eta zeozertan denbora pasatzera. Berak esaten duenez, an jaio eta bere denbora guztian an bizi, eta orain danak utzi eta kalera. Ezin da emen gurekin egon. Bañan denborarekin oituko dala uste dut.

Martin, laixter asi bear dut nik orrera joateko paperak egiten. On Ramonek lagunduko omen dit, eta zer egin bear dudan esan ere bai.

Aitak esan du, ez duzula onera dirua bialtzen ibilli bearrik; bear dana berak jarriko due-la, gu biok orrera joateko.

Josetxo ere, aita ikustera joan bear dugula esan diodanean, pozik jarri da. Onela galdetzen dit:

— Nora joan bear dugu, ama?

— Urrutira.

Aitari Gazteluzar'eko Iñaxio etorri zaio, Beko-errota erosi naiean. Biak ikustera joan dira, eta, etorri diranean, biak konforme dirala eta Beko-errota Gazteluzar'eko Iñaxiorentzat gelditzen dala esan digute.

Orra ba, Martin: zoko artako nekeak eta bizimodu latzak betiko bukatu dira. Guk ez daukagu orain ezer ikustekorik. Beko-errota beste batena da.

Denbora gutxian zer aldaketak izan diran emen, ikusten duzu. Eta oraindik aundiagoak izango dira, gu biok alde egin eta gurasoak bakarrik gelditzen diranean.

Danon laguntzari esker, gurasoak kalera eramantut, eta orain badirudi pixka bat lasaitu

dirala. Gañera, izeba Joxepak esan diotenez, zerbaitez beartzen badira, bera noiznai laguntzeko prest dago. Gero izango dira kontuak, guk alde egiten dugunean. Orduan utsune aundi bat sentituko dute.

Amaitzera noa, Martin. Zuk, guk emendik zerbait eramatea nai baduzu, lenbailen idatzi.

Noiz eta zein itxasontzitan aterako geran eta Buenos Aires'era noiz iritxiko geran, abixatuko dizut.

Emen, gure guraso eta anai-arrebai, naigabe aundia eman diote guk emendik alde egiteak. Baña beste aldera poz aundia daukate, guk elkarrekin bizitzeko asmoa daukagula jakini.

Ixidrok eta Juanitak asko lagundu digute aldaketa onetan, eta bien aldetik besarkadarik beroenak artu itzazu.

Zure guraso eta senideak, Joxepak eta On Ramonek, besarkada bana.

Gure zuzenbide berria: Goiko kalea, 22.

Esan bezela, Martin, emendik ezer nai baduzu, aguro ibilli; ni segituan paperak ateratzera noa eta.

Gaurkoz besterik gabe, besarkada maitekor batekin:

Jose txok eta Kaxildak.


ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.^a Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.^a Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*)
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (*Aitua*).

25. A. P. Iturriaga: Jolasak. (*Aitua*).
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zala-partak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. B. A. Mogel: Ipui onak. (*Aitua*).
29. T. Alzaga: Burruntziya. (*Aitua*).
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. M. Soroa: Baratzan. (*Aitua*).
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. M. Elizegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara.
37. A. Cardaberaz: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. S. Salaverria: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. Bertsolariak: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. J. R. Zubillaga: Lardasketa. (*Aitua*).
42. Uztapide: Noizbait. (*Aitua*).
43. Bertsolari-txapelketa. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. P. Larzabal: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. J. M. Satrustegui: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. P. M. Urruzuno: Iru ziri. (*Aitua*).
48. P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. A. Zavala: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. P. M. Urruzuno: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. G. Anduaga: Bertso-bilduma.
54. A. Zavala: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. Basarri: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. A. Zavala: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. C. Beobide: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. A. Zavala: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. A. Zavala: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. A. Zavala: Gaztelu bertsolaria.
62. A. Zavala: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. A. Zavala: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. J. M. Satrustegui: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. A. Zavala: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. A. Zavala: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. A. Iturriaga: Ipuiak.
73. A. Zavala: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).

- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*.)
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*.)
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*.)
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*.)
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*.)
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*.)
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*.)
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*.)
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*.)
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*.)
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*.)
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*.)
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*.)
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*.)
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*.)
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*.)
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.

129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J. M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (I).
144. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (II).
145. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (III).



AUSPOA
LIBURUTEGIA



JUAN JOSE IRAZUSTA

NORK BERE BIDEA - II

NORK BERE BIDEA

(II)

AUSPOA LIBURUTEGIA

(144)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa
Teléfono (943) 67 12 82

JUAN JOSE IRAZUSTA

NORK BERE BIDEA

II

AUSPOA LIBURUTEGIA
1980

Oarra: Nobela au Argentina'n gertatzen da: Tierra del Fuego'n, Buenos Aires'en eta, zatirik aundiena, Patagonia'n, ango gautxoan oituraketa azalduaz. Azalaren apaingarri dan grabado ori orregatik aukeratu degu. *La Ilustración Española y Americana* aldizkarian agertu zan, 1878.IX.15'eko zenbakian. Goi eta bean onela dio: «*Tipos de la América del Sur. París, Familia de «gauchos» establecida actualmente en el jardín de aclimatación*». Jardin ori zer dan, beste orri batean adierazten da: «*Así como durante el año último se han presentado en el Jardín de Aclimatación de París, instalándose en él temporalmente, con permiso del Gobierno y del Municipio, pequeñas tribus de iroqueses, de esquimales y de pieles rojas, hoy se halla en el mismo sitio una numerosa familia de gauchos...*».

● Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)

Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz

ISBN 84-7158-084-5 Obra completa

Depósito Legal: S. S. 352/80

ISBN 84-7158-086-1 Tomo II

Depósito Legal: S. S. 350/80

Agosto - 1980

ARKIBIDEA

| | |
|---|-----|
| Etorri bitartean | 9 |
| Kaxilda eta Josetxo | 17 |
| Ezkontza | 25 |
| Elenari agur | 33 |
| Andres Mendigain | 37 |
| Patagonia'ra | 41 |
| <i>Estancia San José</i> | 49 |
| Bizimodu berria | 57 |
| Martiñek bere guraso eta senideeri | 81 |
| Martiñek Ixidro eta Juanitari | 89 |
| Eskutitz usaiduna | 97 |
| Kalbarioaren asiera | 105 |
| Lenengo eguna | 113 |
| <i>Moye</i> baten azpian | 121 |
| Ibillaldiak | 131 |

ETORRI BITARTEAN

Martin eta Bartolok gero eta lan geiago daukate. Esnea barra-barra bialtzen diote Tandil' tik, eta banaketak beranduxeago bukatzen dituzte.

Martiñek Bartolori eta Joxepantoniri, Kaxilda eta Josetxo laixter an dituztela aipatu diote. Biak pozik daude, ezagutzeko gogoia daukate eta.

Elenak Martiñi deitu dio, nai duenean beragana joateko esanaz. Martin etxean zegoen eta bereala joan da. Elenak esaten dio:

— Martin, bai al dakizu zein etorri dan?

— Zein etorri da, ba?

— Arturo. Bai, Arturo etorri da. Eta one-la galdetu dit: Bai al dakizu Anita nun dan?

— Bai, badakit nun dan.

— Nun da, ba?

— Chacarita'n, lurpean.

— Zer esaten didazu?

— Anita il zala eta orain bakean dagoela.

Ez zure mendean egon zan bitartean bezela. Gaixorik zegoela jakin zenuenean, alde egin omen zenuen eta geiago azaldu ere ez.

Martin arrituta dago Elenak esan dionarekin, eta onela dio:

— Ni emen egon banintz, a zer muturrekoa artu bear zuena! Zergatik etzenion poliziari deitu?

— Nola deituko nion, ba? Anitak gizatxarra zala esaten zuen, eta beldurra ematen zidan, ni bakarrik emen eta zerbait egingo ote zuen. Nere beldurrarekin, ez nion barrura joateko ere esan. Ortxe, ate ondoan, izan zan gure elkar-izketa.

Anitak Río Gallegos'tik deitu ninduela esan nion, gaixorik eta xentimorik gabe zegoela esanaz. Midikuak Buenos Aires'era, gaixo-etxe batera joan bear zuela esan ziola. Itxasontzia ordaintzeko, mesedez diru-pixka bat bialtzeko eskatu zidala. Pozik gañera biali niola, nere lagun maite Anitari, bear zuen diru guztia.

— Bañan neska gaixo orrekin zuk egin dituzunak, ez dira barkatzekoak. Lendabizi, gezurra eta maltzurkeriekin, etxetik atera eta zerrorek nai duzun bezela ibilli. Gero, toki zikin oietan ipiñi eta bere irabaziak danak kendu. Il zala esan dizut. Bañan zuk ez didazu galdetu, ez zer zuen eta ez nun il zan. Ajola gutxi! Garbi ikusten dut, zure biotz gogor ori ez dudala Anitaren bukaera urrikalgarriarekin ikuitu. Persona bat nola izan diteke orren otza eta ajolagabea gertakizun larri oekin? Ezin dut sinistu!

Orain, Arturo, alde egin zazu eta etzaite geiago onera etorri.

— Ez, ez naiz etorriko. Nik zure bearrik ez dut.

Martiñek Elenari, Kaxilda eta Josetxo laixter etorriko dirala esan dio, eta segituan ezkonduko dirala.

Elenak erantzuten dio:

— Badaukat oiek biak ezagutzeko gogoia.

— Bai, ezagutuko dituzu, ba. Gañera, zuk ere gurekin etorri bear duzu. Sei lagun izango gera: Bartolo eta Joxepantoni, Kaxilda eta Josetxo, eta gu biok. Elizatik irteten geranean, bazkaltzera beste erri batera joango gera. Ea egun on bat igarotzen dugun. Gero, ez dakit, Elena, zer egingo dugun. Emen lanean ondo ari naiz, bañan beste aukera bat ere badut. Gana-duzale euskaldun batek eskeñi ona egin dit: berarekin Patagonia'ra, Santa Cruz'era, joango ote geran. Zer egingo dugun, Kaxildak eta biok erabakiko dugu. Eta zuk, Elena, zer egin bear duzu?

— Nik *apartamento* au salgai daukat. Erosleak ere baditut. Norbaitek laixter erosiko didala uste dut. Ni emen bakar-bakarrrik nago, Martin. Aspertzen naizenean, aldameneko Matilderengana joan eta zerbait egiten laguntzen diot: aurren soñekoak konpondu, punta egin edo beste zerbait. Arratsaldeetan, askotan irteten gera biok aurrekin, bueltatxo bat ematera. Or ibiltzen gera, Buenos Aires'ko *parke* aundi oietan barrena, bazterrak ikusiaz eta aurren gal-

derai erantzunak emanaz. Dana jakin bear du-te: Au zer da? Ori zertarako? Eta abar. Au-rrak pozik dabiltzan bitartean, gu ere ala be-rean, aien alaitasunak gu ere ikuitzen baigai-tu. Ikusten duzunez, Martin, Elena ez da len-goa. Elena beste bat da orain. Mirari au Ani-tari zor diot, bide zuzenean berak ipiñi bainin-duen. Zuk ere ez duzu konseju onak besterik beragandik artu. Biok gaude zorretan. Zu ez-kondu baño len, Chacarita'n meza bat atera bear diogu, eta lore batzuk ipiñi. Kaxildari aipatu bear al diozu, Anitaren eta gu bion elkarrenga-nako maitasun ori?

— Bai, aipatu bear diot. Ez dut nai ezer ere ezkutuan gorde.

— Eta... neregatik, zer esan bear diozu?

— Zuregatik, emakume biurri bat izan ze-rala esango diot, deabruaren besotik ibillita-koa. Bañan orain zearo damututa zaudela.

— Etzaiozula orrelakorik esan, Martin. Zer pensatu bear du?

— Pentsatuko du, gutxi gora-bera, nolakoa izan zeran. Bañan orain neska on bat zerala esango diot, eta oso lagun maitea. Anita gaixo arengatik zuk egin zenituen alegiñak ikusi di-tut. Onera etortzeko dirua bialdu zenion. Be-ragatik al duzun guztia egin duzu. Zuk lagundu ez bazenion, zer egin bear zuen urrikalgarri arek? Ni ere, ezagutu gabe, zeure etxean artu ninduzun. Orregatik, Elena, nere eskerrik be-roenak ematen dizkizut.

— Martin, maite al nazu?

— Bai, maite zaitut.

— Ekatzu musu bat.

Martiñek Kaxildaren eskutitz bat artu du. Dana prest daukala esaten dio, eta orrelako egunetan itxasontzia artuko dutela, putzu-zulo aundi ori igarotzeko. *Anboto-mendi* itxasontzian dijoazela, eta, okerrik ez bada, illaren 22'an Buenos Aires'en dirala.

Martin pozez beteta dago. Euskalerritik joan ezkeroztik, milla komeri ikusi ditu. Bañan orain beñepein, orrenbeste denboraren buruan, elkarrenganatuko dira. Marmitak eta esneak aidean darabilzki. Sekulan baño lanerako gogo geiago dauka.

Joxepantonik gela bat bientzat antolatuko diote, eta Josetxo etxeko semeekin batean jarriko du.

Bañan Martin ez da luzaroan emen egongo. Patagonia'ko bakardadea eta bizimodu lasai eta osasuntsua ditu amets. Buenos Aires'ko bizimodu au ez dijoakio ondo. Beti itxumustuan eta zalapartaka baño, naiago du lasai eta bakean bizi. Saiatu bear du Kaxilda aruntz eramaten.

Elenak Martiñi deitu dio. Etxera etorri danean, Joxepantonik arengana joateko esan dio. Joan da eta Elenak *apartamentua* saldu duela esaten dio. Martiñek:

— Zer egin bear duzu orain, Elena?

— Orain, zuek biok ezkondu arte, emen geldituko naiz. Gero, badakizu: Bahía Blanca'ra nere aizparengana joango naiz. Arek daukan *consultorio de belleza* edo emakumeak apaintze-

ko toki artan, biak saiatuko gera. Nik ez dut sekulan orrelako lanik egin, bañan oituko naitzela uste dut.

— Bai; zu berealaxe jarriko zera lan orretan ere. Danerako balio duzun oietakoa baitzera. Naiz gaiztakerirako naiz onerako, doai bereziak dituzu. Gañera, zuk dauzkazun esku legun eta polit oiek, lan oietarako apropos egin-araziak bezela dira.

— Esku politik al ditut, ba, nik?

— Bai, oso politik. Neri gustatzen zaizkidan bezelakoak. Nik emakumeari asko begiratzten diot eskuetara. Eta, eskua ematerakoan, nere atzapar aundien artean dauzkadan esku txiki oiek, txoratzen naute.

— Bai; beste gauza geiagok ere txoratuko zaituzte zu. Bañan gaur arteraño disimulo ederrean gorde dituzu. Eta orain zer ari zera, Martin, neri *rosca* egiten? Berandu da. Laixter emen duzu Kaxilda eta berarekin konpondu bearko duzu. Gañera, ezkontzen zeratenean, biok alde banatara joango gera eta bearbada ez dugu geiago elkar ikusiko. Orregatik, arratsalde bat biok elkarrekin igarotzea nai nuke.

— Nai duzunean, Elena.

— Bigar aterako al gera?

— Bai; zure billa etorriko naiz.

Martin joan zaio eta atera dira biak, *Avenida de Mayo* deitzen dioten kale aundi orretan barrena, patxara ederrean bazterrak ikusiaz. Lorategi aundi bat daukate aurrean.

— Oiek lore politak! —esaten dio Elenak Martiñi—. Anitari eramango al dizkiogu?

— Bai, eramango dizkiogu. Bañan meza, Chacarita'n atera bearrean, elizan aterako diogu. Neretzat ere alderago, gero lanera joateko. Berdin balio du illobian atera edo elizan atera. Gaur bixita bat egingo diogu Anitari, eta bigar goizean meza elizan.

Chacarita'ra iritxi dira. Anita gaixoa lurpean dagoen lekura xuxenean doaz. Elenak loreak ipiñi dizkio. Biak batean negarrez asi dira. Ezin sinetsi dute, ainbeste maite zuten neska gaixo ura an dagoenik. Martin asi da otoitzean euskeraz, eta Elenak ere, nola edo ala, Martiñek esaten dituenak esaten ditu. Gero, kanposantutik atera eta badoaz. Alako batean, Elenak esaten dio:

— Emendik aurrera ez daukagu onela ibiltzerik. Zu ezkonduko zera eta Kaxildarekin ibilli bearko duzu.

— Bai, Kaxildarekin eta Josetxorekin. Eta zuk, Elena, zeñekin ibilli bear duzu?

— Nere aizparekin; ni ez bainaiz lengoa.

— Zuk beti ori esaten duzu, bañan oraindik eror zindezke. Txirristada bat edozeñek egi ten du, eta zu ere arrisku aundian zaude. Gañera, lenago erorka ibillitakoak, beti ere aixago emango du pauso uts bat eta lenagoko tokira erori.

— Zuk, sekulan pauso txar bat eman ez bazenu bezela itzegiten duzu. Bañan lendabizi Euskalerrian, eta gero gerokoak.

— Bai; Euskalerrian pauso txar bat eman nuen.

— Bat bakarra eman zenuela? Ori ez dut sinisten. Gañera, emen ere gaizto xamarra izan zera. Biok gera pekatari, Martin.

— Bai; biok berdin gaude.

Bigaramonean, biak Anitaren animaren alde atera duten meza ura entzutera doaz. Jauna ar-tu dute, eta, meza ondoren, Elena bere etxera eta Martin Bartolori laguntzera.

Arratsaldean, Martin portura joan da. *An-boto-mendi* Dakar'etik Río Janeiro bitartean da-goela esan diote, eta lau egun barru Buenos Aires'era iritxiko dala. Laixter or ditu Marti-ñek Kaxilda eta Josetxo.

KAXILDA ETA JOSETXO

Martin, bere ezin egonarekin, or dabil ia egunero portu aldean barrena, *Anboto-mendi* noiz sartuko dan galdetzera. Bigar arratsaldeko laurak aldean sartuko dala esan diote. Etxera joan eta daneri jakin arazi diote. Baita Elenari ere. Danak joango dira Kaxilda eta Josetxori ongi-etorria egitera.

Martin bestetan baño goizago jeiki da. Ezin du lorik egin. Gezurra iruditzen zaio, an Euskalerrian bere erregaloarekin utzi zuen neska gaixo ura, orrenbeste denboraren buruan ikusi bear duela. Lotsa ematen dio Kaxildaren aurrean azaltzeak; bañan or daukate Josetxo, biak elkarrengana lotuko dituen lokarria.

Joxepantoni jeiki da eta esaten dio:

— Goiz esnatu zera gaur, Martin.

— Bai, ezin nuen lorik egin.

— Sinisten dizut; onelako egunetan kezka pixka bat ere izaten baita. Bañan danak igaroko dira. Egon lasai.

Bartolo ere jeiki da, eta, gosaldu ondoren, an dijoaz biak beren lanetara. Bartolok esaten dio:

— I: gaur goizetik egin bear dizkiagu lan guztiak: esnea banatu eta gañera marmitak bialdu. Arratsalderako ez diagu ezer ere utzi bear egiteko.

Lanak bukatu dituzte. Bazkaldu ondoren, prest daude portura joateko.

Elena etorri zaiote. Erakutsi diote ezkongai orientzat antolatu duten gela. Gero, danak portu aldera doaz.

Itxasontziaren sarrera lauretan ipiñita zegoen, bañan seirak izango omen dira etortzerako. Portutik alde egin dute eta *cafetería* batera joan dira. Gero, *parke* batean barrena bueltatxo bat eman dute.

Martin eta Elena, biak elkarrekin dira. Esan bear asko daukate. Badakite gaur azkeneko eguna dala, biak elkarrekin dabiltzana. Gorabera aundiak izan dituzte bien artean, eta uste gabeen maiteminduta daude. Elkar maite dute.

Jakintsu batek esan zuen: Maitasuna, geok nai dugulako artzen dugu; bañan utzi ez. Beste askori bezela, ori gertatzen zaiote Elena eta Martiñi ere.

Orduak aurrera doaz. Portura urbildu dira. Jende asko dago: batzuk, pamiliko edo eza-gunen batengana joanak; beste batzuk, *hotelaren* izena txapelan dutela, berekin eramateko nor arrapatuko, eta maletero.

Arturoren antzeko batzuk ere izaten dira. Itxasontzitik jeixten diran neska gazteak politak baldin badira eta pamilikorik gabe badatoz, beurek nai duten tokira eramaten saiatuko dira. Batzuek bakarrik etortzen dira, gero emen beuren pamiliko edo ezagunen etxeetara joateko. Bañan kontzientzirik gabeko pizti zikin oiek or daude, nor engañatuko.

Bat baño geiago izaten da oietan. Kartaristen modura, iru edo lau lagunek elkarrekin egingo dute lana. Bat aurretik Montevideo'ra joango da, eta itxasontzia artu eta bereala asiko da neska zurri. Gazte guztiakin itzegingo du, oiek mingaña leguna baitute, eta Buenos Aires bitartean bakarrik datozenak berexiko ditu. Esango diote:

— Nora edo zeñengana zoaz?

Eta neska gaixoak toki arrotzean daude, ez dute iñor ezagutzen, eta orrela mintzatzen darenekin konfiantza artzen dute. Geienetan, mundu gutxiko gazteak izaten baitira; asko, beren gurasoen ondotik iñoiz atera gabeak. Eta azeri zar oek badakite ori dana. Nora doazen esaten diotenean, esango dio:

— Nik pamilya ori ezagutzen dut. Berarengana neuk eramango zaitut. Buenos Aires'ko portuan, lagun bat bere autoarekin zai izango dut eta elkarrekin joango gera.

Bai, elkarrekin joango dira; bañan ez berak nai duen tokira, eramaten dutenera baizik. Bazkari edo afari bat egingo dute elkarrekin, eta gero... neska gaixo oiek galdu egiten dira.

Beren gurasoak ez dute ezer jakiten: joan zala eta beraren berririk ez dutela. Argentina'n dagoen pamilikoak, berriz, etzala ara azaldu. Bakarrik doazen neska gaixo asko, orrela ezkutatzen dira.

Denborarekin, gaizto oien ondotik alde egiten dute. Bañan beren pamilietara azaltzeak lotsa ematen diote, eta aien bizimodu urrikalgarria ezkutuan igarotzen da.

Orregatik, erbestera bakarrik doan neska gaztea, arrisku izugarrian dago. Asko eta asko nazkagarri oien eskuetan erori diralako. Nazio guztietan debekatua eta zigortua dago *la trata de blancas*. Bañan len bazan, orain bada eta gero ere izango da.

Konseju bat emango nioteke, atzerrira doazen neska gazte guzietan: doazen tokira doazela, beti aurrera begiratu, artu duten bide ori iritxi arte, eta bazterretik zirrikaka datozen oiek ondotik uxatu. Oiek ez dira iñoren on-bearrean etortzen, beuren atsegingarri diralako baizik. Orregatik, zeuen etxetik bakarrik alde egin bear duzuten gazteak, burua eta begiak argi ibilli; eta bazterrera itz goxoekin datorrenari iges egin, nai duen tokira dijoala.

Anboto-mendi azaldu da. Or dator bazterre-
ra, beste itxasontzien tartean, tutua joaz. Aingura bota dute, eta kate lodiekin lotu ere bai. Gero, eskallerak jetxi dituzte, eta dana prest dago, or datozenak jetxi ditezen.

Martin eta besteak an daude begi larrie-

kin, Kaxilda eta Josetxo noiz ikusiko dituzten. Martiñek bere artean pentsatzen du:

— Kaxilda ikusi ez dudala, urte mordoxka bat bada. Nolakoa ote dago? Eta Josetxo? Bera sortu zalako alde egin nuen Euskalerritik, eta orain orrenbeste jende dagoen tokian eza-gutu bear. Au larritasuna!

Martiñen biotza saltoka dabil. Estuasun aundiak pasa bear ditu. Alako batean, or ikusten ditu Kaxilda eta Josetxo eskallerak bera. Urbildu diranean, jende artetik esaten dio:

— Kaxilda!

— Martin!

Bata besteari eldu diote eta negarrez asi dira. Kaxildak onela dio:

— Josetxo, au da zure aita.

Ori entzundakoan, Martiñi biotza erdibitu zaio. Josetxori eldu eta, musu maitekor batzuk emanaz, esaten dio:

— Ondo etorri al zerate, Josetxo?

— Bai, ondo etorri gera amatxo eta biok. Bañan zu zertarako etorri ziñan onen urruti, gu an bakarrik utzi eta?

Martiñek ez daki zer erantzun. Ixilik geratu da. Kaxildari begiratzen dio, eta ezagun du bizimodu latza egin duela eta nekepean egondako emakumea dala. Martiñek pentsatzen du:

— Nik alde egin nuenean, etzeukan onek arpegian zimurrik. Bañan orain, urte ale oietan zenbat zartu dan ikusirik, arrituta nago.

Danak or daude Kaxildaren puskak itxason-tzitik noiz jetxiko dituzten begira, alde egiteko.

Elenak, Josetxo bere kontura artu du. Asko gustatu zaio mutil motz ori. Kopetean ille arroak dauzka eta eskua pasatzen dio, bañan ostera illeak tente. Musu gorriak eta osasuna gañezka daukan itxura du. Danak berari begira daude.

Martiñek ere ondo begiratzen dio, eta bere artean onela dio:

— Kopeteko ille arro oiek nereak dituk.

Kaxildaren puskak noizbait ere azaldu dira. Bartoloren furgonetara eramán dituzte. Bera eta Joxepantoni antxe joan dira; eta besteak, tasis batean.

Etxera urbildu diranean, *restaurant* batean gelditu dira. Martiñek asko ezagutzen dituen adiskideak dira oiek. Zerbait artu ondoren, onelako ordurako danontzako afari on bat prest edukitzeko esaten diote Martiñek.

Irten dira eta etxe aldera doaz. Elena erlojeri batean begira gelditzen da eta esaten du:

— Goazen barrura.

Martiñek esaten dio:

— Zer egin bear duzu?

— Goazemazute barrena.

Sartu eta eskumuturreko erloju bat eskatu du. Bat berezi eta Josetxori ipiñi dio. Au txoratura dago bere ari begira. Gero, Martiñi eta Kaxildari esaten diote:

— Zuek zer nai duzute?

— Bañan txoratu egin al zera, Elena? Josetxori egin diozun erregaloarekin ondo dago. Ez duzu ezer geiago egin bear.

— Bai, Martin. Nik zueri ere zerbait eskeñi nai dizuet eta zer nai duzuten esan.

Martin eta Kaxilda ixilik daude. Bañan Elenak badaki zer bear duten. Urrezko kate bat eta medalla bat eskatzen ditu Kaxildarentzat, eta eraztun bat Martiñentzat. Eskerrak eman dizkiote eta etxera joan dira.

Kaxildari, beurentzat prest dagoen gela erakutsi diote. Josetxori ere esan diote nun lo egin bear duen. Dana ederki antolatuta daukate. Etxea txukun ipiñita dago. Emendik egun gutxira Martin eta Kaxilda ezkonduko dira, eta bizimodu berri bati asera emango diote. Martin langillea da eta danak ondo bizitzeko aukera daukate.

Afaltzeko garaia da. Danak *restaurant* aldera doaz. Elena, beti Josetxo eskutik duela. Txoratu egiten du mutiko orrek. Bera ere aurrekin maitekorra baita.

Afaldu dute. Orain teatro edo zine batera joan nai luteke. Bañan gazte oiekin ez daude iñorako eta etxera joan bear.

Urbillena Elenaren etxea dago. Sartu-atera bat egin dute. Daneri erakutsi diote, orain saldu berria duen *apartamento* ori. Kaxildak ondo begiratzen du bazterretara. Bere artean:

— Zer emakume ote da au, emen bakarrik bizitzeko? Etxea onela apainduta; muñeka aundiak alde guztietan, oe gañean eta nun-nai...

Zoko batean mutiko beltz bat dago. Josetxori gustatu zaio eta Elenak eman dio. Martiñek:

— Ez, Elena, ez. Ori ondo dago bertan.

— Ori eta gauza geiago ere emen geldituko dira. Nik ez ditut puska oek danak Bahía Blanca'ra eramango. Nere aizpak etxea beteta dauka. Nun sartuko nituzke? Oe bat edo beste ere emen utziko ditut. Nik naikoa dut nere aizparen etxean gela bat antolatzea. Gañontzeko puskek alferrik ditut. Emen geldituko dira zuentzako.

— Nik ordainduko dizkizut, Elena —esaten dio Martiñek.

— Ikusiko dugu.

Elena bakarrik utzi dute eta beste danak etxe aldera lotara doaz. Kaxilda eta Josetxo aspertuta daude. Orrenbeste egunean itxasontzian balantzaka lo egiñak, geldi-geldirik oean lasai lo egiteko gogoa daukate.

EZKONTZA

Bartolo eta Martin bestetan baño goizago jeiki dira. Lanak lenbailen bukatu nai dituzte, gero Kaxildari Buenos Aires aundi ori erakusteko.

Joxepantoni, Kaxilda eta Elena erosketak egitera joan dira, Kaxilda eta Josetxo apaintzeko. Bear diran gauza guztiak erosi dituzte. Korbata polit bat ere berexi dute Josetxorentzat. Lendabizi jantziko duena seguru aski. Gero, etxe aldera abiatu dira.

Joxepantonik danontzat bazkaria ipiñi bear du. Bartolo eta Martin lan danak egin ondoren etorri dira eta bazkaldu dute.

Arratsaldean, bazterrak ikustera doaz. Lendabizi, *Parque Zoológico*. Emen ia mota guztietako animalia eta egaztiak daude. Benetan ikusgarria da. Ere mu izugarriak ditu. Orduak bear dira, dana ondo ikusteko.

Josetxo ez da ixiltzen galdezka:

— Au zer da? Ori zer da?

Ainbeste gauza arrigarri ikusi ditu, Beko-errotatik atera ezkerroztik. Elenak, tentatzearen, galdetzen dio:

— Zer ordu da, Josetxo?

— Ez dakit. Bat gora eta bestea bera begira daude.

Martin eta Kaxildak bakarrik egon nai luteke. Kontu asko dauzkate bata besteari esan bearrak. Bañan beti badute nor edo nor ondoan. Ezin dira baztertu. Martiñek gauza bat pentsatzen du:

— Bigar apaizarengana joan bear dugu eta biok bakarrik joango gera.

Eta daneri esan diote. Beti aurrera doaz. Arratsalde guztian ibilli dira eta aspertu ere bai.

Urrengo arratsaldean, Martin eta Kaxilda eliz aldera abiatu dira, ezkontzako agiriak eta bear diran gauzak egitera. Urrengo egunean ezkonduko dira. Apaizak ordua ipiñi diote.

Elizatik atera ondoren, toki polit batean exeri dira eta Martiñek Kaxildari esaten dio:

— Baneukan gogoia biok bakarrik elkar-izketa bat egiteko. Orain arte bagenuen beti ondoan norbait, eta nik zurekin bakarrik egon nai.

— Bai, nik ere baneukan gogoia. Aizu, Martin: zein da Elena ori?

— Gure lagun bat.

— Zurea ala Joxepantonirena?

— Danona.

— Orrek zer egiten du?

— Orain ezer ez. Jan da edan eta denbora pasa ibilli.

— Eta lenago?

— Lenago, mingain txarrak diotenez, kaxkarin xamarra izan bear zuen.

— Zer esan nai duzu orrekin?

— Ofiziokoa zala ere entzun izan dugu; bañan orain damutu eta alde batera utziak dituela zikinkeriak, eta oso emakume ona dala. Ez daukat ezer ere geiago esan bear. Orrek daukan borondatea ikusi duzu; eta egin dizkigun erregaloak ere bai. Eta oraindik ere geiago emateko prest dago. Bere puska danak eramango ez dituela entzunda zaude, eta guretzat geratuko dirala. Nik zeozer ordainduko diot. Guk bear ditugun puska asko daude or. Zer nai duzu geiago, Kaxilda?

— Bai, ori dana ondo dago. Bañan zuri asko begiratzen dizula oartu naiz, eta zureganako maitasun pizarren bat ote daukan errezeleoa daukat.

— Nai nuke orain zeloak artuko bazenitu! Orrenbeste urtean elkarrengandik aparte bizi izan gera, zu an eta ni emen. Nik, Elenarekin txoratuta egon banintz, ez nizun zuri deituko. Biak elkarrenganatuko giñan eta kito. Zuk errezele txarra egin duzu, Kaxilda. Bañan nik egia esango dizut: Elena eta bien artean errespeto aundia izan dugu beti gauza oien gañean eta ez dugu pauso txarrik eman. Orain astirik ez daukagu; bañan noizbait esango dizut Elena nola ezagutu nuen eta Anita beste neska gaixo

baten ixtori luzea. Arrituta utzi nauzu, Kaxilda, ezkontzeko bezperan zuk neri gauza oek esatea. Elenak maite nauela! Bai, zuek ere maite zaituzten bezela. Bestela etzituen egingo egin dituen erregaloak. Persona bati etzaio begiratu bear lenago nolakoa izan dan, orain nolakoa dan baizik. Asko dira lenago biurriak eta gaiztoak izanak, eta gero zearo damutu eta iñor baño obeak diranak.

— Zu izango zera, Martin, oietako bat.

— Bai; ni ere oietako bat naiz.

— Esan ditudan gauza oiek barkatzen al dizkidazu?

— Bai, barkatzen dizkizut. Zuk neri oker aundiagoak barkatu zenizkidan, eta uskeri oiek ez dira aipatzekoak ere.

Urrengo eguna argitu du. Gaur ezkondu bear dute Kaxilda eta Martiñek. Bartolo eta biak goiz-goizetik ekin diote eguneroko lanari, eta amaika ta erdietarako elizan bear dute izan.

Joxepantoni eta Kaxilda ere goiz jeiki dira, beren gauzak antolatzeko. Josetxo lasai lo dago. Arek ez dauka buru-austerik eta kezkarik.

Elena ere goiz xamar joan zaiote. Berak antolatuko ditu danak. Apainketan asko dakiena baita; asko ikusia eta asko ikasia.

Lanak bukatu eta etxeratu dira Bartolo eta Martin. Ekin diote danak apainketari. Josetxo ere dotore dago bere eskumuturreko erloju eta korbatarekin. Au Elenak jantzi dio, eta ixpiluari begiratu-arazi ere bai. Martiñi ere berak ipiñi dio. Gutxitan eraman izan du eta oso tra-

ketsa da korbata ipintzen. Kaxildari ere azke-neko ikuituak eman dizkio eta oso apain dago.

Eliz aldera abiatu dira. Martin oartu da Kaxilda pentsamentuan doala eta esaten dio:

— Kaxilda, zerbait gertatzen al zaizu?

— Ez, etzait ezer ere gertatzen. Lotsakizuna daukat, orrenbeste aunditutako semearekin ezkontzera etortzea.

— Emen ez gaitu iñork ezagutzen, Kaxilda, eta jendeari etzaio ajolik. Iñork ez digu begiratuko ere.

— Emen ez; bañan an, Euskalerrian, marmar ederrak ibilliko dituzte bazterretan.

— Lenago ere ibilliko zituzten. Bañan, ezkondu generala jakiten dutenean, ixilduko dira.

Orrela joan dira Kaxilda eta Martin eliz-bidean. Sartu dira danak barrura. Elizan bakar bat edo beste dago.

Apaiz bat etorri zaiote eta sakristira eraman ditu. Gero, aldare nagusira abiatu dira. Bartolo eta Joxepantoni dira aitautxi eta amautxi. Elena eta Josetxo atzeko exerlekuetan gelditu dira. Josetxok Elenari esaten dio:

— Goazen gu ere aurrera, Elena!

— Ez, Josetxo; guk emen egon bear dugu.

— Zer egin bear dute orain oiek or?

— Ezkondu egin bear dute aitatzok eta amatxok.

— Zer da ori?

— Zu gaztetxoa zera oraindik, Josetxo. Geroxeago ikasiko dituzu gauza oiek.

— Zertarako eramaten dituzte apaizak gona txuriak beltzen gañetik? Amatxok azpian eramaten ditu.

— Exeri zaite eta ixilik egon! Elizan ez da berriketan ari bear.

— Apaiza ari da, ba, berriketan.

— Bai, ori orren lana da.

— Orain zertarako ipiñi diote aitatzori eta amatxori bizkarrean trapu ori? Otza al daukate?

— Bai, otza daukate.

— Nik ez daukat, ba, otzik. Lasaitu zaidazu lepoko trapu au.

Josetxori iges egin gabe kontu egiten, naiko lanak izan ditu Elenak. Ez da berak nai ordurako bukatu ezkontza ori.

Elizatik irten eta orain erretrato edo argazkiak atera bear dituzte, batzuk Euskalerrira bialtzeko eta beste batzuk beurek gordetzeko.

Gero tasis bat artu eta Avellaneda aldera doaz bazkaltzera. Bazkaltzen ari diralarik, naiko algarak egin dituzte Josetxoren kontura. Elizako gorabera guztiak gogoan dauzka, eta banan-banan danak esaten ditu.

Bazkaldu ondoren atera dira eta Martiñek orrelako tokitan afaldu bear dutela esaten diote. Bartolok erantzuten dio:

— Motell, motell! Zer jan bear diagu, orrela bazkaldu eta gero?

— Afaria ipintzeko esanda zeuzkat eta derrigor joan bearra zeukagu.

— Beno, joango gaituk.

Elenak, berriz, gauean teatro batera joan bear dutela esan diote. Bañan Josetxorekin ez dakite zer egin. Au eramatea ez da komeni. Gañera, loak artuko luke. Joxepantonik erabaki du zer egin: danak etxera joan eta, lo artzen duenean, alde egin.

Afaltzera joan dira, eta afaldu ondoren etxera. Josetxo aspertuta dago, bereala lo artu du eta orduan danak alde egin dute.

Elenak, *variedades* edo orrelako toki batera eraman ditu. *Bailarina* batzuk arropuz urri xamar atera dira eta Kaxildak, egundaño orrelakorik ikusi gabea eta:

— Aitaren eta Semearen! Au ere ikusi bear genuen! Ori lotsagarrikeria! Dana agirian daukate!

Eta Elenak esaten dio:

— Ez, Kaxilda, ez. Dana tapatuta daukate, asi oñetatik eta leporaño. Oiek daukatena jantzi extu bat da, nolako gorputz egokiak eta lirañak dituzten jendeak ikusi dezan.

— Bai, bai! Gizonak begiratuko diote ondo, zein dan politena eta zein dan itxusiena. Orretarako berezko griña baitaukate.

— Bai eta guk ere, Kaxilda. Gizasemeak orrela aterako balira, guk ere ondo begiratuko genuke. Emakumeak ere baditugu, gizasemeak dituzten berezko griña oiek, batzuek geiago eta beste batzuek gutxiago. Geientsuenak gera pekatari.

— Bai, Elena, ala gera.

ELENARI AGUR

Martiñek eta Kaxildak pentsakizun aundiak dauzkate orain. Ez dakite zer egin. Bartolo eta biak oso ondo ari dira lanean. Bañan Martiñek Patagonia'ko bakardade aietara eraman nai lituzke Kaxilda eta Josetxo. Martiñek mendia maite du, eta Andres ganaduzale orrek egin dizkion eskeñiak txoratzen dute. Gañera, Josetxo, oraindik ezer ez dakien mutikoa, segituan *institutriz* batekin ikasten asiko litzake.

Andres Mendigain orren familia onela osatzen da: Andres, alarguna; bere alaba Luzia, bizi-alarguna; Luziaren alaba, Alizia, zortzi urte; Aurora, *institutriz*.

Kaxildak ere alde batera naiago luke Buenos Aires'tik alde egin. Emengo bizimodua etzazio asko gustatzen; naiago luke lasaixeago bizi. Gañera, Josetxo aunditzen doa eta emen ez luke gaiztakeria besterik ikasiko. An, berriz, segituan maixtra orrekin ikasten asiko litzake, iñora joan gabe, etxean bertan.

Kaxildak eta Martiñek erabakia artuta daukate: Patagonia'ra joango dira.

Martiñek Bartolori zer pentsamentu zituen lenago aipatu zion, eta onek naigabe aundia artu zuen. Martin langille ona eta azkarra da, eta bion artean nai bezela egiten dituzte lan guztiak.

Martiñek eskutitz bat bialdu dio Andres Mendigain orri, danak berarengana joateko konforme dirala esanaz eta alde aietara ea noiz abiatuko diran galdetuaz.

Bitartean, Bartolo eta biak beti bezela jarraitzen dute. Bartolok esaten dio:

— Patagonia alde orretan etsitzen ez baduk, etorri adi berriz ere onera. Iretzat ainbeste lan izango duk emen. Naigabe aundia ematen didak emendik alde egitearekin, bañan zer egingo diagu, ba? Nik orain beste bat bilatu bear neri laguntzeko.

Elena etxera joan zaiote, Bahía Blanca'ra badoala eta puska batzuk an geldituko dirala. Bartolok, bear dituen gauzak berak kamionetan estaziora eramango dizkiola esan dio. Danen artean jetxi dituzte eta kamionetan ipiñi.

Elenak, gañontzeko pusken bearrik ez duela esaten diote Martin eta Kaxildari, eta eramateko. Martiñek ordaindu nai dizkio, bañan Elenak ez dio ezer ere artu nai. Apartamentua erosi diona zai dagoela eta nora edo ara segituan eraman bear dirala.

Bartolok Martiñi esaten dio:

— Danak artu eta garajejan utziko dizkiagu, eta gero nai duken tokira eramango dituk.

Apartamento ori ustu dute eta danak Bartoloren etxera joan dira. Elenak gabeen artuko du Bahía Blanca'ra, bere aizparengana, joateko trena. Buenos Aires aundi ori utziko du eta beste iri ttikixeago batera doa.

Martin, Kaxilda eta Josetxok estaziora lagundu diote. Elenak ezin utzi ditu. Martiñenganako maitasuna dauka. Gizon asko ezagutu izan ditu; bañan iñork ere etzuen beñere bere biotza ikuitu, eta orain bat-batean maiteminduta dago.

Estazioko erlojuari begiratzen dio eta orduak aurrera doaz. Laixter danak utzi eta bearbada ez ditu geiago sekulan ikusiko.

Josetxori eskutik eltzen dio. Ainbeste gustatzen zaio mutil motz ori. Etorri ezkeru, beti berak ibilli du. Kaxildari ere asko lagundu dio; erregalo onak egin ere bai. Elenak onela dio:

— Martin, nere zuzenbidea badaukazute, eta, Patagonia'ra joaten zeratenean, nitaz oroituz zaitezte eta eskutitz bat zeuen zuzenbidearekin bialdu.

Trena abiatzera doa. Elenari begietatik malakoak dijoazkio. Besarkadak eta muxuak ugari eman dizkiote daneri. Trenean sartu da. Gorde arteraño, pañuelo txuri batekin agurtzen ditu.

Martiñek bere emaztearen aurrean alegiñak egiten ditu, Elenaren azken agur orrek ajolik ez balio bezela. Bañan Kaxildak, oso saminduta geratu dala antzematen dio. Itz gutxi egiten du

eta trena gorde dan alde artara begiratzen du. Kaxildak esaten dio:

— Goazen, Martin. Zer egiten dugu emen?

— Bai, goazen.

Etxe aldera abiatu dira eta Kaxildak esaten dio:

— Badirudi saminduta geratu zerala, Martin, Elenak alde egin digulako.

— Bai, naigabe aundia artu dut. Guretzat lagun on bat izan da Elena.

— Guretzat edo zuretzat?

— Danontzat. Zuk ere eskerrak eman zenezazkioker berari. On besterik ez dizu egin, eta gañera erregalo asko.

— Bai, ori ala da. Bañan... zuen bion artean ez al zan beste zerbait geiago ere izango? Lenago alamoduzko emakumea zala, eta orain orren batetan damutu eta garbitasuneko bideak artu dituela. Ori mirari bat da, Martin.

— Bai, mirari bat da; eta mirari ori, il zan Anita gaixoari zor dio.

— Bai, ala izango da. Bañan biok elkarrenganako maitasun aundia daukazutela oartu naiz eta kezka sartu zait.

ANDRES MENDIGAIN

Andres Mendigain, Patagonia'ko ganaduzale ori, Buenos Aires'era etorri da eta Martiñi deitu dio, arratsaldean al badu *Laurak Bat* elkarte ortara joateko esanaz. Martin joan zaio, eta, elkar agurtu ondoren, onela dio:

— Presaka etorri bearra nuen eta aideplanoa artu dut. Denbora berean, zuekin itzegiteko egokiera ona da. Zer pentsatu duzute zuek, emazteak eta biok?

— Ba, guk berorrekin joateko erabakia artuta daukagu. Ni emen poliki ari naiz lanean, bañan iri aundi oetako bizimodua ez da nerretzat egiten. Beti presaka eta muturka, zer egiten dugun ez dakigula, korri aruntz eta onuntz. Nik bakardadea maite dut.

— Bakardadea maite baduzu, aukera ederra izango duzu an. Orain nik zure emaztea eta semea ezagutu nai nituzke.

— Bartoloren etxean daude.

— Gaur elkarrekin afalduko dugu. *Hotel Vasconia*'n nago. Zortzietatik aurrera joan zaitzte eta an izango nazute.

— Joango gera.

Martin etxera joan da. Andresekin izan duen elkar-izketa Kaxildari esan dio, eta afaltzera konbidatuak daudela.

Esandako orduetan an dira irurak. Mai-serbitzariari nun dan galdetu diote eta *reservado* batera eraman ditu. An zegoen gizon ori. Kaxildari eta Josetxori ongi-etorria egin diote, eta Patagonia'ko berriak ematen segituan asi da:

— Nik etzaituztet engañatu nai. Nik gauzak, diran bezela esango dizkizutet. Gu bizi geran toki aiek, bakardade izugarriak dira. Patagonia'k dauzkan erri-aldeak, itxas-ertzean daude. Portuak dira. Gañontzekoan, eunka kilometrotan, Los Andes aldera, ez dago erririk. Tarteka, *estancias*, *ganaderías*. Oek ere, bata bestearengandik oso urruti.

»*Estancia* oetan, ez dago ikullurik. Urte guztian ardiak, beiak eta zaldiak larrean ibiltzen dira, eta zenbaitetan negu gogorrak igarotzen dituzte.

»Orrela, ba, an zer bizimodu dagoen jakinaren gañean jartzen zaituztet.

»Bei bat edo besteri etxeko ainbat esne kendu eta berriz ere larrera. Etxeko esnea kentzen zaioten bei oei, pentsu pixka bat ematen zaiote eta berak etortzen dira etxera.

»Zure lana orixe izango litzake, Martin: bei bat edo bi jetzi; gero, zaldia artu eta eremu izu-

garri oietan barrena ibilli, ardiak eta beiak nola dabilizan ikusiaz.

»Josetxorentzat ere *petizo* edo zaldi ttiki batzuk baditut, eta, nai duenean, aitarekin joan liteke bazterrak ikustera.

»Zuretzat ere badut lana, Kaxilda. Zuk, otorduak ipintzen jakingo duzu.

— Bai, zeozer badakit.

— Ba, zuk morroieri otordua ipiñi. Naiko aragia eta gauza izango duzu. Baratze-gauzak ere emen ondo ematen du. Ez dago, ez karakolik, ez barerik eta ez xomorrerik. Ereiten dan azia edo aldatzen dan landarea, oso-osorik ikusiko duzu, ostorik zulatu gabe. Gañera, emengo lurrak oso xamurrak dira. Jaungoikoak bakarrik daki noiz; bañan noizbait ere lurralde oek itxaso izanak dira. Zokoetan ondar beltza dago, eta gañontzeko lurraldea ere dana ondarra eta lanerako xamurra. Alde ederra dago, Euskalerriko lur buztintsu aietan madarikatzen lanean ari edo emen ari.

»Alare, emengo mutillak ez dute baratze-punta bat ere izaten. Aragi utsarekin bizi dira. Onela esaten dute:

»— Baratze-gauza konejuentzat.

»Bein, baratzean atxurrean ari nintzan, eta auzoko gazte batek, etorri eta agurtu ondoren, onela esan zidan:

»— Zer galdu duk?

»— Nik ezer ere ez.

»— Lurra banatzen ari aiz eta zeozer galdu ote uen uste nian.

»Amorrazio ederra daukate atxurrerako!

Andresek onela jarraitzen du:

— Nik illean onenbeste ordainduko dizutet bioi. Gañera, lendabiziko egunetik, Aurorak erakusketak emango dizkio Josetxori. Oso maixtra ona da eta Josetxo bereala asiko da ikasten. Jan-edanean kezkarik ez duzute izango. Ori dana nere kontura doa. Orain, konforme zeraten ala ez esan bear didazute.

— Bai, konforme gera.

— Ola bada, gauzak antolatzen asi bear dugu. Itxasontzia noiz abiatuko dan ere, segituan portura deitu eta galdetuko dut.

Deitu du eta onelako egunetan aterako dala.

— Orain, gauza guztiak prestatu bear dituzute. Arropa lodi xamarra eramatea ere komeni zaizute. An batzutan otz aundiak egiten ditu eta. Ni abioian joango naiz, eta gero zuen billa autoarekin jetxiko naiz. Ibillaldi on bat izan dezazutela.

— Eskerrik asko.

Martin, Kaxilda eta Josetxo prest daude, Buenos Aires aundi ori bere soñu eta zalapartakin utzi eta Santa Cruz aldera joateko, ango ba-ke eta ixiltasunean bizitzera.

Bartolok puska guztiak itxasontzira aurretik eramanean zituen. Orain danak portura doaz, azken agurra egitera. Saminduta daude. Bartolok eta Martiñek besarkada aundi bat eman diote elkarri, eta beste guztieri ere bai. Gero, Martin, Kaxilda eta Josetxo eskallera gora doaz.

PATAGONIA'RA

Itxasontzia Patagonia aldera abiatu da. Danak elkar agurtzen dute, bata bestearengandik gorde arteraño.

Martiñek, bera joan zan bezela dijoazen batzuk ikusten ditu, bazterrean zaintzalleekin, eta Kaxildari esaten dio:

— Aizu: ni ere orrela joan nintzan. Aposutu egingo nuke, oiek ere aruntz dijoazela. Al badut, oiekin itzegin eta an dauden nere lagun zarreri eskumuñak biali bear dizkiotet.

— Ixilik zaude orrelakorik esan gabe! Utzi zaiezu oiei bakean! Batzuek beñepein mutur ezur ederra daukate!

— Arpegiak ez du ezer esan nai. Itxusi bat, iñor baño obea izan diteke.

— Bai; toki ederrera doaz, onak izateko. Zuretzat danak onak dira. Presondegian egon ziñanean, an oso lagun onak utzi omen zenituen, batzuk karteristak eta beste batzuk seguru aski eskuak odolez zikindutakoak; bañan zuretzako danak onak. Gero, espetxetik

irten ziñanean, artu-emanak emagalduekin izan zenituen; aiek ere maitekorrak eta biotz onekoak. Eta bata bestearentzat errespeto aundia izan zenutela eta abar. Egia izatea baliteke. Gañera, beñere ez didazu esan, zuk botillarekin buruan kankakoa eman zenion arek zer egin zuen; ez bizi dan, ez zein zan eta ez zer ondorio izan zuen.

— Ni segituan artu ninduten eta presondegira. Gañontzekoan ez dakit ezer askorik. Bañan, il izan balitz, Martin an zegoen oraindik Ushuaia'n, bere lagunen bazterrean.

Kaxilda eta Martin, biak exerita, kontu kontari doaz. Josetxo or dabil aruntz eta onuntz beste mutiko batzuekin. Erderaz gutxi daki. Bañan nolabait ere adierazten dizkiote bere laguneri, berak nai dituen gauzak. Alako batean, etorri eta esaten du:

— Aitatxo, emen uretan eskalurik bai al da?

— Ez, Josetxo. Emen ez dago eskalurik. Emen arrai aundiak dira. Bearbada ikusiko dituzu galantak, beia baño aundiagoak.

— Aitatxo, ikusten badituzu, neri deitu.

Kaxildak eta Martiñek zer pentsatu aundiak daramazkite. Kaxildak galdetzen dio:

— Zer egin bear dugu guk bakardade oietan?

— Zer egingo dugu, ba? Besteak egiten dutena. Lana egin eta zintzo ibilli, ea diru pixka bat egiten dugun. Aukera onak eman dizkigu. Bañan pozik aundiena Josetxorekin artzen dut:

etxean daukan maixtra ori segituan erakusten asiko zaiola. Gañera, ez daukagu ezer ere ordaindu bear. Ori alderdi aundia da. Gaur gazteak eskolatzeak baditu bere kontuak: ikaste-txeko gastuak, joan-etorriak eta abar. Josetxo, berriz, etxean bertan, iñora joan gabe. Andresek diona: maixtrari berdin zaiola bati erakutsi edo biri batean.

— Bai, badaukat gogoia gizajo orrek zer-bait ikasi dezan. Orrenbeste aunditua eta oraindik ezer ez dakiena. Lotsa ere ematen dit. Nik ez nuen posible izan Beko-errota'tik iñora bialtzea.

— Ori badakit nik, Kaxilda. Bañan orain ea suerte pixka bat izaten dugun. Andresek esan zidanez, illeko soldata ikuitu gabe, azeri eta mendiko piztien larruak saldu eta jazteko aña aterako dut. Zu ere irabaztera zoaz, Kaxilda. Zenbat ordainduko dizun esan zizun. Etxea ere ez dugu ordaindu bear. Buenos Aires'en gelditu bagiña, izango ziran ixtilluak etxe-bizitza bat arkitzeko eta gero ura jazteko. Bartolori eta Joxepantoniri asko zor diotegu, guri egin dizkiguten mesedeakgatik. Bañan an ezin gindezken geiago egon.

— Aizu, Martin: Elenaren etxe-bizitza ura zan gureztat polita.

— Bai, polita zan, bañan asko balio zuen. Eta guk nundik atera bear genuen diru ori?

— Nundik eta nola zeukan Elenak orrelako *apartmentua*? Ofizio orrek orrenbesteko irabaziak al ditu?

— Nik ez dakit zenbateko irabaziak eta galerak dituen. Ori ez diot sekula galdetu. Bere bizimoduan geitxo sartzea izango zan. Nik, esaten zituenak entzuten nizkion; bañan galderarik ez. Ez naiz beñere jakin-zale izan. Nere buruarekin naiko lanak izan ditut nik, besteren egitekoetan sartu gabe.

— Bai; bañan nik ikusi dudana da, zuen bion artean maitasun aundia dagoela. Orregatik zan Elena ain esku-zabala gurekin. Gañera, aren azken agurra etzait beñere aaztuko. Beraren begietatik ixuri ziran malko larri aiek, etziran neregatik ixuri. Zuregatik atera ziran begi aundi aietatik. Alferrik da, Martin. Maitasuna ezin diteke beti gordean eduki, tarteka agertu egiten baita. Gogoan daukat zu ere nola gelditu ziñan, trenaren atzeko argi gorri aieri begira, gorde eta gero ere.

— Ez al duzu geiago esan bear? Lenago ere aski aipatu dituzu oiek danak, eta oraindik geroago ere aipatuko dituzu.

Emakumeak, eztabaida bat danean, alde egiten dute; bueltatxo bat eman, berriz ere lenagoko lokarria artu eta korapillo batzuk geiago egin, askatzen gero eta zallago izan dedin. Ori, geienak berezkoa dute.

Itxasontzia aurrera doa. Portu batzuk igaro dituzte, bañan ez dira iñun ere jetxi. Denbora gutxi daukate ibiltzeko eta naiago dute bertan geratu.

Itxasontzian pailazo batzuk dijoaz. Xelebrieriak egiten asi dira. Gazteria pozez dago, eta

oien artean Josetxo ere or dabil inguruan. Onek ez dauka bere aitak eta amak etorkizunari begira daukaten kezkarik, eta algara ederrak egiten ditu.

— Aitatxo, zuk anka aundia duzula? Oiek aundiagoa dute.

— Ez, Josetxo. Ez daukate aundiagoa. Botak dauzkate aundiak, bañan ankak edozeñek bezelakoak.

— Eta sudur-mutur gorri aundi ori?

— Ori ez da beurena. Apropos jartzen dute, jendeak parra egitearren.

Pailazoak beren saioa bukatu eta aldatzera doaz.

Kaxildari luze egiten zaio ibillaldi au eta Martiñi esaten dio:

— Ez al dugu Santa Cruz portu ortara irixi bear?

— Bai; laixter iritxiko gera. Itxaso ona dago eta bigar goizerako or nunbait ibilliko gera. Ikusten al dituzute orrako oiek?

— Zer dira oiek, aitatxo?

— Oiek? *Lobos de mar* edo *leones marinos*. Emendik ematen duten baño aundiagoak dira. Orain arrantzan dabilta. Danak batean sartzen dira urpera, eta or inguruan diran arraiak, larri ibilli bearra daukate, urpean oso pizkorrak baitira. Naikoa jaten dutenean, itxas-bazterrera joaten dira, eta ondarrean edo arri gañean lo lasai egiten dute. Patagonia'n zear oietako asko dago.

Martiñek Kaxilda eta Josetxori esaten diote:

— Gaur azkeneko gaua dugu itxasontzian. Bigar Andresen etxean lo egingo dugu. Gure billa autoarekin etorriko da. Bigar gauerako *Estancia San Jose*'n izango gera.

Kaxilda eta Martin, beren ezin egonarekin, besteetan baño goizago jeiki dira. Egunsentia da. Santa Cruz portuko argi batzuk oraindik ikusten dira. Iparraizea dabil, bañan epela. Ori, Argentina *ecuador*'etik ego aldera dagoelako da. Egoaizea da emen otza, Antartiko'tik edo *Polo Sur*'etik baitator.

Emen, itxas-ertzeko urak oso otzak dira neguan. Bañan tarteka Afrika aldetik ur epe-lak datoz, eta bañu bat edo beste artzea atse-gingarri izaten da.

Ur oetan arrai-mota asko dago. Bañan daretan gozoena *pejerrey* deitzen diotena izango da noski.

Itxasontzia Santa Cruz portuan sartzera doa. Geratu da eta aingura bota dute. Eskallarak jetxi ere bai. Jende asko dago, batzuk igotzeko zai eta beste batzuk jeixten diranen zai, pamiliko edo adiskideak.

Kaxilda, Martin eta Josetxo jetxi dira. Jendeartetik Andresek deitzen du:

— Martin!

Elkarrenganatu dira eta, agurtu ondoren, Andresek esaten diote:

— Nun dituzute puskak?

— Orain jetxiko dituzte.

Andresek onela dio:

— Nik autoa aparte xamar daukat, emen jendeari oztoporik ez egiteagatik. Bañan, pixka bat bakantzen diranean, onera ekarriko dut.

Jetxi dituzte puskak. Mordoxka batean ipiñi ere bai. Andres or dator auto aundi eder batekin eta danak begiratzten diote. Kaxilda eta Martin, olako *gurdian* joan bear dutela eta pozik daude. Andresek esaten diote:

— Orain *hotelera* joan bear dugu. Nik bart gaua an pasa dut. Beldur bainintzan, gaur goizean etxetik atera eta itxasontzia eldu ordurako ez etortzeko. Emen lo eginda, berriz, lasai. Goizean deitu dut eta esan didaten orduarekin ez duzute oker aundirik ibilli. Goazen, zerbait artu bear dugu. Gure etxea emendik oso urruti da. *Boliche* edo taberna bat bidean bada. Bañan, emen ondo jan ezkerro, garai ederrean afaltzeko etxean gera.

Hotelera doaz, mai batean ipiñi eta ondo serbituak izan dira. Andresek ezaguera aundiak ditu bertakoekin, eta nagusiari esan dio, emendik aurrera adiskide berriak dituela Martin, Kaxilda eta Josetxo, eta noiz-beinka errira jetxiko dirala, egun bat edo beste igarotzera.

Nagusiak eskerrak ematen dizkiote daneri; mendi-alde eta bakardade oietan oitu ditezela opa diote, eta, zerbaitez beartzen badira, bertan daukatela beren etxea.

Txutxeri batzuk artu dituzte eramateko Kaxilda eta Martiñek. Andresek, berriz, lata batzuk gasolina; emen *nafta* esaten zaio.

Lata bakoitzak emezortzi bat litro dauzka, eta orrelako batzuk artu bearra dago emen. Erritik atera ezkerro, ez dago surtidore edo orrelakorik; eta geienak emen ibiltzen dituzten autoak, ogei ta amar zalditik gorakoak izaten dira. Lurra ondartsua da eta kamiorik ez dago; auto indartsuak bear dira eta gasolina barra-barra erretzen dute.

ESTANCIA SAN JOSE

Danak prest daude erria utzi eta *Estancia San Jose* aldera joateko. Egualdi ederra dago eta Andresek autoari estalpea jetxi dio, bazterrak obeto ikusteko. Kaxildak eta Martiñek, autora igotakoan, egiten dute:

— Aitaren eta Semearen...

Josetxok, berriz, esaten du:

— Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, amen.

Andresi txokatu zaio eta parra egiten du:

— Otoitzean bai al daki?

— Badaki bai. Gañontzekoan ez diogu ezer erakutsi, bañan ori bai.

— Gañontzekoak ere ikasiko ditu, ba. Ez du bazterrean maixtra txarra izango.

Andresek autoa martxan ipiñi du eta abiatu dira gora, etxe aldera. Erri inguruan etxe banaka batzuk; gero ezer ere ez. Ezker-eskubi, ardiak eta zaldiak. Noiz-beinka, zaldiz dabilleen bat. Kaxildak eta Martiñek esaten diote:

— Emen etxerik ez al dago?

— Bai, badira; bañan elkarrengandik oso urruti. Emen eremu izugarriak baitira. *Rancho* edo *puesto* deitzen diote, eta oietako batean askotan gizon bakarra dago. Beste batzutan, berriz, familiak bizi dira. Bañan beti ere, *puesto* batetik bestera kilometro asko. Ortxe bizi dira oiek, batzutan astebete edo geiago iñor ikusi gabe eta iñorekin itzik egin gabe. Artzaiak orrela bizi dira; emen *ovejeros* deitzen diote. Ardiak biltzeko iru edo lau zakur izaten dituzte. Beste zakur pare bat, basakatu edo mendiko piztien arrastorako. Toki batzutan leoiak ere badira; emen *puma* deitzen diote. Oietarako ere zakur erakutsiak dauzkate.

Boliche edo taberna batera iritxi eta zerbeza bat edo zeozer artzera jetxi dira. Bolitxe inguruan zaldi batzuk lotuta daude. Andres inguratu danean, belarriak eta burua tente jarri dituzte, izuak baitira, eta *palenque* edo lurrean sartuta dagoen egur lodi baten inguruan bueltaka asi dira. Andresek Martiñi esaten dio:

— Emengo zaldiak nolakoak diran ikusten al duzu? Oek beren itzalarekin ere izutzen dira. Bañan oso pizkorrak eta odol bizikoak dituzu. Arrituta geratuko zera, oietako batekin egun batean noraño joan liteken. Nekatzen ez diran oietakoak dira.

Martiñek:

— Nik balioko al dut oien gañean ibiltzeko?

— Zergatik ez duzu, ba, balioko? Nik ere,

Euskalerritik etorri nintzanean, gauza bera pentsatu nuen. Bañan denborarekin oitu nintzan, eta zaldiz ondo ikasi ere bai.

Biak izketan ari dirala, bolitxetik bi gautxo atera dira. Oek, naiz zaldiz naiz ganadu-lanetan, oso iaioak dira. Bakoitzak bere zaldia askatu du, eta, anka istriboan ipiñi orduko, bat saltoka eta bestea korrika asi dira. Bañan etzaio-te ajolik. Andresek Martiñi esaten dio:

— Oiek *redomones* dituzu. Orain ezitzen ari diran zaldiak esan nai du. Begira ezazu dagoeneko noraño joan diran. Gautxo oiek *domadores* dituzu; zaldi-ezitzalleak.

Berriz ere, joan baño lenago, bolitxean beste zerbeza pixka bat edatera sartu dira. Josetxori karamelo batzuk erosi dizkio Andresek, eta beste batzuk etxeko Aliziarentzat artu ditu.

— Goazemazute —esaten diote Andresek daneri—. Oraingoan ea etxeraño joaten geran.

Abiatu dira. Bide legorra dago eta autoa aixa doa. Bi aldeetan, ardiak, *guanaco* eta *avestruz* batzuk ikusten dituzte. Josetxoren begiak, egazti aundi aiek autoaren aurrean korrika ikusita.

— Zer dira oiek?

— Oiei *avestruz* deitzen diote. Egan ez dira joaten, pisu aundia baitaukate. Bañan korrikalariak dira; salto bakoitzean bi metro eta geiago, eta orduko irurogei ta amar kilometro, gutxi gora-bera.

Erbiak ere ikusten dituzte. Eperrak ere bai. Gañera, beste mota askotako egaztiak.

Martin gaztetan eizean ibiltzen baitzan, bazterretara begira txoratuta doa. Andresek esaten dio:

— Emen, nai duzun aña eiza egingo duzu. Nik *mauser* bat daukat eiza larriarentzat, eta eskopeta egaztientzat. Neroni oso gutxitan ibiltzen naiz; eta, ibilli nai duzunean, or izango dituzu.

»Zuk lendabizi zaldiz ikasi bear duzu. Ori garrantzirik aundienetakoa da. Emen ez da iñor ere oñez ibiltzen. Bai eta Kaxildak eta Josetxok ere; ikasi bear dute. Nik zaldi asko dauzkat, eta oien artean badira ibiltzeko oso atsegiñak eta konfiantza guztikoak. Nere mutillak zuentzako aukerakoak berexiko dituzte.

»Mutil oiek, gaiztoak eta biurriak ibiltzen dituzte. Zenbat eta gaiztoago, ura eta naiago. Geienean, gaiztoak pizkorrenak eta gogorrenak dira; nekatzen ez diranak. Oietakoak nai dituzte. Gazteak eta sasoikoak baitira, etzaiote ajolik zaldia nai duen salto eta jira-bira egitea; *corcovear* esaten zaio emen.

»Askotan ikusiko dituzute, zaldia saltoka dabillenean, gañetik oiur galantak egiten eta *rebenque* batekin. Au *látigo* bat bezelakoa da; bañan uala zabalarekin eta zurezko esku-lekua-rekin, eta loditik meiarra. Estuasun batean, zaldia arrisku aundiko toki batera badoa, buruan jo eta lurrera botatzeko izaten da tresna ori.

Andres eta Martin berriketan doazelarik, aren etxe aldera urbildu dira. Ibillaldi luze

orrekin, Kaxilda eta Josetxo aspertuta datoz. Bañan Andresek laixter an dirala esaten diote; bere lurretan sartzeko ataka oraintxe bistan dutela, eta estanzia mendi ttiki aren txokoan dala.

Andresen mugetara iritxi dira. Martin ataka edo langa idekitzera jetxi da. Berealaxe an dira etxe ondoan. Zakur mordo bat zaunkaka atera da, eta Martiñek esan ere bai:

— Zertarako dituzute orrenbeste zakur?

— Oiek danak ardiak biltzeko bear ditugu. Oiek ez bagenitu, ez legoke emen ezer egite-rik.

Etxe aurrean gelditu dira. Or datoz Luzia, Andresen alaba, bizi-alarguna; Alizia, onen alaba, zortzi urtekoa; eta onen maixtra, Aurora. Danak elkar agurtu ondoren, barrura joan dira.

Martiñek eta Kaxildak bazterretara begiratzten dute. Etxe txukuna eta polita dala esan bearra dago.

Jardunalditxo bat egin dute, eta, afaltzera datozenean, bere mutillak ezagutuko dituztela esaten diote Andresek; goiko etxe txiki artan bizi dirala; bañan otorduetan onera etortzen dirala.

— Beste mutil bat badaukat Los Andes'ko egalean, rantxo edo puesto batean bakar-bakarrik. Arek, otorduak eta gañerakoak berak egin bear izaten ditu. Ara eta onera ibiltzeko urrutu dago eta zerbait bear duenean etortzen da.

Martiñek:

— Zer egiten du mutil orrek an?

— Orrek, noiz-beinka zaldia artu eta *alambraaa* nola dagoen ikusi. Tarteka, mendiko bei edo beor izuak alanbre bat edo beste puskatzea gertatzen da eta alanbre autsi oiek konpondu egin bear ditu. Bestela, ardiak, alde batekoak eta bestekoak, naastu egiten dira. Orregatik, urtean bein edo bitan, bi mugetako nagusieri deitzen zaiote, ardiak bildutakoan ba-koitzak bereak bereixteko.

»Orixe da *puestero* oien lana: alanbre-mutur bat artu, lazoa bezela bildu, zaldian zintzilik ipiñi eta alanbrada dana nola dagoen ikusi. *Winchester* bat ere eramaten dute, *guanaco* edo *avestruz* oieri tiratzeko.

»Beste batzutan guraizeak eramaten dituzte. Ardi batzuk *ramboullais* arrazakoak baitira. Oek zimurrez beteak izaten dira, begiak illearekin tapatzen zaizkate, eta ezer ikusten ez dute la gelditzen dira. Zaldiz dijoan arek, bereala antzemango dio, ondo ikusten ez duen ura zein dan. Emen ardiak izuak dituzu; urte guzian mendian dira eta norbait ikusitakoan iges egiten dute. Bañan ondo ikusten ez duen arek, bazter guztiak aurrean daramazki. Orduan, zaldi gañetik jetxi, bi begietako illeak moztu eta bere lagunak bereala billatuko ditu. Eremu izugarri auetan, batzuk galdu ere egiten dira, bear dan denboran ikusi ez diralako.

»Gañontzekoan, *puestero* oiek lan aundirik ez daukate. Goizean nai duten orduan jeiki eta gosaldtu. Naiko aragia badute, berak nai dituzten zikiro eta ardiak iltzen dituzte eta. Olluak

ere badituzte; bañan oekin kontuz ibilli bear, azeriak lapurtzen baitizkiote.

»Emen azeri asko da. Or dagoen mutil orrek asko arrapatzen ditu, eta oien larruekin xox batzuk ateratzen ditu.

»Gañera, eskopeta ere badu, erbia, eperra edo beste mota askotako egaztiren bat edo beste jan nai duenean. Emen ez dauka eizera urrutira joan bearrik. Batzutan, goizean jeikitzen danean, etxe ondoan dabiltzan eperrak, eta erbi bat edo beste ere bai, etxetik bertatik iltzen ditu.

»Naiko denbora dauka eta berak jartzen ditu bere otorduak. Onera bi zaldirekin etortzen da; bera baten gañean eta bestea sokatik ekartzen du. Oni *el carguero* esaten diote, bear diran gauzak eramaten dituelako: *hierba mate*, azukrea, iriña, arroza eta abar.

»Puestero oiek ez dira, beti bakarrik izaten. Negu partean beñepein, lau edo bost lagun arri-matuko zaizkio. Emen *tumberos* esaten diote. Geienak bi zaldi ekartzen dituzte. Puestoaren aurreraño etorri eta zaldi gañetik onela esango diote an dagoenari:

»— *Buenos días. ¿Me da Vd. su permiso?*

»— *Bájese, amigo; desensille y eche los caballos a ese potrero.*

»Au, zaldientzako alanbrez itxitako soro bat da. Gero puesteroak esango dio:

»— *Pase a tomar mate.*

»Eta biak edari ori artzen asten dira. Lendabizikoan ez da oso gustagarria. Bañan gero-

ra, oitutakoan, osasunerako oso ona dala esaten dute.

»Urrena, puestoetan gelditzen diran oiek, egun pare bat edo geiagoko baimena eskatzen dute, arropa garbitzeko eta abar. Gero, eskerak eman ondoren, alde egiten dute. Ez baitzaio emen iñori xentimorik ere kobratzen. Etxeak bata bestearengandik oso urruti daudelako, etortzen diran guztiak jan-edana debalde daukate. Orretzaz baliatzen dira *tumbero* edo oiek, lanerako gogorik ez daukatenak, besteren kontura bizitzeko.

»Puesteroak ere daneri ondo egin bearra dauka. Bakardadean bizi da, eta, txarrean asi ezkeru, zernai egingo lioteke, eta ez luke iñork ezer jakingo, ez nork egin zion eta ez nora izkutatu zan.

BIZIMODU BERRIA

Martin, Kaxilda eta Josetxo zaldiz ikastera doaz. Morroi batek zaldiak ekarri ditu. Andresek morroieri zein eta zein lotu bear diran esaten diote:

— *El alazán para Martín, el zaino para Casilda y el petizo pangaré para Josetxo.*

Danak lotu dituzte. Morroiak daneri banan-banan igotzen lagundu diote. Bi morroiak ere, poliki-poliki, beurekin pausoan dijoaz.

Morroiak ere zaldi mantxoak artu dituzte. Biurriak artu ezkerro, ezin poliki joan. Saltoka asiko dira edo alde batera edo bestera ezin egona izango dute. Eta zaldi mantxoeri ere, lagunak orrela ikusi ezkerro, ezin egona egiten zaiote. Puska batean pausoan ibilli ondoren, morroiak esaten diote:

— Orain trote pixka bat egin bear dugu. Bañan zaldiari riendak ez utzi lasai. Estu xamar eraman; bestela zaldiak galopean aterako dira eta.

Danak oso ederki doaz. Martiñek onela dio:

— Alde ederra dago, Buenos Aires'ko kale aundi aietan beldurrak eta kirats artean ibilli, edo emen lasai eta usai gozoko belar artean.

— Bai, ala da —dio Kaxildak—; eta nik ere, zaldiz ikasten dudanean, noizik eta bein bueltatxo bat eman bear dut zuekin.

Martiñek esaten dio:

— Bañan zuk, Kaxilda, etxean izango dituzu lanak.

— Bai, bañan nik danak garaiz egingo ditut eta tarteka izango dut denbora, zuekin pixka bat ibiltzeko.

— Bai, izango duzu noski. Auzoko emakumeekin maxiatzen egonda beñepein, etzaizu el-tzea erreko. Auzoa *arreglatzen* aritzen diran emakume oiek, onelako tokietara ekarriko nituzke nik.

— Nik, berriz, taberna zulotik ateratzen ez diran gizon oiek ekarriko nituzke; ardoa eta jokia eta *kaxuelitak* dirala, kanpoan uso eta etxean otso diran oiek.

— Aizu, Kaxilda: ni ez naiz beñere orrelakoa izan. Ala ere, enbido ori neretzat izanda, Bartolo eta biok *Laurak Bat* elkarte ortara, lagun artean musean arratsaldea igarotzera, joaten giñalako.

— Ez, ez dut zuregatik esan. Ez nuen uste orren irudikorra ziñanik. Emendik aurrera kontuz ibilli bearko dut zurekin, *brinkoso* xamarrara zera eta.

— Bai; zozoak beleari ipur beltz.

Jose txo, bere zaldi ttiki orrekin, pozez txo-
ratzen dabil. Bi morroiren erdian doa eta be-
reala ikasiko du zaldiz. Maisu onak dauzka baz-
terrean. Erderaz ere segituan ikasiko du.

Lendabiziko egunerako ibillaldi polita egin
dute. Orain etxe aldera ibai koxkor baten baz-
terretik doaz eta morroiak esaten diote:

— Emen badira arraiak ere. Arrantzan gus-
tatzen bazaizute, oso errex arrapatuko dituzu-
te. Guk ez diogu arraiari kasorik egiten. Gu
emengo semeak gera eta gaztetatik aragia ja-
ten oituta gaude, eta gañontzeko jan-gauzai ez
diotegu ixtimaziorik ematen.

Martiñek:

— Nik, denborarik badut beintzat, saiatu
bear dut, ba, arrantzan. Jose txo eta biok eto-
rriko gera.

Morroiak:

— Naiko denbora izango duzu. Ardiak, ur-
tean lau edo bost aldiz biltzen dira. Batean,
illea moztetakoan; bañan, ortarako, beste baz-
tzu beuren makinekin eta mutillekin etortzen
dira, eta lana beren kontu egiten dute. Baita ere
biltzen dira, arkumeak zikiratu eta nagusiaren
señaleak ipintzeko. Beste bi edo iru aldiz ere
bildu bear izaten dira. Emen ardiari, *sarna* dei-
tzen dioten gaitz edo min txar bat sortzen zaio,
eta oso kutsakorra da. Illea galdu eta larrua
ere artezitu eta zakartu egiten zaio. Orregatik,
estanzia danetan badira toki aproposak; *bañera*
luze batzuk. Ardiak ara bota eta alde batetik

besteraño igeri joaten dira. Ondo busti ditzeten, burua ere barrura sartzen zaiote. Gero, urik aundienak bota arte, sekatzan egoten dira; eta botatzen duten ur ori, *antisárnico*, berriz ere aska luze ortara joaten da. Botika ori oso garestia da eta ez dago alperrik galtzerik.

Zaldiz lendabiziko ibillaldia egin dute eta orain bakoitza bere lanetara.

Martin baratzerara joan da. Emengo lur xamurrekin arrituta dago. Lur zakarretan oitua, jostatzen ari dala iruditzen zaio. Andresek, etorri eta esan dio:

— Baratze au, ardirik, erbirik edo orrelakorik sartu ez dedin, itxita dago. Bañan emen iñoiz jotzen duen aizeak, kalte aundia egiten dio. Au zoko xamarrean dago; bañan Los Andes alde ortatik datorren aizea, ez da atsegiña. Otza eta indartsua bai. Orregatik, baratze inguru guztian pareta bat bezela egitea nai nuke; emen *quincho* esaten zaio. *Mata negra* deitzen zaion zartakarekin eta alanbreakin egin liteke. Posteak sartu eta bi alanbreren erdia *mata negra* oiekin bete. Mutillak lagunduko dizute; eta, danon artean, batzuek ebaki eta besteak zaldi eta karroakin ekarri. Ez daukazute urrutira joan bearrik; emen nun-nai bada orrelakoa. Ea, ba, danen artean moldatzen zeraten. Lau mutil bazerate eta, batere larritasunik gabe, lasai egin dezakezute.

Kaxilda eta Lutxi, sukaldean otorduak jartzan eta etxeko lanak egiten jarduten dira, bata besteari beren gertaerak esanaz.

Jose txo eta Alixi, Aurorarekin ikasketan. Gaur lendabiziko aldia, Jose txo maixtra baten aurrean dagoela. Alixik ez dauka urteetan alde aundirik, bañan ikasketan bai. Ura ixtudioetan aurrera doa, eta Jose txo gizajoa orain astera, orrenbeste kozkortu eta gero.

Maietik noiznai altxatzen da, eta leiotik baratzera aitari begiratzen dio. Aurorak esaten dio:

— Ez da maietik altxatu bear, emengo lanak bukatu arte. Laixter utziko zaituztet, bañan oraindik nik esanak egin bear dituzute.

Zaldi-irrintzi bat entzun du Jose txok eta badoa berriz ere leiora.

— Etorri zaite onera, Jose txo. Zertarako joan zera orain ere leiora?

— Zein datorren ikustera.

— Ez, ba, geiago joan. Bestela emen egon bear ko duzu egun guztian.

Kaxilda ere etorri da, eta Aurorari galde-tu dio:

— Nola dabil gure mutiko ori?

Au maiari lotu bear ko dugu. Mintzio bat entzun orduko, leiora itzuli egiten dit.

— Jose txo, maixtrak esan arte geldirik egon bear da.

Noizbait ere Aurorak esaten diote:

— Oraingo z naikoa dugu. Arratsaldean berriz.

An dijoa Jose txo korrika aitarengana. Onek esaten dio:

— Naikoa ikasi al duk, Jose txo?

— Ez; berriz ere arratsaldean joateko esan du. Naikoa noiz ikasten da?

— Beñere ez, Josetxo. Persona bat, bizidan bitartean, beti ikasten ari da.

— Orduan lantegi ederra artu dut nik, lendarbiziko egunean aspertu egin naiz eta.

— Oituko aiz, Josetxo. Ik, Aurorak esaten dituenak zintzo egin bear dituk. Gero ere naiko denbora badaukak, egun guztian jostatzeko eta gurekin ibiltzeko.

Bazkaldu dute eta atarian or dabiltz. Zakurrak zaunkaka asi dira. Auto bat dator. Bertaraño etorri da. Gauzak saltzen ibiltzen diran oietakoak dira. Emen *mercachifles* esaten diote.

Andresek ikusi ditu eta Martin eta Kaxildari oieri ezer ere ez erosteko esan ere bai, bazterrak engañatzen ibiltzen dirala eta. Arropa eta txutxeri batzuk artu eta mendi aldera, eta kalean baño askoz garestiago saldu.

— Gañera, azeri-larruak eta gañontzeko mendiko pizti guztienak erosten dituzte. Bañan danak kalean baño gutxiago pagatu. Ikusi egin bear da, oek indio artera joan eta zer salduerosketak egiten dituzten. Indio gazteak tarteka kalera jeixten dira; bañan zarrak oso gutxitan edo beñere ez. Orregatik, saltzalle eta erostun oek nai duten guztia egiten dute. Indioak ez daukate oiek ainbat malizi eta maltzurkeri. Gizajo batzuk dira, eta nai duten bezela engañatzen dituzte, piztien larruak nai duten prezioan pagatuaz. Emakumeentzat, berriz, kolore askotako txutxeriak, leporako kollare eta

eskumuturreko *pulsera* eta oietakoak, bearbada kristal utsa, bañan indieri oiek gustatzen eta pizti-larruen truk ematen dizkiote, irabazi aundiak egiñaz. Oiek ez dute beren burua galduko.

Zerbait bear dutenean, berak erritik ekarriko diotela esaten diote Andresek. Ondoren, Martiñi onela galdetzen dio:

— Zuk errebolberik bai al duzu?

— Ez, ez dut. Zertarako nai duk nik errebolbera?

— Aizu, Martin: emen ez duzu armarik gabe iñor ikusiko. Gañera, *cuchillo* galantak gerrian. Nik ere, etxetik naiz mendira naiz kale aldera ateratzen naizenean, beti nerekin eramaten dut. Zer gertatu liteken iñork ez daki. Mota askotako personak dabilta emen: onak eta gaiztoak, danetik; eta, bakardade izugarriak baitira, arma eraman bear, bakoitzak bere burua zaintzeko. Bolitxe edo taberna oietan ere, gautxoak beren errebolberakin ikusiko dituzu; eta, batzutan, ezer gutxi aski dute elkarri tiroka ekiteko. Orregatik, Martin, lendabizi kalera joaten naizenean, errebolber bat ekarriko dizut, eta ez beldurrik izan: emengo poliziak ez dizute ezer esango, armakin ikusi arren.

Josetxok, elkar izketa au entzun eta onela dio:

— Aitatxo, zer ekarri bear dizu?

— Errebolber bat.

— Esan neretzat ere beste bat ekartzeko.

— Ik badituk aurreragoko lanak, Josetxo. Oraindik gaztea aiz; eta, gañera, lendabizi, Au-

rorak esaten dituen guztiak txintxo-txintxo ikasi bear dituk, eta ez maietik alde egin, berari baimena eskatu gabe. Bestela aserratu egingo duk eta ez dik ezer ere erakutsiko.

— Ez dut geiago iges egingo.

Bazkal ondoan, Aurorak berriz ikasketara deitu ditu. Exeri dira eta zer egin bear duen bakoitzari agindu dio. Biak ixil-ixilik ari dira. Bañan Josetxok beorraren txintxerri-soñua entzuten du eta badaki or datorrela, beorra aurretik dala, zaldi-mordo bat atzetik, eta oien artean bere zaldi ttiki ura ere bai. Ezin egona dauka eta Aurorari esaten dio:

— Utziko al nazu leiotik begiratzen?

— Ez. Emengo lanak laixter bukatuko dituzute, eta orduan nai duzutena egin. Bitartean, emen geldirik!

Andresen peoien izenak oek dira: Tomas, Alejandro, Nemesio; eta beste bat, Jorje izena duena, puesto edo rantxo batean bakarrik bizi dana, Los Andes mendi izugarri oien egalean.

Martiñek ezagutu du au ere. Estantziara bi zaldirekin etorri da: bat bera ibiltzeko eta beste *carguero* esaten zaiona. Ondotik lau zakur ditu: bi ardi-zakur; beste bat, leoia edo *puma* oien arrastoan ibiltzen dana, eta baita ere basakatu eta gañeko piztien arrastoan; eta zakur *galgo* bat, abestruzak arrapatzeko.

Onuntzean, pizti larru eta abestruz-lumak ekarri ditu, errira dijoanean Andresek eraman ditzan. Gaur besteekin batean emen geldituko

da; eta bigar goizean, bear dituenak artu eta berriz ere bakardadean bizitzera.

Etorri berriak ezagutu ditu eta Josetxori *el gauchito* deitu dio.

Martiñek galdera asko egiten dio. Mendi alde oietako berriak jakin nai ditu; eta danak diran bezela esaten dizkio.

Antxe bizi dala bakar bakarrik, askotan amar edo amabost egun inor ikusi gabe; egiten dituen itzak, zakurreri edo zaldieri; gañontzekoan, bakardadea, ixiltasuna, bakea.

Goizean, berak nai duenean jeikitzen dala. *Mate* batzuk artu eta gero gosalduek; geienean, ardi-aragia erreta. Emen *churrasco* deitzen zaio.

Gero, patxara ederrean, batere presarik gabe, zaldia preparatu, eta, zertara doan, zakurura eraman. Abestruzak arrapatu nai baditu, zakur galgoa. Egunean bi edo iru abestruz arrapatzen dituen zakurra, zakur ona da. Abestruza, galgoa baño pizkorragoa da berreun bat metrotan; baño galgoa gogorragoa, eta azkenik arrapatu egiten du.

Batzutan, zenbait galgori lanak ematen dizkiote ondoratu eta gero ere. Galgoak, aurrera xuxenean joaten dira eta abestruzak jira-biraka txoratu egiten ditu. *Gambetear* esaten diote emen.

Orregatik, bi zakur galgo eramatea komeni izaten da. Abestruza erdian artzen dute, eta, zein aldetara jotzen duen, arek eltzen dio eta lurrera botatzen du.

Galgo oiek ez dute, beste eiza-zakurrak be-

zela, usairik artzen. Bearbada, abestruz bat etzanda dagoen ondotik igaroko dira; bañan, ikusten ez badute, ez diote kasorik ere egingo. Ikusten duten ari bakarrik segitzen diote.

Bi motatako galgoak dira emen: bat, ille motza eta leguna, eta bestea, ille luzea, *galgo ruso*. Oek ere oso onak dira, besteak baño garestiagoak, korrikalari pizkorrak eta aberatsen artean ere lujo aundiko zakurrak.

Martin, Jorjek esaten dizkionak entzuten oso gustora dago. Bera ere pozik ibilliko litzake abestruz oien atzetik. Emen estanzian galgorik ez dute. Orregatik, Jorjeri onela esaten dio:

— Zaldiz pixka bat trebexeago jartzen naitzenean, zure puestora joango naiz, abestruzak nola arrapatzen dituzun ikustera.

Jorjek esan dionez, *winchester*'ekin ere iltzen ditu, batzutan mendian eta beste batzutan ura edatera etortzen diran tokietan gordeta egonda. Aizeak jotzen duen aldera joaten dira abestruzak, eta, arreta artu ezkerro, eiztariari bertara etorriko zaizkio.

Abestruzak, geienez, ogei bat edo geiago arrautz egiten ditu kabian. Arra izaten da, txitoak atera eta familia azi bear duena. Emeak arrautzak egin eta kito; or konpon.

Oien arrautz bakoitzak, gutxi gora bera, zortzi edo hamar ollo-arrautzek aña jateko dauka. Eta onak dira.

Bañan abestruzak bakantzen ari dira. Bate-tik, tiroz eta galgoekin asko arrapatzen dituzte.

Bestetik, au okerrena: arrautzetik atera berriak diran umeeri, *charitas* deitzen diote eta oraindik gizonak korrika arrapatu lezazkenak dira; auek arrapatu eta larrututa, larru oiekin oera-ko manta ikusgarriak egiten dituzte emengo in-
diak.

— Manta oiek oso garestiak izaten dira. Pentsatu ezazu, Martin, abestruz ttiki oiek iltzen dituenak zer kaltea egiten duen. Manta bakoitzeko, bearbada larogei edo geiago abestruz iltzen ditu. Batzuen oea apaintzearren, orrenbeste abestruz gutxiago lurralde ontan.

Beste modu bat ere badago abestruzak arrapatzeko. *Bolear* esaten zaio; au da, *boleadora*'-kin. Oek iru bola dira. Bikoak ere badira; bañan irukoak obeak. Iru bola oek, lokarriakin bezela, bañan larruzkoakin, elkarri lotuta dau-
de; eta, botatzean, zabaldu eta bueltaka joaten dira. Lepora bota bear abestruzeri, eta gero bola oiek anketan biltzen zaizkiote, eta lurrera.

Ortarako, iru edo geiago gautxo joatea komeni da. Lendabizi, abestruzak nun dabilzan ikusi eta gero zabaldu, eta poliki-poliki buelta artu eta aiengana joan. Bañan begiak erne, nun etzaten diran ikusteko. Abestruzak, zaldizkoak beurengana alde guztietatik datozela ikusten dutenean, etzan egiten dira. Gautxoak, ikusi eta xuxenean gañera doaz. Orduan altxatzen dira eta bakoitzak bati tiratzen dizkio boleadorak; eta batzutan ondo eta beste batzutan uts.

Xuxen tiratzea, ematen duen baño zallagoa

da. Zaldiaren abioa, abestruzarena eta boleado-rena ondo neurtu bear dira eta aurrera tira; bestela, abestruza pasa eta gero eroriko dira. Au ez da egun batean ikasten.

Martin, Kaxilda eta Josetxo pozik bizi dira San Jose'n. Egunero egiten dute beren bueltatxoa zaldiz, eta gero bakoitza bere lanetara.

Josetxo ere zeozer ikasten ari da, bañan beti kanporako gogoia dauka. Beti belarriak erne, atarian mintziorik edo zerbait entzuten ote duen. Pozik ibilliko litzake gautxo oiekin zaldiz, ixtudioak alde batera utzita. Gizajoa ez da konturatzen, ikasketa on batzuek gerorako zer balio duten. Gañera, kaskoa pixka bat gogortzen asia dauka eta lanak ematen dizkio Aurorari.

Alixiri begira dago beti, zer egiten duen. Maixtrak banaka jarri ditu, eta Josetxori esan dio, berak agintzen dizkionak ondo egiten badiu, Buenos Aires'era joaten danean erregalo bat ekarriko diola. Josetxok orduan:

— Zer ekarriko didazu?

— Ez dakit. Oraindik ez dut pentsatu.

— Bai al dakizu zer ekarri bear didazun?

— Zer?

— Errebolber bat.

— Zu oraindik gaztea zera, Josetxo. Errebolbera baño ohea duzu ikasketako liburu on bat.

— Aitatxori Andresek esan zion emen danak errebolbera ibiltzen zutela, eta berari ere

bat ekarri zion, eta besteak ere danak badituzte. Ni bakarrik gabe.

— Oraindik pixka batean egon bearco duzu, Josetxo. Beste urte batzutan beiñepein, *tiragomas* orrekin ibilli zaite.

— Bañan nik ezin dut tiragomarekin txoririk il.

— Ez duzu il bear ere. Ez al duzu ikusten txori abeslari oiek etxe ingurua nola alaitzen duten?

— Bai, ikusten dut.

— Orregatik, bakean utzi bear diezu oieri.

Martin zaldiz poliki ikasten ari da. Noiz-nai, besteekin batean, ibillaldi aundiak egiten ditu.

Gautxoak, leoiak nun gordetzen diran erakutsi diote. Mendi-zuloak dituzte gordeleku. Gautxoak badakite gutxi gora-bera nun diran.

Zakurrak ere eramán dituzte eta arrastoan dabilta. Ardi bat edo beste ere, leoiak illak, ikusi dituzte. Oien artean, bat gordeta utzia dago. Belarrak atzaparrekin atera eta ardia ondo estali, gero etorri eta jateko. Tomasek Martiñi esaten dio:

— Au, leoi zarren lana da. Zer egingo du dan orain ikusiko duzu.

Frasko bat atera du, *estricnina*, menenoa; labanarekin ebaki batzuk ardiari egin eta menenatuta utzi du. Berriz ere len zegoen bezela jarri eta Martiñi esaten dio:

— Leoi zar ori bigar emen, lendabiziko errekan, arrapatuko dugu. Gauean etorri eta

ase-ase egingo da. Lendabizi petxoa jango dio, eta gero al duen guztia. Ardi menenatu orrek izugarrizko egarria emango dio. Lendabiziko erre kara joan eta lertu arte ura edango du. Bigar ikustera etorriko gera.

»Leoi gazteak ez dute ardirik gordetzen. Oiek, il eta segituan jan, eta askotan jostatzen kalte izugarriak egin. Zenbait aldiz, gau batean, il eta zaurituta, ardi-mordo bat utzi izan dute. Batzuk illak, lepo-zokoan atzaparrekin jo eta gero arritzeko moduan larrututa. Pena ematen du ardi gaixo oiek ikusteak: batzuk mutur-aldea odoletan; besteak, petxo bakarra janda; besteak il eta ikutu gabeak; besteak, bizkarretik beiti larrua arrastaka, ibiltzerakoan azpian artzen dutela.

»Bearbada, gisa ortan ondatuta, amar edo geiago ardi arkituko dituzu. Eta zer egin bear duzu aiekin? Lendabizi danak il. Gero, bat edo beste etxera eraman. Eta gañontzekoak bertan utzi, berriz ere mendiko piztientzat.

»Emengo zarrak diotenez, leoi emeak lana nola egiten duten ikusi izan omen dute illuna-barretan. Ardieri zakur batek bezela kontu egin, eta umeak ardi tartean jostatzen ibilli, atzaparrekin eta ortzekin jo bateri eta besteari, ardi gaixoak txikitzen. Leoiak odol-ixurtze ori berezkoa du, eta nola baliatu bear duten, amak gazte-gaztetandik erakusten dio.

»Leoiak, basakatuak bezela, azkazalak zorrotu egiten dituela uste dut. Basakatuak egurrik gogorrean zorrotzen ditu, eta ezaguna

izaten da. Antxe zepo bat orbelakin gordeta ipiñi eta aixa arrapatzen da. Leoiak ere nun edo an zorroztko ditu. Beti arri artean dabil, eta arri artean dabillenari kamustu egiten zaizkio, bañan orratzak bezelako mutur zorrotzekin edukitzen ditu.

»Leoi illa ondo pagatzen dute emengo nagusiak. Burua eramán bear zaiote. Leoi ederra bada, batzuek larrutu egiten dute, eta bere buruarekin eramán. Burua *embalsamatu* eta gero, oso dotoreak dira, etxe apañetan eskallera-buruan ipintzeko.

»Emengo leoiak ez dio iñori ezer egiten. Naikoa janda dago eta egunez geienean zuloan gordeta egoten da. Tarteka, eguzki pixka bat artzea gustatzen zaio, eta zakurrak ura lotan dagoen tokira joatea gertatzen da. Orduan aserratu egiten da. Zartaka edo arririk baldin bada, ari atzea eman eta beti zakurrari begiratzuko dio. Eta, asko arrimatzen bada, atzaparrekin artu eta beregana eramango du, eta zakurra izutu eta geldirik egoten da.

»Leoia iltzen dabillanak ez du momentu ori galdu bear. Itzuli joan baño lenago, errebolbera edo *winchester*'ekin il bear du. Abiatzen bada, eun edo berreun metrotan oso pizkorra baita.

Andresek oitura bat dauka: noiz-beinka berak ere zaldia artu eta ardiak nola dabiltzan ikustea. Gaur, Martin eta biak joango dira. Bazkal ondoan atera eta ez dira illunabarra

arte etorriko. Andresek bere morroi Nemesiori esan dio:

— *Ensílleme el alazán y a Martín el tostado.*

Biak oso mantxoak eta onak dira. Andresek *winchester* bat artu du, eta gañera errebolbera. Martiñek ere bai. *Cañadón* edo erreka baten barrena doaz. Abestruzak nun dabiltzan ikusi dute. Andresek Martiñi esaten dio:

— Zaldiari kontu egiozu, ea batenbat iltzen dudan.

An dioja *moye* tartean barrena. *Moye* emengo zugaitz ttiki bat da. Oien artean barrena tirora artu eta bat il du. Martiñi deitu dio zaldiarekin joateko. Bitartean, bi egalak moztu dizkio, eta gañera *la picana*. Au ipur gaña da. Gizena izaten da eta jateko ona. Baita *buche* edo errota ere; erreta oso ona da. Iru puska oiek kentzen zaizkio, eta gañontzeko aragia bertan utzi. Naiz dana jateko ona izan, aukera dagoen tokian ori gertatzen da: oberena jan eta gañekoa mendiko piztientzat.

Biak or dabiltz aruntz eta onuntz bazterrak ikusiaz, eta zakurra zaunkaka asi da. Andresek Martiñi esaten dio:

— Zerbait badu zakur orrek.

Joan dira eta basakatu aundi bat *moye* baten gañean. Andresek errebolbera atera eta tiroz lurrera bota du. Martiñi esaten dio:

— Oek oso samurrak dira arrapatzen. Zakurra sumatu ezker, segituan arbol gañera igozten dira, eta gero tiroz bota. Tiro bat edo

beste uts eginda ere, ez dira jeixten; zakurraren beldurra baitute.

Andresek larrutu du eta Martiñi esaten dio:

— Au ere zuretzat. Etxera joatean, legortzen ipiñi, eta, mordoxka egitean, errira eramango ditugu.

— Neretzat il bear al ditu, ba, berorrek?

— Bai; nik orren bearrik ez dut. Garai batean, ni ere *ovejero* edo morroi ibilli nintzan. Al nituen pizti guztiak iltzen nituen, eta diru pixka bat irabazi ere bai. Soldatatik aparte beste xox batzuk ondo etortzen dira, Martin. Emen basakatu asko da, eta, zakurrakin ateratzen bazera, ilko dituzu. Orretarako, errebolberarekin saio batzuk egin bear, tiroan ondo jarri arte bala-mordo bat gastatuaz. Bestela, ori gerrian eramatea alferrik duzu. Basakatuen larruak ondo ordaintzen dituzte. Oek ere emakumeen apaingarri izaten dira. Oiekin abrigo dotore eta garestiak egiten dituzte.

Ibai koxkor baten ondora iritxi dira. Zaldi gañetik jetxi eta Andresek onela dio:

— Begira ezazu, Martin, arrai oiek nola dabiltzan. Bearbada, ez dute sekulan gizon bat ikusi. Orregatik dabilta axalean: iñoren beldurrik ez dutelako. Emen, zuk dakizun bezela, orrenbesteko eremuetan bakarrik gaude, eta guk ere oso gutxitan jaten dugu arraia. Gure mutillak, beiñere jan gabe ere etsiko luteke. Jatorriz emengoak diranak, ia danak, ez dute iñoiz jaten. Naiago dute *churrasco*, aragi errea, bildotsa, zikiro edo txekorrarena. Baratze-gauzak

ere ez dira beren gustokoak. Orregatik, askotan esaten diote Kaxildari: «Etzaiguzula ezer ipiñi; geok erreko dugu aragia». Eta bai ondo erre ere; ortan iaioak baitira.

Martiñek:

— Bai, ondo erretzen dute. Guri ere asko gustatzen zaigu. Josetxo ere oien antzera jarriko dala iruditzen zait. Aragi errea jaten itxutua baita. Naiago du, amak egindako gisadoa baño, gautxo oiek erretako aragia.

Etxe aldera abiatu dira. Beiak nun dabil-tzan ikusi dute eta bertara joan dira. Martiñek Andresi esaten dio:

— Alderdi ederra dago Euskalerritik onera. An iru edo lau beirekin zenbat lan egin bear dan geok dakigu. Eta emen, nai dan ainbeste bei eta urte guztian mendian, beiñere etxeratu gabe. Jeizten diranak bakarrik etxeratu, eta oiek naiko lanak ematen dituzte.

Andresek:

— Bai, eziketa oiek gautxoentzako obeak dira, guretzako baño. Lendabizi, iru mutillak bei oiek aurrean artu eta etxe ondoko egurrez ondo itxitako leku borobil artara ekartzen dituzte. Leku orri *corral* deitzen zaio. Gero, lazoa bota eta arrapatu. Gautxo oieri, Ipar-Amerikan *cow-boy* deitzen diote.

»Gero, bei ori jetzi egin bear da, eta nola! Ez alkian exerita jarrita, beiari ankak lotuta eta naiko ixtillu ibillita baizik. Titiak añako illeak izaten dituzte errapean, eta kontu aieri illetatik tira; *delicadas* izaten baitira.

Badira adarrekin golpeak tiratzen dituztenak ere. Oiek, berriz, mendira.

Esnetako ibiltzen ditugun beiak ezagutzen ditugu, eta, bat umatu dala ikusten dugunean, etxera bere txekorrarekin ekarri eta biak lotu. Lenago jeizten oituak izanagatik, urte bete edo geiago mendian lasai berak nai duten bezela ibillitako beiak, mira aundia egiten dute lenda-biziko egunetan. Bañan poliki-poliki jartzen dira.

Jetzi ondoren, pentsu pixka bat eta alpampa eman, eta gero berriz mendira. Eta berak etortzen dira txekorrari esnea ematera.

Mendiko bei oiek daukaten malizia, izugarria da. Txekorrak zakar tartean gordeta edukitzen dituzte. Esnea eman eta lotan utzi, eta berak urrutira joan jatera. Askotan, bost edo sei txekor elkarrekin egoten dira. Guri, zaldiz gabiltzala, bein baño geiagotan aurretik atera izan zaizkigu. Bañan ez dira beren ametatik galitzen. Badirudi amak esaten diotela: «Zuek emen egon, gu etorri arte».

Estancia San Jose'n Martin bere familiarekin pozik bizi da. Udaberria da. Goizean goiz, Josetxok, eta batzutan Kaxilda, Aurora eta Alixik, bueltatxo bat zaldiz egiten dute, mendi koxkor oietan barrena, asnasa lasai artuaz, usai gozoko landare eta belar artean.

Biligarroaren antzeko eta *porotera* izeneko txori batzuk ikusten dituzte, goiti nola joaten diran eta gero beiti, egoak zabal-zabalik, *porot porot porot* kantatuaz. Orrenbeste miratiren

Egilleari egun onak eta eskerrak ematera gora igotzen dirala dirudi.

Mendi koxkor batetik jetxi dira. Alde guztietan egaztiak dabilta. Josetxok, *avutarda* bat nundik altxa dan ikusi du. Bere zaldi ttikiarekin segituan joan da, eta kabia arrautzakin. Zaldi gañetik jetxi da, bañan Kaxilda eta Aurorak ez diote arrautzik ikuitzen utzi, dana ikusi eta ikuitu bear duen orrelakoa baita.

Alako batean, belarriak tente jarri eta irrintzika asi dira zaldiak. *La madrina* deitzen dioten beorraren zintzerri-soñua entzun dute.

Amar edo amabost zaldi beor batekin ibiltzen dira. Beor au oso maitea izaten dute. Nainkoa da beor ori arrapatu eta bi besoak lotu. Emen *manea* esaten zaio. Au ede-puska bat da, bi botoirekin. Bereala lotzen zaizkio bi besoak eta geldirik egoten da. Bitartean, zaldi guztiak beraren ondoan bueltaka ibilliko dira eta askotan, mendian bertan, gautxoak berak dabilkiten zaldia utzi eta beste bat artuko dute. Beorra eta zaldi mordoxka oni *tropilla* deitzen zaio.

Tropilla ori dagoen lekura joan dira danak eta Josetxok onela esaten diote:

— Oek, gautxoak egunero eramaten dituzte, zaldi berria artzeko; eta aruntzean eraman egin bear ditugu.

Aurrean artu ditu, gautxoak bezela oi u bat egin diote eta *tropilla* ori an dijoa etxe aldera tximista bezela. Beurek daramazkiten zaldiak ere arrotu dira; beren lagunak laixterka ikusi ez-

kero indarberritu egiten baitira. Kaxilda, Aurora eta Alixi baldartuta iritxi dira.

Amak errietan eman dio Josetxori. Ez dirala berarekin geiago joango esan dio. Bañan Josetxori etzaio ajolik. Naiago du gautxoekin ibilli, emakumeekin baño.

Tomasek onela dio:

— Orain badugu *campañista* berria.

Zaldiak etxera ekartzen dituenari orrela deitzen baitzaio. Josetxori, ekartzearekin mesede egin duela esan dio; bestela billa joan bear zutela.

Martin etorri da. Kaxilda, Aurora eta Alixik, Josetxok zer egin duen esan diote, eta berak nekatuta daudela; beuren zaldieri ere ezin egona egin eta bide guztian kontu egin eziñik etorri dirala. Martiñek ere errietan eman dio Josetxori, eta iñork esan gabe geiago ez ekartze-ko esan.

Aurorak Josetxo eta Alixiri esaten diote:

— Orain, zuek biok nerekin ikastera.

Euria asi du. Gautxoak etxean geratu dira. Nemesio Josetxorentzat zaldiaren tresna berriak egiten asi da. Oso iaioa da lan ortan, eta, egualdi txarra dagoenean, zeregin orri ekiten dio. Gañera, ikasketak ondo badijoaz, gerorako *lazo* bat eta *boleadorak* egingo dizkiola esan dio.

Illunabarrean, Alejandro beia jeizten asi da, mendiko betizu oietakoa. Josetxo korrika eta muturka azaldu zaio, eta beia izutu eta esnea

bota egin du. Alejandrok, jeizten ari danean ez etortzeko esan dio; bei izuak dirala oek.

Jose txok, zer gertatu dan aitari esan dio, eta onek:

— Zer uste duk? Bei oiek Beko-errota'ko beiak bezelakoak dirala? Ez, Jose txo, ez. Bei oek izuak dira, eta jeizten ari danean, ez joan.

Jose txok:

— Alejandrok ez daki beiak jeizten. Amak, Beko-errota'n, ontzia bete esne kentzen zion beiari, eta onek esne pixar bat bakarrik kentzen dio.

— Nola beteko dik, ba, ontzia, oso esne gutxi dute eta? Esne gutxi, bañan ura alakoa. Oso esne ona eta indartsua. Ogei edo ogei ta amar litro dauzkan beiarena baño obea duk, bai, au. Ikusi egin bear da, esne pixka orrekin nolako txekorrak azten dituzten.

Jose txo aitarekin izketan ari dalarik, Andres etorri zaiote. Martiñek esanda zer gertatu dan ikasi duenean, bei oien ondoan kontuz ibiltzeko esan dio Jose txori. Oiek ez dirala Euskalerriko beiak bezela. Oiek, mendian jaio, mendian azi eta mendian bizitzen dirala.

Oiek, umea egiteko ere, ez dute albaitero bearrik. Ez eta auzokoen laguntzarik ere. Umea egin ondoren, ez dute izaten botilla ardorik eta gañontzeko pallakorik. Beren egin bearrak beurek egiten dituzte. Oietan ez da umatokia atera zaiotela eta orrelakorik ikusten. Oiek beren gauzak ondo ipiñita dauzkate. Asko ibiltzen dira,

eta, bearbada, onek ere mesede egiten diote uma-
tzeko.

Txekorrak ere, etxeetan jaiotzen diranak ba-
ño ttikixeagoak izaten dira. Naiz mendian bizi,
ez dute ez eztulik, ez errapeko miñik eta ez bes-
telakorik izaten.

Emengo beietan, batzuk, negu gogorra egiten
duenean, elurte aundiekin galtzen dira. Beiak,
aurrean ikusten duen ura jaten du; bañan, elur-
pean baldin badago, ez da, zaldia bezela, billa
saiatuko. Onek, besoekin arrotuaz, elurte aun-
dienarekin ere zeozer billatzen du. Bañan beia,
naiz belardi batean egon, elur aundia badago,
bertan goseak ilko da.

MARTIÑEK BERE GURASO ETA SENIDEERI

Nere guraso eta senide maiteok:

Buenos Aires'tik Patagonia aldera irten gifiñean, eskutitz bat bialdu genuen, uri aundi ura bere soñu eta zalapartakin utzi eta bakardade aundi auetara gentozela esanaz. Gure emengo zuzenbidea ere ipintzen genduen, bañan ez dugu zuen eskutizik artu. Orregatik kezketan gaude, aspaldian zuen berririk ez dugu eta.

Gure eskutitza artu baldin bazenuten, Pello eta Terexari esaiozute, zabarkeriak uzteko eta guri orko berriak bialtzeko.

Gu emen ondo gaude. Kaxildak otorduak ipintzen ditu eta etxeko lanak egin. Bañan asko laguntzen diote Lutxi bertako alabak eta Aurora maixtrak. Oso lagun egin da berakin, eta etxeko lanak airean ibiltzen dituzte.

Lutxi au emengo etxekoandrea da, Andres nagusiaren alaba, bizi-alarguna. Onek alaba bat dauka, Alixi izena daukana. Gutxi gora-bera, Jo-

setxok ainbat urte ditu; eta Lutxik Kaxildarekin ere ez dabilki alde aundirik.

Nagusia, dakizuten bezela, alarguna da, eta gañera euskalduna. Euskera garbia egiten du. Urte asko omen da etorri zala; bañan ez dakit nundik. Sekulan ez du nungoa dan esaten. Euskalerriko gorabera guztiak ondo dakizki. Gaztetako kontuak esaten ditu, sagardotegietan, erromerietan, neskai laguntzen eta abar nola ibiltzen zan; bañan nungoa danik ez. Egun batean, bera- ren alaba Lutxiri galdetu nion:

— Zuen aita zein erritakoa da?

— Ez dakit; ez du beñere esaten.

Orregatik, Euskalerrian txarkeriren bat egin eta onera iges etorria ote dan errezeloa daukat. Kaxilda eta biok askotan mintzatu izan gera gauza onen gañean, eta beti onela esaten dit:

— Au ere gaztetan zure antzekoren bat izango zan, edo bearbada okerragoa. Auntzak mendira jotzen duela esaten dute, eta zerbaitegatik zaudete zuek emen, gordeleku edo bakardadeontan, ezkutatuta bezela, jende artetik iges etorriak.

Dana dala, nungoa dan ez dakigu; bañan gizon jatorra eta zuzena dala aitortu bearra dugu. Orain arte beñepein, guri mesede aundiak egin dizkigu.

Kaxilda eta biok irabazian gaude; ondo ordaintzen digu. Josetxo, berriz, etxeko seme bat bezela daukate. Etxean *institutrix* edo maixtra bat Alixiren ikasketarako ekarria dute, eta ondo baño obeto etorri zaio Josetxori ere. Ikasketak

biak elkarrekin egiten dituzte. Alixi aurretik di-joala; bañan gure mutiko orrek ere ikasiko du.

Andresek amabost milla ardi edo geiago dauka. Bañan emen, naiz ardi, naiz bei edo zaldi, urte guztian larrean ibiltzen dira. Eremu izugarriak daude, danak alanbrez itxita. Urtean iru edo lau aldiz biltzen dira. Gañerakoan, uda eta negu, beti mendian.

Iru morroi dauzka Andresek. Nerekin lau. Eta beste bat, au txilenoa, puesto edo rantxo batean, Los Andes mendi izugarri oien egalean. Au bakarrik bizi da, bañan tarteka guregana etortzen da.

Emen danok zaldiz ibiltzen gera. Kaxilda ere ia egunero dabil, eta bueltatxo bat ematea asko gustatzen zaio.

Josetxo, ez dago zer esanik. Badira zaldi ttiki batzuk, oso politak, gazteentzako aproposak, eta auetako bat artu eta korri ara eta onera. Naiago du orrela ibilli, Aurorarekin ikasketan buru austen baño.

Gu zaldi mantxoekin ibiltzen gera, aukera dago eta. Gautxoak, berriz, biurriekin. Emengo mutil oek oso iaioak dira zaldi gaiztoekin. Gu, berriz, oraindik zarpail xamarrek zaldi gañean.

Emen esaten dutenez, zaldi gañean gertu eta xuxen joan bear da. Bañan guk bi aldeetara balantz egiten dugu eta onela esaten didate:

— *Viejo, vos andás como maleta de loco.*

Josetxok, aitak eta amak baño obeto ikasiko du. Gaztetatik asi da, eta, dagoeneko ere, ikusi egin bear da nola ibiltzen dan.

Nik askotan baratzean lan egiten dut. Oso baratze polita daukagu. Itxi berria dugu, buelta guztian pareta bezela eginda, batetik erbi-rik sartu ez dedin eta bestetik aize-girizi.

Emen aize-bolara aundiak jotzen ditu. Los Andes alde ortatik indar izugarriarekin etortzen da, eta baratzean kalte aundiak egiten dizkigu. Orregatik, itxi egin bear izaten da. Posteak sartu eta bi alanbreren erdia *mata negra* deitzen dioten zartaka batekin bete. Oso ederki gelditzen da. Oneri *quincho* esaten diote.

Emengo lurrak oso samurrak dira. Alde guztietan ondarra ikusten da, eta dudarik ez dago, noizbait ere, orain millaka edo milloika urte, au dana urpean egona dala; itxaso izan-dua dala. Oraindik ere lapa-azalak arkitzen dira; baita ere itxas-karakolak, txirlak, ostrak eta mota askotako azalak, danak arri biurtuak.

Patagonia'n gauza arrigarriak daude. Orain dala egun batzuk, emengo mutil oietako bat eta biok, ardiak nola zebiltzan ikusiaz buelta-txo bat egitera joan giñan, eta alanbrez itxita-ko toki bat ikusi nuen. Galdetu nion:

— Zer da ori, Tomas?

— Ori zer dan? *Un minuco*. Loi beltz ori ikusten al duzu? Orrera sartuko baziña, zaldi eta guzti betiko gordeko ziñake. Alanbrez itxita dago, ardi, bei edo zaldirik sartu ez dedin.

»Uda-partean, legorte pixka bat danean, iturriak emendik urruti baitira, loi ori ikusten dute, eta, ura dagoelakoan, barrena sartu nai izaten dute. Gertatu izan da, naiz ondo itxita

egon, bei, beor edo *guanaco* bat edo beste, oek basautzen posturakoak, alanbrea autsi eta barrura joatea. Sartu ala, danak bera.

»Ardiak ere, idekita ikusten dutenean, barrera joaten dira, eta sartu-ala danak ondora.

»Orregatik, legortea dan denboran, sarritan egin bear da buelta bat onera. Zaldian alanbre batzuk artu, eta, autsirik baldin badago, konpondu.

»Ardi mordo bat galtzea ere gertatu izan da. Iñork ez daki *minuco* oietan zenbaterañoکو zuloa dagoen. Auxe bakarrik dakigu: or sartzen dana geiago ateratzen ez dala.

»*Minuco* oek ez dute zabaldegi aundia izaten. Karobi bat bezela dira, bañan lau edo bost aldiz aundiagoak.

Emengo ardiak oso ederrak dira, eta gañera illetsuak. Azkazaletatik asi eta sudurreraño, illez jantzita daude.

Gero eta ardi obeak sortzen dituzte emen, bereixteko aukera baitago. Danak itxiko dituzte, eta ederrenak eta illez ongien jantzienak baztertu. Bearbada, milla arditatik amabost edo ogei berexiko dituzte; gero, banan-banan lurrera bota eta aoa ideki, ea mantxa beltzarik daukan. Esaten dutenez, aoan mantxa beltza daukan ardiak, ume beltza egiteko arriskua du, eta emen ille beltzak ixtimazio ttikia dauka.

Aaria erosterakoan ere, gauza bera egiten dute: lurrera bota eta aoa ikusi.

Aari onak garestiak izaten dira. Batzuk Australia'tik ekartzen dituzte; eta gero, banan-

banan berexitako ardi oiekin ipiñi. Oni *plantel* esaten diote. Ardi oietatik jaiotzen diran bildotsak ere, berexi egiten dituzte. Bat edo beste kaxkarxeagoak ateratzen badira, oek ere artalde aundira. Berexitako ardiak, lekurik obereanean jartzen dituzte.

Orrelako *plantel* bat egiteko, ardi asko bear da. Artalde ttiki batetik gutxi berexi litezke.

Ardi on batek eta kaxkar batek jaten berdin bear dute; bañan alde ederra dago batetik bestera.

Euskalerrian ardi politak badira. Bañan asko, ankak, tripapea eta lepoa soillak. Bizkarrerean manta bat; besterik ez. Orregatik, baserri aundi batean dagoen artzaiak, eta soro aundiak dauzkanak, proba bat egin lezake ardi ale batzuekin. Nik uste, ez litzaioke damutuko.

Bukatzeko, Euskalerriko goraberak jakin nai genituzke. Or nola bizi zeraten; aitak eta amak, Pellok eta Terexak zer egiten duzuten. Oek biak ez al dira oraindik esnatu edo lotan jarraitzen al dute? Garaia dute, ba, naiz batek eta naiz besteak, bizimodu berri bat artzeko.

Baita ere jakin nai genuke, Kaxildaren gurasoak kale aldean etsi duten eta nola bizi diran, eta Gazteluzar'eko Iñaziok Beko-errota'n zer ipiñi duen edo utsik daukan.

Kaxildak ere bere gurasoeri idatziko diote. Bañan zuek lenago artuko duzute eskutitz au, eta orko goraberak lenbailen bialdu.

Ixidrok eta Juanitak ere semetxo bat izan zutela jakin dugu. Emaizkiozute zorionak gure

partetik. Oieri ere idatziko diotegu noizbait ere.

Nik lenago, an *lagun artean* bizi nintzanean, idazteko askoz ere gogo geiago neukan. Orain zabartzen ari naiz. Bañan ala eta guztiz ere, emengo berri batzuk tarteka bialduko dizkizutet.

Oraingo ontan naiko ardi-kontu ipiñi dizutet; urrengoan beste zerbait izango da.

Gaurkoz besterik gabe, zuen berrien zai gelditzen gera. Eskumuñak danori eta artu ezazute Kaxilda, Josetxo eta nere besarkadarik maitekorrena:

Martin.

MARTIÑEK IXIDRO ETA JUANITARI

Nere lagun zar Ixidro eta Juanita:

Orain aurretik eskutitz bat bialdu nioken nere gurasoeri emengo berri batzuekin, eta gaur zueri ere beste zeozer bialdu nai nizueke.

Lendabizi, izan zenuten mutikotxo orrengatik zorionak, nere eta Kaxildaren partetik. Onezkero aunditu ere egin duk. Izan ere, aspaldi ontan ez baitiat iri eskutitzik egin. Idazteko zabarkeriak jota negok.

Emen, bakardade izugarri oetan, bizi gaituk. Askotan, astebete edo geiago etxeakoak besterik ikusi gabe. Oni esaten zaiok bake santuan bizitzea.

Auzokoekin aserratzeko beldurrik etzegok emen, toki askotan gertatzen dan bezela, beiak sartu dirala, olloak baratzera joan dirala, umeak zerbait puskatu dutela, eta abar. Oek danak ondorio txarrak ekartzen dizkitek: geienetan aserrea, gorrotoa eta elkar ezin ikusia.

Gañera, elkarrekin alde bizi diranak, bata bestea zaintzen ditek, nora dijoan, zer egiten duen, zer eramaten duen eta zer ekartzen duen. Emen orrelako beldurrik etzegok. Etxekoak elkarrekin ondo eramaten badira, bizimodu atsegiña.

Uri aundi batetik etorri eta lendabiziko egunetan, aldaketa onek utsune aundia egiten dik. Bañan poliki-poliki oitu egiten da bakardadean eta ixiltasunean bizitzen. Nere iritzirako, bakardadean bizi dana, Jaungoikoagandik alderago bizi da, gizartean bizi dana baño.

Ik bai al dakik zer gauza atsegingarria dan, goizean goiz jeiki eta batere presarik gabe zaldia artu eta emengo eremu izugarri oetan barrera bueltatxo bat ematea? Nun-nai, zaldiaren aurretik, erbiak ateratzen dituk. Oetatik erruz zegok emen. Gañera, mota askotako egaztiak ikusiko dituk, gizonarekin batere izutzen ez diranak. Oiek ere lasai bizi dituk emen. Bai, Euskalerriko zozoak baño lasaiago. Emen tiro gutxi egiten zaiotek egaztieri, eta oek ere bakean bizi nai ditek.

Goizeko ibillaldi bat emen, gorputzarentzat osasungarri eta begientzat arrigarri duk. Bakardadean bizi danak bazeukak zeozer, uri aundietan bizi diranak ez daukatena. Bazirudik *Norbaitetek* ixilka esaten digula:

— Bakardadean bizi zera, bañan etzaude bakarrik. Ni emen nago zure bazterrean. Izan zaite ona.

Seneca ospetsuak esan omen ziken:

— Gizartean zenbat aldiz izan naizen, ain-
beste aldiz lenago baño gizon eskaxagoa etorri
naiz.

Entzun izan diat *ermitaño* deitzen zioten
aiek denbora batean nola bizitzen ziran, basa-
mortuan barau eta penitentzia egiñaz, otoitzean
eta Jaungoikoa bakarrik lagun zutelarik. Gaur
egun ez diat orrelakorik ezagutzen.

Gaur, ondo bizitzeko alegiñak egiten dizkik
al duenak; bañan leize-zulo edo arriskuko toki
oiek utzi eta uri barrenean, danetik aukera da-
goen tokian. Jan-edan ondo; eta neguan, otz
dagoenean epeltzeko, tresna oietako bat pixtu;
eta udaran, bero dagoenean, beste tresna bate-
kin aize otza.

Nik ez nizkiokek gauza oek On Ramoni
esango. Bañan iri bai, iñori esango ez diokela
bazekiat eta.

Lerro oek irakurtzen ditukenean, ire artean
pentsatuko duk: Martiñek aldaketa aundia
egin dik. Bide xuxenean zebillek. Eta zeñek
daki, gaur edo bigar Euskalerrriak San Martin
berri bat izango ez duen?

Gauza oek orrela pentsatzen badituk, oker
abil, Ixidro. Martiñek orain ere lengo lepotik
zeukak burua. Lenago baño ohea naizela bai;
ori aitortu bearra zegok. Eta, gañera, oraindik
ohea izateko pentsamentua zeukat nere barre-
nean. Bañan goiko mail ortara irixteko, zer
ikusi aundiak zeudek bitartean.

Orain, emen zer egiten dugun esango diat.

Kaxildak emengo mutilleri otordua ipiñi eta etxeko lanak egiten etxeko andreaki lagundu.

Onek, Josetxoren urteak dauzkan alaba bat zeukak, eta, berari erakusteko, etxean maixtra bat dik. Josetxo, ezer ere etzekiela etorri uen onera. Bañan orain biak batean egiten dizkitek ikasketak, eta poliki-poliki ari duk zeozer ikasten.

Emen zaldi ttiki batzuk oso politak badituk, gazteentzako modukoak, eta oietako bat artu eta or ibiltzen duk beraren gañean, bazter guztietan barrena, askotan emengo gautxoekin. Itxura duenez, Josetxok zaldiz ondo ikasiko dik. Etzekazkik bazterrean maixu txarrak.

Kaxildak ere zaldiz ikasi dik. Askotan egiten dik bueltatxo bat gazteekin eta etxeko emakumeekin.

Or ikusiko duk, beraz, persona batek denbora gutxian zer aldaketak egiten dituen, eta erbestean eta arrotzekin nola oitzen dan, danak pamili batekoak balira bezela.

Emen leoiak ere badituk. Ondamendi aundiak egiten dizkitek artaldeetan. Bañan personari etziotek ezer egiten. Emengo zarrak diotenez, sekulan ez omen ditek entzun, leoi batek persona bati ezer egin dionik. Illunabarrean ateratzen dituk leize-zuloetatik.

Baita ere badituk emen mendian jaio eta mendian bizi diran zakur eta galgoak ere. Oek ere kalte izugarriak egiten dizkitek, eta leoia bera baño zallagoak dituk arrapatzen. Izuak dituk eta sudur ona zeukatek, eta personaren

usaia urrutira artu eta iges egiten ditek. Mendian danik piztirik zallena arrapatzen eta tiroz botatzen, zakur izua duk.

Ardiak baditek beste etsai bat ere: egazti bat, *chimango* deitzen diotena. Etzanda dagoen ardiren bat ikusten badu, an ziak berarengana. Ardia ezin bada altxa zarra dalako edo gaizki erorita dagoelako, goiko begia ustuko zio. Bekoa ezin atera, azpian daukalako.

Onen antzeko beste egazti bat ere baduk *Pampa* aldean. Izena *carancho* zeukak. Onek ere lan bera egiten dik.

Itxasoaren aser-aldietan, berriz, itxas-txori edo *gaviota* batzuk badituk, goseak dabiltzanean, itxas-ertzeko artaldeetan gauza bera egiten dutenak. Eta oraindik okerragoa. Len esandako egaztiak, begia atera eta utzi egiten dizkitek ardiak; eta, norbaitek ardi ori ikusi eta altxatzen laguntzen badik, naiz begi-bakarra, bizirik geldituko duk. Bañan itxas-txori oiek, erorita dagoen ardiari, lendabizi begia mikoka aterako ziotek; eta gero, atzetik barren guztiak ustuko zizkietek. Ardi gaixo oien azkena urri-kalgarria duk.

Beste abere polit bat ere aipatu bear diat. Basauntzaren tankerakoa duk, bañan aundixea-goa. *Guanaco*, beraren izena. Onek adarririk etzeukak; lepo me luzea, burua grisa, bizkargain gorria eta tripape zuria.

Emen asko zegok. Belarrik goxoenak jaten dizkitek. Orregatik, nagusiak ez ditek begi onez

ikusten eta mutillak *winchester* banarekin bialtzen dizkitek, al dituztenak iltzera.

Guanaco au, beia bezela, ausnarrean ibiltzen duk. Aragi ona zeukak jateko, bañan indioak bakarrik jaten ditek emen. Gañerakoak naiago ditek ardikia eta txekor-aragia.

Guanaco oek, ar bakoitza eme-mordoxka batekin ibiltzen dituk. Zenbat eta ar indartsuagoa eta gaixtoagoa, arek eta eme geiago.

Gauza polita duk, bata besteari emeak nola kentzen dizkioten ikustea. Korrikalari pizkorrak dituk, eta lendabizi arrak bere emeak mordoxka batera bildu eta an geldituko dituk begira, beren nagusi orrek zer egiten duen edo beste lagunen bat ekarriko ote dioten.

Beste arrak ere gauza bera egingo dik. Danak pillan utzi eta elkarrengana saltoka eta burua makurtuaz desafioka abiatu. Eta, bietan bat menderatu arte, borrokan ekingo ziotek. Letagiñak aundiak zeuzkatek eta lepoa geiena zulatzen ziotek elkarri.

Jauntxo gelditzen dan ura, menderatutakoaren emeatara joan, bat berexi eta bere emeatara aurrean eramango dik. Beste gizajoa, berriez, buru makur eta ondatuta, eta eme bat gutxiagorekin.

Guanaco oen umeak, jaio berriak diranean, oso ixtimatuak izaten dituk. Ille leguna izaten ditek, eta indiak, oen larruekin, oe gañerako manta ikusgarriak egiten dizkitek. *Quillango* deitzen ziotek, eta emen geientsuenak orrelakoak ibiltzen dizkiagu neguan.

Emengo indiak oso trebeak dituk orrelako lanetan. Oiek ez ditek ari bearrik, manta oiek josteko. *Guanaco* aundiari bizkarretik aria bezelako nerbio batzuk kendu eta aiekin josi.

Gaurkoz, naiko *guanaco*, itxas-txori eta ardi-kontu jarri diat.

Orain, ik ere Euskalerriko kontuekin lerro batzuk bialtzea nai nitek. Zuek eta beste guztiak nola bizi zeraten.

Eskumuñak Kaxildaren aita eta amari, eta On Ramoni besarkada bat bere adiskide Martin, Kaxilda eta Josetxoren partetik.

Besterik ezer gabe, gaurko idazlana emen bukatzen diat, eta orko goraberen zai gelditzen gaituk.

Artu ezazute nere, Kaxilda eta Josetxorengandik besarkadarik maitekorrena:

Martin.

ESKUTITZ USAIDUNA

Oitura daukan bezela, Martin goizean goiz jeiki da. *Mate* batzuk artu ondoren, or dabil etxe inguruan bazterretara begira, zer egin ez dakiela.

Egualdi zoragarria dago. Udaberritik udara bitarteko tarte ori da, ez otz eta ez bero; egualdi atsegiña. Garai ontan egiten ditu Patagonia'n egualdirik oberenak.

Eguna oso luzea da emen, udaran beiñe-pein. Ia gau erdian, periodikoak edo beste zerbait oraindik irakurri liteke atarian. Eta, goizean, lauretarako eguzkia mendi artetik kirikaka.

Neguan, berriz, ia egunik ez dago. Euskalerrian baño obeto esan diteke emen: Abenduko eguna, argitu orduko illuna. Eta zenbat eta *Polo Sur* alderago joan, an eta egun luzeagoak udaran; eta negua ia dana illunpean.

Andres eta Martin elkar-izketan ari dira etxe ondoan. Andresek:

— Gaur arratsaldean arrantzara joango gera, Martin. Arrai goxoak jan bear ditugu, aspaldian ez gera joan eta. Aparejoa eta txitxareak artuko ditugu, eta *winchester* bat ere eramango dugu. Orain bai al dakizu zer egin bear duzun?

— Zer egin bear dut?

— Zaldia artu eta joan zaite karteroak zerbait utzi duen ikustera.

Emen korreoa ez dute beti etxera ekartzen. Noizik eta bein etortzen dira, presako edo *urgente* zerbait danean. Gañontzekoan, etxeko eremuetan ipiñita dagoen kajatxo edo buzoi batean uzten dituzte periodiko, eskutitz, errebista eta abar.

Martin, batere presarik gabe, zaldi orixka edo *bayo* batean dijoa, ondotik txakur gazte bat duela. Onek eperrak eta erbiak altxatzen ditu, eta laixterketa ederrak egin ere bai beren atzetik. Martiñek errietan eman dio, zaunkaka ardi guztiak izutzen baititu. Zaldi ondotik joateko agindu dio, eta zakurra ondotik dijoakio.

Martin kajatxo ortara iritxi da. Giltza atera du eta ideki ere bai. Periodiko, errebista eta Andresentzat eskutitz batzuk badira, eta oien tartean Martiñentzat eskutitz bat ere bai.

Elenak idazten diola segituan antzeman dio. Sobrea arrosa kolorekoa da, ttikia eta polita. Eskuetan dauka eta idekitzeko beldurrak dagoela ematen du.

Mata negra tartean exeri eta ideki du. Barendik *perfume* edo usai gozo-gozo bat atera

da. Martin arrituta geratu da, orrenbeste bi-dean usairik nola galdu ez duen.

Irakurtzen asi danean, zakur gazte ori saltoka eta jostatu naiean ondora etorri zaio. Aurrean bialdu du Martiñek. Orain ez du traba edo oztoporik nai bazterrean. Zer pentsatu ederrak jarri dizkio eskutitz orrek.

Elenak, oporraldi edo bakazioak orain egin nai dituela esaten dio, udaran lan asko izaten dutela eta; Patagonia aldea ezagutzeko gogo aundia daukala, eta denbora berean Martin eta familia nola bizi diran ikusi-naia ere bai. Nagusiari esateko, ea baimena emango dion egun batzuk beren artean igarotzeko. Baimena ematen baldin badu, segituan idazteko, eta abioia artu eta bereala joango dala.

Martin zearo tontotuta dago. Ez daki zer egin. Eskutitz usaidun ori nola erakutsiko dio, ba, Kaxildari? Lenago ere naiko kezkek badauzka onek Martin eta Elenaren arteko maitasunagatik, eta, eskutitz ori eramaten badio, berriz ere sua piztuko da, eta, len ibilli ziran bezela, mokoka ibilli bearra daukate.

Martiñi, zeozer egin bear eta belar gañean ipintzea gogoratu zaio, ea aizeak usaiak kentzen dizkion; bitartean, bera erdi etzanean egongo dala.

Buru-auste aundiak dauzka Martiñek. Arrituta dago Elenak berari, gizon ezkondu-tako bati, eskutitz usaidun bat nola bialdu lezaioken, Kaxildari onik egingo ez diola jakiñik. Ori bai, ezkongai bati bialtzea ondo legoke.

Martiñek egonaldi ederra egin du. Zakur gaztea or barrena ibilli eta beragana dator. Lu-rean papertxo bat dagoela konturatu eta anka altxa du. Martiñek ez dio ezer egiten utzi. Oiu aundi bat egin eta uxatu egin du. Bere artean pentsatzen du:

— Lengo usaia ezin kendurik eta orain, ga-raiz oartu ez banintz, beste usai bat gañetik. Ez dakit zer atarramentu atera bear dudan nik eskutitz onekin.

Eskuetan artu eta usai egin dio. Lenagoko usaiak an dauzka berekin.

— Zer arraio bota dio emakume orrek es-kutitz oni? Koloniaren *extracto* edo orrelako zerbait seguru asko.

Alferrik dagoela etsia artu du; bere usai eta guzti etxe aldera abiatu bearko duela, eta Ka-xildak bereala antzemango diola. Ortarako bai-tauzka bi sudur-xulo, urrutira arrastoa artuko lutekenak. Zenbait erbi-zakurrek, orren sudu-rrak baleuzkate, aterako lituzteke erbiak kabi-tik!

Martiñek denbora asko pasa du alferrika-ko probak egiten, eta orain etxe aldera galo-pean doa. Gauza bat bakarra darama buruan: Kaxildak Elenaren eskutitz au nola artuko duen.

Etxeratu da. Zaldia askatu eta jatera bial-du du, etxe ondoan itxita dagoen *potrero* dei-tzen dioten toki ortara.

Etxera sartu da eta danak maian exerita daude. Kaxilda ere an dago. Martin, aren eta Auroraren erdian exeri da. Kaxildak:

— Zer dira usai oek, Martin? Nun ibilli zera?

— Nun ibilliko nintzan? Or goian, *mata negra* tartean barrena.

Kaxildak:

— *Mata negra?* Orrek, euskeraz, «beltza iltzen du» esan naiko du.

— Bai, ala esan nai du —dio Andresek—. Bañan ori zartaka bat da. Emen onela deitzen zaio eta bazter guztietan dago.

— Eta... oien artean usai gozo ori al dago, Martin?

— Ez; oiek ez daukate usairik. Usaia onek dauka. Elenak bialtzen du.

Eta eskutitza atera du. Martiñek, danen aurrean ateratzea obe dala pentsatu du; Kaxilda sublebatzen bada ere, beste emakumeak defendituko dutela.

Kaxildak:

— Au al da ezkonduetako gizon bati bialtzeko eskutitza?

Martiñek:

— Eskutitz au ez du neretzat bakarrik bialtzen, gu danontzat baizik.

Kaxildak, ezpañak estututa:

— Nik badakit, bai, geien zeñengatik bialdu duen orrela usainduta! Ez neregatik eta ez Josetxorengatik, bere lenagoko lagun zar Martiñengatik baizik!

Aurorak:

— Aizu, Kaxilda: gauzak ez dira orrela artu bear. Nik ez dut emakume ori ezagutzen.

Bañan orrela usai gozoz beteta eskutitza bialtzen duen emakumeak, idazten dituen lerro oietan barrena, bere biotzeko sentimentu eta maitasun guztiak iraultzen ditu.

Kaxildak:

— Bai, bai, ala izango da. Bañan irakurri al liteke eskutitz ori? Sekretorik ez al dauka?

— Ez, ez dauka.

Eta Martiñek danen aurrean irakurri du. Andresek, Elenak esaten dituen danak entzun ditu eta onela dio:

— Bai; nai duenean etorri eta nai duen arte egon liteke. Etzaio jan-edanik faltako. Nai duzunean, etortzeko idatzi zaiozu. Aurretik esan dezala noiz eta nola etorriko dan; itxasontzian edo abioian. Ekartzera joateko ori jakin bear dugu.

Bazkaldu eta danak altxa dira. Kaxildak Martin bakarrik arrapatu nai du. Or dabil aruntz eta onuntz, sekula baño ariñago, urtemordoxka bat kendu baliote bezela, neska gazte baten antzera. Bañan Martiñek badaki lenda-biziko sarrera nolakoa izango dan, eta, muturreko bat artzeko balego bezela, iges egiten dio. Eroarena jotzen du eta gautxoekin izketan gelditu da.

Andresek deitu dio:

— Martin, arrantzara joan bear dugu. Puska guztiak prest jarri bear dituzu.

Gero, Tomasi esaten dio:

— *Ensilleme el zaino.*

Martiñek zaldi beltz bat artu du. Biak ibai aldera dijoaz. Bidean, Andresek Martiñi onela dio:

— Zein da onera etorri nai duen emakume ori?

— Ori, nik Buenos Aires'en ezagutu nuen emakume bat da. Orain Bahía Blanca'n bere aizparekin bizi da. Aizpak, emakumeak apaintzeko leku bat dauka.

— Igerri diot Kaxildari ez diola onik egin arek bialdutako eskutitzak.

— Ez ba; ez dio onik egin. Elena eta ni lagun onak izan gera beti, bañan elkarrenganako errespeto guztiarekin. Bañan Kaxildak duda egiten du eta *celosa* dago. Gañera, bialdu duen eskutitz usaidun orrek bere onetatik atera du.

— Bai; ez da arritzekoa. Kaxilda ere, bere denbora guztian, baserrian jaio eta baserrian bizi, eta bearbada orrelako gauzarik beñere entzun gabea. Zuri bakarrik bialtzen dizula iruditzen zaio, bañan eskutitz orrek danok berdin artzen zaituzte. Emakume orri nai duzunean idatzi zaiozu, eta Kaxilda eta biok ea ondo konpontzen zeraten. Nere etxean etzazutela beñepein naspillik jarri. Neri bakean bizitzea gustatzen zait.

Arrantza ona egin ondoren, etxe aldera urbildu eta arraiak sukaldera eramán dituzte. Kaxilda an dago eta Andresek esaten dio:

— Gaur gaberako arrai auek prejituta ipiñi itzazu.

— Bai, jauna.

Martin sukaldean geratu da. Oker aundi bat egin duen mutil koxkor bat bezela dago. Ez daki nundik asi eta Kaxildari esaten dio:

— Orain zuretzat lana, Kaxilda, oek garbitzen. Nik ezer egitekorik ez daukat eta, nai baduzu, garbitzen lagunduko dizut.

— Ixtimatzeko dira zure borondatea eta leialtasuna. Bañan, orain arte egin ditudan bezela, bakarrik garbituko ditut. Zuk ez daukazu sukalde-lanetan asi bearrik.

— Orduan Elenari idatziko diot. Andresek, nai dudanean idazteko esan dit; bere etxera bezela etorri dedilla onera, eta nai duen aibat denboran egon dedilla emen.

— Bai, bai; idatzi lenbailen. Ea zure begi illun oiek ura ikusitakoan pixka bat argitzen diran. Badakit irrikitan zaudela, eta, gazte txoro bat bezela, oraindik ametsetan bizi zerala.

Martiñek eskutitz bat egin dio Elenari, nai duenean etortzeko eta noiz etorriko dan esateko.

KALBARIOAREN ASIERA

Elenak Martiñen eskutitza artu du. Pozez beteta dago. Segituan beste eskutitz bat egin du, prest dagoela esanaz; Buenos Aires'en egun pare bat igaro ondoren, illaren amabostean abioia artuko duela, eta arratsaldeko lauretan, gutxi gora-bera, or izango dala.

Andresek Kaxilda eta Martiñi esan diote:

— Bigar ditu illak amabost, eta zeñek joan bear duzuten esan, goizean goiz atera bear dugu eta.

Aurora mintzatu da: gauza batzuk erosi nai lituzkela eta joan-etorri ori egitea egoki lukela.

— Beno —esan dio Andresek—; Kaxilda eta zu nerekin joango zerate, eta Josetxo ere, nai badu, etorri liteke.

Andres, oitura daukan bezela, goizean goiz jeiki da. *Mate* batzuk artu ondoren, daneri deitu diote.

Kaxilda eta Aurora jeiki dira. Bañan Josetxo ezin da jeiki. Oean gustora dago, lo asko

bear duen oietakoa baita. Noizbait ere Kaxildak arrotu du kabitik, eta or dator begiak ezin zabaldu, kopeteko illeak arro-arro dituela.

Andresek Kaxildari esaten dio:

— Bidean gosalduko dugu. Bear diran gauza guztiak artu itzazu. Pizkor ibilli, egunsentian irten bear dugu eta.

Danak prest daude. Andresek auto aundi ori atera du. Orain, Santa Cruz portura bitarte, eremu izugarriak igaro bear dituzte. Geldialdi bat egin eta bidean apetitu ederrarekin gosaldute. Goizean goiz atera eta aize osasuntsu ori artuaz joan ezkerre, gogoia egiten baita.

Berriz ere prest daude kilometro-mordo bat egiteko. Autoak, abioiak añako orrua ateratzen du. Emengo txoferrak, mendian dabilzanean, *tubo de escape* edo *silenciador* ori idekia ibiltzeko oitura daukate, motorrak lana lasaiago egin dezan eta erre-ala gasak atera ditezen, silenziadorearen biraka motorraren kaltegarri ibilli gabe. Gañera, ibillaldi luze oetan, autoa ixilik badijoa, logaleak jotzen du. Orrua dariola dijoanean, berriz, txoferra ernatu egiten da, eta autoa ere obeto, asnasa lasai artuaz. Bañan, kalera urbiltzean, silenziadorea itxi bearra dago. Lenago beñepein tablerotik bertatik egiten zitzaien.

Aurorak Andresi esan dio:

— Nai baduzu, orain nik eramango dut pixka batean, zuk zigarrillo bat edo beste erre arte.

— Bai; artu ezazu.

Santa Cruz baño lenago, erri ttiki bat da. Paso Ibáñez deitzen diote. Emen Santa Cruz ibaia pasa bear da. Urak Los Andes izugarri oietatik indar izugarriarekin datoz, eta batzutan ez da txantxetakoa ibai ori igarotzea.

Kable lodi bat dago alde batetik bestera ondo lotuta, eta urean *balsa* deitzen diotena. Au gabarra bezelako aundi bat da, eta autoak eta kamioiak barrena sartu eta, tresna batzuekin eskuz lagunduaz, beste aldera eramaten dituzte.

Ibai ori, Los Andes mendietako elurrak urtzen diranean, beldurgarria jeixten da, tarteka jela-konkor batzuk dituela. Arraiak ere iltzen dituzte jela-konkor oiek, tartean arrapatuta. Ibai ontan arrai asko da, eta bere garaian izokia ere erruz. Emen *kontaminaziorik* ez baita.

Ibai ori igaro eta Santa Cruz aldera dijoaz, bide-bazterrean ezker-eskubi larrean dauden ardiak, eta *guanaco* eta *avestruz* batzuk ere bai, danak izutuaz. Santa Cruz bistan daukate eta bereala an dira.

Emen txoferrak, garai batean, ezkerretik eta eskubitik, al zuenak al zuen tokitik ibiltzen giñan. Nik bein batez, errebuelta batean, esku beretik zetorren batekin, muturrez mutur aariak bezela jo nuen. Beste arek esan zidanez, parteararen billa presaka zijoan. Toki ederrean gelditu zan mandatari ori.

Garai aietan, uri aundietan bai, *karneta* bear zan. Bañan Patagonia aldean ez. Auto bat artu eta aide. Ango kaleetan etzegoen ez *cebra*, ez *semaforo* eta ez poliziarik. Ez geneukan se-

gurorik ere, *ni a todo riesgo, ni a poco riesgo*. Austen bazan, konpondu; bakoitzak berea ordaindu eta kito.

Txoke bat egindakoa, etziran entzuten Euskalerrian edo Españian zear entzuten diran itz lodi eta trakets oiek. Elkarrenganako errespeto aundiagoa zegoen. Onela esaten zan:

— *¡Qué le vamos a hacer, amigo! ¡Mala suerte!*

Andres, Santa Cruz'en sartu eta beti joaten dan *hotel* ortara joan da. Danok bazkaldu egin bear dute, eta segituan bakoitzak bere egin bearrak. Andresek ibilli bear batzuk baditu, eta Aurora eta Kaxildak ere erosketa batzuk egin nai. Beren egitekoak bete dituztenean, danak aideportura urbildu dira.

Abioia, bere ordutan, an urruti azaldu da. Danak, nola datorren begira daude. Arratsaldeko eguzkiak bete-betean jotzen du eta zillarrezko dizdirak egiten ditu. Bira batzuk eman eta or dator xuxenean.

Aurorak ez du Elena ezagutzen, bañan Andresek bai. Buenos Aires'en, Bartoloren etxean ezagutu zuen.

Abioia geratu da eta eskallerak jetxi dituzte. Jendea asi da banan-banan lurreratzen. Begiak erne dauzkate danak, eta an ikusi dute Elena, eskuan maleta bat duelarik.

Josetxo, beragana korrika joan zaio. Elenak eldu eta musuka bere seme bat balitz bezelakoxe ongi etorria egin dio.

Gero Kaxildari, bañan oni Elenaren musuak ez diote on aundirik egiten, naiz-ta disimulazten alegiñak egin. Ondoren, musu eman diote Aurorari eta Andresi.

Josetxori, eskutik eldu eta asko aunditu dala esan dio, eta ea ikasketa oiek ondo dijoazen.

Aurorak, ikasten ari dala esaten dio; bañan ikasketarako baño, zaldiz eta gautxoen lanetarako gogo geiago daukala.

Elenak esaten dio:

— Josetxo, lan oiek ikasteko denbora badaukazu gero ere. Orain, lendabizi, Aurorak esaten dizkizunak egin bear dituzu. Asko aunditu zera eta gero eta zallago izango dituzu ikasketa oiek.

Andresek onela dio:

— Abiatu egin bear dugu. *Restaurant* batean zeozer artu eta mendira joko dugu.

Elenak:

— Nik daukaten gogoia mendi aldera joan eta bakardade aundi oiek ikusteko! Nere denbora guztian beti kalean, jende artean eta etxezuloan. Orregatik, mendi garbi oietan zoko-usai oiek kendu egin nai nituzke.

Kaxildak aurrez-aurre dauka Elena. Ondo begiratzen dio eta bere artean pentsatzen du:

— Orren emakume egokia eta asko dakiena, nola txoratu ote zan Martin kankallu orrekin? Orain ere aitzaki polita berarekin egoteko! Mendi garbi oietara zoko-usaiak kentzera! Bai, bai; ez dago gaizki pentsatua. Bañan ni ez nau-

te engañatzen, ez batek eta ez besteak. Nik daukatena da bizkarrean gurutzea, bizi naizen arte eraman bearra.

Andresek *restaurant* batera eraman ditu, eta, zeozer artu ondoren, mendi aldera abiatu dira. Andres eta Aurora aurrean, eta besteak atzean, Josetxo erdian dutelarik. Au oso berri-txua da eta ez da ixiltzen Elenari kontuak esaten. Tarteka Kaxildak esaten dio:

— Ixilik egon adi, motell! Ori duk etorre-ra, ori!

— Zer egingo dut, ba, ama? Aspaldian ez dut Elenarekin izketan egin.

Josetxo ez baita geldirik egoten, uste gabeen Elenak anka azpian artu du.

— Barkatu, Josetxo. Min artu al duzu?

— Ez dut miñik artu. Bai zapata politik dituzula, Elena! Eta oin txikia daukazu. Amak aundiagoa dauka, eta aitak ez dago zer esanik. Zenbait euri-ondotan, arrasto ederrak uzten ditu baratze inguruan.

Josetxok, eskumuturrean daraman erlojua, lenago Elenak emana du. Eta orain ere beste erregalo bat daukala esan dio; gero, maleta iderkitzean, emango diola.

Elena, alde guztietara begira, arrituta dioa. Ardi, *guanaco*, beor, *avestruz* eta abar ikusten ditu; tarteka autoaren aurretik altxatzen diran eper eta beste egazti-mota batzuk ere bai, eta txoraturik dioa. Noiznai onela galdetzen du:

— Oraindik urruti al dago?

— Oraindik ez dugu bide erdirik egin —erantzuten du Andresek—. Laixter *boliche* batera iritxiko gera eta zeozer artuko dugu, bi-tartean autoa pixka bat oztu dedin.

Laguna Grande'ra iritxi dira. Emen *destacamento* bat dago; zaldizko poliziak. *Milicos* deitzen diote. Jetxi eta zeozer artu dute. Polizia oiek or dabilta aruntz eta onuntz, beren errebolbera aundiak zintzilik dituztela. Josetxok onela dio:

— Amatxo, ni aunditzean *milico* izango naiz.

— Zergatik?

— Gustatzen zaidalako; zaldi pizkor baten gañetik *matreros* edo *bandido* oiekin tiroka jarduteko.

Andresek:

— Motell, orren bizia arrisku aundian zegok. Oietakoak ere, bat baño geiago gelditu dituk zaldi eta guzti lurrean, geiago ez altxatzeko. Oiek ondo tiratzen ditek, bañan bai *matreroak* ere.

Kaxildak ere esaten du:

— Ikusten al duzute zer griña daukan onek?

Aurora eta Elenak:

— Oraindik gaztea da. Geroxeago konturatu da, bai, ori ez dala berak artu bear duen bidea.

Azkeneko etapa egiteko prest daude. Eguzkia, Los Andes mendi tartean gordetzera dioa. Andresek, etxera baño len illunduko duela esa-

ten diote; bañan argi onak dauzkala eta ezereen kezkarik ez dagoela.

Elena, beñere autoan orrelako ibillaldi aundi bat egin gabea, arrituta dioa eremu izugarri oietan barrena noraño joan bear ote duten pentsatuaz. Noizik eta bein, kilometro asko egin ondoren, *estancia* edo *ganaderi* oietako bat ikusten du. Bide guztian ez dute dozen erdi bat auto edo kamioi besterik ikusi; eta tarteka gau-txo bat edo beste, batzuk ardi-mordoxka aurrean dutela, beste batzuk bei edo zaldiak daramazkitela.

Illundu du. Josetxo, Kaxilda eta Elenaren erdian lotan geratu da. Aspertuta baitago, goizean goiz jeikia eta asko ibillia. Besteak ere nekatuta daude, bañan oraintxe laixter etxeko eremuetan sartzera dijoaz.

Etxera iritxi eta zakurrak zaunkaka asi dira. Etxeko danak ongi-etorria egitera datoz, eta aien artean Martin. Elenak lepotik eldu dio, anka-muturrean jarrita, eta musu an eta musu emen asi dira, elkar ezin utzirik.

Orixe: Kaxildaren kalbarioaren asiera.

LENENGO EGUNA

Elenak lendabiziko gaua igaro du *Estancia San Jose'n*. Ia eguerdia da eta ez da oraindik jeiki. Lutxik Kaxildari esaten dio:

— Emakume orrek ez al du jeiki bear? Berealaxe bazkal ordua dugu eta oraindik oean.

— Bai, orrela oituta baitago ori. Gauean gau-txoriak bezela ibilli; eta gero, egunez lo egin.

— Deitu bearko diogu. Berealaxe bazkaldu bear dugula eta jeiki dedilla. Jeiki eta gero ere denbora bearko du orrek antolatzen, garbiketak, orrazketak eta abar dirala. Ez gera orren zai egongo. Guk geuren orduan bazkaldu egingo dugu.

— Ni oraintxe gautxoeri bazkaria eramaten ari naiz.

Sartu da Martin, baratzean saio bat egin ondoren, bazkaltzera. Kaxildak esaten dio:

— Deitu zaiozu Elenari jeiki dedilla, laixter bazkaldu egin bear dugu eta.

— Nik deitu bear al diot, ba, emen orrenbeste emakume zaudete eta?

— Lotsatu egiten al zera zure lagunari deitzea? Josetxok deituko dio.

Joan da Josetxo eta:

— Altxa, Elena! Bazkaltzeko zure zai daude.

Elena jeiki da; presaka xamar antolatu eta bazkaltzera. Lutxiren ondoan exeri da. Ibillaldi orren ondoren nekatuta zegoela eta sekulan egin duen lorik gozoena egin duela esan diote; leioa pixka bat idekita eduki duela, eta aize atsegingarri bat barrena sartzen zala.

Josetxok:

— Ikusi zaitut, leioaren zirrikitutik, lo zeundela.

Martiñek Josetxori:

— Nik ez dezadala jakin, berriz iñori kirketan egon aizenik! Ori bai ez diatela barkatuko! Eta leiora nola igo aiz?

— Or loreakin dagoen ontzi aundi orren gañean ankak jarrita.

— Izan dedilla, ba, azkenekoa!

— Bai, aitaxo; ez dut geiago egingo.

Bazkaldu dute. Andres, eguneroko bazkal ondoko kuluxka egitera joan da. Kaxildak ontziak jaso ditu. Lutxi, Aurora eta Elena berriketan gelditu dira.

Lutxik eta Aurorak, Elena zein dan eta zer izandu zan badakite. Kaxildak dana esan zioten. Emakumeak ere elkar-aitorketak egiten baitituzte.

Lutxik Kaxildari esan izandu zion:

— Ni nere senarrarekin, beste batzuekin zebilela jakin nuelako aserratu nintzan. Gañera, jokolaria eta gizatxarra zan. Bizimodu latza neukan berarekin. Jo ez beste guztiak egiten zizkidan, eta, gogoak ematen zionean, autoa artu eta egun pare bat etxeratu gabe. Nora joana zan eta nun zebillen, ez nuen nik jakin ere egiten. Aitarekin itzegin ondoren, uzteko erabakia artu nuen. Beldur bakarra daukat: Alixi eramango ote didan. Gautxoak jakiñaren gañean daude; *winchester* bana daukate eta errebolberak lotarako bakarrik kentzen dituzte.

Orregatik, Lutxik eta Aurorak Elenaren berri ondo dakite. Gizasemeen artean arrisku-ko emakumea izan litekela pentsatzen dute. Bañan berarekin berriketan jardutea atsegin zaiote.

Lutxi, Elenak izketarako daukan egokitasun eta jakinduriaz arrituta dago. Erderaz esaten zaiona: *don de gentes*. Eta ori Lutxik ez dauka. *Institutriz* batekin ikasi zuen berak ere, orain bere alaba Alixik bezela. Bañan ia beti emen, bakardade onetan, iñorekin traturik gabe. Noizik eta bein Santa Cruz'era edo Buenos Aires'era, egun bat edo beste igarotzera; eta berriz ere lenagoko lekura, beti persona berak ikustera eta kontu berak entzutera: ardiak, beiak, zaldiak eta abar. Ez lagunik eta ez adiskiderik. Auzoko bat edo beste.

Emen auzoa, bost kilometro edo geiago aparte bizi danari esaten zaio. Noiz edo noiz oietako batek sartu-atera bat egiten du, bañan segituan alde egiteko. Eta berriz ere bakarrik.

Emengo neska gazte oek badakite munduan zear beste gazteak nola bizi diran: elkarteak, lagunarteak, kirolak, zineak eta abar. Gañera, periodiko eta errebistak irakurtzen dituzte. Daren berri badakite. Bañan, erritik oso urruti bizi diralako, oiek danak beurentzat debekatu ta daude.

Oientzako, egun guztiak berdin igarotzen dira, naiz jaia eta naiz astea. Emen ez dago ez erromeririk, ez dantzatzerik eta ez lagunarteko alaitasunik. Beti bakardadea eta ixiltasuna, presondegi baten antzekoak.

Bearbada, beren gurasoak diru asko daukate: millaka ardia, bei asko eta zaldiak ere bai. Jan-edan ondo egiten dute. Etzaiote ezer falta. Bañan gazte oek, naiz uri aundietan naiz tti-kietan beste gazteak nola bizi diran dakitelako, asko sufritzen dute.

Beren garaira irixten diranean eta maite-miñak jotzen dituenan, etxetik iges egiteko zorian arkitzen dira batzuk. Gazte batekin izketan asi orduko, beste norabait pozik egan egingo lutekela ezagun dute.

Mutil gazteak ere orrelatsu bizi dira. Oek ere libertsiorik ez daukate; bañan neskak baño geiago bai. *Winchester* bat artu eta mendira ateratzen dira, *guanaco* edo *avestruz* oieri tiroka ekitera; edo eskopeta batekin erbi, eper, *avutarda* edo beste egazti batzueri tiratzera. Oien jai-eguna orrela igarotzen da.

Mutillak, gañera, neskak baño askatasun edo libertade geiago daukate. Zaldirik oberene-

tako bat artu eta aldeena daukaten estanzia batera joango dira, arratsaldea igarotzera. *Mate* batzuk artu, berriketa-aldi bat egin eta illun-terako berriz etxera.

Joan-etorri oietan, kilometro asko egingo dituzte. Eta, emen esaten danez, *legua* asko ere bai. Ibillaldi luze oietarako, zaldi gazte eta sa-soikoak artzen dituzte.

Elenak etxe inguruan bueltatxo bat eman du, Martiñek baratza nola daukan ikusiaz.

Gautxoak beren zaldiekin or dabilta. Elena urbildu zaiote. Daneri banan-banan esku eman diote eta galdetu ere bai zer izen daukaten eta nungoak diran.

Elena *corral*'era sartu da. Zaldiak bueltaka dabilta, eta gautxoak, deitu eta itzegiñez, bakoitzak berea artu du. Elenak, bera ere lenago zaldiz ibillita dagoela esan diote; bañan aspaldian ez dala ibilli eta bueltatxo bat emateko gogoia badaukala.

Gautxoak, nai duenean zaldi mantxo bat eta ibilli atsegiña daukana ipiñiko diotela erantzun diote.

Elenak iru mutillak ixtudiatu ditu. Alejandro eta Tomas Patagonia'n bertan jaiok dira, beñere Buenos Aires'era joan gabeak. Noizik eta bein Santa Cruz'era joan-etorri bat, eta berriz ere mendira. Mendian jaio eta mendian bi-zi. Nemesio geiago ibillia da, eta geiago ikusia eta ikasia.

Mendira dijoazela esan diote Elenari, bañan gero elkarrekin egongo dirala:

— Gero arte!

Irurok zaldi gañera salto banatan igo eta mendi artean gorde dira.

Elena, mutil oien arintasuna eta sasoia ikusi eta arrituta dago. Esku batekin zaldiari lepotik eldu eta gañera. Bere artean pentsatzen du, edade ortako mutil asko dagoela, bigarren edo irugarren etxe-bizitzara igotzeko *ascenso-rea* bear duena; oek, berriz, beñere ibilli ga-beak izango dirala noski.

Elena etxera joan da. Aurora, Alixi eta Jo-setxori ikasketak egiten ari da. Bion lanak ikusi eta Alixi aurrera dijoala konturatu da; ba-ñan Josetxo oraindik oso atzera dagoela. Ele-nak Josetxori gogotik saiatzeko esan dio, ea ixtudiotan Alixiren parera irixten dan, gero **biak** batean gauza bera ikasteko.

Aurorak dionez, alderdi ederra litzake ba-naka erakutsi edo gauza bera biai batean era-kutsi.

Gaur igandea da, bañan emen etzaio antzik ematen. Emen ez da kanpai-soñurik eta orrela-korik entzuten. Egun ixil bat geiago, beste egun askoren artean.

Martin, goiz joan eta buzoian zeuden esku-titz eta **periodikoak** ekarri ditu. Andresi eman **ditzoi**. **Berak periodiko** bat artu eta gañontze-koak **dancin gastean banatu** dituzte.

Elenak ere begirada bat egin diote, bañan aspertu egin da eta **gautxoengana** dijoa, aie-kin izketaldi bat egitera. **Oek** beren arropak

garbitzen eta galtzak konpontzen ikusi ditue-
nean, arritu egin da.

— Zer ari zerate?

— Ementxe, asteko gobara egiten.

— Bañan zeok garbitzen al dituzute arro-
pak?

— Bai; geok garbitzen ditugu eta konpon-
du ere bai. Emen, estanzia guztietan, peoiak be-
rak egin bear izaten dituzte lan oiek. Emengo
etxeoandre eta etxeoandreen alabak ez dio-
te peoiari arroparik garbitzen eta konpontzen.
Geok berdin egiten dugu eta kito.

— Gizajoak! Pena ematen didazute. Alde
guztietan gazteriak astean egun bat jai dauka,
lagunartera, andregaiarengana edo nai duen to-
kira joateko. Zuek andregairik ez al daukazu-
te?

— Guk andregaia zertarako dugu? Ikusi
gabe egoteko? Andregaia Chile'n dauka Jor-
je *puesteroak*, Los Andes'en, mendi-egalean
rancho batean bizi dan orrek, eta ikusi ez due-
la badira bi urte. Laixter joatekoa da ezkon-
tzera, eta bere andrearekin lenagoko tokira eto-
rri bear omen du.

— Eta zu, Nemesio, zer ari zera?

— Ni? Galtzak konpontzen.

— Ikusi bear dut nola josten dituzun.

Elena begira jarri zaio, eta bi arikin josten
dituela ikusi eta esan dio:

— Neronek josiko dizkizut. Zuk bi arikin
josten dituzu. Nik bakarrarekin josiko dizkizut
eta geiago iraungo dizute.

— Nola ba?

— Bi ari oiek ondo estutzen ez dituzulako. Bietan bat lasaiago gelditzen dalako, lenago autsiko dira.

Elenak Nemesiori galtzak josi dizkio. Mutil gizajo oientzat urrikalduta dago. Onela diote:

— Benetan pena aundia ematen didazute, aste guztian zaldi biurriekin, beiekin eta ardiekin saiatu eta beste ainbat lan egin ondoren, jai-egunean zeuen arropak garbitu eta konpondu bear dituzutelako.

Elena beren gelara sartu da. *Las catreras*, gautxoen oiak, ikusi ditu. Ardi-larruak koltxoia-
ren orde, tapaki bat edo beste, eta bakoitzak *quillango* bana, guanakoen ume jaio berrien larruekin indiak egindako tapaki ikusgarria.

Gitarra bat ere ikusi du Elenak, eta jotzen zeñek dakien galdetu. Danak, esan diote; bañan maisua Alejandro dala, eta tarte batean *concierto* bat eskeñiko diotela.

Elenak Alejandrori galdetzen dio:

— Zer jo bear duzu?

— Joko ditut *vidalitas*, *tangos*, *zambros*, *malambos*, *pericón* eta *gato con relación*.

— Ea ba *concierto* ortara noiz deitzen nauten.

— Deituko zaitugu. Eta, gañera, arkume edo zikiro-aragia erre eta *asado* jan bear dugu. *Fonógrafo* bat ere badaukagu, disko-mordoxka batekin.

— Orduan, lendabizi *asado* jan eta gero dantzan egingo dugu.

MOYE BATEN AZPIAN

Elenak egun batzuk badaramazki San Jose'n eta zaldiz ibiltzeko gogoia egin zaio; Martin eta Josetxok lagunduko diotela eta irurok bueltatxo bat egingo dutela, bazterrak ikusiaz.

Tomasek *la tropilla* ekarri du, zaldi-mordoxka bat beren beorrarekin; au joale aundi batekin, nun dabiltzan jakiteko. Tomasek berexi dizkiote zaldiak: Martiñi *doradillo* bat; Josetxori *un petizo pangaré*; eta Elenari *tordillo* bat.

Kaxildak ere joan nai zuen. Bada ez bada ere, alde xamar ibiltzea komeni zaio. Ez baita oiekin biekin pio. Elkarrenganako maitasuna daukate, ori ondo daki Kaxildak, eta orain, bakardade oietan barrena, naiz Josetxo beurekin eramán, nai izan ezkeró, errez baztertuko dute.

Kaxildak oiekin batean joateko egin dituen alegiñak, alferrik izan dira. Lutxik, lan asko daukatela esan díó, eta, gañera, gautxoeri bazkaria ipiñi bear diotela:

— Bigar arratsaldean danok joan eta lasai ibilli.

Kaxildak bere artean:

— Bai; bigar lasai ibilliko gera, bañan gaur ez naiz ni lasai izango. Elena etzan onerario ni ikusteagatik etorri, Martiñengatik baizik. Emakume orren etorrera ere etzan nolanaikoa izan. Kankallu orri lepotik eldu zion eta bata bestea musuka jan bear zutela. Sekulan ez dut agurketa nabarmenagorik ikusi. Ori nere murretan, neri min ematearren. Nere aurrean orrela dabiltzanean, ez dut pentsatu nai bakar-dadean nola ibilliko diran.

Irurok ibillaldi ori egiteko prest daude. Elena, *amazona* edo zaldiz ibiltzen diran emakume oiek bezela jantzi da: *breech* edo galtza oieta-koak, bota luzeak, txaketa aproposa eta txape-la *visera*. Jantzi oek danak lenagotik zeuzkan; Buenos Aires'en, tarteka, zaldiz ibiltzera *hípica*'ra joaten baitzan.

Tomasek zaldiari eldu nai zion Elena igotzeko, bañan onek esan dio:

— Ez naiz aspaldian ibilli, bañan utzi zaiozu, ea nola igotzen naizen.

Eta istribua eskuakin artu eta arin igo da zaldi gañera. Tomasek onela dio:

— *¡Gaucha linda! ¡Si es más ágil que una ardilla!*

Elenak irripar egin dio, eta Martin eta Jo-setxorekin *cañadón* edo erreka batean barrena atera dira. *Avutarda* eta lintzuran diran egaztiak aizkatzen dituzte. Mendi-egalean dabiltzan

guanakoak ere, tontorrera igotzen dira. Arrak irrintzi egindakoan, danak berarengana joaten zaizkio.

Elena, alde guztietara begira, txoratuta dijoa. Martiñi esaten dio:

— Bakardadeak ere baditu bere gauza zoragarriak. Goizean goiz jeiki eta orain dagoen giroarekin emen barrena bueltatxo bat egitea, atsegingarri da gorputzarentzat eta animarentzat ere kalterik ez, seguru asko. Zuk dakizun bezela, Buenos Aires'en nengoelarik, gauez nere ibillaldiak egin ondoren, goizeko ordubiak edo irurak izaten ziran, ni oeratzen nintzanean; eta gero, eguerdian edo ordubietan jeiki. Birtartean, oean usteltzen. Emen, berriz, goiz oeratu eta goiz jeiki, eta gero onelako ibillaldi bat bai benetan gustagarria. Goizeko intzarekin zaldiak ankapean artzen dituzten landare oek botatzen dituzten usai gozoak, seguru aski osasungarri izango dira. Bai, Martin; emen ezin liteke iñor gaixotu.

Martiñek:

— Guk ez dugu botanika ezagutzen; bañan seguru naiz, zaldiak ankapetan artzen dituzten landare oietan, badirala miñez daudenak sendatuko lituztekenak. Buenos Aires'ko etxe bati, *Los Andes y su flora* deitzen diote. Etxe ortan Los Andes mendi oetako belarrak saltzen dituzte, ia min guztietarako aginduak eta konprobatuak. Mutil berexiak dauzkate: batzuk, mendi-egaletako belarrak ekartzeko; eta beste batzuk, alpinisten modura mendi izugarri oen

gallurretan beren bizia arriskatuaz, goiko tontorretakoak biltzeko. Bat baño geiago amildu eta il izan dirala ere entzun izan dut. Landarebiltzalle oetan asko, indioak izaten omen dira, zein landare bildu esaten dioten botaniko bat edo besterekin. Esaten dutenez, zenbat eta goragoko belarrak, aiek eta osasungarriagoak dira. Belar oek oso garestiak dira. Indioak ere, beren gaixo-aldietan, beurek ondo ezagutzen dituzten belarrak ibiltzen dituzte. Bañan ez dizute esango, zein belar zertarako ona dan. Ori, gizaldi batetik bestera, sekreto bat bezela daramate. Indioak geien izaten duten txarraldia, *tuberculosis* omen da; eta au, esaten dutenez, aragi gordiña jaten dutelako. Ikusi izan ditut, leoia il eta segituan, giltzurdiñak, bero-beroak, odola dariotela, jaten. Aragia ere, surtan buelta bat eman eta jaten dute.

Ibillaldi luze bat egin dute eta Elenak Martiñi esaten dio:

— Aspaldian zaldiz ibilli gabea eta nekatu egin naiz. Baldartuta nago. Emen jetxi eta *moye* oien azpian exeriko gera.

Irurok jetxi dira. Elenak, nekea baño geiago, Martiñekin izketaldi bat egiteko gogoak dauka. Bañan or daukate, bien erdian, Josetxo bere zaldi ttikiarekin.

Aitak bereala antzeman dio Elenak zerbait esan nai diola, eta Josetxo traba eta oztopo dutela. Orregatik, onela esaten dio:

— I ez aiz nekatua egongo, Josetxo.

— Ni ez.

— Joan adi, ba, erreka ontan barrena, eta ea zenbat *avutarda* eta beste egaztiren kabi bi-llatzen dituken. Bañan arrautzarik ez autsi; ikusi eta utzi bakean.

— Bai; ez dut kabirik urratuko.

Josetxok alde egin du, bere *petizo* ori beste zaldien ondoan lotuta.

Orain biak bakarrik geratu dira, eta *moye* baten azpian exeri itzalean, eguzkiak erreka ori bete-betean jotzen baitu. Elenak Martiñi lepotik eldu eta musu bat eskatu dio. Ondoren, onela mintzatzten da:

— Nere etorrera, Patagonia'ko mendi-arte ontara, ez da izan, eskutitzean ipintzen nuen bezela, bazterrak ezagutzeagatik; zu ikusteagatik baizik.

Bi eskuekin eldu eta esaten dio:

— Maite zaitut, Martin!

Eta negarrez asi da. Martiñek esaten dio:

— Badakit maite nazula. Bañan nik badut andrea, eta Josetxo ere, eta oiek biak ezin nezake utzi. Kaxildak jenio bizi xamarra dauka, bañan emakume zintzoa eta etxekoia da. Eta Josetxo gizajo au, orrelako mutil motza! Nola utziko ditut, ba, Elena? Ez al duzu konprenditzen, ezin liteken gauza dala? Nik lagun on bat bezela maiteko zaitut; bañan ortik aurrera ez. Pena izugarria ematen didazu. Zu orrela ikusirik, biotza erdibitzen zait, eta zu bezela nago ni ere: saminduta, urrikalduta. Zergatik etzera saiatzen, Bahía Blanca alde ortan, beste gizaseme batekin edo besterekin? Zuk onezke-

ro asko ezagutuko dituzu, eta oien artean ez al dago iñor, zuretzako modukorik?

— Ez, ba; ez dago iñor ere.

— Bai al dakizu jakintsu batek zer esaten duen? «Maitasun bat beste maitasun batekin aaztu egiten da». Eta beste batek: «Maitatu ezin liteken tokitik aurrera joan bear da». Ona ba, Elena, bi gizon jakintsuren esaerak, itz gutxitan asko esaten digutenak, eta guretzat gertaera onetan ondo datozenak.

— Bai; oiek danak egiak dira. Eta orain, bukatzeko: nik eman dizkizudan buru-austek eta naigabeak barkatzen al dizkidazu?

— Bai; danak barkatzen dizkizut.

— Elkarri musuka ekin diote, eta Elena berriz ere negarrez asi da.

— Ixilik zaude, Elena. Josetxo noiznai etorri liteke. Amari zu negarrez ari izan zerala esango lioke, eta Kaxildak zer pentsatuko luke? Gauza onik ez.

— Txori onek kabia *moye* oen gañean dauka —esaten du alako batean Josetxok, uste gabean etorrira.

— Xeletan egon al aiz, Josetxo?

— Ez, orain etorri naiz. Txori bat mokoan jatekoarekin emen dabillega ikusi dut, eta seguru aski umeeri jaten eman baiean ari da, bañan zuekin izutu egin da.

— Josetxo, orrela ez da iñorengana etortzen. Ondoratu baño len, «Eup»! esan bear da. Beste baterako badakik.

— Bai, aitatxo. Elenak negar egin al du?

— Zer ba, Josetxo?

— Begietan malkoak dauzka.

Elenak:

— Bai, Josetxo. Ori, eguzkiak begietan jotzen didanean gertatzen zait. Antejo beltzak ekartzea aaztu egin zait, eta nere begiak oso malko xamurra daukate.

Josetxok, Elenak Buenos Aires'en erregalutako erlojua eskumuturrean darama, eta onela galdetzen dio:

— Zer ordu da, Josetxo?

— Amaikak eta laurden.

Martiñek:

— Etxera abiatzeko ordua. Urruti xamar gaude eta eguerdirako bazkaltzera joan bear dugu. Goazen. Segi aurretik, Josetxo, ea bidea ondo dakiken. Gu atzetik etorriko gaituk.

Elena eta Martin elkarrekin izketan dijoaz. Bearbada ez dute geiago biak bakarrik egoterik izango, eta denbora gutxian kontu asko dauzkate elkarri esan bearrak.

Elena, Martiñi eta Martiñen lagun aundia izan zan Anita gaixoari mesede aundiak egiña da. Orregatik, asko maite duela adierazi dio gaur Martiñek Elenari, bañan maitasunak agintzen dizkioten mugetaraño. Ortik aurrera ez, galerazia daukalako eta beste baten jabea dalako.

Elenak oek danak konprenditu dizkio, eta emendik aurrera berak ere maiteko duela esan dio, bañan errespeto guztiarekin.

Etxera urbiltzen ari dira eta Martiñek Elenari esaten dio:

— Galope pixka bat egingo al dugu? Berandu xamar baita.

— Bai; egingo dugu.

Eta etxe aldera galopean dijoaz. Josetxo arrapatu dute, eta estanziara danak batean irixi dira. Gautxoak bazkaldu dute eta zaldiak artu dizkiote, eta askatu ere bai.

Elena eta Martin etxera joan dira. Danak bazkaltzeko zai daude. Kaxildak oiur bat egin dio Josetxori. Gautxoekin kontuak esan ondoren, noizbait ere azaldu da. Etorri danean, danak exerita daude bazkaltzeko prest, eta, sartu baño len, oiur bat egin du:

— Eup!

Kaxildak esaten dio:

— Zergatik oiur egin duk, Josetxo?

— Aitak esan dit: Ez da iñorengana ixilik joan bear. Eup egin bear da.

— Ori mendian izango duk, bañan ez etxean.

Kaxilda ez da bere onetan, Martin, Elena eta Josetxoren ibillaldia nola izan zan jakin arte. Josetxo bakarrik arrapatu nai luke, bañan au ez baita bakarrik egoten. Edo gautxoekin edo Alixirekin, geiengan norbaitekin dabil.

Alako batean bakarrik ikusi du eta onela esaten dio:

— Ondo ibilli al zerate, Josetxo?

— Bai; ondo ibilli gera. Elena aguro nekatu dala. Aspaldian zaldiz ibilli gabea eta bal-

dartuta zegoela, eta exeri egin da. Aitatxo eta biak *moye* baten azpian itzalpean egon dira. Gañera, begietatik kejatzen zan. Eguzkiak kalte aundia egiten omen dio begietan.

— Bai, bai; ori itzalean oitua baitago, eta emen udaberriko eguzkia zorrotza baita. Eta zuk zer egin duzu, oiek exerita zeuden bitartean?

— Nik, txori-kabiak billatu. Exertzeko gogorik ez baineukan. Ni ez nengoen nekatuta.

— Orain etzaite urrutira joan, Aurorak laixter deituko dizu eta.

IBILLALDIAK

Aurora eta Elena oso lagun egin dira. Biak elkarrekin dabiltz. Gautxoak zaldi biurriekin atera dira, bat alde batera eta bestea bestera, eta saltoka ekin diote. Aurora eta Elenak, izutu eta iges egin dute. Alejandrok esaten diote:

— *No os asustéis, hermanas, que los caballos no pisan a nadie y menos aún a dos pebetas tan lindas.*

Izan ere, arritzekoak dira, persona bat azpian ez artzearren zaldia egiten dituen alegiñak. Zaldirik gaiztoenak ere, persona bat salto biurri oiekin aurreko aldera botatzen badu, oso nekez artuko du azpian. *Reflejo* izugarriak dauzkala esan liteke.

Zaldia poliki dabillenean, persona bat azpian artu gabe igarotzea ez da arritzekoa. Bañan, eziketa batean, *potro salvaje* oiek alegin guztiak egiten dituzte, bizkarrean daramazkiten gizon eta tresna aiek gañetik kentzeko. Alde guztietara saiatzten dira: saltoka, zuzenean, bi-

ribilka eta al dituzten guztiak egiten. Bañan gañekoa aurrera erortzen bada, an eta emen besoak eta ankak jarri, salto aundi bat egin eta ez dute azpian arrapatuko.

Aurorak Josetxo eta Alixiri ikasketak egi-tera deitu diote. Andres eta Elena elkarrekin dira. Andresek, arratsaldean Los Andes'ko mendi-egalean daukan *rancho* edo *puesto* artara joan bear duela esan dio; Jorjeri bixita bat egin nai diola, artaldea nola dan ikusiaz:

— Joan nai baduzu, Elena, etorri zaite gurekin.

— Bai; pozik joango naiz.

— Bi autotan joango gera. Auto zarra erdoitzen or dago eta ibiltzea komeni zaio. Auto aundi au gustatu zitzaidalako erosi nuen, bañan bestea ere oso ona da oraindik. Au Martiñek eramango du eta danok joango gera. Zal-diz ibiltzeko tresnak ere eramango ditugu, ibi-llaldi bat egin bear dugu eta. Nemesio baka-rrik geldituko da emen etxe zai. Tomas eta Alejandro ere etorriko dira, guri zaldiak prest jartzeko.

Andresek Lutxi eta Aurorari bazkaria goiz ipintzeko esan diote, eta gauzak garaiz antola-tzeko.

Aruntzean, ogia edo galletak eraman bear dizkiote Jorjeri. Emen orrela deitzen zaiote bo-lloa bezelako batzueri. Oso goxoak dira eta den-bora luzean irauten dute. Azukre, *hierba mate*, fideo eta abar ere eraman bear diote.

Bi autoak atera eta puska guztiak ipintzen ari dira. Andres prest dago eta emakumeak asintzera joan da. Apainketan ari dirala ikusi ditu eta esaten diote:

— Ez duzute apaindu bearrik. Etzaituzte iñork ikusiko.

Bañan ala ere emakumeak ezin etxetik atera, *retoque* batzuk egin gabe. Aurretik, Andres, bere familia eta Elena atera dira; atzetik, Martin, Kaxilda eta Josetxo gautxoekin.

Jorje dagoen *puesto* ori urruti xamar da, bañan autoan bereala iritxi dira. Urbildu diranean, zakurrak zaunkaka asi dira. Gizaseme bat atera da eta Martin arrituta geratu da. Elkarri begiratu eta:

— ¡*Vasquito!*

— ¡*Pacheco!*

Eta bata besteari besarkada aundi bat eman diote. Danak ao zabalka geratu dira. Iñork ezer ere ez daki. Biak bai; elkarren berri ondo daki-te. Bañan naiz batek eta naiz besteak, elkar nun ezagutu zuten ez dute iñondik ere aitortuko. Bata bestearekin ixilka itzegin nai luteke, iñork entzun gabe. Bañan danak inguruan dira.

Andresek, Jorje puesteroa ea nun dagoen galdetu dio Pacheco'ri. Onek, *tropilla* edo zaldien billa joana dala erantzuten dio; seguru aski laixter etorriko dala.

Bien bitartean, batzuk alde batera eta besteak bestera, danak banatu dira. Martin eta Pacheco orain bakarrik daude, eta, iñork elkar nun ezagutu zuten galdetzen badu, biak berdin

esatea erabaki dute: Buenos Aires'en. Bañan ez da ori egia. Ushuaia'n ezagutu zuten elkar. Presondegia ortan biak ere urte-mordoxka batean egonak dira.

Bata bestearen berri ondo dakite. Esku-gurdi edo karretillarekin, guardiak bazterrean zituztela, arriketan ibiltzen ziran. Ango bizimodu latz eta urrikgarria ondo probatua dute. Lendabizi Martin irten zan; Pacheco'ren txanda, gero.

Santa Cruz'en gelditu zala esan dio Pacheco'k Martiñi. Bere ezagunetara edo len bizi zan lekura —*al pago*— joateak lotsa ematen diola, eta lana emen billatu nai lukela. Lenago ere zaldiz eta ganadu-lanetan oituta dagoela. Orregatik, estanzia batean pozik geldituko litzakela.

Martiñek, Andres bere nagusiak ezaguera aundiak dauzkala esan dio; eta, bearbada, non edo an tokia billatuko diola.

Pacheco'k, xentimo bat ere ez daukala esaten dio. Santa Cruz'en gautxo zar batekin ezaguera egin zuela. Onek, bera zegoen puestora eramán zuela, eta al zuen guztia lagundu ere bai. Nundik zetorren berealaxe konturatu zala, presondegitik datorren baten kaska soilla ain nabarmena izaten baita.

Zaldiz ibiltzeko tresna zar batzuk eman zizkiola. Emen *recado* deitzen zaio. Nik ez dakit izen aldrebes ori nola daukan. Beste tokietan *silla de montar* esaten zaio. Izan ere, ainbeste puskakin ornitua izaten da *recado* ori: *bajera*,

mandil, carona, bastos, encimera, cincha, estribos, cojinillo, carpincho, pegual o cinchón. Gau-txo zar orrek emanak oek danak, eta, naiz zarrak izan, ibiltzeko modukoak.

Gañera, *un caballo patria.* Izen onekin, jaberik ez daukaten zaldiak ezagutzen dira. Jabea izango dute, bañan auskalo nun. Geienez, lapurtutakoak izaten dira. Nekatu eta oberenak eman dituenen, utzi eta beste bat artu. Orrelakoak emen ere egiten baitira.

Emengo legeak agintzen dutenez, zaldi ba-koitzak bere *certificado* edo agiria bear du: zer marka daukan, zer koloretakoa dan eta zeñek saldu edo erosi duen. Gañera, *comisario* edo poliziaren selloa. Orrela ez balitz, ez legoke gauza garbirik.

Jorjek zaldiak ekarri ditu eta korrarean sartu. Andresek ondo ezagutzen ditu danak eta Tomas eta Alejandrori zein zeñentzako lotu esaten diote.

Andresek ez luke nai Pacheco edo dalako ori bakarrik gelditzerik. Ez du ezagutzen, eta bi auto eta puska asko daude an. Jorje, berriz, bertako berri ongien dakiena baita, berekin eraman nai luke. Orregatik, Martiñi esaten dio.

— Zuek biok, lagun zarrak baitzerate, gelditu zaitezte emen, guk bueltatxo bat eman arte. *Mate* batzuk artuaz egon lasai, kontu zarrak esanaz.

Danak an dijoaz mendi-egalean barrena. Andresek *barrancos* edo leize-zulo oiek ikusi nai ditu; leoiak gordetzen diran tokiak. Bañan ema-

kumeak izutu eta ez dirala aurrerago joango esan dio Lutxik aitari. Kaxilda eta Elena ere, zaldi gañetik jetxi eta mendi-tontor batean geratu dira.

Jorjek badaki leoiak nun diran. Zoko oiek ondo ezagutzen ditu, eta gaur, beste gautxoen laguntzarekin, bat bederen il nai luke. Danak armatuta daude. Zakurrak arrastoa artu dute eta zuzenean leize-zulora.

Jorje, errebolbera eta linterna aundi bat artu eta barrena dijoa. Zakurrak an dira zaunkaka. Leoiaren begiak illunpean argi egiten dutela esaten dute. Bertara joan arte, geldi-geldirik egoten omen da. Jorjek leoia ikusi eta il du. Kanpora ateratzen dute eta segituan larrutu. Jorjerentzat egun ona izan da, Andresek, leoia iltzeagatik, ondo ordainduko dio eta.

Emakumeak, larri-aldia pasa ondoren, pixka bat lasaitu dira. Leoia beurengana joango ote zan beldurrez zeuden. Danak ao batez diotenez, ez dira geiago gizonekin orrelako tokietara joango. Dabiltzala berak bakarrik, nai duten bezela. Elenak dionez, leoia etorri izan baltz, beldurrarekin bertan eroriko zan bera.

— Bai gu ere! —diote besteak.

Andres eta gautxoak emakumeengana joan dira, eta beren leoi-larruarekin etxe aldera abiatu dira danak. Berandu xamar egin zaiote eta presaka antzean dijoaz. Puestora iritxi eta Martiñi arratsaldeko goraberak esan dizkiote.

Onek, berriz, bere lagun Pacheco'k estan-

zia batean lana egin nai lukela esan dio Andresi.

Andresek, Jorjerekin emen geratzeko esan dio Pacheco'ri, eta nun edo an lana billatzen saiatuko dala.

Martin eta Kaxildaren ondorengo elkar-izketa:

— Aizu, Martin: zein da Pacheco edo dalako ori?

— Nere lagun bat, nerekin Ushuaia'n egona. Biok karretillakin luzaroan ibilliak gera eta bata bestearen berri ondo dakigu. Zuk etzaiozula iñori esan. Iñork ez du ezer jakin bear. Biok lagunak geranez, orain ere beragatik zer bait egin nai nuke.

— Ez dakit nundik eta nola; bañan zure lagunak onera etortzen ari dira. Elena ere emen dago orrenbeste egunean. Jan eta edan Andresen kontura, eta gautxoak ere, ori emen dan ezkeroztik, arro-arro dabiltz.

— Ez al duzu geiago esan bear?

— Bai, esango nuke; bañan ixilik egotea obe.

San Jose bidea artzeko danak prest daude. Puska guztiak bi autoetan ipiñi dituzte. Leoi-larrua ere, bere buruarekin, or darama Andresek, disekatu eta bere lagunen bati emateko. Jorje eta Pacheco puestoan geratu dira. Besteak etxe aldera dijoaz.

Elenari azken egunak irixten ari zaizkio. Egun gutxi barru, berriz ere Bahía Blanca'ra,

bere aizparengana, joan bearra dauka. Noiznai eskutitzak bialtzen dizkio.

Kaxilda, bere aizpari ere eskutitz usaidunak bialtzen dizkiola konturatu da, eta pixka bat lasaitu ere bai. Bere artean onela dio:

— Onek daneri, seguru asko, onelakoak bialiko dizkio.

Martiñek ere bere buru-austeak izan zituen eskutitz usaindunarekin, batere kulparik gabe gañera, Kaxildak zorrotz eta gogor artu zuelako.

Elenak, Patagonia'tik oroigarri batzuk eramana lituzke. Martiñek, Elena, Aurora eta Kaxilda, indiak diran tokira eramana ditu, eta *quillango* edo oerako tapaki bero oietako bat erosi. Argazki edo erretratoak ere atera ditu: indioen *carpa* edo bizilekua eta beurenak ere bai. Elenak indioen erdian atera nai izan du argazki bat, eta Aurorak atera dio.

Martin emakumeeri onela mintzatzen zaio-te:

— Oek nola bizi diran ikusi duzute. Indioak mendiko piztiak arrapatu eta larrutzen dituzte; eta indiak lan ikusgarri oek egin. *Peletero* oien aurrerapenik ez daukate eta eskuz goxatzen dituzte.

Elenak:

— India oek, zer usaia botatzen duten!

Martiñek:

— Bai; oiek ez dute zuek bezelako usai goxorik botatzen. Ez dakite *colonia* eta *potinge*'en berri. Ez dituzte begi ondoak zikintzen; ez ez-

pañak eta azkazalak gorritzen ere. Oiek *al natural* bizi dira.

Aurorak:

— Bai, *al natural* biziko dira; bañan badi-rudi *higiene* edo garbitasunarekin aserratuta daudela.

Kaxildak:

— Bai; mari-zikin ederrak dira. Neroni ere larri egon naiz beuren artean. Ez daukate, ba, aukera txarra. Garbitu nai badute, iturri ederra aldean daukate.

Martiñek:

— Bai, iturri ona aldean daukate. Bañan usai txar ori, indiak illeari botatzen dioten egaztien koipearena da. Ez al zerate konturatu, buruan zer brillo daukaten? Gañera, bero onekin, usaia nabarmenagoa da.

Elenak:

— Martin, india oiek ezkondata al daude?

— Ez dakit. Ez dut beiñere indio arteko ezkontzarik ikusi. Bañan, ezkonduak edo ezkongaiak, aurrak izaten dituzte beiñepein.

Kaxildak:

— Gure artean bezela orduan.

— Bai, berdin.

Aurorak:

— Eta bataiatu?

— Beurek izen bat ipintzen diote eta kito. Oiek ez daukate ez *registro civil*, ez *libro de familia* eta ez bestelakorik. Soldaduzkara ere ez

dira joaten. Estaduak ez ditu kontrolatzen; *nó-madas* deitzen diote eta ez dakite zenbat diran ere. Danak sakabanatuta bizi baitira, eta bizitzeko toki jakiñik ere ez baitaukate. Gaur emen eta bigar an.

Onela, berriketan, etxe ondora urbildu dira.


ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.^a Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.^a Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*)
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imax: Bertso guziak. (*Aitua*).

25. A. P. Iturriaga: Jolasak. (*Aitua*).
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zalapartak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. B. A. Mogel: Ipui onak. (*Aitua*).
29. T. Alzaga: Burruntziya. (*Aitua*).
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. M. Soroa: Baratzan. (*Aitua*).
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. M. Elizegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara.
37. A. Cardaberaz: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. S. Salaverria: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. Bertsolariak: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. J. R. Zubillaga: Lardasketa. (*Aitua*).
42. Uztapide: Noizbait. (*Aitua*).
43. Bertsolari-txapelketa. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. P. Larzabal: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. J. M. Satrustegui: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. P. M. Urruzuno: Iru ziri. (*Aitua*).
48. P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. A. Zavala: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. P. M. Urruzuno: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. G. Anduaga: Bertso-bilduma.
54. A. Zavala: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. Basarri: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. A. Zavala: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. C. Beobide: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. A. Zavala: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. A. Zavala: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. A. Zavala: Gaztelu bertsolaria.
62. A. Zavala: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. A. Zavala: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. J. M. Satrustegui: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. A. Zavala: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. A. Zavala: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. A. Iturriaga: Ipuiak.
73. A. Zavala: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).

- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*.)
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*.)
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*.)
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*.)
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*.)
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*.)
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*.)
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*.)
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*.)
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*.)
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*.)
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*.)
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*.)
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*.)
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*.)
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*.)
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.

129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J. M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (I).
144. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (II).
145. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (III).



AUSPOA
LIBURUTEGIA



JUAN JOSE IRAZUSTA

NORK BERE BIDEA - III

NORK BERE BIDEA

(III)

AUSPOA LIBURUTEGIA

(145)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa
Teléfono (943) 67 12 82

JUAN JOSE IRAZUSTA

NORK BERE BIDEA

III

AUSPOA LIBURUTEGIA
1980

Oarra: Nobela au Argentina'n gertatzen da: Tierra del Fuego'n, Buenos Aires'en eta, zatirik aundiena, Patagonia'n, ango gautxoen oituraketa azalduaz. Azalaren apaingarri dan *grabado* ori orregatik aukeratu degu. *La Ilustración Española y Americana* aldizkarian agertu zan, 1878.IX.15'eko zenbakian. Goi eta bean onela dio: «*Tipos de la América del Sur. París, Familia de «gauchos» establecida actualmente en el jardín de aclimatación*». Jardin ori zer dan, beste orri batean adierazten da: «*Así como durante el año último se han presentado en el Jardín de Aclimatación de París, instalándose en él temporalmente, con permiso del Gobierno y del Municipio, pequeñas tribus de iroqueses, de esquimales y de pieles rojas, hoy se halla en el mismo sitio una numerosa familia de gauchos...*».

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)

Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz

ISBN 84-7158-084-5 Obra completa

Depósito Legal: S. S. 352/80

ISBN 84-7158-087-X Tomo III

Depósito Legal: S. S. 349/80

Agosto - 1980

ARKIBIDEA

| | |
|----------------------------------|-----|
| Igandea | 9 |
| Urtebetetzea eta milikoak | 17 |
| Azken eguna eta agurra | 27 |
| Martiñek On Ramoni | 37 |
| <i>La yerra</i> | 45 |
| Eziketa | 49 |
| Aurora | 53 |
| Martiñen kezkak | 61 |
| Elenaren erabakia | 69 |
| Nemesioren ibillaldia | 75 |
| Aldaketak | 85 |
| Zakurren oiua | 95 |
| Galduaren billa | 105 |
| <i>Cerro Refugio</i> | 117 |
| Iges | 129 |
| Eztaietan | 147 |

IGANDEA

Udaberriko arratsaldeak luzeak izan arren, berandu xamar egin zaiote eta orain emakumeak afaria presaka ipiñi bear. Nemesiok, berriez, Alejandro eta Tomasentzat afaria presatu du: zikiroaren kostillak eta paleta erreta dauzka.

Afal ondoan, Elena eta Aurora gautxoengana joan dira, jardunalditxo bat egitera.

Elenak gautxoeri, joan baño len indioen fletxa batzuk billatu nai lituzkela aipatu diote. Gautxoak, lenago billatutako batzuk erakutsi eta berari eman dizkiote. Baita Elenak bere esker ona daneri agertu ere.

Tomas mintzatzan da:

— Elena, bigar igandea da eta danok fletxak billatzera joango gera. Guk badakigu nun izaten diran.

Alejandro eta Nemesiok ere joango dirala diote.

— Orain zuek, zein joan nai duzuten erabaki. Guk zaldiak goiz xamar ekarriko ditugu, lenbailen ateratzea komeni da eta.

Igande-goizean goiz, Tomasek zaldiak ekarri ditu, eta, joale-soñua sumatu duenean, Josetxo salto batean jeiki eta erdi jantzirik an dijoa gautxoengana. Tomasi galdetzen dio:

— Nik zein zaldi eraman bear dut?

— Zuk, *petizo tobiano* ori.

— Ez. Emendik aurrera nik zaldi aundia bear dut. Ori Alixik eramango du.

Tomasek:

— Zein eta zein dijoaz, ba?

— Aitatxo, Elena, Aurora, Alixi eta ni.

— Eta zuk zein zaldi eraman bear duzu, ba, Josetxo?

— Ez dakit ba.

— Auxe, beltz au, ez aundia eta ez txikia, zuretzako modukoa da, Josetxo. Danok prest zeratenean, deitu, zaldiak lotzeko.

Danak prestatu diranean, bakoitzak bere zaldia artu eta an dijoaz zuzenean, garai batean indioak fletxak egiten zituzten tokira.

Oraindik ere ezagunak dira toki oiek. Mota askotako arriak daude; inguruan iñun ere ikusten ez diran arriak, bearbada oso urrutitik ekarriak. Buru-auste aundiak dituzte jeologo eta gizon jakintsuak, orren poliki egindako fletxa oiek nola egiten ote zituzten. Badirudi, arrian ere, zurean bezin aixa lana egiten zutela. Fletxa aundiak ez ainstesteraño; bañan ttiki oiek zer pentsatua ematen dute. Oraingo indioak

ere ez dakite nola egiten zituzten. Jaungoikoak bakarrik jakingo du.

Gautxoak eta beste guztiak or dabiltz ikusmiran, denbora bateko indioen lan-toki ortan barrena, arri-puxkak arrotu eta ondo ikusiaz. Tarteka, autsitako batzuk arrapatzen dituzte, bañan osoak ere bai. Boleadorak, arrizko bola batzuk ere billatu dituzte. Danetara, mordoxka bildu dute eta Elena pozez dago. Ondoren, etxe aldera bazkaltzera abiatu dira.

Igande-arratsaldea da eta danak etxe aldean daude. Andres, bazkalondoko lo-alditxoa egitera joan da. Lutxi eta Kaxilda, sukaldeko lanak egin ondoren, Elena eta Aurora dauden tokira bildu dira. Oek, errebista batzuk irakurtzen ari dira. Oetatik eta periodikoetatik jakiten dituzte munduko gertakizunak.

Elena, exerita aspertu eta altxa egin da. Baratze aldera begiratu du, kortinak pixka bat baztertuta, eta zer ikusiko? Daneri deitu diote:

— Etorri zaitezte.

Danak kirikaka asi dira eta or ikusten dute Josetxo Alixiri loreak ematen. Alixi exerita dago eta loreeri usai egiten diote.

Elenak algara egiten du, lendabiziko maite-min edo elkarrenganako ondo-naia ikusten duelako.

Kaxildari ez dio batere onik egin ori ikus-teak eta onela dio:

— Mukizu ori, dagoeneko neskari loreak ematen!

Aurorak:

— Ori detalle ona da, Kaxilda. Maitekorra dala esan nai du orrek.

Kaxildak:

— Ez dauka aitaren antzik! Nik beiñepein ez dut sekula berak emandako lorerik artu. Loreen tokian, purrusteko ederrak bai iñoiz.

Onela ari diralarik, Josetxo konturatu da kortinak mugitzen dirala eta emakumeak ikusmiran daudela. Lotsatu egin da eta Alixiri zer-bait esan eta alde egin dute.

Lutxiri etzaio batere gaizki iduritu, bere alabak Josetxok emandako loreak artzea. Bera ere bakardadean jaio eta bakardadean azita dago. Ondo daki gauza oen berri eta onela mintzatzen da:

— Etzaitzela gauza orrekin arritu. Biak bakarrik daude. Beste lagunik ez daukate. Gañera, kozkortu edo aunditu ere egin dira. Emendik aurrera, noiznai ikusi genezazke orrelakoak.

»Nik, gaztea nintzalarik, ez neukan iñor ere nere kidekorik, eta aitak zeukan morroi batekin txoratu egin nintzan. Berak nai izan balu, nai zuen tokira eramango ninduen. Bañan mutil jatorra zan eta etzuen beiñere orrelakorik pentsatu. Pobre izatea beste aitzakirik etzeukan gizajo arek. Morroietan gazteena zan eta *el pibe* deitzen zioten besteak.

»Beiak berak jeizten zituen eta sukaldera esnea ekarri, egurra txikitu eta abar. Noiznai berarekin aruntz eta onuntz ibiltzen nintzan eta uste gabeen maite-miña sortu zitzaidan. Berari ere alaberean nerekin. Elkar oso maite ge-

nuen eta bearbada pixka bat nabarmendu egin giñan. Aita konturatu zan beintzat eta onela esan zidan:

»—Lutxi, mutil orrekin ondo konpontzen zerala dirudi. Bañan ori ez da zuretzako modukoa. Zuretzat mutil egokia eta diruduna, Kilik-Aike'ko Enrike litzake.

»Onen aita eta nere aita lagunak ziran, eta seguru asko bien artean prestatutako ezkontza zan gurea.

»Nik ainbeste maite nuen gazte ori, aitagun egun batetik bestera bialdu egin zuen. Oraindik gogoan daukat nola etorri zan azken agurra egitera. Esan zidan:

»—Zure aitagun emendik bialdu egin nau. Ez dakit nora joango naizen eta nun biziko naizen. Bañan beti gogoan izango zaitut eta egunik zorionsuenak opa dizkizut.

»Etzait aaztutzen nola alde egin zuen. Bera zaldi baten gañean eta beste zaldia, *carguero*, bere puskakin. Mendi artean gorde arteraño leiotik begira egon nintzan, eta gero... negar eta negar egin nuen.

»Egun gutxi barru, Enrike bere aitarekin etorri zan. Bi aitagun izketan ari ziran bitartean, Enrike neregana urbildu zan eta poliki-poliki, andik eta emendik, ni maite ninduela esaten asi zitzaidan.

»Nik, zertara etorriak ziran jakiñaren gañean egonagatik, entzuteko gogorik ere ez neukan. Nik lengoa nuen buruan. Nik banekien

Enrikek maite ez ninduela; aitak bidea idekita zetorrela.

»Itz batean: maitasunik gabeko ezkontza, gaizki asi eta gaizki bukatu. Ori gertatu zitzaidan neri eta beste askori ere gertatzen zaio. Emakumeak ez al dugu, ba, eskubiderik, geok nai dugun ura maitatzeko? Eta ez gurasoak, beurei komeni zaiotelako, bat aurreko aldean ipiñi eta gogorrean bezela artu-arazi.

»Gu, batere maitasunik gabe ezkondu giñan, eta ala-modukoak izan ziran ondorioak. Lendabiziko urtean or nunbait ibilli zan. Erri aldera maiz xamar aldegiten zuen, bañan gaue-rako etxeratzen zan. Gero, bi edo iru egun egiten zituen etorri gabe. Errian daukadan lagun batek nun ibiltzen zan esaten zidan: ezkongaietan zituen lagunekin eta toki zikiñetan. Aitari esan nion eta etzuen iñondik ere gu biok aserratzerik nai:

»—Zureganatzen saia zaite, Lutxi. Artu ezazu ondo, ea bide zuzenera ekartzen duzun.

»Dana alferrik, eta uzteko erabakia artu nuen. Enrikek, bertan gelditzeko alegiñak egin zituen, bañan aurrean bialdu nuen.

»Ni, Alixi besoetakoa nuelarik, bizi-alargun gelditu nintzan. Orain Alixi aunditzen ari da eta baliteke Josetxo eta bien artean maitasuna izatea. Nik ez diot galeraziko. Nik, gerorako bear duen lagun ura berak berexi dezala utziko diot.

Elena mintzatzen da:

— Arrazoi aundia duzu, Lutxi. Bien arteko lendabiziko maitasunaren piztuera orain izan liteke. Gu, gauza oien berri aspaldi dakigunak ere, orrelako bat ikustean zar-berritu egiten gera eta lendabiziko maite-miñak gogoratzen zaizkigu: garbiak, benetakoak, mantxarik gabeak. Malizirik gabeko maitasun orrek, elkarrenganako ondo-nai orrek, personaren bizi guztian iraun bear luke. Bañan askotan, maitasun garbi ori, urteak aurrera dijoazenean, lañopean gelditzen da. Illundu egiten da. Berekoikeri aldera jotzen du. Zorionekoak lendabiziko maitasun garbian bizi diranak.

URTEBETETZEA ETA MILIKOAK

Elena egun bat edo beste geiago gelditu da San Jose'n, Tomasen urtebetezea da eta. Emen, gautxoan artean, orrelako egunak jai egitea oitura daukate.

Arkume eder bat *al asador* erreko dute. Au, burni zorrotz eta zabal bat da. Bizkarretik sartu eta gero lurrean tente ipiñi. Eta ondoren, ez-arian, ez-arian, erre. Erretzen danean, botellan daukaten *salmuera*, au da, baratzuria ugari piper gorri eta gatzarekin ondo nastuta, bota. Arkumea, jan errexia eta gozoa gelditzen da orrela.

Gaur betetzen ditu urteak Tomasek. Jorje ere etorri da, danak elkarrekin egun ori igarotzeko. Gautxoak jeiki eta tiro batzuk egin dituzte errebolberakin. Nagusia, etxeko andre eta beste guztiak esnatu ere bai. Lendabizi Jo setxo joan da eta onela dio:

- Urte askotarako, Tomas.
- Eskerrik asko, *gauchito*.

Danak *mate* artzen ari dira. Josetxori ere gustatzen zaio eta bertan gelditu da.

Gaur Kaxildak lan gutxiago izango du. Arkumea gautxoak berak erreko baitute. Ortan oso iaioak dira. Egun aukerakoa daukate eta sua rantxoaren girizian egin dute. Arkume ori zabal-zabal ipiñi dute, eta alki bat ekarri ere bai ondoan exertzeko. Toki batzutan geiegi erre ez dedin batek bertan egon bear baitu. Makilla batekin brasa alde batera eta bestera ibilli bear, gordiña nun dagoen an lagunduaz.

Etorri dira danak, Andres eta gañontzeko guztiak. Lendabizi, urte luzeetako osasuna opa diote. Tomasek eskerrak ematen dizkiote.

Arkumea ia prest dago. Martin eta Kaxilda, bear diran edari eta gauzak ekartzen ari dira. Bazkaltzen asi eta gautxoak arkume-puskak eba-ki eta emakumeeri ematen dizkiote.

— *Está macanudo* —esaten du Andresek.

— Bai, ona dago —diote besteak.

Jan ondoren, kafe, kopa eta puro bana eman diote Andresek, eta bera eguneroko siesta egi-tera joan da.

Beste guztiak bertan gelditu dira, berriketan eta umore onean. Elena eta Aurora, gautxoen pamiliko argazki edo erretratoak ikusten ari dira. *Fonógrafo* bat ere badaukate eta disko guztiak ikusi dituzte. Oien artean, aspal-diko tango zar bat berexi dute: *Sentimiento gaucho*. Oso letra eta musika polita ditu eta dantzan ekin diote.

Elenak, lendabiziko dantza-laguna Tomas izan du. Nola dantzatzen dan danak arrituta daude. Gero, beste gautxoekin dantzatu da. Gañontzeko guztiak ere beren saioa egin dute. Alixik eta Josetxok ere gaur izan dute lenda-biziko ekiñaldia.

Jorje bere espuela aundiekin or dabil, eta Elenari eldu dio dantzatzeko. Onek esaten dio:

— Kendu itzazu espuela oiek, oñak zulatuko dizkidazu eta.

— Ez, ez dizkizut zulatuko. Gañera, laixter *cueca* bat dantzatu bear dugu, eta ori espuelakin dantzatzen da.

Emen espuelai *las lloronas* deitzen diote, eta danetan errueda aundienekin ibiltzen dituztenak txilenoak dira. Ortarako, botak ere takoi altoekin jazten dituzte, espuela-erruedak arrastaka ez ibiltzearren.

Orain Alejandro gitarra preparatzen ari da. Jorjeri Chile'ko bi kanta eskeñi nai dizkio: *Al pasar el arroyo* eta *Corazones partidos*. Alejandrok:

— ¡*Cueca chilena!*

Jorjek:

— ¡*Hala pues, ñor!*

Eta Alejandrok ekiten dio:

*Al pasar el arroyo
de Santa Clara,
se me cayó el anillo
dentro del agua.
Ia, ai, ai...*

*Por sacar mi anillo
saqué un tesoro:
una Virgen de plata,
un Cristo de oro.
Ia, ai, ai...*

*A la cárcel me llevan
por el tesoro,
por la Virgen de plata
y el Cristo de oro.
Ia, ai, ai...*

Eta gero:

*Corazones partidos
yo no los quiero;
yo cuando doy el mío
lo doy entero.
Ia, ai, ai...*

Illunabarra da. Danak egun atsegin bat igarero dute. Lutxi, Kaxilda, Alixi eta Josetxo etxera joan dira. Gautxoak, Martin, Elena eta Aurora gelditu dira.

Alako batean, zakurrak zaunkaka asi dira, eta or ikusten dituzte bi gizaseme, beuretara datozela. Elkarri diote:

— Zein ote dira oiek?

Eta poliziak edo *milicos* dirala ikusi dute.

— Jetxi zaitzte —esaten diote Tomasek.

Jetxi dira eta gaua bertan igarotzeko bai-mena eskatu dute. Baietz esan diote Tomasek; zaldia askatu eta *potrero* batean ipiñiko dituz-

tela. Baita ala egin ere. Danak arrituta daude, miliko oiek garai ortan zer ote dabiltzan.

Zaldiak utzi ondoren, etorri eta mate eskeñi diote. Milikoak alde guztietara begiratzen dute. Bazter danetan bazkari on baten arrastoak ikusten baitituzte. Gañera, an dira Elena eta Aurora, bi neska egoki eta apañak, eta oeri ere asko begiratzen diote.

Alejandrok:

— Gaur onen urtebetezea da.

Milikoak:

— Urte askotarako izan dedilla.

— Eskerrik asko.

Milikoak mintzatzen dira:

— Egun oetan etorri al da iñor onera?

— Ez, aspaldian ez da iñor etorri.

Martiñek:

— Zerbait gertatu al da?

— Bai. *El Chalia*'n, puestero bat illa arkitu dute. Iñork ez du ezer ikusi. Bañan, esaten dutenez, puesto ortan Ushuaia'tik bialitako bat zegoen, urte batzuk an egin ondoren askatu berria. Badakigu Santa Cruz'en itxasontzitik jetxi zala, eta gautxo zar batek zaldi bat eman eta *recado* puska zar batzugin antolatu ziola; gero, ortik alde egin eta beste puesto batera joan zala, eta egun-mordoxka batean bertan egon zala. Orain puesteroa norbaitek il du eta presondegian egondako ori alde egiña da. Diotenez, alde ontara artu du. Gautxo zar orri esker artu ditugun datoak, oek dira: gizaseme azkarra, beltzerana, urteak gutxi gora-bera ogei

ta amabosten bat; zaldi *rojillo* bat darama, eta izena Pacheco.

Au entzundakoan, besteak ere bai, bañan geien bat Martin, arrituta geratu dira eta elkarri begiratu diote. Milikoak, zeozter ote dakiten edo ikusia duten antzeman diote eta batek onela dio:

— Arritu egin zeratela dirudi.

Jorjek:

— Arritu baño geiago, izutu. Ni ere puesto batean bakarrik egoten bainaiz, eta orrelako baten beldurra daukat.

Milikoak:

— Ea, ba, arrapatu eta lenago egondako tokira bialtzen dugun, emen bakean bizi zaitezten.

Martiñek ezin egona dauka eta Elena eta Aurorari esaten diote:

— Goazen gu etxera.

— Bai; joan egin bear dugu.

Eta, gau onak eman ondoren, abiatu dira. Milikoak gautxoekin batean lo egingo dute.

Jorjek ere ezin egona dauka. Andresekin itzegin nai luke. Milikoak arrapatu nai duten gizon ori puestoan baitago.

Danak *a la casa grande* joan dira. Emen onela deitzen diote nagusiaren etxeari. Martiñek Andresi zer gertatzen dan esan dio, eta Pacheco jakiñaren gañean jarri nai lukela, milikoak joan baño len andik iges egin dezan.

Andresek:

— Eriotz bat egin badu, arrapatu dezate-
la eta len egon dan tokira bialdu. Orrelako bat,
inguruan baño, urrutian obe da. Jorje ere, ba-
kardade artan gisa ortako lagun baten ondoan,
arriskuan dago. Ez dakigu gañera, oraingoz an-
go puska guztiak artu eta alde egiña bada ere.
Eta zuk, Martin, Pacheco zure laguna zala dio-
zu. Nun ezagutu zenuen, ba?

— Buenos Aires'en.

— Nola diote, ba, Ushuaia'ko presondegi-
tik datorrela?

— Bai, bañan guk elkar ezagutu genuela
urte-mordoxka da. Lenago mutil ona zan. Se-
guru asko, gero gaiztotuko zan.

Kaxilda eta Elena bakarrik dira Martin pre-
sondegian egona dala dakitenak, bañan sekre-
to au ez diote sekulan iñori esan.

Andresek Martin eta Jorjeri esaten diote:

— Bigar goizean, miliko oiek zein aldetara
jotzen duten ikusi ezazute. Gero autoa artu
eta puestora joan zaitetze, eta gizon ori jaki-
ñaren gañean jarri ezazute, nai duena egin de-
zan.

Urrengo goizean, Nemesiok zaldiak ekarri
ditu. Milikoak, eskerrak eman ondoren, atera
dira. Jorje, zein aldetara jotzen duten erne
dago, eta San Julian aldera dijoaz. Ondo dago;
berak Los Andes aldera joan bear baitute.

Martin eta Jorje autoan atera eta an dijoaz
puestora. Urrutira, bi gizaseme zaldiz ikusten
dituzte.

— Zein ote dira oiek? —elkarri diote. Eta gero eta urbillago eta aiek ere bi miliko dirala konturatzen dira.

Biak bidearen alde banatan ipiñi dira eta Martiñek gelditu bearra dauka. Egun onak elkarri eman eta milikoak galdetzen dute:

— Nora zoazte?

— Gu, puestora.

— Nundik zatozte?

— *Estancia San Jose*'tik.

— Ez al duzute ikusi, inguru ontan, giza-seme bat zaldi *rojillo* batekin?

— Ez, ez dugu ikusi. Gañera, jakiñaren gañean gaude. Bart gaua zuen lagunak gurekin igaro dute, eta dana esan digute.

— Ondo dago. Zein aldetara atera dira?

— San Julian aldera.

— Eskerrik asko eta beste bat arte.

— Agur.

Martin eta Jorje beldurtu dira, milikoak alde artara dijoaz eta usterik gutxienean puestoan azaldu litezke eta. Bañan puestora iritxi eta an ez dago iñor. Zakurrak bakarrik daude. Jorje ikusitakoan, danak saltoka datoz, beren nagusiari ongi-etorria egitera.

Pacheco nun ote da? Arrituta daude. Jorjek bere gela giltzatuta utzi zuen eta alaberean dago. Pacheco'ren *recado* edo zaldiaren *montura* falta dala. Zoko guztiak begiratu dituzte eta puska danak an daude beren tokian. Martiñek:

— Zer gertatu da emen?

— Nik ez dakit zer gertatu dan, bañan arrituta nago. Egun bakarra egin dut estanzian, eta juxtu-juxtu orduan berak alde egin.

— Orain berriz ere estanziara joan bearko dugu.

— Bai; nere zaldia eta puskak ekarri bear ditut.

— Goazemazu.

Biak San Jose aldera atera dira. Patxaran eta berriketan dijoaz, Pacheco'ri zer gertatu ote zaion ezin asmatu. Alako batean, auto bat datorrela ikusten dute, eta beren artean esan ere bai:

— Zein ote dira?

Elkarrengana urbildu diranean, geratu eta, elkarri esku eman ondoren, elkar-izketan asi dira. Autoan datorren ori, Martin eta Jorjeren ezagun bat da eta onela mintzatzen da:

— Bidean nentorrelarik, bi miliko gizon bat erdian daramatela ikusi ditut.

— Bai? —diote biak batean.

— Bai.

— Nolako zaldia zeukan gizon orrek?

— *Rojillo* bat.

Martiñek:

— Zein aldetara zijoazen?

— Laguna Grande aldera. Seguru aski, ango milikoak ziran.

Martiñi etzaio komeni, gizon orrekin eza-guerak zituela esatea, eta, berriketa-aldi bat egin ondoren, San Jose aldera abiatu dira. Es-

tanziara iritxi eta, zerbait jakin naiean, danak atera dira.

Andresi ere, gizon ori milikoak eraman dutela eta Laguna Grande'n egongo dala esan diote. Andresek:

— Nik Santa Cruz'era joan bearra daukat. Laguna Grande'n gelditu eta gertaera guztiak milikoengandik jakingo ditut. Eta zuk, Martin, gizon ori ezagutzen zenuela ez esan iñori.

AZKEN EGUNA ETA AGURRA

Andresek errira jetxi bearra dauka. Denbora berean, Elenak berarekin joan nai luke. Emengo egonaldia bukatu baitzaio. Orain bere aizparengana joan bear du, Bahía Blanca'ra.

Martin, Pacheco'rekin zer gertatu zan jakin arte, ez dago bere onetan.

Elena bigar dijoa Patagonia'tik. Gaur, bere azken egunerako, beste *asado* bat egin bear dute gautxoak.

Elena bere puskak antolatzen ari da; daramazkien fletxa, *boleadora*, *quillango* eta gautxoak eman dizkioten pizti-larru danak ondo lotuta ipintzen. Aurorak laguntzen dio.

Lutxik, urrengo urtean ere egun batzuk beurekin igarotzera etortzeko esaten dio. Baietz erantzun du; etorriko dala. Josetxok ere galdetzen dio:

- Joan egin bear al duzu, Elena?
- Bai; joan egin bear dut.
- Gelditu zaite gurekin.

— Emen zer egin bear dut nik, Josetxo?

— Amari eta beste emakumeeri illeak orraztu eta apaindu. Neri ere oso ederki jartzen dizkidazu ille arro oek, berdin-berdin moztuta.

— Bai, bañan nik an daukat nere bizimodua. Emen neretzat lan gutxi dago.

— Lan gutxi dagoela? Beste estanzietako emakumeak ere etorriko lirake apainketa oiek egitera. Eta, gañera, india-mordo bat ere or dago, sekulan apaindu gabeak.

— Uste al duzu, Josetxo, ni indiak apaintzen asiko naizela?

— Zergatik ez ba?

— Oiek botatzen duten usaiarekin!

— Bota colonia *barra-barra*. Kenduko dizkiezu, bai, usaiak.

Gautxoen artean ere, Elenaren alde egite orrek utsune aundia utziko du. Baita beste guztien artean ere. Danentzat itz xamur eta maitekorrak baitzeuzkan. Asko ikusia eta asko ikasia, ondo zekien bakoitzari nola itzegin bear zitzaien.

Gaur azken eguna da. Zaldiz bueltatxo bat egitera, Elena, Aurora, Alixi eta Josetxo atera dira. Elenak onela dio:

— Zenbat aldiz gogoratuko ote naiz ni ibillaldi osasungarri oetaz, an Bahía Blanca'n etxe-zulotik atera gabe gelditzen naizenean?

Aurorak:

— Bai, gogoratuko zera. Bañan bizimodu au ere da gustagarria. Egun batzuk igarotzeko bai. Bañan eguna joan eta eguna etorri eta ur-

te guztian emen, aspertu egiten da. Neroni, Alixi eta Josetxoren ikasketak bukatzeko desiatzen nago.

Elenak, malizi pixka batekin:

— Emendik aurrera, ez al dira oek biak, maixtrarik gabe ere, ondo konponduko?

Aurorak irripar egin dio. Elenak:

— Etxe aldera abiatu bearko dugu, Jose-txo.

— Bai, goazemazute.

Badijoaz etxe aldera. Josetxok, berak daraman zaldia burua tente eta arin ibiltzen diran oietakoa baita, onela dio:

— Zaldi oek, pauso motzean aspertuta dijoaz eta besoak luzatzeko gogoia daukate.

Eta irrintzi bat egin eta galopean atera du, bestiak atzetik dituela, eta etxera iritxi dira. Nemesiok artu ditu zaldiak, askatzeko. Elenak esaten dio:

— Zu ez al zera Río Colorado'ra familia ikustera joaten?

— Bai; urtean bein edo orrela joaten naiz.

— Urrena joaten zeranean, Bahía Blanca'n gelditu eta bixita bat egin zaidazu. Bide galtzerik ez daukazu, bertatik pasa bear duzu eta.

— Joango naiz, ba.

Alejandro, arkumea erretzen ari da. Sua motel xamarra dago. Tomasek, etorri eta esaten dio:

— *Vamos a ver, viejo, si arreas ese fuego, porque parece fuego de matreros.*

Au esateko oitura aundia dago gautxoen artean, su aul xamarra ikusten dutenean. Matri-roak su ttikiak egiten omen dituzte, kea zabaldu ez dedin eta ezkutatuta nun dauden salatu ez dezan.

Eta *viejo*, berriz, emen edozeñi esaten zaio eta ez da gaizki artzekoa, itz maitekor bat baik. Ezkonberriak ere elkarri esaten diote:

— *Che, viejo.*

— *Che, vieja.*

Eta, zarrak diranentzat ere, daneri berdin deitzea pozgarri.

Asado ori aurreratua dago. Emakumeak, bear diran gauzak ekartzen asi dira. Gautxoak labanak, *chaira* deitzen dioten lima apropos batekin zorrotu dituzte. Oraintxe jan besterik ez dago. Danak etorri dira. Lenagokoan bezela, ebaki eta emakumeeri puskak ematen dizkiote. Gizasemeak, bakoitzak berea ebakitzen du.

Oien artean, Josetxo ere bere kontura ebakitzen asia da. Bañan ezurren *coyuntura* edo juntak nun dira oraindik ez daki eta ezin ebakirik ari da, ezurrak arrapatzen baititu. Alejandrok esaten dio:

— *No andes cortando campo, gauchito.*

Esaera au gautxoan artean askotan entzuten da. Bideak galduta dabillega esan nai du; ezurren juntak nundik nora diran ez dakiela. Orre-gatik, gautxoak marka bat bezela daukate aragia zeñek obeto ebaki, juntak ondo billatuaz eta ez labana zerrotearen antzera ezurretan ibilliaz.

Danak ondo gelditu dira. Orain, Elenaren azken eguneko dantzaldia. Lendabizi, Alejandrok gitarrarekin *vidalita* batzuk abestu ditu:

*En un pingo pangaré,
con un freno coscojero,
buena ropa y buen apero,
en dirección a Piqué
va el paisano Juan José
orillando una cañada,
con camisa bien planchada
y un clavel rojo retinto,
puñal de plata en el cinto...*

Gero, berriz, fonografoan *tango* eta *vals* batzuk jo eta dantzatu dituzte. Elenaren azken eguna ondo amaitu da.

Besteak joan eta Elena eta Aurora gautxoekin izketan gelditu dira. Gaur beñepein etzaioite milikorik etorri eta lasai itzegin dute. Bañan orduak aurrera doaz eta Elena eta Aurora etxeratu dira.

Andresek, goiz jeiki eta daneri deitu diote. Lutxi eta Aurora, Elenarekin errira dijoaz. Eurria ari du eta egualdi beltza dago. Etxe-zokoan egoteko modukoa.

Gautxoak ere jeiki dira. Nemesiok, eurria ari duela esaten diote besteei. Eta Alejandrok, gautxoen esaera zar au esaten du:

— *Mientras haya carne y cueva, déjale que llueva.*

Eta ordubete edo geiago egongo dira lasai, mate artuaz eta kontu kontari.

Elena, azken agurra ematera joan zaiote. Jorjeri, ezkontzen danean bien argazkia berari ere bialtzeko esan dio. Beste gautxoeri ere, pizti-larru polit oiengatik eskerrak eman dizkio-te. Baita ere berarekin leialak eta jatorrak izan diralako:

— Guztiongatik milla esker.

Tomasek:

— Elena, ez al dizu penik ematen, gu emen utzi eta alde egiteak?

— Bai, pena ematen dit. Elkarrekin egin ditugun egun oek, beti gogoan izango ditut. Noiz-beinka eskutitz bat ere bialiko dizutet. Nolako mutil jatorrak eta pizkorrak zeraten ere, nere laguneri esango diotet. Esku batekin zaldi biurrieri lepotik eldu eta salto batean gañean zeratela. Sasoia eta osasuna gañezka daukazutela. Nere laguneri bati aurki egingo zaio zuek ezagutzeko zaletasuna. Emakumeak ere mutil pizkor eta osasuntsuak nai dituzte; ez auleriak eta pipiak jotakoak. Nik emen ateratako erretratoak daramazkit eta erakutsiko dizkio-tet. Eta, batenbatek «Mutil au gustatzen zait» esaten baldin badit, nik elkar ezagutzeko bidean ipiñiko zaituztet. Bañan kondizio batekin: an bizitzeko; ez bakardade ontan. Au toki atsegiña da illabete bat edo geixego egiteko; bañan ez beti emen izateko.

Jardunaldia luzatu egin da eta Elenak gautxoeri esaten diote:

— Joan egin bear dut, onezkero Andres gertu dago eta.

Banan-banan daneri musu eman diote eta urrengo urtera arte.

Erri aldera abiatu dira. Elena, pañuelo zuri batekin, gorde arteraño agurka dijoa.

Kaxildak lasaitasun pixka bat artuko zuen, bañan beste danen artean Elenak utsune aundia utzi du. Berak orrazten eta apaintzen zituen emakumeak, eta orain beren artean antolatu bear. Gautxoak ere ez dute dantzatzeko lagunik izango. Aurora or gelditu da, bañan bakarririk ez da gautxo artera dantzatzera joango.

Elenari gautxoen aurretik igarotzean geien txokatu zaiona, Tomasek begiak pañuelo batekin, negarrez ariko balitz bezela, igortzen zituela izan da. Egitazko malkoak etzerala, itxurazkoak baizik, antzeman dio eta iru emakumeak algara egin dute.

Andes'ko mendiak atzean utzi eta Laguna Grande'ra urbildu dira. Emen, *hotel* batean, poliziak daude. Geratu dira, eta, zerbait artu ondoren, Andres miliko oiekin itzegitera joan da. Pacheco edo dalako orrekin zer gertatu dan galdetu diote.

Milikoak, beurek artu eta errira bialdu zutela esan diote, eta ezer ere ez dakitela. Zerbait jakin nai badu, *comisaría*'ra joateko.

Orain Santa Cruz aldera doaz. Pacheco'ri zer gertatu ote zitzaion da beren elkar-izketa. Andresek, komisarioa ezaguna duela eta galde-tuko diola esaten diote.

Paso Ibáñez erri txiki ortara iritxi dira. Orain Santa Cruz ibaia igaro bear, *balsa* edo

barcaza aundi batean, auto eta guzti, alde bate-tik bestera.

Santa Cruz'era sartzera dijoaz. Lendabizi, beti gelditzen diran *hotel*'era joan dira. Elenak abioia illunabarrean artuko du. Besteak, gaua emen igaroko dute.

Iru emakumeak erosketak egitera atera dira. Andres, komisarioarekin itzegitera segituan joan da. Pacheco orrek zer egin zuen eta nun dagoen galdetu dio. Komisarioak, oraindik giltzapean dagoela esan dio; bañan beste bat dala uste dutela.

— Pacheco'k puesto artatik alde egin eta gero, beste bat egon zala jakin dugu. Orain milikoak orren atzetik dabiltz.

Andresek:

— Pacheco ori nere puesto batean puesteroarekin egona da eta nik ere ezagutzen dut. Berarekin itzegin al liteke?

— Bai; goazen.

Pacheco'k, Andres ikusitakoan:

— *¿Cómo le va, patrón?*

— *Bien, y ¿a vos? ¿Qué te pasa?*

— Nik ez dut ezer egin. Batere kulparik gabe nago ni emen.

Komisarioak:

— Ori laixter erabakiko dugu. Ez baduzu ezer egin, bialduko zaitugu.

Andresek:

— Bialtzen zaituztenean, nere etxera etorri zaite eta nik lana billatuko dizut.

Emakumeak erosketak egin dituzte. Elenak ere bere txartela artu du abioierako. Beste postal edo argazki batzuk ere erosi ditu, eta prest dago Buenos Aires aldera joateko.

Lutxi eta Aurorari, Buenos Aires'en egun pare bat egin bear duela esan diote, eta bere lagun maitea izan zan Anitari lore batzuk eraman bear dizkiola.

Abioia azaldu da eta aurreko aldean geratu. Elenak eskerrak eman dizkiote daneri, beragatik egin dituzten guztiengatik. Eta «Urrengo urtera arte» esan eta daneri besarkada eta musu emanaz, abioiera igotzen da, eskalleretatik pañuelo batekin azken agurra egiñaz. Abioia gora igotzen da eta Elena Buenos Aires'era dijoa.

MARTIÑEK ON RAMONI

On Ramon agurgarria:

Aspaldian neukan berorri eskutitz bat bialtzeke gogoa. Bañan idazlanetan oso zabartuta nago. Denbora batean bai, an *à l'autre côté* nengoenean, sarritan egiten nizkion.

Ixidrogandik, berori ondo dala jakin dugu. Poz aundia eman digu orrek. Gu ere osasun onarekin gera, Jaunari eskerrak.

Lenagoko batean, nagusiak Los Andes'ko egalean daukan puesto batera joan giñan, eta arrituta gelditu nintzan, nerekin egondako lagun bat an ikusirik. Onek Pacheco izena dauka. Luzaroan ibilliak gera biok errueda bakarreko tresna orrekin. Ontan oso iaioa zan; laixterketan geienean txapeldun geratzen zan. Ez genuen apostu aundirik egiten; zigarrillo bat edo beste bakarrik.

Ugarte artatik etorri berria zala esan zidan, eta orain lana egin nai lukela. Nagusiak, lana billatzen saiatuko zala esan zion, eta bitartean puesteroarekin bertan egoteko.

Eta zer gertatuko? Pacheco beste puesto batean egona izan, eta ango puesteroa ilda arkitu, eta Pacheco artu eta milikoak presondegira eramana.

Gu emengo bizimoduaz oitu gera. Kaxildak gautxoan otorduak ipintzen ditu, eta etxeko lanetan lagundu. Josetxok etxean egiten ditu ikasketak. Bertako alabarentzat *institutriz* bat daukate eta biak batera ari dira. Nik baratzekeko lanak, eta tarteka gautxoekin ardiak bildu edo beste zenbait lanetan lagundu.

Kaxilda ere beste emakumeekin noiz-beinka zaldiz ibiltzen da, eta Josetxo ez dago zer esanik. Ikasketak baño naiago du gautxoekin ibilli.

Guk emen ez diogu antzik ematen, noiz dan astea eta noiz jaia. Egun guztiak berdin igarotzen dira. Ez dugu kanpai-soñurik entzuten. Elizatik urruti bizi gera. Ez daukagu meza entzuterik, ez aitortu eta ez Jauna artzerik. Erritik kilometro askotara bizi gera. Autoan ere orduak bear dira joan-etorria egiteko, eta bakan xamar jeixten gera errira.

Los Andes izugarri oen ondoan bizi gera, *el cerro Fitz-Roy* etxetik ikusten dugula, emengo mendirik meiarrena eta altuena. Batek baño geiagok, bere gallurrera ezin iritxirik, amildu eta bizia galdu izan omen du.

Emen zer ikusi asko dago. Bañan ortarako asko ibilli bear, eremu izugarriak baitira.

Emendik urruti, bañan Santa Cruz partean, *el bosque petrificado de Jaramillo* dago. *Monumento nacional* da. Noizbait baso aundi bat izan

zan, *araucarita* deitzen dioten zugaitz lodi eta ikusgarriekin. Arbolak zutik iltzen dirala esan oi da. Bañan, jeologoak diotenez, oek etzanda il ziran, eta orain arri biurtuta daude: *petrificados*.

Gertakizun au izan zala, milloika urte omen da. Garai artan, Los Andes mendi izugarri oiek artean agertu gabe omen zeuden; geroagokoak dira. Jakintsuen iritzirako, emen *cataclismo* edo lur-aldaketa beldurgarriak izan omen ziran, eta, denbora berean, *volcán* edo su-mendiak piztu egin ziran, alde guztietara sua eta garra banatuaz.

Lurrak —emen geiena ondarra daukate— alde batetik bestera ibilli omen ziran. Milloika tonelada lur aruntz eta onuntz, aizeak orbela bezela. Gertakizun oek, diotenez, egun pare bat iraun omen zuten.

Orain dala urte batzuk, *piñas de conífera* arri biurtuak billatu zituzten. Jakintsuak dudarik ez daukate, toki oek lenago beroak zirala, *trópico*, eta orain, aldaketa oiek ezkerro, otzak.

Jaramillo deitzen dioten toki orrek, larogei ta lau kilometro omen ditu. Inguruan ez omen da iñor bizi. Argentina'k daukan tokirik zakarrrena eta nekosoena bizitzeko. *Agreste y salvaje* deitzen diote.

Toki geiagotan ere badaude *cataclismo* izugarri orrek utzitako arrastoak. Itxura duenez, ura eta lurra naste ibilliak izango ziran. Tokirik bajuenetan baloia bezelako bola aundi batzuk, biribil-biribillak, oraindik ere ikusten bai-

tira. Oek autsi eta barruan itxasoko karakol, ostra, txirla eta abar dauzkate, danak arri biurtuak. Gañeko azala gogorra du bola orrek, eta mallu batekin autsi bear izaten da. Bola oek ez dira edozein lekutan, zokorik aundienetan baizik. Badirudi urak biurka ekarri eta or gelditu zirala.

Zokorik aundienetan itxasoko ondarra ere asko dago. Belarrik ere ateratzen ez dan tokiak, eremuak daude. Zenbaitetan, aize-bolara aundiak diranean, ez da emendik igarotzea giro izaten. Begiak, motoristen modura, tapatu egin bear dira. Ondarra aidean ibiltzen baita. Onelako tokieri *médanos* deitzen diote, eta ondar orren tartean ere lapa-azal eta itxasoko *fósil* batzuk billatzen dira.

Patagonia'k ez ditu toki danak txarrak. Belar goxoak dauden tokiak ere baditu. Bestela ez lirake orrenbeste milla ardi, bei, zaldi eta abar bazkatuko. Neguan zenbat eta elur geiago egin, orduan eta belar ugariagoak ateratzen dira.

Urak eta beste indar *sísmico* oiek aurrean ibillitako lur, ondar eta arriekin, mendi koxkor batzuk egiñik daude emen, eta oien tartean ezur izugarri batzuk ikusi izan ditut. Esaten dutenez, au toki beroa edo *trópico* zanean, animalia *prehistórico* batzuk bizi ziran emen: *dinosaurius*, *diplodocus* edo zerbait onelako. Nik ez dakit animalia oek zer izen daukaten; bañan Buenos Aires'en, *en el museo de La Plata*, an daude aien eskeletoak, ondo ipiñita, nai dituenak ikusi, Batzuk, gañera, petroleoa ateratzen

asi ziranean, Comodoro Ribadavia'n billatu zituztela uste dut.

Emengo indioeri *tehuelches* deitzen diote. Gazteak erderaz ere badakite, bañan zarrak beren izkuntzaz bakarrik. Oek izketan entzunda, arrituta gelditu izan naiz. Badirudi oien izkuntzak euskerarekin zerbait kutsu daukala. Onela ematen dizkiote elkarri egun onak: *Mari mari*. Besterik ez dut ezer ikasi.

Leioak ere badira emen. *El puma* deitzen diote. Eta beste basa-pizti asko ere bai: *aves-truces*, *guanacos*. Oek basauntzaren posturakoak dira. Erruz dago eta nagusiak iltzea nai izaten dute, belar asko eta gañera goxoena jaten dutelako.

Oek iltzeko badira emen iaioak. *Winchester* bat artu eta beurek dabilzan tokira joan. Guanako oek toki jakiñak dauzkate. Astoak eta beorak bezela lurrean amildu, anka gora ipiñi eta bizkarra lurrarekin igortzi egiten dute, azkureak kentzeko bearbada. Orrelako tokietan, zuloak egiñak izaten dituzte, ondarra eta lur xamurra baitago. *Revolcaderos* deitzen diote.

Eiztariak, oearen gañeko *sobrecama* oietako bat ekartzen dute. Zenbat eta kolore geiago eta nabarmenago, ura eta obeto. Manta ori burutik bera artzen dute, eta *revolcadero* oietako batera xuxenean joaten dira. Lurrean etzan eta guanakoak egiten dituen guztiak egiten dituzte: anka gora atera eta biraka ibilli, eta gero geldirik egon.

Guanakoeri, beren josta-lekuan norbait dabi-

llega ikusten dutenean, ezin egona egiten zaio-
te. Izutu, irrintzi bat edo beste egin eta danak
zabaldu egiten dira. Bañan an zein dabillen ja-
kin nai dute, eta poliki-poliki, beldurra eta
kuriosidadea elkarrekin dituztela, ondora joan-
go zaizkio eiztariari, eta onek bat edo beste ilko
ditu.

Badira beste animalia ttiki batzuk ere, oso
politikak. *Zorrino* deitzen diote. Beltzak, bizka-
rrean txuria arrautzaren forman, asi burutik eta
isatseraño. Beren gordelekutik illunabarretan
ateratzen dira, eta ez dira iñorekin izutzen; ez
zakurrekin eta ez personekin. Izutu bearrean,
beurek etorriko dira erronka dariotela, besoak
altxa eta *txu txu txu* egiñaz. Persona ia ikuitze-
raño urbiltzen dira, eta beti desafioka. Ez ba-
zaiote jotzeko keñurik edo olakorik egiten, ez
da ezer gertatuko. Bañan jotzeko keñu bat egi-
tea naikoa da, *ácido* bat botatzeko: *Acido clor-
hídrico* edo *sulfúrico* bezin txarra da, eta erro-
pari etzaio denboretan usairik joaten. Begiekin
ere kontu aundia bear da, erre egiten baititu.
Zakurrak ere garraxika jartzen ditu, begiak erre-
ta, eta pizti ttiki orri beldur izugarria diote.
Acido ori, poltsa edo maskuri batean dauka, eta
emen badira batzuk, ttikiak dirala arrapatu eta
maskuri ori kenduak, eta oso animalia politikak
dira. Oen larruak ere, emakumeen apaingari
izaten dira.

Egaztiak ere mota askotakoak daude. Ba-
ñan oien artean bat bakarra aipatu nai diot: *el
tero* deitzen diotena. Malizirik geien daukan

egaztia, au izango da noski. Orregatik esaten dute:

— *El tero, que en un lado pega los gritos y en otro pone los huevos.*

Au lintzurretan egoten da. Euskalerrian ikusten diran egaberen antzekoa da: zuri-beltza. Orren berri ez dakienak, ez dio kabirik arrapatuko. Garraxika dabillen inguruan billaka asiko da; bañan an ez dauka kabirik. Kabia, lurretik oinka poliki-poliki atera dan toki artan dauka. Gero, ixil-ixilik, egan urrutira joango da, eta an bulla eta zalapartan asi. Egoa autsita balu bezela, lurrean barrena biraka ibilliko da. Onek ere, ezagutzen ez dutenak engañatzen ditu.

Onela, ba, On Ramon, emengo gauza batzuk aipatu dizkiot, bearbada berorrek aspaldi irakurritakoak.

Eskutitz onekin, argazki bat bialtzen diot. Josetxo zenbat aunditu dan ikusiko du. Emengo eginda dago. Gautxoak *el gauchito* deitzen diote. *Boleadorak* ere egin dizkiote; pare bat abestruzentzat eta beste pare bat zaldientzat. Lazo bat ere bai, egin diote, eta noiznai saiaten da, mendiko beor izuak korralean ixten dituztenean.

Nik ez dut lan oietan ikasi. Lan oiek gaztetan ikasi bear dira, eta ni ere urtetan aurrea noa.

Kaxildari ere, lenago zeukan arpegi legun artan, lendabiziko zimurrak ateratzen asi zaiz-

kio. Igarotako urteak gure arpegietan uzten dituzten arrastoak dira oiek.

Gaurkoz, onenbestez bukatzera noa. Pello eta Terexari esan bezaiote, ea beta pixka bat noiz artu bear duten guri eskutitz bat bialtzeko.

Aitak ere, nai duenean badaki idazten. Ez daukat aaztuta, ni ara eramán nindutenean eta nun nengoen aitortu nionean, zer nolakoak ipiñi zituen paperean.

Kaxildaren gurasoak ere, Beko-errota'n baño bizimodu lasaiagoa dute orain. Emendik guk ere zeozer laguntzen diotegu, eta ondo bizi dirala jakin dugu.

Elizara ezin joan geranontzat, otoitz bat eskatzen diogu. Besterik ezer ere gabe eta urren-go bat arte. Artu beza Kaxilda, Josetxo eta neregandik besarkadarik maitekorrena:

Martin.

LA YERRA

Gaurko eguna egun aundia dute San Jose'ko gautxoak. *La yerra* baitaukate. Au da, mendiko beor guztiak bildu eta gazteak burni be-roakin markatu. Estantzia bakoitzak bere selloa dauka. Au berotu, izterrean ipiñi eta or geldituko zaiote sekulako marka ori. Denbora berean, arrak diranak zikiratu. Bilketa au urtean bein egiten da, urtearen barru jaio diran gazteak markatzeko.

Beste estanzietako gautxoak ere egun ortan laguntzera etortzen dira. Gañera, beren gustoko eguna baitute. Gautxoak edozein lan egiten du beiekin, ardiekin edo beste zerbaitekin. Bañan bere-berea zaldia du.

Beorrak bildu bear diran egun ortan, zaldirik oberenak artu eta danak elkarrekin aterako dira. Badakite gutxi gora-bera nun dabil-tzan, batzuk urbil xamar eta besteak bearbada oso urruti. Aldean daudenak bertan utzi eta urrutikoak biltzen asiko dira.

Oek, zaldizkoak ikustean, belarriak tente jarri, sudur-txistu batzuk egin eta iges egiten dute. Orduan gautxoak zabalduko dira, eta ikusten dituzten guztiak aurrean artu eta etxe aldera. Legor xamar dagoenean, auts galantak arrotzen dituzte. Izuak baitira. Urtean bein bakarrik ixten dira, eta orduan ere denbora gutxiko.

Martiñek eta Josetxok ere gautxoeri lagundu diote korralean sartzen. Etxe ondoko sarrera ori txarrena izaten baita. Geienetan, itzuli egin nai duen bat edo beste bada. Orrelakoari gautxoak boleadorak tiratzen dizkiote, eta zenbat eta ostiko geiago, orduan eta ankak lotuago.

Egun ori festa bezela izaten da gautxoeren artean. Arrapatu nai dutenari lazoa botatzen baitiote, batzuek lepora eta beste batzuek besotara.

Au askoz ere zallagoa da. Onek meritu aundia dauka. *Apialar* deitzen diote. Lazo lepora botatzeko eskubira ibilli bear da, bañan besoak arrapatzeko ezkerrean. Gautxoetan ez dira danak ontan ondo dakitenak; banaka batzuk dira iaioak.

Apialador batek kalkulo aundia bear du, lazoa ezkerrez ibilli eta korralean bueltaka dabilen beor edo zaldiari bi besoak arrapatzen dizkio eta. Juxtu-juxtuan bi besoak aidean dauzkanean, lazoa aurrera bota bear, gero golpetik itxi eta buruaren gañean barrena lurrera bota. *Apialador* on batek lan asko aurreratzen du, beor edo zaldia lurrean uzten baitu, eta beste

gautxoak, altxa baño len, bertan lotzen baitute. Lazoarekin lepotik arrapatzen diran oiek, gero ere beren lanak badituzte lurrera botatzen. Orre-gatik, *apialador* onak bi lan batean egiten ditu.

Toki batzutan, beor daneri lepoko eta isatseko ille luzeak urtean bein moztu egiten dizkiote, eta gautxoak esaten dute:

— *Le ha quedado la cola como chaira.*

Ille edo *crin* ori saltzeko mozten dute.

Emen beor-aragia gutxitan jaten da. Bañan, *yerra* bat danean, urteko beor gazte edo *potranca* bat askotan iltzen dute, eta *costillar* deitzen diotena erre.

Ontarako, geienetan gautxorik zarrena izaten da. Gazteak korraleko lanak egin bitartean, zar onek, pazientzi ederrarekin eta mate batzuk artuaz, kostilla oiek erreko ditu.

Andres ere or dabil gautxoaren artean, bere beor eta zaldiak ikusiaz. Garaño edo *semental* bat aurrerako berexi nai luke. Aukeratu du eta gautxoeri esan diote, *rubano* ori zikiratu gabe uzteko.

Martiñek ere gautxoeri laguntzen diote, burri edo marka ori goritu eta eramanez, motxal gazteak sellatzeko.

Josetxok ere, Nemesiok egindako lazo berri batekin, lendabiziko saioak egin ditu. Gaurko eguna egun gogoangarria izango du. Lendabiziko eguna lazo berriarekin eta gautxoekin batera *yerra* batean parte artzen duela.

Emakumeak ere etorri dira. Kaxilda ere po-

zez beteta dago, Josetxok lazoarekin lepotik nola arrapatzen dituen ikusirik.

Lutxi ere an da, gautxoak lana nola egiten duten ikusten. *Apialador* orren lanarekin arrituta dago. Tomasi esaten dio:

— Arrigarria benetan gautxo orrek egiten duen lana. Batetik, bi besoak aidean dauzkala arrapatu; eta, bestetik, denbora berean estutu eta lurrera bota.

— Bai —esaten dio Tomasek—. *El hombre muestra en la vida la astucia que Dios le dio.*

San Jose'ko gautxoetan ez dago iñor ere lan ori egiten dakienik. *Apialador* au, *domador* edo motxal-ezitzalle bat da, Pampa'koa berez.

La Yerra ori bukatu dutenean, oitura dan bezela, *doma de potros* edo eziketa. Gautxo ba-koitzak bat gutxienez probatu bear izaten du, nolakoak diran ikusteko.

Josetxok ere baleukake petizo bat igotzeko gogoia. Bañan oraindik gaztea da eta urrengo urterako utzi du.

Tomasek eta Nemesiok bi zaldi ttiki berexi dituzte, eta oek ezi bear dituzte, bat Alixirentzat eta bestea Josetxorentzat.

Onela bukatu da aurtengo *yerra* au *estancia San Jose'n*.

EZIKETA

Orain zar baten konseju batzuk, motxal biurri oek nola ezitzen diran, iñork ikasi nai badu.

Zaldiak, lendabizi, lotzen dan toki artan geldirik egoten ikasi bear du. Mendian jaio eta mendian bizi, sekulan lotu gabeak izaten dira; eta, lendabiziko lotu-aldietan, tresnak txetu eta itzuli egiteko alegiñak egiten dituzte.

Izan ere, ez da arritzekoa. Gautxoak eziketarako biltzen dituztenerako, iru urte inguru izaten dituzte. Mendian nai duten bezela oituak, lasaitasun guztian bizituak, nai duten tokira joan-etorriak. Gizenak, belar goxo indartsuak, aukeratuaz ibilliak. Eroak eta jostalluak, beren itzalarekin ere izutzen diranak. Kolore guztietakoak, zein baño zein politagoak eta egokia-goak.

Zerbaitegatik esaten diote zaldiari: *el animal más perfecto de la creación.*

Eziketarako artzen diranean, asko sufritzen dute. Bañan beste erremediorik ez daukate. Gi-

zonaren eskuetan erori dira. Onek gogor artuko ditu. Buru arroa makurtu bearra etorri zaie.

Lendabizi, *bozal* edo *cabestro* lodi batekin, lurrean sartuta dagoen *palenque* edo *estaca* bati lotuko dute. Aren indarrak, iges egiteko, alferrik izango dira. Alde guztietara joko du. Bañan ondo lotuta dago, lepoa minberatu zaio eta geldirik egoten beldurrak erakusten dio.

Bigarren, riendetatik tiratzean gelditzen ikasi bear du. Ankak eta besoak lotu eta tira aotik atzera eta ezker-eskubira. Bañan ez diote frenoarekin tiratzen; *bocado* esaten zaionarekin baizik. Au, lokarri lodi bat da, sendoa eta goxoa, zaldiari aoa ez larrutzeagatik. Riendari bi anilla ipiñi eta *bocado* au aolan lotzen zaio.

Batzuek lurrean tiratzen diote; bañan geienak, motxal oieri *recado* edo *montura* ipiñi eta gañetik tira fuerte atzera eta ezker-eskubira.

Bigarren proba onekin ere, aoa minberatuta gelditzen zaio eta beldurra sartzen, eta pixkanaka-pixkanaka gelditzen ikasiko du, eta ezker-eskubira ia keñu utsarekin ibiltzen ere bai.

Gautxoak, motxal biurri oekin ateratzen diran lendabiziko egunetan, lagun bat ondoan izaten dute. Zernai gertatuta ere, *apadrinador* deitzen dioten beste gautxo ori bazterrean joaten da. *Doma* edo eziketa au arriskukoa da, eta bein baño geiagotan motxalak gautxoa botatzea gertatzen da, askotan zutik geldituko bada ere. Motxalak iges egiten badu, *apadrinador* orrek *boleadorak* tirako dizkio. *Apad*inador* ori bein

edo bi aldiz aterako da domadorearekin, eta gero au bakarrik.

Zer akats dauzkan segituan antzemango dio. Gaiztoa bada, zigortuko du. *Corcoveador* bada edo salto biurriak egiten baditu, espuelak ipiñi eta kostilletan barrena pasako dizkio, zerriak bezela garraxi egin arte.

Gautxoak, espuelakin bentaja aundia dauka zaldi gaiztoekin. Larri-aldietan asko laguntzen diote. Monturaren azpian sartu eta lotuta bezela gelditzen da, eta erori gabe eusten dio.

Gautxo zarrak diotenez, zaldia persona, dan baño aundiagoa ikusten du. *Aumentoa* omen dauka begietan, eta gizonarekin orregatik izutzen omen da. Bere aldean gizona zeñen eskaxa dan baldin baleki, ez omen legoke oiek egiterik.

Sekulan ezitzen ez diranak ere badira batzuk. Gizonaren aurrean amor ematen ez dutenak. Beren gañera igotzen diranak, ia danak botatzen dituztenak. Oeri, *reservados* deitzen diote.

Gautxoak, iru edo lau egunetan motxala ibilli ondoren, lendabizi trotean erakutsiko dio, eta gero galopean. Motxalak, bere modura utzi ezkerro, geienez trote edo galope luzeak eta zakarrak izaten ditu. Trote edo galope motz eta ariñez erakutsi bear zaio, eta burua arro eta airoso ibiltzen ere bai. Ontarako, riendak estu antzean eramane bear dira, bañan aoa geiegi beartu gabe.

Zaldia, asko dakien animalia da, eta, lenda-

bizitik ondo ezitzen ez baldin bada, gero ez dago arekin ezer egiterik.

Badira zaldi billabak ere. *Traicioneros* esaten diote. Oek, igo eta ateeran oso mantxoak eta, bearbada egun batzutan, ondo ibilliko dira. Bañan, gutxiena pentsatzen danean, eper bat altxa dala edo *avestruz* bat atera dala, uste gabeen saltorik aundienak eta biurrienak egingo dituzte, gañean dijoana bota arteraño. Orrelako zaldiak peligrasoak dira.

Zaldirik geientsueneri, norberak nai duen trote edo galopea erakusten diote. Alderdi izugarria dago ontan. Ibilli gozo eta atsegiña duen zaldiak ez du nekatzen. Bañan galope luze eta zarpalla baldin badu, oso nekegarria da.

Andalucía'ko zaldi oiek nola ezita dauden, telebistan edo plazan geientsuenok ikusiko zenuen. Oiek pazientzi aundiarekin erakutsita daude. Batetik, zezenari iges egiten diote. Zezenaren ondoan ibilliko dira, bañan onek nekez ikuituko ditu. Bestetik, dantzan ere badakite.

Patagonia'ko zaldieri etzaiote orrenbeste erakusten. Lanerako bakarrik izaten dira.

Lendabiziko eziketak egindako motxalari, *redomón* deitzen zaio. Nola ibilli bear duen ia erakutsita dago. Zaldi gazte orri ondo egin bear zaio. Lepoan eta buruan barrena pallako egitea edo eskua pasatzea asko gustatzen zaio.

Ondo zeñek egiten dion, berealaxe ezagutuko du zaldiak; eta, ura ikustean, belarriak tente ipiñiko ditu.

AURORA

Aurorak badaki emendik aurrera *estancia San Jose'n* alferrik dagoela. Alixi eta Josetxo aunditu dira eta alde egin bear duela iruditzen zaio. Lutxiri onela mintzatzen zaio:

— Aizu, Lutxi: zer pentsatu dudan bai al dakizu?

— Zer pentsatu duzu, ba?

— Ni emendik aurrera alferrik nagoela etxe ontan.

— Ez orixe. Zu etxeko bat bezela zera emen. Gurekin urte batzuk egin dituzu, eta orain, alde egiten baduzu, utsune aundia geldituko da etxe ontan.

— Ori lendabiziko egunetan izango da. Bañan denborarekin aaztuko nazute. Zer egin bear dut, ba, nik emen? Alixi eta Josetxo azita daude. Ikasketako gogoak joan zaizkiote. Elkarri begiratu besterik ez dute egiten. Itz batean, maiteminduta daude.

— Bai. Ori badakit nik ere aspaldi ontan. Bañan nik ez diotet traba edo oztoporik jarriko. Gauza orren gañean aita eta biok itzegin dugu. Bera ere antzemana baitago biak elkar maite dutela.

— Zer esaten du Andresek?

— Aitak, bien arteko maitasuna begi onez ikusten du. Josetxo mutil pizkorra eta langillea baita. Gazterik etorri zan eta emengo lanetan oituta dago. Zuk badakizu, Aurora, naiz zaldiz naiz beste zeregiñetan, zein iaioa dan. Martin ere langillea eta borondate oneko gizona da. Bañan etorri zanean urte-mordoxka zeukan eta ez da sekula Josetxo bezela jarriko. Orrela, ba, Aurora, estanzia au aurrera eramateko, Josetxo mutil aproposa iruditzen zaio aitari, eta neri ere bai. Guk emen, lana gogotik egiten dutenak bear ditugu, eta ez *señorito kalamidadeak*, Enrike nere gizona izandako ura bezela. Arek etzeukan lanerako gogorik. Etzuen eskurik zikindu nai: zaldiz, guanteekin: korralean ardi tartean ere bai; eta lan zakarretan kolperik ere ez. Emakumeak baño okerrago, beti bere eskue-ri begira. Jokorako eta bere modukoen artean ibiltzeko, esku legunak iduki nai zituen. Nere aitak beldur aundirik gabe zikintzen ditu, eta gero garbitu, beste geiagok egiten duten bezela. Aurora, noiz joan nai duzu?

— Laixter joan nai nuke. Nere guraso eta senideak ikusteko gogo aundia daukat. Baita nere lagunak ere. Emen zuekin oso gustora egon naiz. Bañan urteak aurrera dijoaz eta, Buenos

Aires alde ortan, ea nitaz iñor konturatzen dan saiatu bearra daukat.

— Suerte on bat opa dizut, Aurora.

— Eskerrik asko, Lutxi.

Andres, biak izketan ari diran tokira etorri zaiote. Aurorak zer pentsatu duen esan diorean, onela dio:

— Bai. Oiek biak emendik aurrera ezer gutxi ikasiko dute eta ondo pentsatu duzu. Guregatik, nai duzun aña denboran egon zindezke. Bañan, etorkizunari begira joan nai baduzu, zuk ibilli zeure bideak.

Aurorak, zer pentsatu duen Kaxildari ere esan dio. Onek naigabe aundia artu du. Aurora oso neska ona baita, danekin ondo konpontzen dana eta Kaxildari asko laguntzen diona.

Batetik, ezer ere etzekien Josetxorekin, erakusten alegiñak egin ditu. Ez du Alixik ainbeste ikasi. Au, Josetxo etorri zaneko, poliki ikasita baitzegoen. Bañan Josetxok ere itxurazko ikasketak egin du.

Gautxoak ere, Aurorak zer erabaki artu duen jakin dutenean, penaz gelditu dira. Tomas, daretan xelebreena eta sinpatikoena, onela mintzatzen zaio:

— Bai al dakizu, Aurora, zer egitera zozaten?

— Bai; badakit.

— Ez; ez dakizu zer utsune utzi bear duzun gure biotzetan. Guk, danok maite zaitugu. Zu ikusi utsarekin, gu pozez bizi gera. Goizean goiz, eguzkia mendi artetik kirikaka asterakoan,

zu etxe inguruko lore artean barrena bati eta besteari usai egiñaz ikusten zaitugunean, gure biotzak egun guztiko alaitzen dira.

— Orren xamurra al da zuek pozez beteta edukitzea?

— Bai; guk ez dugu amets aundirik egi-ten. Orrelakoxeak gera: konformatu errexak. Ez dugu mundua ezagutzen. Emengo berri ba-karririk dakigu.

— Malizirik gabe esan al dituzu gauza oek danak, Tomas?

— Bai. Ala esan dizkizut; sentitzen ditudan bezela. Ez jarri eta ez kendu, biotzak esaten didan bezela.

— Mutil ona zera, Tomas, eta zutaz beti gogoratuko naiz.

— Ea, ba, ori egia dan eta noizean bein eskutitz bat edo beste bialtzen diguzun. Bada-kizu guk emen poz aundia artuko dugula zure berriak jakitean. Bañan... ez al da an bateonbat izango, zutaz oroitzen dana eta bearbada zuk asko maite duzuna?

— Ez, Tomas. Orain arte beñepein, nik ez dut iñorekin konpromisorik. Bañan baliteke, beste askori bezela, usterik gutxienean norbait azaltzea.

— Alakorik gertatzen bada, biotzetik suer-te on bat opa dizut, Aurora.

— Eskerrik asko, Tomas.

Aurora etxera doa. Poliki-poliki bere puskek antolatuko ditu, alde egiteko. Alixi eta Jose-

txori ikasketa batzuk utziko dizkiote. Nola egi-
ten dituzten, Lutxik kontu artuko diote.

Estancia San Jose'n aldaketa aundiak dira. Jorje puesteroak ere Chile'ra joan nai du ez-
kontzera. Illabete bat edo illabete bat eta erdi
an igaroko ditu, bere guraso eta senideen artean.

Jorjek ondo ezagutzen ditu, alde batetik
bestera igarotzeko Los Andes oietan diran bide
txiorrak. Etorri ere, zaldiz etorri zan; eta orain
ere zaldiz joan bear omen du.

Chiloé'ko ugarteetan jaioa da. Emengoei
chilotes deitzen diote eta Patagonia'n asko daude.

Aurora alde egiteko gertu dago. Pena aun-
dia utzi bear du danen artean. Alixik eta Jo-
setxok ere asko maite dute eta oso naigabetuta
geldituko dira. Lutxik ere lagun on bat galdu-
ko du. Etxe-apainketan eta zernaitan asko la-
guntzen baitzion. Danetarako balio duten neska
oietako bat baita. Bañan emen etzeukan geiago
zer egiñik. Ori berak ikusten zuen eta orregatik
artu du erabaki ori.

Orrelako gertaerak pamelietan ere izaten
dira. Senideak elkarrekin bizi eta egun batetik
bestera sakabanatu egin bear. Ori gertatu zaio
Aurorari ere. Denbora asko egin du San Jose'n,
ondo bizi izan da, Alixi eta Josetxori al duen
guztia erakutsi diote, Lutxi eta Kaxildarekin
ere ondo konpontzen zan; eta orain, azken mo-
mentuan, pena aundia dauka, danak utzi eta
alde egin bearra.

Gautxoengana joan da. Oek ere asko maite
ditu. Zenbat aldiz ibilli ote da beurekin zaldiz,

kontu kontari, bazterrak ikusiaz? Gautxoak zaldirik mantxoena eta ibiltzeko atsegiñena ipintzen zioten. Aurorari ondo egiten alegin guztiak egiten zituzten. Orain, banan-banan, daneri azken agurra. Besarkada eta musu bana eman diote, eta bera ere triste gelditu da.

Tomasek esaten dio:

— Aurora, ez al da propinarik?

— Zer esan nai duzu orrekin?

— Beste musu bana emango ez ote diguzun, ba.

Aurorak irripar egin diote, eta beste musu bana eman ere bai. Tomasek onela dio:

— Eskerrik asko, Aurora. Ez dakizu propina ori zenbat estimatzen dizugun. Bizi geran artean gogoan izango dugu.

Aurorak milla pentsamentu daramazki buruan. Mutil on eta gizajo oiek utzi ditu; batere gaiztakeririk eta iñori kalte egiteko asmorik ez daukatenak. Ortze bakardadean eta ixiltasunean jaio eta aziak, ezin ikusirik eta gorrotorik gabekoak. Arriskuko zaldi-eziketa eta gañontzeko lanak batere kejarik gabe egiten dituztenak. Alaiak eta maitekorrak, beren laguneri ere *hermano* deitzen diotenak. Munduko berri ez dakitenak, bañan beren bizimoduarekin konforme diranak eta besterik desiatzen ez dutenak.

Aurorak badaki, orain mundu bat utzi eta beste batera dijoala. Patagonia'n orrenbeste denboran bizi eta oitua, eta orain Buenos Aires aundi ortara joan bear. Bere bizimodua oso di-

ferentea izango da. Badaki iri aundietako berri: asko eta asko elkar engañatuaz bizi dirala; lagun urkoarenganako maitasunik ez dagoela; alde geienetan maltzurkeria eta gezurra dabillega; berarengana itx goxo eta legunekin urbiltzen diran gazteak, uxatu egin bear dituela.

Andresek autoa prest dauka eta Aurora badijoa Santa Cruz'era. Lutxi eta Alixik lagundu diote. Azken agurra Martin, Kaxilda eta Jose txori. Besarkadak eta musuak daneri. Josetxo ia negar egiñean gelditu da; bere maixtra ori asko maite baitzuen.

Atera dira eta autoa gautxoen etxe aurrean gelditu da. Daneri azken agurra musu banarekin egin diote. Tomasi, nai duenean, San Jose'ko goraberakin eskutitz bat bialtzeko eskatu dio. Nemesiori, berriz, Río Colorado aldera dijoanean, bere etxean azaltzeko.

Abiatu dira. Arratsaldean abioia artu bear du Aurorak, gauerako Buenos Aires'era joateko. Errira garai onean iritxi dira. Bazkaldu eta bueltatxo bat eman ondoren, aideportura joan dira.

Abioia etorri da. Bertaraño lagundu diote. Orain azken agurra daneri. Alixik negar egi ten du, ainbeste maite duen Aurora urrutira dijoalako. Abioia altxa da. Gorde arteraño danak begira daude. Lutxik eta Andresek ere naigabe aundia artu dute, Aurorak alde egindakoa.

MARTIÑEN KEZKAK

Andresek, Martiñen lagun izandako Pacheco'k zer egin zuen jakin nai luke. Au, len esan bezela, poliziak artu eta errira eramana zuten. Bera egondako puesto batean, puesteroa ilda azaldu baitzan.

Komisarioak Andresi esan dionez, puesto artan azkenik zein egon zan milikoak konprobatu dute. An eta emen galdezka, eriotza ori egingdako gizona billatu dute. Gañera, berak il zuela aitortu omen du. Bañan lendabaziko tiroa puesteroak bota zuela eta uts egin zuela. Orduan berak tira eta lurrera erori zala.

Komisarioak zergatik aserratu ziran galdetu zionean, onela erantzun omen zuen:

— Zaldi-laixterketa baten kontuak esaten ari giñan. Nik, laixterketa ori eta an zer gertatu zan ikusi bainuen, joko zikiña izan zala esaten nion, eta irabazle beste zaldiak bear zuela. Itz batean, tranpa egiña zala. Ezetz eta baietz asi giñan, eta, alako batean, errebolbera atera eta tiroa. Bai eta nik ere. Lurrean gelditu zan eta nik alde egin nuen.

Komisarioak Andresi esaten dio:

— Biak bakarrik zeuden eta ez dakigu gezurra edo egia esaten duen. Oraindik beiñepein giltzapean dago, eta baliteke Ushuaia'ra bialtzea ere.

Andresek:

— Pacheco nere puesto batean egona da, eta nere langille baten lagun aundia izana.

— Nun? Ushuaia'n?

— Ez; Buenos Aires'en.

— Banengoen, ba. Pacheco Ushuaia'tik bialdu berria baita.

Etxera joan orduko, Andresek Martiñi komisarioarekin izan duen elkar-izketa esan dio.

Martin beldurrak dago, nagusiak, nondik edo andik, Pacheco ori nun ezagutu zuen jakingo ote duen. Kaxildak ez dio iñori esan. Elenak ere bazekien, bañan sekreto ori berarekin eramán zuen.

Andresek:

— Aizu, Martin: orrenbeste denbora egin du poliziak Pacheco ori bialdu zutela, eta arrigarria da bere pusken billa oraindik etorri ez dala.

— Bai; ala da. Jorjek an dauzka danak altxata. Bañan ez dute bi sos ere balio. *Recado* edo *montura* zar bat, eman dizkioten puska zarrerekin al dan bezela ornitua. Zaldi ere *caballo patria*: beste norbaitena, gautxo zar batek emana. Eta beste gauza guztiak ere, bestek emanak.

— Bai, bañan Pacheco'k emen inguruan lana egin nai zuen, eta nik norbaiti itzegiteko gel-

ditu giñan. Komisarioak dionez, ordea, Ushuaia'tik atera berria da eta or egondakoeri nik beldurra diotet.

Martin, aurreko aldean zulo aundi bat ideki balitzaio bezela, mutututa gelditu da. Ez daki nundik asi eta gezur aundi au esaten du:

— Nik, milikoak etorri arte, ez nekien Pacheco Ushuaia'n egona zanik.

— Orain badakizu, ba.

Martiñek buru-auste izugarriak ditu. Andresek zerbait ote dakien kezketan dago. Kaxildarekin bakarrik egon nai du. Bañan Kaxildak orain lan asko du eta elkarrekin egoterik ez daukate. Nor edo nor beti inguruan dabil.

Illunabarra da. Eguzkia mendi artean gorde da. Kaxilda, berriz ere sukaldera dijoa afaria jartzera. Martiñek itzegiterik ez dauka. Gauez esatea pentsatu du. Bañan Kaxilda ixilik itzegiten ez dakiten oietakoa da eta aldameneko gelatik entzungo lioteke.

Danak afaltzen ari dirala, Lutxik onela dio:

— Oek egualdi zoragarriak, koltxoieri zapeteko batzuk eman eta arro-arro egiteko! Bear duteneri, ardi-ille geiago ipiñi eta antolatu, guri-guri lo egin dezagun.

Kaxildak:

— Bai; egingo dugu, ba, ori. Bigar bertan asiko gera.

Martiñek:

—Neronek lagunduko dizutet, lan aundirik ez daukat eta.

Lutxik:

— Zuek biok asi zaitezte, ba, bigar koltxoiekin, eta nik otorduak prestatuko ditut.

Urrengo goizean, or dijoaz Martin aurretik, koltxoi bat bizkarrean duela, eta Kaxilda atzetik. Manta batzuen gañean illea zabaltzen ari dira. Martiñek Kaxildari, Andresek esan dituenak esaten dizkio: Pacheco Ushuaia'n egona dala komisarioak badakiela; bañan puesteroaren eriotza orrekin ezeren kulparik ez daukala, eta aspaldi ontan or dabillega nunbait ere.

— Nik Andresi gezur aundi bat esan nion: Milikoak esan arte, Pacheco Ushuaia'n egona zanik ez nekiela. Eta bai al dakizu zer esan zidan? Or egondakoeri beldur aundia diotela. Orain, zerbait ote dakien kezka larritan nago, Kaxilda.

— Ara! Ori ere bai al dugu? Banekien nik, orrelako borondate onarekin etorri zeranean, zerbait bazenuela. Lepotik eltzen dizutenean etortzen zera neregana. Badakizu zuk gauza batzuk antolatzen, neri asko esan gabe. Onelako gizonakin bizi bear duenak, ez du nolanaikoa bear!

— Bañan zer esan nai duzu orrekin, Kaxilda?

— Erru eta kulpa guztiak zerorrek dituzula. Pacheco edo dalako ori onera etorri zeranean, ezagun bat bezela agurtzea ondo dago. Bañan zuk baño malizi gutxiago duen tonto aundirik ez dago iñun. Gauza batzutarako badaukazu malizia ustez. Bañan ni ez nazu engañatzen, gizajo bat zera eta.

— Bueno, bueno, Kaxilda! Nora abiatu zera?

— Nik badakit nora ni Joan.

Orrela mikoka ari dirala, Josetxo etorri zaio-te. Onela dio:

— Ori da sasoia, ori, aitatxo! Ardi-illeak, arrotu ezik, puskatu ere egingo dituzu zuk.

Kaxildak:

— Bai, gaur indarrean dago, aspaldian nekatu bearra baita.

Martiñek Josetxori:

— Artu ezak makilla, ea nola jotzen duken ik.

— Nik gautxoekin segituan joan bearra daukat.

Martiñek atzetik begiratzen dio Josetxori. Mutil polita eta egokia. Gautxoen antzera, pausoa motza eta airosoa. Ez bera bezela, pauso luze eta baldarrekoa. Askotan esaten diote berari:

— *Martin, tienes tranco de vasco alambador.*

Gautxoak, pauso luzea daukanari, orrela esaten diote. Argentina'ko eremu izugarri oiek alambadaz itxi zituzten geientsuenak, euskaldunak izan baitziran.

Martin, makilla eskuetan duelarik, pentsamentuan dago. Kaxildak esaten dio:

— Aspertu egin al zera?

— Ez; ez naiz aspertu. Gauza asko gogoratzen zaizkit, eta danetan geiena Josetxoren etorkizuna. Ori etxerako bezela artua daukate

emen. Alixi eta biak elkar maite dute, eta Andresek eta Lutxik maitasun ori ondo ikusten dute. Bañan, Josetxo kartzelan egondako baten semea jakingo balute, zer izango litzake?

— Aski zenduen zuzen ibiltzea. Zu, gaztetatik gaiztoa eta biurria izan zera. Lendabizi, ni engañatu.

— Aizu, Kaxilda: ortan ere kulpa danak nereak al dira?

— Lautatik iru bai beiñepein.

— Bejondeizula, lautatik parte batekin gelditzen zeralako.

— Oraindik ere txurliatzeko gogoia al daukazu? Obe duzu, ba, ixilik egon.

— Itzegin dezagun, ba, txorakeriak utzita. Zer iruditzen zaizu zuri, Kaxilda: Andresek ni nun egon nintzan badakiela?

— Nik zer dakit, ba?

— Emen zuk eta Elenak dakizute ori, eta zuek etzenioten iñori esango.

— Nola esango diogu, ba? Nik beiñepein ixil asko eduki dut ori, bai Euskalerrian eta bai emen. Eta Elena ere ez da Martin galtzera joango.

— Ez orixe.

Kaxildak:

— Pacheco edo dalako orrek ez ote dio norbaiti esan?

— Ez dut uste. Baliteke Jorjeri esatea. Bañan duda egiten dut, Jorjek, jakin arren, Andresi ori esatea.

— Dana dala, guk bizi egin bear dugu, eta aurrera segi dezagun eguneroko lanetan.

Martiñek:

— Buruko miña daukat, Kaxilda.

— Etxera joatean artu zazu aspirina pare bat.

— Bi geiegi dira. Bakarra naikoa dut.

— Ez; aspirina batek ez dio ezer egingo buru aundi orri.

— Mutillak: Au duk emakumea, au, gaizki itzegiten astean soka luzea daukana!

ELENAREN ERABAKIA

Karteroa *estancia San Jose*'ra etorri da, Andresentzat enkargu batekin. Errebista, periodiko eta eskutitz batzuk ekarri ditu. Oien artean, Martiñentzat eskutitz bat. Martin arrituta dago. Imprimitegiko letretan onela ipintzen baitu: *Alberto Tonini. Funeraria «La Estrella del Sur».* *Bahía Blanca.* Martiñek bere artean:

— Nundik eta nola dator eskutitz au neregana?

Eta idiki eta irakurtzen du:

— Nere adiskide Martin, Kaxilda eta Josetxo:

»Aspaldi ontan, zueri berri bat emateko gogo neukan, eta gaur lerro auek idazten dizkitzet, nik artu dudan erabakiaren berri jakin dezazuten.

»Bai, Martin. Elena, bakarrik bizitzen aspertu da. Elenari urte loretsu eta txoroak joan zaizkio eta lagun batengana dijoa. Nere aizparekin orain arte ondo konpondu naiz, bañan

geroari begira ezkontzea obe izango dudala uste dut.

»Gizon onek Alberto dauka izena. Bere aita zanak *funeraria* au utzi zion, eta negozio orrekin ondo dioa.

»Mutil bat dauka, sasoikoa eta azkarra, laguntzeko. Batzutan, difuntoa bost edo seigarren etxe-bizitzatik jetxi bear dutenean, naiko lanak ibiltzen omen dituzte. Emen ere, geiegi jan edo edan dutelako, edo biotza gelditu edo nola edo ala uste gabeko eriotza gertatu zaiotelako, egun batetik bestera asko iltzen dira. Oek, oraindik potxolo-potxoloak daudelako, astunak eta pisu aundikoak izaten omen dira. Beste batzuk, berriz, oean urtetan gaixorik egonak, askoz ere ariñagoak.

»Auto zar bat dauka. Bañan oraindik difunto bat aixa eramaten omen du illobira, naiz batzutan radiadoretik kea dariola joan. Ori, jendearen pausoa *primeran* joaten dalako omen da.

»Beste auto bat ere badauka, berria eta oso polita. Au, gu biok ibiltzeko, denbora daukagunean.

»Orra, ba, Martin, nere senargaia zein dan esan. Urtetan aurrera xamar dioa. Bañan zer egingo dut, ba? Aukerarik ez daukat eta norbaiti eldu bear. Gizaseme ona dirudi eta baiezkoa eman diot. Gero ikusi bear nolakoa dan.

»Patagonia'ko bizimodu lasai eta osasuntsu ori askotan aipatu diot, eta bera ere pozik joango litzake zuen artean egun batzuk igarotzera.

Bañan zalla izango da gu emendik ateratzea. Bat edo beste beti iltzen baita.

»Zuek zer diozute, ba, or, bakardade oietan? Kaxilda nola dago? Josetxo onezkero gautxo bat eginda egongo da.

»Zenbat aldiz oroitzen naizen, guk goizean goiz, udaberrian, osasuna gañezka dagoen leku oietan, zaldiz egiten genituen ibillaldietaz! Bearbada ez naiz geiago ibilliko. Onek pena eta nairgabe izugarria ematen dit.

»Askotan gogoratzen zaizkit Andres, errespetoko gizona, leiala eta biotz onekoa; Lutxi, Alixi eta Aurora, ainbeste maite nituenak; zuekin diran gautxo jator oiek. Itz batean, danok gogoan zaituztet.

»Bukatzer a noa. Urrengo illaren ogei ta zortzian ezkontzen gerala esan bear dizuet. Etorri nai baduzute, konbidatuak zaudete. Zuen berrien zai gelditzen naiz eta nai duzuten arte.

»Artu itzazute zuen lagun onengandik besarkada eta musurik maitekorrenak. Elena.

Martiñek eskutitz ori Kaxildari irakurri dio eta onek onela dio:

— Nun dira aspaldiko eskutitz usaidun aiek? Elenari ere, guri gertatu zaiguna: urtetan aurrera dijoala eta txorakerietako denborak joan zaizkiola. Alde ederra dago, eskutitz usaidun eta maitekor aietatik, orain bialdu digun ildakoen gastu edo fakturak egiten diran paper itxusi eta beldurgarri ontara.

— Beldurra zergatik?

— Ara, Martin: gure aiton-amonak, eta geiagok ere bai, esaten zutenez, gauean zakurrak oiu triste eta luzea egiten bazuten, eta ontzak ere etxe ondoan garraxi, pamilian ezbearren bat gertatu bearra zan. Nik gauza oiek sinistatzen ditut. Bañan Elenak bialdu digun paper onek oraindik beldur geiago ematen dit, eta segituan erre ezazu.

— Utzi itzazu sorginkeri oiek. Ez paper onek, ez zakur-zaunkak eta ez ontzaren oiuk, ez digute ezer egingo ez zuri eta ez guri.

— Gañera, Elena *funerario* batekin ezkonzen dala. Orretzek bai arritzen nauela ni.

— Zergatik? *Funerario* bat, iñor baño jatorrago eta gizon obeagoa izan liteke.

— Bai, bai. Ortan arrazoi duzu. Bañan denbora batean etzegoen Elenari esan besterik, *funeraria* bateko etxeko andre izango zala.

— Ez. Bañan persona baten urteetan aldaketa aundiak izaten dira. Etorkizunaren berri iñork ez daki.

— Gañera, gutaz eta goizean goiz zaldiz egiten zituen ibillaldietaz, askotan oroitzen omen da. Zu ere gogoratuko zera, Martin.

— Bai; gogoratzen naiz.

Elenak artu duen erabakia San Jose'n danak dakite, bañan ez da iñor Bahía Blanca'ra joango. Urruti baitago. Elenak, iñor azaltzen ez bada, pena aundia artuko duela ere badakite. Bera danekin ain kunplitua eta borondate onekoa izana eta orain baztertua bezela utzia.

Martiñek Kaxildari esaten dio:

— Gu Elenarekin zorretan gaude. Asko lagundu digu eta erregalo asko egin ere bai. Orain Andresi iru edo lau eguneko baimena eskatu bagenion, emango zigun eta onela ondo geldituko giñake Elenarekin. Bañan ez bagera iñor joaten, aserratu edo zapuztu egingo da.

— Ez, ez. Ez da orren aixa zapuztuko dan txoria. Len egon zan tokira berriz ere etorriko da, Martin eta familia ikustera.

Nemesiok, Río Colorado'ra, bere guraso eta senideak ikustera joan bearra dauka. Erregaloak berarekin bialtzea pentsatu dute Lutxik eta Kaxildak. Trena Bahía Blanca'tik igarotzen da eta bide galtzerik ez dauka. Baita gautxoak ere; danon artean zeozer bialdu bear omen diote Nemesiorekin.

NEMESIOREN IBILLALDIA

Nemesio Río Colorado'ra joateko prest dago. Aruntzean, Lutxi, Kaxilda eta gautxoen erregaloak eramango dizkio Elenari. Buenos Aires'era ere joan bear du, Aurorari bixita bat egitera.

Martiñek Nemesiori esaten dio:

— Elenari esan zaiozu, bere eztaietara joan ez geralako barkatzeko. Berak dakien bezela, gu urruti bizi gera joan-etorri oietarako. Gañera, besteren mende gaude eta ez giñan Andresi baimena eskatzera ausartu. Nik Elenari eskutitz bat egin nion eta gauza oek konprendituko dituela uste dut.

Nemesio danekin agurtu da. Andres eta biak Santa Cruz aldera abiatu dira. Errira iritxi, gauza batzuk erosi eta zerbait artu ondoren, Andres segituan berriz ere etxe aldera dijoa. Nemesiori, lasai ibiltzeko esan dio; egun batzuk geiago igarotzen baditu ere, ajolik etzaiola.

— Ondo ibilli.

— Eskerrik asko, Andres.

Nemesio, bueltatxo bat eginda, aideportura joan da. Abioia etorri danean, igo eta Buenos Aires'era. Emen jetxi eta zuzenean Auroraren etxera. Deitu eta Auroraren aizpa bat atera zaio. Nemesiok zein dan esan dionean, etxetik atera dala, bañan laixter etorriko dala erantzun dio.

Nemesio exerita dago. Alako batean, Aurora sartu da:

— Nemesio!

— Aurora!

Besarkada eta musu bana eman diote elkarri. San Jose'ko goraberak segituan jakin nai ditu Aurorak. Danak banan-banan izendatu ditu:

— Alixik eta Josetxok zer diote?

— Oiek ondo. Gero eta elkar maiteago.

— Bai, bai. Ez nioten oraintxe igerri maitemiñetan zeudela. Onezkero aundituak dira.

— Josetxo gautxo bat eginda dago. Gurekin ibiltzen da eta oso iaioa da zaldiz ere. *Petizo* oiek orain alferrik daude. Edozein zaldi igotzen du. Motxal-etziketetan ere laixter asi bear omen du.

— Lantegi ederra artu bear du. Nik ez dakit zuek ere arrisku ortan nola jartzen zera ten. Askotan egon izan naiz beldurrak, noiz min artuko duzuten.

— Oraindik ez dugu, ba, iñork miñik artu.

— Ez; ez duzute artu, bañan artu zenezateke.

— Zuk bai al dakizu, Aurora, motxal biurri oiek ezitzea zer dan? Gu bezela, gautxo asko dabil arrisku ortan. Bañan ia inork ez du miñik artzen. Bai al dakizu zergatik?

— Zergatik?

— Bakardade izugarri oietan Jaungoikoa gure aldemenean dabillelako. Gure neke eta arrisku guztiak ikusten ditu; eta larri-aldietan, zaldiak botako ez-botako gabiltzanean, bi aingeru bialtzen dizkigu alde banatatik, kontu egin eta zaldi gañetik erori ez gaitezen.

— Danetan zelebreena Tomas zala uste nuen nik. Bañan zuk ere badituzu ateraldi ederak.

— Zerbait pentsatzeko da. Edozein lantegitan entzuten da: «Alakok eta onelakok min artu dute». Eta guk eramaten ditugun astiñaldiak! Batzutan zutik eta korrika ateratzen gera. Bañan, beste batzutan, trapu zarra bezela indarrean lurrera boteak. Ala ere, geienetan miñik artu gabe. Orregatik, Norbaitek zaintzen gaituela uste dut.

— Itxura guztiak ditu. Aizu, Nemesio: bai al dakizu Elenaren eztaietan izan nintzala?

— Bai? Eta zer modu?

— Ondo. Bañan Elenak, zuetakorik inor azaldu etzalako, pena aundia artu zuen.

— Bai; ala artuko zuen. Bañan andik onera etortzen ez da erreza, egun bat edo bi igarotzeko. Lutxi, Kaxilda eta guk egiten dizkiogun erregaloak nik daramazkit.

— Ea ikusi, Nemesio. Gu, emakumeak, kuxkuxerak eta ikusmirak baigera.

— Bai; nik emakumeak ez ditut ondo eza gutzen, bañan ezagutzen dituztenak ala aitortzen dute. Ara nun dituzun erregalo oiek. Brazaleten au Lutxik, lepoko kollare au Kaxildak, eta zaldi ttiki au guk. Zillarrezkoa da. Perra bere iltze guztiekin galdu du: *símbolo de la buena suerte*. Eta zaldi ttikia perrari begira dago. Perratik zintzilik, kate ttiki batetik, txapa bat, onako au ipintzen duelarik: «*Estancia San Jose*’ko gautxoak suerte on bat opa dizute, Elena».

— Auxe bai polita, Nemesio. Zeñek erosi zuen?

— Tomasek.

— Lutxi eta Kaxildaren erregaloak oso politak dira; bañan ilusiorik aundiena onek egingo dio. Ikusten dan tokian ipiñiko du etxean.

— Bueno, Aurora, laixter joan bear dut.

— Nora joan bear duzu orain?

— Bahía Blanca’ra.

— Ez; gauez etzera joango. Gurekin afaldu eta gero, nere aizpa eta irurok buelta bat egitera aterako gera. Emen lo egin eta bigar goizean joango zera. Gañera, gauza geiago ere baditut zuri esan bearrak.

— Bai? Zer esan bear duzu, ba?

— Elenak zuretzako moduko neska bat badaukala.

— Zeñek esan dio neretzat neska bat billatzeko? Ori duk andre maistra, ori! Ez dezala

Elenak pentsatu, orrela eskeñitako neska batekin itxumustuan nolanai geldituko naizenik. Ni naiz, gautxoak esaten duten bezela, *más desconfiado que un caballo tuerto*.

Aurorak algara egin dio. Nemesio ondo eza gutzen baitu, eta beste gautxoak ere bai. Urte-tan elkarrekin bizi izan dira eta senide arteko konfiantza bezela daukate.

Afal ondoan, irurak atera dira. Ibillaldi bat egin ondoren, etxera datoz. Lo egin eta, oitura daukan bezela, Nemesio goizean goiz esnatu da. Oean ezin egona egin zaio. Mintzioren bat sumatu eta jeikitzeke zaletuta dago. Alako batean, Aurora jeiki da. Nemesio ere bai ondotik. Egun onak eman ondoren, gosaldu, danak agurtu eta Bahía Blanca aldera dijoa. Bi aizpak treneraño laguntzen diote.

Nemesio, zabaldegi izugarri oietan barrena, bere jaioterri aldera dijoa; *a la querencia*, beurek esaten duten bezela.

Ibillaldi luze oek aspergarri izaten dira. Ez mendi koxkor bat, ez basorik, ez errekarik. Dana berdiña, itxasoa bezela. Ordutan trenean joan eta beti gauza bera ikusten.

Nemesio Bahía Blanca'ra sartzera dijoa. Bere puskak eskuan artu ditu. Elenari zer sorpresa eman bear dion pentsatzen dago.

Trenetik jetxi eta Elenaren zuzenbidea irakurri du. Bati kale ori nun dagoen galdetu eta onek nundik nora joan bear duen esan dio. Kale ori artu eta patxara ederrean, bazterrak ikusiaz, etxeetako lumeroeri begira dijoa. Alako batean,

gero eta alderago, letra aundi batzutan: *La estrella del Sur*.

Arrimatu da, kortina bi aldeetara idekita dago eta nun ikusten duen Elena, makinaz idazten ari dala. Nemesiok ez daki zer egin: bertan gelditu, kristala jo edo barrura sartu.

Orrela dagoelarik, Elenak begiratu du eta salto batean or dioa Nemesiorengana, eldu eta musu batzuk ematera.

— Zer egiten zenuen or, Nemesio?

— Zuri begira, Elena.

— Zer ikara eman didazun bai al dakizu? Uste gabean ikusi zaitudanean, biotza ere saltoka asi zait.

— Barkatu, Elena.

— Barkatuta dago, Nemesio. Zergatik etzera lenago etorri? Nere eztaietara ez da zuetakorik iñor azaldu. Martiñek eskutitz bat bialdu zuen, etorri ezin zitekeala esanaz. Nik pena aundia artu nuen. Patagonia'tik nor edo nor azaltzea nai nuen; bañan iñor ere ez. Eskerrak Aurora Bahía Blanca'tik etorri zala.

— Bai; badakit. Beraren etxetik nator eta egun atsegin bat igaro zenutela jakiniaren gañean nago. Nun da zure gizona, Elena?

— Nere gizona difunto bat eramatera joan da. Emen bertan bizi zana, Pampa aldeko gautxozar bat il da. Oraindik denbora asko ez dala, bere alabarekin bizitzera etorri zan. Bañan emen kalean ezin etsi eta egun batetik bestera il egin da.

— Ilko ez da, ba? Bere denbora guztian Pampa aldeko zabaldegi oietan oitu eta bat-batean kale-zoko ontan bizitzea, gautxo batentzat bizia laburtzea da.

— Ori uste al duzu, Nemesio?

— Bai; neri ere orixe gertatuko litzaidake, eta beste geiagori ere bai. Elena, emen ditut zuretzako erregaloak. Brazaletan au Lutzik bialtzen dizu; kollare au Kaxildak, eta zaldi ttiki au guk.

— Oi! Orren polita zaldi ttiki au, zeñek erosi du?

— Tomasek.

— Bai; neri geien gustatuko zaidan gauza berexi du orrek. Milla esker daneri, Nemesio.

— Ez orregatik, Elena.

Auto beltz bat gelditu da aurrean, goien gurutze bat duelarik. Orrelakoak gutxitan ikusi dituzte Nemesiok eta beldurra sartu zaio barruan. Bi gizaseme sartu dira. Elenak Nemesiori:

— Nere gizona, Alberto, bere laguntzallearekin.

Elkarri eskua eman diote eta Elenak bere gizonari:

— Au, Patagonia'ko Nemesio.

— Ondo etorria izan zaite.

Nemesiori Alberto gizon jatorra iruditu zaio. Bahía Blanca'n jaioa da, guraso italiaroen semea.

Itz batzuk egin ondoren, berriz ere badijoaz biak beste baten billa. Auto itxusi ori aurretik kendu dute. Begien bistatik gorde danean, Nemesiok lasaitasuna artu du.

Berriz ere Elenarekin aurrez-aurre dago. Elenak esaten dio:

— Gaur gurekin gelditu bear duzu.

— Gauerako etxera joan nai nuke.

— Ez dizut joaten utziko. Aserratu egingo naiz.

— Geldituko naiz, ba.

— Bai al dakizu zuretzako moduko neska bat emen bertan dagoela?

— Bai?

— Bai. Lagunak gera. Adela du izena eta fruteri bat dauka. Zutaz askotan itzegin diot. Mutil on bat zerala eta gautxo jatorra. Lazo, boleadora eta zaldien tresnak nola egiten eta apaintzen dituzun. Apainketa ikusgarri oiek egiten, emakumeak bordatzen bezela aritzen zerala.

— Bai. Alegiñak egiten ditut. Lan oiek nere gogokoak dira.

— Segituan deituko diot eta emen zaudela jakiñaren gañean jarri.

— Nai duzun bezela.

Elenak deitu dio. Denda itxitakoan etorriko dala erantzun du. Nemesiok bere artean:

— Orrela datorren neska ez da oso lotsatia izango. Etzaizkio mutil baten aurrean masallak gorrituko.

Eta bere buruari:

— Erne, Nemesio! Altxa buru ori eta ez de dilla gautxo bat emakumeak zabaltzen dituzten sareetan erori.

Nemesiok badaki Elena, gaztexeago zanean, bide okerretatik ibillia dala. Kaxildak, Martin eta

Elenaren arteko artu-emanak ikusirik, bere amorrazioan gautxoeri ere esan zioten. Orregatik, Nemesio ez da pio-pio, Elenak esaten dizkion guztiekin eta eskeintzen dion frutera orrekin. Bere artean:

— *¿A dónde vas conmigo al hombro?*

Elena eta Nemesio elkar-izketan ari diralarik, Adela sartu da. Elkar agurtu eta berriketan ekin diote. Elenak, illunabarrean, bere gizonak lanak bukatzen dituenean, bueltatxo bat egin bear dutela esan diote; Nemesio gauean beraren etxean geldituko dala eta naiko denbora daukatela.

Adela, gero arte esanda, bere etxera joan da. Elena eta Nemesio gelditu dira. Elenak:

— Zer iruditu zaizu neska ori?

— Neska egokia da. Ez dauka aitzakirik. Bañan ez da neretzat egiten dana.

— Zergatik ez?

— Gautxo batek zer egin bear du orrelako emakume batekin?

— Ezkondu eta berari lagunduaz emen bizi.

— Ni ez nintzan jaio kale-zokoan bizitzeko eta berdura eta tomate saltzeko. Ni mendian jaio nintzan eta mendian bizi nai dut, txoriak kantatzen duten tokian, zaldiak irrintzi eta beiak marru egiten duten leku aietan. Itz batean, bakardadean.

— Zer izango da gero zure zartzaroa?

— Zartzaroak ez dit neri kezkarik ematen. Nerea ere beste askorena bezelakoa izango da.

— Arratsaldean danok aterako gera, eta zuk eutsi zaiozu Adelari besotik, eta kontu kontari ea zerbait egiten duzuten.

— Nik ez diot Adelari eutsiko, ez besotik eta ez ankatik. Elkarrekin ibilliko gera, bañan aurrera-biderik eman gabe.

— Bai tontoa zerala.

— Bai. Tontoa izango naiz. Bañan ni ez nintzan jaio neskak engañatzen ibiltzeko. Nik gaur edo bigar ezkontzea pentsatzen badut, Río Colorado'n badaude neretzat moduko mulata batzuk, zernaitarako balio dutenak, pizkorrak eta gautxo batentzat egokiak, eta oietako bat artuko dut.

ALDAKETAK

Nemesio, bere guraso eta senideekin egonalditxo bat egin ondoren, berriz ere San Jose'n dago. Río Colorado'ko berriak danak jakin nai dituzte. Martin eta Josetxo ere an daude. Josetxok galdetzen du:

— Zer motetako egaztiak daude Río Colorado'n?

Nemesiok erantzuten dio:

— Patagonia'n baño mota geiago daude. Lagoetan antzara, *cisne*, *flamenco*, aate, *gallartas* eta beste batzuk. Gañera, *martinetas* —epeerak, buruan ttonttorrarekin—, galeperrak, usoak, tortolak, *loros barranqueros*, *cotonos* eta abar. Txorietan, berriz, mota askotakoak. Danetan arrigarriena, *el tornero* deitzen diotena. Txori au, munduan danik langillenetakoren bat izango da. Alanbradak daude, *quebracho* deitzen dioten esolakin eginda. *Quebracho* au, egurrik gogorrenetako bat da. Gorri-gorria eta go-

gor purrukatua. Taladroak ere askotan autsi egiten dira bera zulatzerakoan, eta txori orren pazientzia ez da nolanaikoa: atzaparrekin esolari eutsi, kaxka-kaxka zulatu eta barrenean kabia egiteko tokia egin. Garrantzi aundia luke, txori orren lanak zenbat irauten duen eta zenbat milla golpe egiten dituen jakiteak.

Martiñek:

— Euskalerrian ere badaude okillak eta beste txori batzuk, zuloak egiten dituztenak; bañan egur ustelean. Beste bat ere badago, kuku deitzen diotena, seguru aski munduan dani alperrena. Onek txantxangorriari arrautzak kentzen dizkio, berak arrautza bat ipiñi eta or konpon. Alde ederra daukate, *el tornero* zintzo eta langille orrek eta Euskalerriko kuku alperrak.

Estancia San Jose'n goraberak izango dira laixter. Jorje Chile'ra dioa, andre koxkor baten billa, eta puestorako norbait bearko da.

Andresek ez dio oraindik iñori esan. Gau txoen artean, zeñi esango dion jakin naia dago. Ez da iñor, Los Andes'ko egalean dagoen puesto artan bakarrik egon nai duenik. Tomas, Alejandro eta Nemesio elkarrekin ondo bizi dira. Bañan bakarka egoteko ez dute balio.

Jorje bezelakoak gutxi izaten baitira. Bakarrik, amabost egun edo illabete bat iñor ikusi gabe, bere zakur eta zaldiekin, beti mendiko piztien atzetik.

Jorjeri azken egunak urbiltzen ari zaizkio. Andresek Martiñi deitu dio:

— Aizu, Martin: Kaxilda, Josetxo eta zu joango al ziñateke Jorjeren puestora, ura Chile'tik etorri arte?

— Ez dakit Kaxildak naiko duen.

— Deitu zaiezu bieri.

Martin, Kaxilda eta Josetxo Andresen aurrean daude. Au onela mintzatzen da:

— Badakizute Jorje ezkontzera dijoala. Ura etorri artean, zuek irurok puestora joatea nai nuke. Illabete bat barru, gutxi gora-bera, emen dugu berriz ere Jorje bere emaztearekin, eta orduan onera etorriko zerate.

Kaxildak:

— Ni, orrelako tokian bizitzeaz izutu egingen naiz.

Andresek:

— Etzera bakarrik. Iru lagun izango zerate. Gañera, Josetxok ango zoko guztien berri ikastea nai nuke. Lan aundirik ez daukazute. Noizean bein alanbradak ikusi. Alanbre-mordoxka bat artu, eta, beiak edo guanakoak autsitakorik baldin badago, konpondu eta aurrera. Jorjek *winchester* bat or utziko du, Josetxoren tzat beste bat artu emendik, bala-mordo batekin, eta ea zeñek geiago iltzen duzuten. Zakurrak ere aukerakoak dituzute: abestruzak arrapatzeko galgoa, ardi-zakurra eta gañera leoi-zakurra.

Martiñek:

— Neregatik leoiak lasai lo egingo dute leitze-zuloan. Ni ez naiz errebolbera eta linternarekin aien loa galeraztera joango.

Andresek:

— Zu ez. Bañan Josetxo sartuko da oraindik zulo oietan, Jorje etortzen danean.

Josetxok:

— Ez dakit, ba. Neri ere otz-ikara ematen didate leoiak.

Andresek:

— Orain, joango zeraten ala ez jakin naidut.

Irurok elkarri begiratu diote eta baietz esan dute. Kaxildak:

— Gu joaten geranean, Lutxik lan asko izango du.

Andresek:

— Ez. Or dauka Alixi laguntzeko. Bien artean aixa egingo dituzte emengo lanak.

Andik atera dira. Kaxilda, Josetxo eta Alixi elkar-izketan ari dirala konturatu da. Banatze orrek onik egingo ez diotela pentsatzen du bere artean.

Illabete ori oso luze joango zaiote bieri. Noiznai elkarrekin izketan, eta orain bearbada astebete edo geiago bata bestea ikusi gabe. Josetxori, mendiko piztien atzetik ibiltzea asko gustatzen zaio. Bañan bai etxean daukan lore polit ori zaintzea ere.

Alixik Andresi esaten dio:

— Zergatik ez duzu puestora gautxoetakoren bat bialtzen?

— Ez, Alixi. Josetxok bazterretako berri ikasi dezala naidut. Bere aita eta amarekin on-

do egongo da mendi alde oietan. Illabete bat bereala joango da. Gañera, auto zarra eramango dute eta nai dutenean etorriko dira. Guk ere tarteka bixita bat egingo diotegu, ea nola dauden ikusiaz.

Martin eta Kaxildak badakite, estanzian dauzkaten erosotasunak puestoan izango ez ditzutela. Estanzian gasolinazko motor bat daukate etxeko argia sortzeko; eta puestoan, orain eunka urte bezela, *candil* deitzen dioten krisallu bat, ardi-koipearekin argi egiten duena. Bañan estanziatik, gasolinarekin argi egiten duten farola pare bat eramatea pentsatu dute.

Jorje, alde egiteko prest dago. Zaldi-pare bat, danetan oberena, artuko du. Bere jaioterri-
ra, *islas de Chiloé*'ra, joateko, Los Andes izugarri oiek igaroko ditu. Gero, zaldi oiek an utzi eta bere emaztearekin Santa Cruz'era itxason-
tzian etorriko da.

Jaungoikoak egin zituen bezela daude oraindik ere mendi oiek. Ez da araño iritxi gizonaren gosea. Ez-eta lurrak aztarkatzea eta, *excavadora* edo tresna aundi oiekin, alde batetik bestera eramatea, gaur egun toki askotan gertatzen dan bezela.

Jorje eztanziara etorri da. Azken egunak ditu eta gauzak antolatu bear. Berak alde egiteko, Martin eta familiak an egon bear dute; eta oek ere, puestoan bear ditzuten puskak, prest jarri bear ditzute.

Andresek, Martin eta familiari esaten diote:

— Jorjek bigar joan bear du. Guk ere guztiak prest eduki bear ditugu. Azeri-zepo-mordoxka bat artu ezazute. An azeri asko da, eta arrapatzeko garai ona duzute. Illea orain daukate legunena, eta, saiatzen bazerate, dozenaka arrapatuko dituzute. Ortarako au egin bear duzute: aragi-puska batzuk edo ardien barrenak soka bati lotu eta zaldiz bide txiorretan barrena ibilli. Azeria, sudur onak baititu, arrastoan joaten da. Eta zuek an-emenka zepoak ipiñi. Baita ere oso ona da, illunabarrean, mendian, ildako animalien ezurrai su ematea. Usaia alde guztietara banatzen baita, azeriak sua egindako tokia billatuko dute. An ere zepo bat edo beste ipiñi.

Martin eta Josetxok, arrapatu dituzten zepo guztiak artu dituzte. Kaxildak Martiñi esaten dio:

— Orain mendi-arte artara joan bear. Askotan bakarrik egon bearko dut. Zuek, aita-semeak, or ibilliko zerate piztien atzetik egun guztian, ni etxean utzita.

— Ez; zu ere tarteka gurekin ibilliko zera.

— Gutxitan. Zaldiz aspertu egiten naiz eta geienetan etxe-zokoan egon bear.

— Denbora gutxian egongo gera, Kaxilda. Illabete bat bereala joaten da. Gañera, tarteka auto zarra artu eta eztanziara etorriko gera.

Bi autoak atera dituzte. Puskak antolatzen ari dira. Alejandrok laguntzen diote. Au ere Andresekin dijoa.

Josetxo, Alixirekin bazter batean, eskutik eldu eta ezin utzirik, munduari buelta eman bear balio bezela.

Andres etorri da eta daneri:

— Abiatu egin bear dugu.

Puesto aldera atera dira. Jorje an dago ateratzeko zai jarria. Bi zaldi oberenak lotuta dauzka. Zakur bat ere eraman bear du.

Bakardade oietan zakurra lagun ona da. Batez ere gauerako. Onela dijoanak, illuntzen zaion tokian lo egin bear du. Al badu, iturri baten inguruan geldituko da. Orregatik, lasaxeago lo egiteko, zakur bat bazterrean komeni da. Personak baño lo ariñagoa dauka, eta, zernai mintzio entzungo balu edo bateonbat etorriko balitz, segituan zaunka egiten du.

Jorje zaldiak lotzen asi da. Zaldi oiek txandaka igoko ditu. *Carguero* edo sokatik eraman bear duen zaldiari, bidean bear dituen puska guztiak jarri dizkio: aragia, gatza, *hierba mate*, kafea, ogia, zatoa ardoarekin, arropak, lotarako tapakiak eta abar. Ibillaldi luzea baita, ondo ornituta atera bearra dauka. Ez baitago iñun ere etxerik. Goian zerua eta bean mendiak eta errekek.

Jorjek bost zakur ditu. Bat berekin eraman-go du eta besteak Martiñi utziko dizkio. Onek ondo ezagutzen ditu zakur oek danak. Zeñek zertarako balio duen ere bai. Jorjek gauza bat eskatu dio Martiñi: egun pare batean zakur danak lotuta edukitzeko, bere arrastotik joan

ez ditezen eta bakarren bat mendi alde oietan galdu ez dedin.

Jorje prest dago. Danekin agurtu da eta abiatzera dioa. Ibillaldi on bat opa diote danak, eta aldez aurretik bere ezkontzarengatik zorionak eman dizkiote.

— Eskerrak danori!

Zaldi gañera igo da, eta, *carguero* ori ondolik duela eta zakurra atzetik, *cañadón* edo erreka baten barrena gorde da.

Jorjek, zaldi bat *palenque* edo *estaca* lodi bati lotuta utzi du. Andresek Josetxori esaten dio:

— Zaldi ori askatu ezazu eta *tropilla* edo zaldi-mordoxka ekarri, emen inguruan ibilliko dira eta.

Ekarri ditu eta korranean sartu. Andresek, Martin eta Josetxok bezin ondo ezagutzen ditu zaldi oek, eta, banan-banan, bakoitzak zer akats edo billaukeri dauzkan esaten du.

— *Lobano* au, *zaino negro* ori eta *overo* ura, bera etortzen danerako utzi itzazute, arriskukoak dira eta. Zuek, azeri-zepo eta orrelako trasteekin ibiltzeko, onako oek artu bear dituzute.

Eta mantxoena erakutsi dizkiote.

Jorjek bazterrak txukun utzi ditu. Bañan Kaxildak oraindik obeto nai lituzke eta antolaketan ari da.

Andresek esaten diote:

— Naiko aragia badaukazute. Zikiro bat ilda utzi dizute. Zuek emen bapo biziko zerate.

Jorje etorri artean ez dugu ardirik bilduko eta alanbradak ikusi beste zer egiñik ez daukazute. Nai duzutenean, *winchesterrak* artu eta abestrutz edo guanako iltzera joan. Erbi, eper edo beste egaztirik jateko gogoia daukazutenean, eskopeta artu eta nai dituzuten guztiak ilko dituzute. Zer geiago nai duzute? Lendabiziko egunetan, oitu arte, ezin-etsi aundia egingo dizute aldaketa onek. Bañan gero, nai baño len igaroko zaizute illabetea. Gañera, zerbait bear baduzute, autoan bereala joango zerate estanzia-ra. Eta, ezer bear ez baduzute ere, nai duzute-nean etorri guregana.

Alejandrok:

— Tomas, Nemesio eta ni edozein jaietan etorriko gera bueltatxo bat egitera. Gañera, Josetxorekin abestrutzeri korrikaldi batzuk egin-arazi bear dizkiotegu, galgoarekin eta boleadorakin. Orain gu bagoaz eta emen gelditzen zerate. Josetxo, zer esango diot Alixiri?

Kaxildak:

— Lenago ere, esan bear zizkionak esan be-riak izango ditu. Ez dio beiñepein eskutik be-realakoan utzi. Bazirudien etzutela urtetan gei-go elkar ikusiko.

Andres eta Alejandro San Jose aldera abia-tu dira, eta beste bat gelditzen da, pozik joan-go litzakena.

ZAKURREN OIUA

Lendabiziko egunak ondo dijoaz puestoan. Martin eta Josetxo or dabiltz azerieri zepoak ipintzen eta abestruzak iltzen, batzuk tiroz eta beste batzuk galgoekin. Kaxildak, otorduak ipiñi eta etxeko lanak egin. Ia beti bakarrik etxean. Ez dauka zaldiz ibiltzeko gogorik. Naiago du etxean egon.

Gaur igandea da eta gautxoak etorri zaizkiote. Tomasek Kaxildari, berak San Jose'n ibiltzen zuen zaldia ekarri dio, umilla eta ibilli atsegiñekoa, eta esaten dio:

— Ara emen zure *favorito* ori, nai duzunean ibillaldi batzuk egiteko.

— Eskerrik asko, Tomas. Gaur bertan zuekin aterako naiz. Bañan ez korrika ibiltzera, bazter batetik begira egotera baizik.

Josetxok *tropilla* ekarri du. Gautxoak, beren zaldiak ez nekatzearren, zaldi berri bana artu dute. Besteak gero etxera joateko bear baitituzte. Bañan danetan biurrienak eta pizko-

rrenak berexi dituzte, abestruzeri segi ibiltzeko.

Abestruzak nun dabiltzan ikusi dute. Zabaldu eta pixkanaka aiengana bildu dira. Abestruzak, zaldizkoak datozela ikusi eta etzan egin dira. Kaxilda, mendi-ttonttor batean gelditu eta begira dago. Zaldizkoak ia bertan diranean, abestruzak atera dira. Gautxoak boleadorak bota, bat edo beste arrapatu eta puesto aldera datoz.

Kaxildak:

— Auxe bai zaldia, ibiltzeko atsegiña!

Tomasek:

— Bai. Lendabiziko egunetik igerri nion orri, ezi-errexeta eta ibilli onekoa izango zala. Alagertatu ere. Orren gañean, baso bat ur ixuri gabe eraman liteke.

Gautxoak garai onez alde egin dute San Jose aldera. Irurak elkar maite dute eta anaiak bezela dira. Galocean kontu kontari dijoaz. Zaldia ere, etxe aldera dijoazenean, indarberritu egiten dira. Beren lagunetara lenbailen iritxi nai izaten dute.

Puestoan, irurak berriz ere bakarrik gelditu dira. Afal ondoan, Martin eta Josetxo, gautxoak ekarri dituzten periodiko eta errebistak ikusten ari dira. Kaxilda, sukaldea antolatzen. Orduak aurrera dijoaz, bañan oerako presarik ez dute.

Alako batean, zakurrak oiuz luze beldurgarri oietakoak egiten asi dira. Kaxilda izutu egin da. Martiñek esaten dio:

— Lasai, emakumea, lasai! Sorginkeriak kendu itzazu burutik.

— Ez da sorginkeria. Zakur danak batera oiugiten dute eta gure artean zerbait gertatu liteke.

Jose txok:

— Ama, zakurrak ez dakit; bañan, orrela mintzatzeko bazera, zuk izutuko gaituzu.

Martin atera da, zakurreri errietan eman diote eta ixildu dira. Etxean osterata sartu da eta esan du:

— Seguru aski, Jorjeren falta somatzen dute. Orregatik egiten dituzte oiugitarri oiugiek.

Kaxildak:

— Jaungoikoak nai duena izan dedilla.

Oeratu dira. Goizean, Martin eta Jose txo eguneroko ibillaldietara atera dira, azeri eta abestuzen atzetik.

Kaxilda etxeko lanak egiten ari dala, zakurrak zaunkaka asi dira eta atarira atera da. Gizon bat zaldi gañean dator. Bañan zaldi bakarra dakar; *carguerorik* ez. Etxe ondora etorri danean, Kaxildak esaten dio:

— Jexi zaite.

— Eskerrik asko.

— Zaldia askatu ezazu.

— Ez; segituan joan bear dut. Mesedez, poxpolorik bai al duzu?

— Bai; badut.

Kaxildak kaja bat ekarri dio. Gizon orrek galdetzen du:

— Zenbat balio dute?

— Ezer ez.

— Eskerrik asko.

Eta alde egin du. Kaxilda arrituta dago. Gizon ori nor ote zan? Emen geienak bi zaldi edo geiagorekin ibiltzen baitira, eta ori zaldi bakarrarekin.

Martin eta Josetxo azeri-larru batzuekin etorri dira. Kaxildak gizon bat etorri dala esaten diote, eta zaldi bakarrarekin.

Martiñek ez dio orri inportantzirik eman. Onela dio:

— Bearbada, bi lagun izango ziran. Poxporik gabe gelditu diranean, bat billa etorri eta bestea inguruan gelditu. Zer gizon-modu zan?

— Ez beiñepein gaztea. Berrogei urtetik gorakoa.

Martiñek:

— Auskalo zein izango zan.

Gizon ori zein zan, denbora asko baño len jakingo dute. Martin eta Josetxok ez dute ezagutuko. Bañan Kaxildak denbora asko izango du ezagutzeko.

Gizon ori, beste batekin, mendi koxkor batean gelditu da, puestoa aurrez-aurre daukatela eta Martin eta Josetxoren joan-etorriak ondo zaintzen dituztela. Oek egunero ordu beretsuan ateratzen dira eizera edo arrantzara; eta an, mendi ttiki artan, lau begi zorrotz daude, urrutira ikusten dutenak.

Mendian bizi denak, geienez bixta ona izaten du, urrutira begiratzen oituta dagoelako. Mendi koxkor ortan dauden gizon oiek ere ola-

koxeak dira, *matreroak*, mendiko abere izuen antzera beti alde guztietara begira daudenak.

Martin eta Josetxo gizajo oiek orain pozez dabilta piztien atzetik. Oitu ere egin dira bakardadean bizitzen. Berak nai duten bezela dabilta. Kaxilda ere pozez dago, egazti eta arrai goxoak eramaten dizkiotelako.

Igandea da. Andres, Lutxi eta Alixi etorri dira. Gautxoak estanzian gelditu dira. Autoaren soñua somatu dutenean, danak atera eta urte-tan elkar ikusi ez bezelako ongi-etorria egin diote elkarri.

Josetxok ere begi alaiak jarri ditu Alixi ikusi duenean. Segituan alde batera egin dira eta *txu-txu-txu*, bakoitzak bere kontuak. Gaurko eguna elkarrekin igaroko dute.

Lutxik jan-gauza batzuk eramán dizkiote, eta postrea ere bai.

Andresek, ea bazterrak ikusi dituzten galdetu diote Martin eta Josetxori.

Baietz erantzun diote. Alanbradak ondo daudela. Guanako bat zegoela trabatu eta illa. Bañan alanbrerik autsi gabe. Ardi, bei eta abereak ondo dabilzala. Josetxo eta biak egunero egiten dutela ibillaldi bat, azeri-zepoak ikusiaz. Azeri eta abestruz batzuk ere arrapatu dituztela.

Andresek Kaxildari:

— Etsi al duzu zuk, Kaxilda?

— Bai; oitzen ari naiz. Amabostaldi bat igaro dugu eta pake ederrean bizi gera. Askotan bakar-bakarrik egoten naiz. Bañan onera

oraindik bat bakarra etorri da. Ura, poxpolo bila. Eman nizkion eta segituan alde egin zuen.

Andresek:

— Alde batetik bestera zijoanen bat.

Kaxildak:

— Seguru aski.

Eguna puestoan igaro ondoren, Andres, Lurtxi eta Alixi San Jose'ra dijoaz.

Urrengo goizean, Josetxok *tropilla* ekarri du, aitak eta biak zaldi bana artzeko. Bana aukeratu dute eta gañerakoak biali. Martiñek bei bat jetzi du. Esnea Kaxildari eraman eta esaten dio:

— Gosaria prest al daukazu?

— Bai; nai duzutenean etorri.

Aita-semeak gosaltzen ari dira. Martiñek onela dio:

— Kaxilda, gaur illunabarrean erbi bat ilbear dugu beko lintzuran. Pixka batean gorde eta segituan etorriko dira.

— Nai baduzute, ekarri. Nik maniatuko dizutet.

Josetxok:

— Nik bateonbat ilko dut!

— Ea, ba, egia dan.

Zaldiak lotu dituzte eta ateratzera dijoaz.

Kaxildak:

— Lenbailen etorri zaitzte.

— Zergatik, ba?

— Nik zuekin naiago dudalako, bakarrik baño.

Martiñek:

— Lasai egon zaite, emakumea. Gu beti bezela etorriko gera.

Biak alde egin dute. Kaxilda etxeko lanak egiten ari da. Alako batean, zakurrak zaunka-ka asi dira. Kaxilda atarira atera da. Bi gizon lau zaldirekin ikusten ditu. Oietako bat ezagutu du: poxpoloak eskatu zizkion ura.

— Jetxi zaitezte —esaten diote Kaxildak.

Jetxi dira eta ezagutzen duen orrek esaten dio:

— Zuk gurekin etorri bear duzu.

— Nik nora joan bear dut?

— Guk esango dizugu. Zure arropak artu itzazu eta aguro ibilli.

— Nola joango naiz ba ni, nere senarra eta semea utzita? Gañera, momentu batetik bestera etorriko dira.

— Ez, ez dira etorriko. Atera berriak dira eta nora joan diran ikusi dugu.

Kaxilda, ezer egiterik ez daukala ikusirik, negarrez asi da.

— Ixo! —esan dio, eta Kaxildaren atzetik barrena sartu da—. Artu itzazu arropak eta oñetakoak, eta goazen. Zaldia or daukazu. Arropak *cargueroari* ipiñiko dizkiogu.

Kaxilda lur jota dago. Ez dauka anketan in-darririk eta zaldi gañera igotzen laguntzen diote. Arropak *cargueroari* ipiñi eta aurrera.

Kaxilda negar eta negar dijoa, juxtu-juxtuan zaldi gañetik erori gabe. Ez daki, ez nora dijoan, eta ez berarekin zer egin bear duten. Il-

tzera daramatela iruditzen zaio. Pentsamentu beltzez beteta dago bere burua:

— Lengo gauetako zakur-zaunka beldurgarri aiek pamilian ez-bearren bat gertatuko zala aditzera ematen zuten, eta orra neri gertatu ere. Amaika ixtillu igarotzeko jaio nintzan ni egun batean Beko-errota'ko zoko artan. Antxe gelditu banintz, naiz arrastaka bizi, nere Josetxorekin eta gurasoekin! Ameriketara etorri bear omen zan. Etorri nintzan eta orain *bandido* batzuen eskuetan nago.

Gauza oek eta geiago pentsatzen ditu Kaxildak, matreroen atzetik dijoalarik. Oraindik Andresen eremuetan barrena dijoaz. Or dabiltz nunbait ere Martin eta Josetxo lasai asko, orrelako gauzarik gogoratu gabe.

Kaxildak, alde batera ez ikustea obe dala pentsatzen du, matreroen aurrera azaltzea baño. Oek bi *winchester* daramazkite *cargueroaren* alde banatan, eta gañera errebolber aundi bana gerritik zintzilik. Martin eta Josetxo ere armakekin dabiltz, eta, Kaxilda matreroak daramatela ikusiko balute, elkarri tiroka ekingo lioteke eta seguru aski Martin eta Josetxo galeran aterako lirake, matrero oiek ondo tiratzen dute eta. Onezkero, bein edo bein poliziakin tiroka ibilliak izango dira, eta bateonbat il ere bai.

Andresen eremuetatik laixter aterako dira. Kaxildari gauza bat gogoratu zaio. Atera baño len, señale bat edo zeozer utzi nai du. Noizbait ere bateonbat, Martin, Josetxo edo gautxoren bat, alanbrada nola dagoen ikusiaz or barrena

igaroko dala badaki, eta zaldi gañean daraman jersey galdua bezela alanbrada-bazterrean uztea bururatu zaio. Bi matreroak aurretik dijoaz eta Kaxilda atzetik; eta diximulo aundiarekin jersey zaldi gañetik erortzen utzi du. Matreroak ez dira konturatu.

Beste aldera igaro nai luteke. *Tranquera* edo atakarik ez dago. Zaldi gañetik jetxi dira. Kaxildari ere, jeixteko esan diote. Alanbrada lasai xamar dago eta beste aldera gañetik igaroko dira. Bi matreroak alanbrada zanpatu dute, eta Kaxildak lau zaldiak banan-banan beste aldera pasa ditu.

Orain senarra eta semea atzean gelditzen zaizkio. Beren puesto edo bizi-leku artara azken aldiz begiratzen du. Gutxi gora-bera nun dagoen badaki. Begien aurrean dauka, Martin eta Josetxok eramango duten estuasuna eta larrialdia, bazkaltzera joan eta etxean iñor ez.

Oiek danak gogoratu eta negarrari eman dio. Matrero gaizto eta biotz gogor oiek ixilduarazi egin dute. Kaxilda nekatuta eta izututa dago. Ez daki noraño joan bear duen. Aurrean dauzkan mendi aundi oieri begiratzen diote eta bere artean esaten du:

— Nun ote dago *bandido* oen gorde-lekua?

Kaxildak matreroeri, nekatuta dagoela eta atsedean egin nai lukela esaten diote. Bañan onela erantzun diote:

— Lendabiziko iturrian geldituko gera. Zeozer jan, pixka batean egon eta gero berriz

aurrera. Oraindik oso urrutira joan bear dugu, eta illuntzen dan tokian gaua pasa.

Iturri bat arkitu dute. Zaldiak askatu dituzte, ura eman eta jaten ipiñi. Berak, *asado* edo ardi-kostillak erretzen asi dira, eta erretakoan jateari ekin.

Kaxildak jateko gogorik ez du. Jateko baño, gogo geiago dauka, al balu, iges egiteko. Bañan nola iges egin bi zakur oien artetik?

Atsedeen-aldi baten ondoren, berriz ere zaldiak lotu eta aurrera. Gero eta bide zakarragoak eta nekosoagoak. Matreroak ere, auntzak bezela, mendira jotzen dute.

GALDUAREN BILLA

Martin eta Josetxoren larri-aldia ez da nolanaikoa, etxera joan diranean. Kaxildarik iñun ere ez. Zoko guztiak arrotu dituzte eta arrastorik ez. Kaxilda eta bere arropak falta dira. Gañontzeko gauzak beren tokietan daude. Diru pixar bat ere bazeukaten gordeta, eta bere lekuan dago.

Martiñek Josetxori esaten dio:

— Goazemak estanziara. Zeozer an gertatuko uan eta an egongo duk.

— Eztanziara joateko zertarako eraman bear zituen arropa guztiak?

— Ori ala duk. Bañan ala eta guztiz ere, joan egin bear diagu.

Auto zarra artu eta San Jose aldera abiatu dira. Emen zeozer jakingo zutela uste zuten, bañan ezer ere ez. Danak arrituta gelditu dira gertaera orrekin eta ez dakite nora jo.

Andres eta Martin elkarrekin dira. Onela diote:

— Aizu, Martin: ez ote zaizu zuri beste norbaitekin joan?

— Ez. Ori bai ezetz. Arek bere jenioa badauka, bañan orrelakorik ez luke iñola ere egingo.

— Orduan zer gertatu da?

— Ez dakit.

— Nora edo ara jo bearra daukagu, ba.

— Arrigarria benetan gertatu dana. Ura etzegoen burutik arinduta. Sekula ez diot ezer igerri.

— Bateonbatego gogorrean eraman ote du, ba?

— Ori ere baditeke. Bañan or inguruan etzebillen iñor.

— Guk egin bear duguna da, bi autoak artu eta, bat alde batera eta bestea bestera, inguruko estanzia danak ikusi. Ea zeozer dakiten edo egun auetan norbait ikusi duten. Gaur ezeren aztarrenik ateratzen ez badugu, bigar milikoeri parte ematera joango gera. Orain, aruntzean, Josetxo eta Nemesio puestora eramango ditugu.

Andres alde bateko estanzia ikustera atera da, eta Martin puesto aldera. Josetxo eta Nemesio emen utzi eta inguruko etxe guztietara joango da.

Ibillaldi luze bat egin ondoren, lendabizi Andres eta gero Martin etorri dira San Jose'ra. Bañan biak joan bezela: ezeren berririk gabe. Estanzietan, bat edo beste alde batetik bestera

joaten ikusi dituztela esan diote. Bañan orrekin ez da gauza garbirik ateratzen.

Errira jetxi dira. Aideportuan, pasajeroen lista galdetu dute. Emen ere ez dago. Portura joan dira, eta egun auetan itxasontzirik atera ez dala.

Martiñek Andresi esaten dio:

— Orain zer egin bear dugu?

— Komisariara joan.

Poliziak jakiñaren gañean jarri dituzte, eta berriz ere San Jose'ra. Autoa somatu dutenean, gautxoak, Lutxi eta Alixi atera dira, danak zerbait jakin naiean, bañan len bezela gelditu bear.

Martin erotuta dabil, zer egiten duen ez dakiela. Andresek esaten dio:

— Puestora joan zaite, Josetxo eta Nemesiorengana. Momentuan beñepein gelditu zaitzte irurok bertan, ea nundik edo andik aztarenik ateratzen dugun.

Martin puestora iritxi danean, Josetxo eta Nemesio zerbait jakin naiean atera dira. Bañan Martiñek ezer ere ez daki.

Josetxo, ain ama-maite izanik, lur jota dago eta negar egiten du.

Nemesiori ere naigabe izugarria egiten dio gertaera onek. Urrikalduta dago. Afaria ipiñi du eta oeratu dira.

Goizean goiz jeiki dira, gautxoak oitura duten bezela, eta *mate* artzen ari dira irurak.

Martiñek Josetxori *tropilla* ekartzeko esan

dio, eta biak alanbrada danari buelta eman bear diotela. Biak alde banatara aterako dirala, eta:

— Elkarrenganutzen geranean, puestora etorriko gera. Eta zuk, Nemesio, zikiro bat ilko bazenu eta eguerdirako zeozer ipiñi, mesede egingo zenuke.

— Bai; nik oiek danak egingo ditut.

Aita-semeak atera dira. Josetxok Los Andes aldeko mugak ikusiko ditu, eta Martiñek beste aldea.

Alanbrada-bazterrean bide txiorra izaten da, ardiak, guanakoak, bei eta mendiko beorrak dabilzala egiña, eta Josetxo, bazterretara begiratuaz, trotean dijoa.

Alako batean, or ikusten du trapu bat. Zaldi gañetik jetxi eta artu du.

— Amaren jerse bat! Nere ama emendik eraman dute!

Zaldia eskutik artu eta oñez dijoa, alde guztietara ondo begiratuaz, Alanbrea lasai dagoela konturatu da. Zanpatuta ibillitako itxura dauka. Zaldien anka-arrastoak ere badaude.

Josetxok, segituan, bere ama matreroak eramana izango dala pentsatu du; emen atakarik ez baitago, alanbre gañetik pasa dirala.

Mendi aundi oietara begiratzen du. *Cóndor* egazti aundi oietakoak ikusten ditu, bueltaka dabilzala. Bere artean onela esaten du:

— Oiek, onezkero, nere ama bearbada ikusi dute.

Esaten dutenez, matreroak mendi-tontorretan dituzte beren gorde-lekuak. *Observatorio*

edo *mirador* bat bezela da berak dauden tokia, alde guztietara ikusten dutelarik. Armaz eta munizioz ondo ornituta daude, gerratean bezela. Oek geienak, justiziaren atzaparretan ez erortzarren, bakardade oietan gordetzen dira. Oietan asko, eriotzaren bat edo beste egiñak dira eta polizietatik iges dabilta.

Josetxok, bere amak oiek daukatela badaki. Dudarik ez dago. Bañan zein joaten da burua azaldu ta oiengana? Oiek, banan-banan, ara dijoazen guztiak botako lituzteke.

Josetxok denbora asko egin du emen eta aitak eremu aundiagoak igaro bear izan ditu. Alako batean or dator Martin. Josetxok esaten dio:

— Ezagutzen al duzu au?

— Amaren jerse bat! Nun billatu duk ori?

— Emen zegoen, alanbrada-bazterrean. Begira ezazu alanbrea zanpatu eta nundik pasa diran. Ama, matreroak eramana da.

— Bai; dudarik etzegok. Or egongo duk, mendi-kaxkoren batean, bandido oiekin.

— Nik joan bear dut, ba, amaren billa, norbaitek laguntzen baldin banau.

— A, gizajoa! Zer uste duk: oietara nolainai joan litekela?

— Arrisku aundia dagoela badakit nik. Bañan, ama salbatzarren, nere bizia utziko dut!

— Lendabizi San Jose'ra joan bear dugu eta Andresekin egon. Zer egin diteken, berak esango digu.

Martin eta Josetxok, puestora joan diranean, sorpresa aundia eraman dute: an dago Pacheco. Aita-semeak agurtu ditu. Nemesiok esanda, Kaxildaren gertaerarekin jakiñaren gañean dago. Martiñi onela esaten dio:

— Zer pasa da Kaxildarekin?

— Guk ez dakigu ezer ere. Bakarrik, mendi aldera eramana dala. Dudarik atera gaituena emen da. Jerse au Kaxildarena da. Alanbrada-bazterrean zegoen. An daude alanbrada zanpata eta beste aldera pasatako zaldi-arrastoak. Euririk ez du egin eta arrastoak nabarmen daude.

Pacheco'k:

— Orain zer egin bear duzute?

— Lendabizi Andresengana joan eta zer bide artu bear dugun ikusi. Eta zuk, zer diozu?

— Ni, badakizu puesto ontatik milikoak batere kulparik gabe eraman nindutela eta, puestero ura il zuena arrapatu zuten arte, presondegian egon nintzala. Arrapatu zutenean, zigortuaz, berak il zuela aitortu zuen. Orain Ushuaia'n dago. Ni or ibilli naiz alde batetik bestera, bein ardi mozten, bestetan *arreos*, ardiak toki batetik bestera eramaten eta orrela. Orain toki batean nai nuke lan egin.

Martiñek:

— Andresekin itzegingo dugu.

Martin eta Josetxo, auto zarra artu eta San Jose'ra dijoaz, Kaxildaren jerse ura eskuan dutela. Iritxi diranean, danak urbildu zaizkiote.

Lutxik eta Alixik segituan ezagutu dute jerse ori. Lutxik:

— Jerse au neronek egin nion eta ondo eza-
gutzen dut.

Danak arrituta daude; ao zabalik. Martiñek Andresi esaten dio:

— Orain biok Santa Cruz'era joan bear
dugu eta komisarioarekin itzegin. Aruntzean,
Laguna Grande'ko milikoeri esango diotegu.
Bañan oek ez dira ezertan asiko, komisarioak
agindu gabe.

— Ez; ez dira ezertan asiko. Milikoak le-
nago ere eskarmentatuak daude mendi oietan
matreroen atzetik, eta bat baño geiagok bizia
galdu du.

— Pacheco etorri dala bai al dakizu?

— Bai? Eta nun ibilli da orain arte?

— Ardi mozten, *arreoak* egiten eta egokitu
zaizkion lan guztietan.

— Eta orain zer egin bear du?

— Estanzia batean gelditu nai luke.

— Orain beiñepein aurreragoko lanak ba-
ditugu eta puestoan gelditu dedilla.

Andres eta Martin komisarioengana joan
dira. Jersea erakutsi diote, eta alanbrada igaro
eta mendi aldera joanak dirala esan ere bai.

Komisarioak esaten diote:

— Bai; bañan nun dauden zeñek daki?
Mendi izugarri oietan zeñek billatzen ditu?
Bearbada, mugak igaro eta Chile'ko partean di-
ra. Billaketa au, zuek uste duzuten baño zalla-
goa da. Nik, milikoak bialdu baño len, zeozer

jakin nai nuke. Ortarako oberena auxe derizkiot: lagun bat edo beste diximulo guztiarekin mendi barru oietan barrena ibiltzea, ea zerbaiten aztarrenik billatzen duten.

Andresek:

— Emen kartzelan egondako Pacheco anda nere puestoan. Nik Ushuaia'n egondakoekin tratu gutxi nai nuke. Bañan gizon ori aproposa iruditzen zait mendi oietan barrena ibiltzeko, aitzaki-maitzaki bazterrak ikusiaz. Zaldi bakarra dauka; bañan nik beste bat, *carguero*, emango nioke. Ibillaldi luze baterako bear diran gauzak ipiñiko dizkiogu: arropa, jan-gauzak eta abar. Gañera, soldata emango diot; eta, Kaxilda nun dan somatzen badu, sari ederra izango du.

Komisarioak:

— Zuk pentsatu duzuna, ondo iruditzen zait. Zerbait orrela egin bearra dago. Ezin litezke poliziak or barrena itxumustuan biali, nun dabiltzan ez dakitela. Lendabizi, nora jo bear duten jakin bear dute. Nun dan jakinda ere, naiko lanak izango dira, eriotzarik gabe matre-roeri emakume ori kentzen.

Andresek:

— Pacheco'rekin itzegingo dugu. Mendi alde orretara joan nai duen galdetuko diogu. Bear dituen gauza guztiak emango dizkiogu eta ea arrastorik ateratzen duen.

Komisarioak:

— Ea suerte on bat izaten duzuten.

Andresek:

— Saiatuko gera.

Andres eta Martin etxe aldera atera dira. Estantzian egonalditxo bat egin ondoren, segituan puestora dijoaz. Emen dira, zerbait jakin naiean, Josetxo, Nemesio eta Pacheco.

Andresek, komisarioak esandako guztiak esan dizkiote: ezin litekela itxu-itxuan polizirik eremu izugarri oietara bialdu; aurretik argibideren bat bear dutela.

Andres Pacheco'ri mintzatzen zaio:

— Zu, Pacheco: joango al ziñake mendi oietara, aitzaki-maitzaki bazterrak ikusiaz, ea zerbait jakiten duzun? Nik aurretik diru puxka bat emango dizut, eta, gañera, or zabiltzan denbora guztian, soldata irabaziko duzu. Eta, Kaxilda nun dan somatzen baduzu, sari ederra ere izango da. Ori bakarrik jakin nai genuke: nun dan. Gañerakoa poliziak egingo dute. Konforme al zera?

— Bai, saiatuko naiz.

Nemesiori esaten dio:

— Bi zaldirik oberenak berexi itzazu, eta bear dituen gauza guztiak jarri *cargueroan*. Bearbada egun asko igaroko ditu mendi aunditan eta ondo ornituta joan bear du, an ez dago ezer ere eta *winchesterra*, errebolbera eta bala-mordo bat ere eraman ditzala, zerbait gertatuta ere. Zakur bat badauka eta ori izango du bere laguna.

Pacheco, danon artean antolatu eta mendi aldera dijoa, beñere ibilli ez dan tokietara. Ka-

xilda ezagutzen du. Bañan ikusita ere ez leu-
kake ura matreroeri kentzerik. Ez daki ez nora
dijoan eta ez noiz etorriko dan. Arriskuko ibi-
laldia asi du.

Andresi buru-auste gogorak sortzen zaiz-
kio. Kaxilda, mendi aldera eramana, iñork ez
dakien tokira. Orain Jorje puesto artarako pen-
tsamentuan bere emaztearekin etorria; eta onek
bakarrik egotera joango ez dala esan dionean,
Andres zer egin ez dakiela dago.

Jorje, asko estimatzen duen mutilla da. Gau-
zak beren tokietan jarri nai lituzke. Bañan nai-
ko lanak izango ditu. Kaxilda eramate orrekin
bazter guztiak naasi dira. Orain zein nun jarri
ez daki. Onela mintzatzan da:

— Aizu, Jorje: orain zer egin bear dugu?

— Neronek ere bai al dakit zer egin? Mar-
ta, puesto bateko bizimodua nolakoa zan jaki-
ñaren gañean zetorren, eta nerekin batean bizi-
tzeko pozez zegoen. Bañan, Santa Cruz'en Ka-
xilda matreroak eramana izan bear zuela esan
zigutenean, segituan esan zidan: Ni ez naiz ba-
karrik egotera joango.

— Ez nau batere arritzen ori esateak. Ka-
xilda urtetan aurrera dijoan emakumea da, eta,
ura eramán dutenean, Marta bezelako gazte ba-
tekin aurki saiatuko lirake. Nik urte-mordo bat
daramat emen, eta sekulan ez da orrelakorik ger-
tatu. Puestero asko dago bazterretan beren
emazteekin, bañan pakean bizi dira. Emendik
gorago, oso urruti, bai; emakumeren bat edo
beste galdu izan dala entzun izan dut. Bañan

emen beñere ez. Orregatik, bai al dakizu zer pentsatu dudan? Zu eta Marta gurekin estanzian gelditu zaitezte, eta Martin, Josetxo eta Nemesiori orain bezela jarraitzeko esango dietet, Kaxildaren berriak jakin arte.

Jorjek:

— Geldituko gera.

CERRO REFUGIO

Pacheco an dabil mendi barrenean ara eta onera, galduta balebil bezela, zokorik zoko eta gallurrez gallur, ea zerbaiten aztarrenik ateratzen duen.

Tarteka, eizean dabillen indio bat edo beste ikusten du. Oek, an inguruan iñor bizi ez dala esaten diote.

Pacheco, zaldiaik geiegi beartu gabe, poliki-poliki dabil. Gaua datorrenean, iturri-ingururen batean gelditzen da. Ixiltasuna eta bakardadea. Goizean goiz zaldia lotu eta aurrera.

Bein batez, mendi koxkor batzutan barrena dabilela, gizaseme bat zaldiz ikusten du eta arengana dijoa. Egun onak eman ondoren, galduta dabilela eta ea nun dagoen galdetzen dio.

Onek, berak ere paraje aiek ondo ezagutzen ez dituela esaten dio; etorri berria dala eta zaldi baten billa dabilela; beldur dala *a la que-rencia* edo len zan tokira joan ote zaion.

Pacheco'k, zaldia nekatu xamarrak dauz-
kala esaten dio; bañan ea iñun ikusten duten
lagunduko diola.

Gizaseme orrek Pacheco'ri esaten dio:

— Zaldia, *tostado* bat da. Ikusten baduzu,
nun dan nik jakin dezadan, errebolberarekin
tiro bat tira ezazu eta joango naiz. Etzaitu zu
ezagutzen eta ez dizu arrimatzen utziko.

Pacheco'k, zaldi ori erreka-bazter batean
dabilela ikusi eta tiro bat tira du. Zaldia ez
da batere izutu, tiroekin oituta baitaude.

Gizon ori etorri da, zaldia artu eta Pache-
co'ri esaten dio:

— Goazemazu nerekin. Zaldia indarberri-
tu arte, egun bat edo beste gurekin egingo du-
zu.

— Geldituko naiz, ba.

Orrela, biak zokorik zoko mendi artean ba-
rrena joan dira. Arri azpian, legorpe batean, an
dago beste bat jatekoa ipintzen.

Pacheco'k agurtu du. Beste gizaseme orrek
bere lagunari Pacheco'rengatik esaten dio:

— Au galduta dabillen bat da. Zaldia ere
nekatuta dauzka. Egun pare bat gurekin egingo
du.

Pacheco'k ez ditu zaldia nekatuak eta ez
dabil galduta. Nai lukena, Kaxilda nun dagoen
jakitea da.

Alde guztietara begiratzen du. Matreroak
dirala segituan antzeman dio. An dauzkate baz-
terrean bi *mauser* edo fusil, tiro luzeetarako
winchesterra baño obeak. Gañera, errebolber

aundi bana gerrian. Jatekoa ipintzen ere, beren errebolberakin. Orregatik, Pacheco seguru dago matreroak dirala.

Segituan, ura berotu eta *mate* artzen asi dira. Lendabizi itz neurtuak, bañan poliki-poliki berriketan.

Bakardade aietan zer dabillen galdetu diote Pacheco'ri.

Onek, estanzia askotan lana eskatu duela erantzun diote, bañan beretzako modukorik ez dagoela eta mendi aldera jo duela.

— Emen ez duzu, ba, lanik billatuko. Mendi auetan bizi geranok ez gera aberatsak, bañan lanik egin gabe bizi gera. Or be alde ortan ibilli zeranean, poliziarik ikusi al duzu?

— Bai, bañan emendik urrutian: Laguna Grande'n.

— Gu, oietatik iges gabilitya. Orregatik, erne bizi bearra daukagu. Badaude geiago ere, gu bezela, mendi-zuloetan gordeta.

Bietako batek:

— Gaur egualdi ederra dago eta arropa batzuk garbitzera iturrira noa. Bereala legortuko baitira.

— Ni ere zurekin joango naiz.

— Nai baduzu, etorri.

Abiatzerakoan, Pacheco'ri esaten dio:

— Artu ezazu fusil ori.

— Zertarako?

— Guk, lo ere, fusilla bazterrean dugula egiten dugu.

— Zuek zakur bat bear zenuteke emen.

— Bai orixe! Naikoa litzake gu nun gorde-
ta gauden adierazteko. Guk emen, zaldiak bes-
terik ez dugu bear. Oek iñoiz irrintzi egiten
dutenean, belarriak tente jartzen ditugu guk,
norbait ote datorren.

Arropak garbitu eta onela esaten dio Pacheco'ri:

— Guk emakumerik ez dugu eta geok gar-
bitu bear arropak ere.

Pacheco'k:

— Emen ez da emakumerik izango.

— Bai. Beste batzuek badaukate, orain be-
rriro nunbaitetik ekarria. Ikusten al duzu an
urrutian mendi meiar luze ura?

— Bai; bakar-bakarrik dagoen ura.

— Bai. Inguruan beste mendirik ez dauka.
Orri *Cerro Refugio* deitzen diote. Antxe, gu
bezela ezkutatuak, iru lagun bizi dira. Ezagu-
tzen ditugu. Tarteka, bixita egitera joaten gera.
Lenago emakumerik etzeukaten. Bañan, azken
aldian izan giñanean, emakume bat an zan. Ez
oso gaztea; berrogei bat urtetik gorakoa. Otor-
dua berak ipiñi zuen eta elkarrekin jan genuen.
Oso itz gutxi egiten zuen emakume orrek. Ez
genion galdetu ez nungoa zan eta ez ezer. Ba-
tek Kaxilda deitu zion edo zerbait orrela. Ez
dakigu izen ori italianoa edo nungoa izan dite-
ken.

Pacheco ixil-ixilik dago. Matreroak berriz
ere:

— *Cerro Refugio* ori, emen danik tokirik
oberena da ezkutatzeko. Alde guztietatik urru-

tira ikusten da, norbait baldin badator. Estalpe edo legorpe aundiak ditu, zaldi bat edo beste ere barruan egoteko modukoak. Mendi orrek daukan txarrena, urik ez izatea. Zaldieri, beko errekan edan-arazten diote; eta goian bear duten ura, ontzietan eramán.

Pacheco'k:

— Jan-gauzakin nola antolatzen zerate?

— Gu, erritik zerbait bear dugunean, aldeeneko estanzietara joaten gera eta bear ditugun gauza guztiak ekartzen dizkigute. Beraí ere, gurekin ondo egotea komeni baitzaiote. Txarrean asi ezkeró, galeran aterako lirake. Badakite gu oso onak ez gerala; zerbaitegatik gaudela mendi-zuloetan gordeta. Ez, noski, denbora bateko *ermitaño* aiek bezela, geren burua gogor artu eta barau egiteko. Aragi-puska ederrak jaten ditugu guk, eta ez degu geren bururik zigortzen. Bañan beste norbaitek zigortuko ote gaitun beldurra daukagu. Gu elkarrekin ondo konpontzen gera. Guk edo besteak, bei edo beorren bat iltzen dugunean, danon artean banatzen dugu. Emen, badakizu, bei edo beorizuak daude. Oek jaberik ez daukate. Arrapatzen dituenarentzat izaten dira. Tiroz iltzen ditugu eta inguruko guztieri izter bana edo puska aundi bana eramaten diotegu. Bi edo iru lagun dauden tokian, bei bat il eta aprobetxatu baño len ondatu egingo litzake. Onela, berriz, ia dana elkarren artean banatzen dugu. Guk, danon artean, elkartasun bat daukagu. Binaka edo irunaka bizi gera. Bañan, poliziak etorriko

balira, kontraseñak ditugu: alderako tiro jakiñak eta urrutirako suak. Ondo armatuta gaude eta munizioz ornituta. Ori badakite milikoak ere. Orregatik, onera etorri baño, naiago dute Laguna Grande inguruan ibilli. Gu nun geran ere badakite. Lenago etorri izan omen dira. Bañan bat edo beste sekulako emen gelditu ere bai. Zuk daramazun fusil ori, ildako miliko baten omen da, eta nere lagunak daukana ere bai. Guri, beste gordeleku batean diran lagun batzuk eman zizkiguten.

Arri-zulora arrimatu dira. Beste lagunak an dauka *asado* edo zekorraren kostillak erreta. Ardorik ez dute eta ura edan bear. Pacheco'k, zatoan ardo pixka bat badula esan diote. Dannon artean ustu dute, eta gero ur freskoa.

Matrero batek Pacheco'ri esaten dio:

— Bigar goizean estanzia batera ardo billa joan bear dut.

Pacheco'k:

— Nik ere, berriz be alde ortara abiatuko naiz.

— Bai; obe duzu. Emen, mendia eta erreka besterik ez daukazu. An, nunbait ere lana billatuko duzu.

Biak atera dira. Estanzia bixtan daukate. Pacheco'k esaten dio:

— Ni beste aldera nijoa.

— Nai duzun bezela.

Pacheco'k eskerrak ematen dizkio eta ikusi arte.

Pacheco, bakarrik egoteko eta gauzak pentsatzeko zaletuta zegoen. Ibillaldi nekoso ori ez da alferrikakoa izan. Andresek eman zizkion aginduak bete ditu. Kaxilda *Cerro Refugio*'n dagoela badaki. Bañan ura andik zeñek ateratzen du? Onek lanak eta buru-austeak emango ditu. Berak, beñepein, al dituen guztiak egin ditu bere aldetik. Gañontzeko gora-berak, Martin eta Andresen eskuetan utziko ditu.

Poliki-poliki dijoa. Gaua gañean du eta erreka-bazterrean gelditu da. Urrengo goizean goiz zaldiak lotu eta aurrera. Andresen muge-tara noizbait ere iritxi da. Alanbrada pasa eta puesto aldera dijoa.

Ia bertan dago. Zakurrak zaunkaka asi dira. Martin eta Josetxo atera eta or datoz korrika. Martiñek:

— Ezer jakin al duzu, Pacheco?

— Bai. Badakit Kaxilda nun dan.

— Ikusi al duzu?

— Ez. Bañan Kaxilda matreroak daukate. Nun dan, beste matrero batek esan dit; berri-ro ikusi duela, eta gañera berak ipiñitako bazkaria jan zuela.

— Nun da, ba?

— Emendik urruti, *Cerro Refugio* deitzen dioten mendi zorrotz batean.

Martiñek:

— Nemesio tropillaren billa joan da. Bereala etorriko da. Josetxo eta gu biok, auto zarra artu eta estanziara joan bear dugu.

Jose txok Pacheco'ri:

— Nere ama nun dan jakin eta zertako ez duzu ekarri?

— A, gizajoa! Ura andik ateratzeko, ondo istudiatu bearra zegok.

Nemesio tropillarekin etorri da. Pacheco ikusi duenean, ez du tropilla korralean sartzeko denborarik izan. Pacheco'ri ongi-etorria egin eta gauzak jakin-naia dauka.

Martin, Jose txo eta Pacheco San Jose aldera abiatu dira. Iritxitakoan, danak korrika atera dira. Pacheco ikusi dutenean, ezeren berririk baduen jakin nai dute. Baietz esan diote; Kaxilda nun dan badakiela. Bañan matreeroeri kentzeak lanak emango dituela.

Andresek:

— Zuk badakizu, beraz, nun dan.

Pacheco'k:

— Bai; badakit.

Andresek:

— Segituan Santa Cruz'era joan bear dugu, komisarioarekin itzegitera. Pacheco, Martin eta irurok joango gera.

Santa Cruz aldera abiatu eta Laguna Grande'n gelditu dira. Emen zerbait artu dute. Andresek, bertako milikoak jakiñaren gañean jarri bear dituela esaten du.

Oek erantzun diotenez, komisarioaren agindurik gabe ez dira ezertan asiko; eta, agindu eta gero ere, ez dira presaka ibilliko, goi artan nola artuko dituzten badakite eta.

Santa Cruz'era iritxi eta segituan komisarioarengana joan dira. Komisarioak Pacheco'ri:

— Nun dan zuk bai al dakizu?

— Bai. *Cerro Refugio*'n.

— Zeñek esan dizu?

— Matrero batek.

Eta gauza guztiak, diran bezela esan dizkio. Komisarioak:

— Nik ez dut mendi ori ezagutzen. Bañan, esaten dutenez, bandidoak gordetzeko apropos egiña dala dirudi. Nik mendi orri, *Refugium peccatorum* deituko nioke. Emengo zarreri entzun izan diotenez, mendi luze ori beti izan da matreroen gordeleku. Eta ara joan diran poliziak, ez dira danak etorri. Joan-aldi bakoitzean, bat edo beste bertan betiko gelditu da. Orregatik, ba, Andres, Kaxilda aieri kentzea oso zalla da. Berak dira mendi-tontor artako jaun eta jabe. An ez du agintzen ez gobernuak, ez poliziak eta ez iñork. Ondo armatuta daude an, gudariak bezela, mendi ori zaintzen.

Andresek:

— Bai. Ori dana orrela izango da, bañan zerbait egin bearra dago.

Martiñek:

— Nun dan jakinda, nola ez gera, ba, saiatuko?

Pacheco'k:

— Matrero batek esan zidanez, kontraseñak dauzkate, poliziarik joaten bada, arriskuan daudela elkarri aditzera emateko. Eta beuren

gordelekutik danak batera segituan ateratzen dira, poliziari gogor egitera.

Komisarioak:

— Bai. Ori egia da. Orregatik, aruntz azaldu baño len, ondo istudiatu bearra daukagu.

Andresek:

— Zertan gelditzen gera?

Komisarioak:

— Denbora pixka bat utzi zaidazu, ea nola moldatzen naizen. Bearbada, nik dauzkaten baño polizia geiago bearko ditut. Río Gallegos eta San Julián'era laguntza eskatuko dut. Gauza aukeratu ez dira egun batetik bestera egiten. Aste bat edo beste igaro liteke. Mendirako prest geranean, deituko dizut.

Andresek:

— Lenbailen izan dedilla.

— Alegiñak egingo ditut.

Eguna joan, eguna etorri eta deirik ez. Bi, iru, lau aste joan dira eta komisarioa ixilik. San Jose aldean beren onetatik aterata daude. Martiñek:

— Zer arraio egiten dute polizi oiek?

Andresek:

— Polizi oiek ez daukate *Cerro Refugio* ezagutzera joateko amorrazio aundirik. Badakite an daudenak nolako ongi-etorria egingo dioten. Atsegiñagoa da, erri aldean alferkerian bizitzea. Emakume bat matreroak eraman dutela. Eta zer? Ez dute beñepein iñor il. Eta, emakume bat mendian dalako, berak beren bizia arriskatu bear al dute?

San Jose'ko danak komisarioaren ixillaldia-
rekin aspertuta daude. Andres eta Martin erri-
ra dijoaz. Komisarioarengana sartu eta noiz ate-
ra bear duten galdetu diote.

Onek, San Julian'go komisarioarekin izana
dala erantzun diote; bañan mendira bialtzeko
moduko milikorik ez daukala. Batzuk or dabil-
tzala eztanrietan barrena gobernuak agindutako
agiri batzuk betetzen, eta beste batzuk errian
bertan bear dituela. Erria ezin ditekela polizia-
rik gabe utzi. Mendian matreroak baldin ba-
dira, kalean ere aien antzekorik badala, eta
errespetoa edukitzeko miliko batzuk nai ta nai-
ezkoak dirala. Río Gallegos'ko komisarioak ere
gauza berdintsuak esan dizkiola; ez diola es-
perantzarik eman.

Andres eta Martin oso minberatuta gelditu
dira. Komisarioari esan diote:

— Zertako ez diguzu deitu eta gauzak argi
eta garbi esan? Onezkero, geren artean ere zer-
bait egingo genun. Lenago, Pacheco bialdu eta
Kaxilda nun dan jakin genun. Orain ere beste
zerbait pentsatu beariko dugu, baldin poliziarik
joan ezin baditeke.

Komisarioak, Andres eta Martin aserre xa-
mar dirala ikusirik, onela dio:

— Ni saiatu naiz beste erri oietatik polizi
batzuk ekartzen. Bañan bialtzeko modukorik
ez daukatela esan didate. Nik zer geiago egin
nezake?

Andresek:

— Zuk nai izan ezkerero, emendik bat edo beste, eta Laguna Grande'n ia egun guztia polizi-etxetik atera gabe musean eta alferkerian pasatzen dutenak, elkarrekin bildu zitezkean. Orrelako milikoekin ez dauka gobernuak kondekorazio asko banatu bearrik.

IGES

Kaxilda an da *Cerro Refugio*'n. Ez daki ezer ere. Ez etxekoak nun dan dakitenik, ez Andres eta Martiñek poliziarekin artu-emanetan diranik.

Amets bakarra dauka: iges egitea. Aspaldian zai dago, itzuli egiteko egokiera bat arrapatu naiean.

Matreroak, beren gordelekutik urruti xamar, zezen bat tiroz il dute. Irurak, aren aragiaren billa joan dira. Kaxildak, menti-tontor artatik, zein aldetara jo duten ikusi du.

Lendabizi, zaldiak ikustera joan da. Arri azpiko legorpe batean daude. Bi dira: beltz bat eta gorri bat. Bieri begiratzen diote. Zaldi beltza erdi lotan bezela dago. Kaxilda an dagoenik, ia ez da konturatu ere. Gorriak, berriz, begiak erne ditu eta burua arro.

Kaxildak beltza aukeratu du. Gorria baño lasaiagoa eta gozoagoa ematen du. Segituan lotu bear du.

Gauza guztiak prest dauzka. Matreroak etortzerako, berak alde egin bear du. Onera etorri ezkeroztik, ez da zaldiz ibilli eta aguro nekaturko dan beldur da. Bañan alegin guztiak egin bear ditu, bandido oien atzaparretatik iges egiteko.

Lenago ere bein baño geiagotan bakarrik utzi izan dute, eta alde egin dezakenik ez dute pentsatuko.

Zaldi beltza artu eta lotu du. *Recado* edo *monturan* bear diran puskak, al duen bezela ornitutu ditu. Biderako, aragi erre pixka bat, sardiñ-lata bat edo beste, ogia edo *galleta* deitzen diotena eta bi manta artu ditu.

Urrutira begiratu du. Ez da iñor ageri. Matreroak alde batera joan dira. Bera, mendiaren beste aldera jetxiko da.

Aitaren egin eta zaldi gañera igo da. Bañan zaldia bertan gelditu da. Bere artean:

— Zaldia bai mantxoa!

Ain mantxoa ere, ez baitzaio geiago mugituko.

— Goazen, zaldia! Arre!

Arre esan edo iso esan, beltzari berdina zaio. Zaldi ori, emen *empacador* esaten dioten oietakoa da. Ez atzera eta ez aurrera, jo edo ez jo, berdina; kasketa jartzen zaiotenean, ez dira mugitu ere egiten.

Kaxildak pozik joko luke. Bañan beldur da, salto bat edo beste uste gabean egin eta lurrera botako duen. Pallakatuaz eta orpoakin

kostilletan joaz alegiñak egiten ditu ea ateratzen dan; bañan alferrik. Bere artean:

— Zaldi onen gañean egon edo sukaldeko aulki batean egon, gauza bera.

Jetxi da. Tresna guztiak kendu eta lenago zegoen lekura eraman du. Orain zaldi gorriarekin arriskatu bear du. Puska guztiak ipiñi dizkio. Beldurrarekin igo du, eta, ondo atera danean, pozez dago.

Kaxilda mendian beiti dijoa. Ez daki ez nora jo, ez gaua nun igaro bear duen eta ez zer gertatuko zaion.

Matreroak berandu xamar bueltatuko dirala badaki. Zezenaren aragia beste matreroeri eraman bear diote eta berriketari denbora joango zaiote. Bañan goiz antzean joango balira eta bere falta somatu, segituan alde banatara aterako lirake; eta, arrapatuko balute, gorriak erakutsiko lizkioteke.

Kaxildak milla pentsamentu daramazki. Amaika aldiz gogoratzen da Euskalerriaz eta Beko-errota'n bere guraso eta Josetxorekin bizi izan zan garaiaz:

— Beldur zan Martin nik an asko sufritu-ko nuela. Neretzat bizimodu atsegiñago bat nai zuen. Orain arte beñepein egun atsegin gutxi izan ditut, eta aurrera ere beldur naiz alabe-rean segituko ote dudan.

Kaxilda aurrera dijoa bere zaldi gorriarekin. Gordelekutik atera ezkerreko eremuak igaro ditu. Illunabarra gañean da eta gaua nunbait pasa

bearra dauka. Erreka-bazter baten ondoan, zaldiarentzat belarra ikusten du eta bertan jeixten da.

Zaldiari tresnak kendu dizkio, errekan edan-arazi ere bai, eta, belarrrik oberena dagoen tokian, soka luze batekin lotu du.

Berak, zartaka batzuen ondoan lo egin bear-ko du. Errekatik ura ekarri eta aragi errea otzajan du. Poxpolorik badu; bañan, bada-ezpada ere, ez du surik egin nai, iñork kerik ikusi ez dezan.

Mendi arte oietan, udaran ere gauak freskoak izaten dira. Lotarako erosotasun aundirik ere ez dauka: ardi-larru bat, *recado* edo *monturan* dituen *mandil* eta *bajera* batzuk eta bi manta. Etzan eta tapatu da. Bañan, nekatua egon arren, ezin du lorik artu.

Leoiaren bat etorriko zaion, beldurrak aidean dago. Gau guztia erne igaro du. Goiz aldera, egunsentian, logalea etorri zaio eta lo-kuluxkan dago.

Alako batean, zaldiak irrintzi egin du. Kaxilda izututa altxa da. Norbait izango zala uste zuen. Bañan zaldiak mendiko beor izuak ikusi ditu. Kaxildak ere ikusi ditu eta pixka bat lasaitu da.

Eguna argitu duenean, errekatik ura ekarri, zerbait artu eta berriz ere prest dago alde egi-teko.

Ez daki nun dan. Bañan bai erreka ortako urak itxaso aldera dijoazela, eta, erreka ondolik joan ezkerre, Santa Cruz aldera dijoala.

Zaldi ona du eta pozez dago. Jaungoikoaren laguntzarekin bi edo iru egun barru Martin eta Josetxorekin izango dan esperantza dauka.

Kaxilda, zaldia lotu eta erreka-ertzean barrera abiatu da. Mendietatik jeixten diran urekin, errekek gero eta ur geiago dakar. Bazter guztietara begiratzen du eta ez da iñor ageri. Bere artean pentsatzen du:

— Euskalerrian, erritik urruti xamar dagoen lurrari, basamortua deitzen diote. Au bai dala basamortua! Ez Euskalerrian diran lurralde aiek.

Orrela dijoalarik, zaldiz dabillen bat ikusi du. Kaxildak ez du ezkutatzeko denborarik izan. Gañera, bere zaldiak burua eta belarriak tente jarri eta irrintzi egin du.

Gizaseme ori beragana dator, *winchester* bat aurrean zearka duela. Kaxilda izutu egin da. Gazte bat da. Onela dio:

— Zer zabilta, emakumea, orren goiz eta mendi ontan?

Kaxildak, oberena egia esatea dala pentsatu du eta bere gertakizun guztiak esan dizkio: matreroak gogorrean artu eta puesto batetik mendi aietara eraman zutela, bere gizona eta semea azeri-zepoak ikusten zebiltzan bitartean; eta orain, nun dabillen ere ez dakiela.

Gazte orrek esaten dio:

— Nungoa zera?

— Ni, *estancia San Jose*'koa.

— Ez dakit nun dan, bañan Santa Cruz aldera joateko bidean ipiñiko zaitut. Ni geiena

arritzen nauena, matrero oiek emakume ezkondu bat, familiarekin dagoena, artu eta mendira ekartzea da. Ori ezin liteke barkatu. Arrapatu eta poliziari eramatea merezi luteke, kastigu on bat izan dezaten.

— Edozeñek arrapatzen ditu! Oiek ondo gordeta eta armatuta daude. Ez dago oietara nolana joaterik.

Beste galdera batzuk ere egin dizkio gazte orrek, eta Kaxildak erantzun ere bai. Gazteak esaten dio:

— Zutaz urrikaltzen naiz, emakumea. Al banu, etxeraño lagunduko nizuke. Bañan urruti dago. Bide zuzenean jarriko zaitut eta egun pare batean etxean zera. Goazemazu menti-tontor ortara, eta nora joan bear duzun erakutsiko dizut.

Mendian goiti abiatu dira. Bide zakarra eta nekosoia, arri kozkorrez betea. Gazte orrek:

— Poliki ibilli zaite, zaldia anketatik erren gelditu ez dedin. Toki zakarretan, tarteka, oñez ere ibilli bearko duzu.

Mendi-tontor ortara igo dira. Ereku aundiak ikusten dituzte andik. Gazteak esaten dio:

— Ara an urruti iru mendi koxkor. Oietan ezkerrean dagoen artara joan bear duzu. Erreka edo ibai ttiki bat ere igaro bearko duzu. Bañan, bein mendi ortara ezkerre, beiti jetxi eta, ibai baten bazterrean, indioen *carpa* edo bizilekuak ikusiko dituzu. Andik aurrera berak lagunduko dizute, oso leialak dira eta. Nai-gabe aundia ematen dit, zu bakardade ontan

utzi bearrak. Bañan ni ezin nindeke berago joan. Jaungoikoak lagundu zaizula, emakume, etxera lenbailen irixten.

— Eskerrik asko, gazte.

Bat alde batera eta bestea bestera banatu dira. Kaxildak bere artean:

— Zein ote zan gazte ori? Ez du ezer ere esan. Ori ere, polizietatik iges dabillen bat seguru aski. Itxura danak ditu. Bañan nerekin borondate ona izan du eta eskerrak berari. Orain badakit nora joan.

Kaxilda poliki-poliki dioa. Ibai ttiki ura igaro du. Zaldia askatu eta sokarekin ibai-bazterreko belarretan lotu du. Berak ere zeozer jan du. Nekatuta baitago eta gaez lorik egin gabea, etzan eta lo pixka bat egin du.

Berriz ere zaldia lotu eta aurrera. Emen ia arririk ez dago. Ibiltzeko atsegiña. Bere artean:

— Danak onelako bideak balira, laixter nintzake etxean.

Bañan mendi tartean sartu da eta dana arri kozkorra. Toki askotan oñez ibilli bear. Mendi zakarrak alde guztietan. Bat jetxi eta bestea igo.

Orrela dabillega, naastu egin da. Orain ez daki gazte arek esandako mendia zein dan. Iru baño geiago ikusten ditu. Ez daki nora jo. Berriz ere galdata dago.

Illunabarra gañean dauka eta nun gelditu ez daki. Arri kozkorra besterik ez dago. Zaldia nun edan ez dauka. Berak ere, urik gabe igaro bearko du gaua.

Zaldia askatu eta zartaka bati lotu du. Mokadu bat ere ez dauka jateko. Mendi soil legor tartean dago. Kaxilda exeri eta negarrez asi da. Badaki nolako gaua igaro bear duen, eta begirik ere itxiko ez duela. Batetik, toki txarra daukalako; eta, bestetik, leoieri beldur izugarria diotelako. Bere artean:

— Toki ederrean gelditu naiz ni! Onelako tokietan izaten dituzte leoiak beren gordelekuak. Zaldia ikusi eta ilko dute, eta gero ni ere bai.

An gelditu da Kaxilda, arri batengana arri-matuta, manta burutik bera artu eta exerita, bere ondoan arri tartean leoiaren atzapar-soñuak noiz somatuko ote dituen.

Gaua nolabait ere igaro du. Egunsentia da. Zaldiari begiratu eta kuxkurtuta dago. Emen gauak freskoak baitira. Kaxilda ere otzak dago, gau guztia exerita pasa eta gogortua.

Pentsamentuan dagoelarik, or ikusten ditu *cóndor* batzuk. Ain baju baitijoaz, egoen soñua ere entzuten du. Altxa, nora dijoazen begira jarri eta bere artean:

— Oiek dijoazen aldera joan bear dut nik ere. Oiek, ardiak diran tokira dijoaz. Jan billa dabilta.

Kaxildak zaldia lotu du eta puska guztiak ipiñi ere bai. Bañan oñez joan bear, bide zakarra dago eta. Bere oñetakoeri begiratzen diote eta ia beatza ageri zaio. Bere artean:

— Laixter oin utsik ibilliko naiz. Bai; toki ederrak daude orrela ibiltzeko.

Mendi tartean barrena dijoala, or ikusten du iturri ttiki bat. Zaldia ere, ura ikusi duenean, edan naiean asi da. Lendabizi, Kaxildak berak edan du. Gero, eskuekin arri batzuk atera eta zaldia edateko zulo bat egin du.

Beste iturri bat noiz billatuko duen ez daki eta zeozer jatea obe dala pentsatu du. Arratsean ez baitzuen ezer ere jan, urik etzeukalako. Zaldia jan gabe baitago, auleriak joko duen beldur da.

Mendi artetik atera da. Orain zabaldegi bat dauka aurrean. Arririk ez dan tokia eta ibiltzeko leguna. Belar pixka bat ere badago. Kaxildak bi aldeetara begiratzen du, zaldia jaten nun ipiñiko duen.

Gero eta belarra ugariago ikusten du. Jetxi eta askatu du zaldia. Soka luze batekin lotu ere bai. Bera, etzan eta loak artu du. Lo-alditxo bat egin eta altxa. Segituan zaldia lotu eta aurrera. Gauerako mendi koxkor oiek pasa eta beste aldera iritxi nai luke. Gazte arek esan zionez, oiek igaro ezkerro, ibai bat arkituko zuen eta bazterrean indioak.

An dijoa Kaxilda, zaldi gorriari lepoan pailakatuaz eta itzegiñez, pozez beteta, Los Andes'ko azkeneko mendi ttiki oiek igarotzera.

Cóndor aundi oiek ikusten ditu berriz ere, egun-pasa egin eta gauerako mendi aundien gallurretara dijoazela. Bere artean:

— Gazte arek emandako zuzenbidea galduta neukan. Goizean oiek erakutsi didate nora

joan. Orain ere toki beretik datoz. Oiek ondo dakite emengo berri.

Mendi ttiki oiek igaro eta bera dijoa. Ibaia ikusten du. Bereala bertan dago. Urrutitik ematen zuen baño aundiagoa da. Ur lodiak dijoaz. Kaxilda, ibai-ertzez barrena aurrera dijoa.

Alako batean, beste aldeko zartaka batean kea ikusten du. Bere artean:

— Indioak izango dira. Gazte arek bazekien toki auetako berri.

Carpa edo indioen bizilekuetara iritxi da. Bañan ibaia tartean da. Zaldi gañetik jetxi da. Indiorik ageri dan begiratzen du, bañan ez du iñor ikusten.

Illunabarra dator. Kaxilda larri da beste gau bat mendian igaro bearko ote duen eta oiuka ekin dio. Zakurrak zaunkaka asi dira eta indio gazte bat etorri zaio.

Segituan datorrela esan dio. Oiek ez dute denborarik galtzen, zaldiari tresnak ipintzen. Ezer ere gabe, *en pelo*, salto bat eta gañera. Berriz ere etorri da eta uretara. Zaldiak ibaia igeri pasa du. Kaxildari galdetzen dio:

— Zer zabilta emen?

Kaxildak bere gertakizunak esan dizkio. Indioak:

— Nerekin etorri zaitte. Goazemazu aurre-rago, toki ohea da eta. Ni aurretik sartuko naiz eta zaldia kabestrotik eramango dizut. Zuk, *recado* edo *monturari* bi eskuekin eldu eta ez izutu. Eroriko baziña, al baduzu zaldiari isatsetik eldu eta berak aterako zaitu. Eta, estua-

sun batean, ni emen nago zaldia utzi, zuregan-
na igeri joan eta bazterrera ateratzeko.

Indioa ibaian sartu da eta Kaxildaren zal-
diari eusten dio. Onek bi eskuekin eldu eta no-
labait ere beste aldera atera dira. Kaxilda bus-
tita dago eta onela dio:

— Orain zer egin bear dut nik?

— Zuretzat zeozer arropa izango da noski.
Ez dezazula orregatik kezkarik eduki. Ibai au
ezin liteke alde batetik bestera busti gabe pasa.

Indio, india eta ume batzuk etorri zaizkio-
te. An dioa Kaxilda, dana bustita, *carpa* ba-
rrura. Arropa batzuk ekarri eta jazteko esan dio-
te. Emen ez dago aldameneko gelara joaterik.
Kaxildak danen aurrean bustiak erantzi eta le-
gorrak jantzi bear izan ditu.

Ondo artu dute Kaxilda. Ditzuten gauzarik
oberenak eman dizkiote jateko. Indio gaztee-
kin itzegiten du; bañan zarrak beren izkuntza
besterik ez dakite. Izkuntza orri *tehuelche* esa-
ten zaio.

Afaldu eta lotarako tokia ipiñi diote. Gaur
indio artean lo egin bearra dauka. Oek *cama*
redonda egiten dute. Askotan zakurrak ere beu-
rekin batean.

(Lerro auek idazten ari dan onek, gauza oien
berri ondo daki. Berak ere lo egin izan du
indio artean, *carpa* oietako batean.)

Kaxildak, nekatuta baitzegoen, ondo lo egin
du. Goizean esnatu danean, danak jeikita zeu-
den. Bera ere altxa da eta segituan eman diote
zeozer gosaltzeko.

Ondoren, ibaia pasatzen lagundu zion indio gazte ura mintzatzen zaio:

— Gaurko eguna gurekin igaro bear duzu. Arropak legortu eta itxogin-aldi bat komeni zaizu. Bigar goizean goiz biok San Jose aldera aterako gera. Nik bazter oiek ondo ezagutzen ditut. Askotan joan izan gera, *guanaquito* ttiki oiek arrapatzera.

Egualdi ederra dago. Kaxildak bere arropak legortzen jarri ditu. Or dabil indien gona aundi batekin eta eman dizkioten oñetakoekin. Zapatak puskatuta zeuzkan, eta bat urak eramana.

Pozez dago, indio oek beragatik egin dituzten alegiñak eta azaldu duten borondate onarengatik. Gañera, bigar San Jose'n eman bear duen sorpresa gogoratzen zaio eta txoratuta dago. Gau bat geiago indioekin eta goizean goiz San Jose aldera.

Egunsentian, Kaxilda eta indio gazte ori atera dira. Kaxildak zaldi berria du, ibilli atsegiñekoa. Indio gazte orrek, berarentzat oberena aukeratu du. Zaldi gorria, berriz, indioak sokatik darama.

Kaxildak ez dauka ori nunai uzteko. Matre-roen eskuetatik orrek atera baitu. Zaldi beltzak egin ziona egin balu, oraindik an zan mendizulo artan.

Zaldi beltzarekin zer gertatu zitzaion indio gazte orri esan dio, eta onek:

— Zuk, zaldi beltza mugitzen etzala ikusirik, gorria eta biekin atera bear zenuen. Zal-

di *empacador* oiek, geienetan elkar maiteak izaten dira eta ez dute bakarrik atera nai izaten.

Batzutan trote eta bestetan galope, Andresen mugetara arrimatzen ari dira. Kaxildak, *tranquera* edo ataka urruti dagoela eta alanbre gañetik pasako dirala esaten dio indioari. Gazte orrek alanbrea zanpatu du eta zaldiak saltoan beste aldera.

Orain puestotik alde xamar daude. Bera eraman zuten tokira urbiltzen ari dira. Kaxildak bere artean:

— Orain zein ote dago or?

Bertara iritxi eta zakurrak zaunkaka asi dira. Martin, Josetxo eta Nemesio atera dira. Emakume bat zaldiz ikusi dutenean, begiak ederki ernatu zaizkiote. Ezagutu eta Josetxo korrika joan da. Amari eldu eta zaldi gañetik besoetan jetxi du.

— Ama! Nun ibilli zera?

— Mendian, Josetxo! Aruntz eraman ninduten eta orain iges eginda nator.

Martiñek ere eldu dio Kaxildari. Bieri malakoak dijoazkiote begietatik.

Nemesiok ere poz aundia artu du Kaxildaren etorrerarekin.

Josetxok amari esaten dio:

— *Cerro Refugio* ori urruti al dago?

— Nola dakizute ni an egon naizela?

— Pacheco bialdu genuen, ea zerbaiten aztarrenik ateratzen zuen. Ortarako, zuk galdutako jerse bat nik billatu nuen, eta seguru giñan mendi aldera eramana ziñala.

— Nik ez nuen jerse ori galdu. Apropos utzi nuen zaldi gañetik erortzen. Banekien bateonbat alanbrada ikustera joango zala, eta, ori billatutakoan, nora eraman ninduten jakingo zenutela.

Martiñek:

— Pacheco'k mendi oietan barrena egun batzuk igaro zituen, eta, matrero baten bitartez, zu *Cerro Refugio*'n zeundela jakin ere bai. Poliziak ere jakiñaren gañean jarri genituen, eta nun ziñan esan. Bañan oiek presarik ez daukate. Oraindik ezin antolaturik dabilta, zure billa joateko. Aizu, Kaxilda: Josetxo eta irurok estanziara joan bear dugu. Emen, Nemesio eta indio gazte ori geldituko dira.

Josetxok autoa artu eta San Jose'ra joan dira. Andres, Lutxi, Alixi eta Marta ere or daude. Gautxoak ere bai, eta, oien artean, bera nun zan somatu zuen Pacheco.

Kaxildaren joan-etorriak danak batean ikasi nai dituzte, eta matreroak zer tratu eman zioten ere bai.

Kaxildak, oso nekatuta dagoela esan diote, eta oera joan nai lukela; nola eraman zuten eta matrero oiekin nun izan dan, gero esango diotela.

Matreroak Kaxilda eraman zutela bazter guztietan zabaldu zan. Eta orain, iges egin eta indio gazte batek etxera ekarri duela inguruko estanzietan jakin dutenean, danak emen datoz zerbait jakin naiean.

Kaxildak naiago luke egun batzuk oean egon, etxekoekin bakarrik, pixka bat indartu arte. Bañan beti badator bateonbat, eta daneri ondo egin bear.

Lenago lasai bizi ziran emakumeak, orain matreroak eramango ote dituzten beldur dira. Puesto edo rantxo oietan beren gizon eta aurrekin bizi diranak, ez dute puestoan bakarrik gelditu nai.

Andresen lagun bat, inguruko estanzia bateko nagusia, bere emazte eta bi alabakin etorri da, Kaxildari bixita egitera.

Kaxildarekin egon ondoren, atarian dira, Lutxi, Alixi eta Andresekin izketan. Bi neska oiek ikusi dituzte gautxoak, eta, ezagunak baitituzte, agurtzera joan dira. Berriketan ari dirala, batek onela dio:

— Matrero oiek beldurra ematen didate. Oraingoan Kaxilda, eta urrengoan zein izango ote da? Ni beñepein ez naiz etxetik bakarrik aterako. Ateratzezkerotan, *guardaespaldas* edo zerbait orrelakorekin.

— Aizu, Beatriz: nai al duzu ni zure *guardaespaldas* izatea? —esaten dio Tomasek.

— Bai; gustatuko litzaidake. Zurekin lasai ibilliko nintzake.

— Bai; nerekin zabiltzan bitartean, etzaituzte matreroak eramango. Zu eramatezkerotan, nere gorputzaren gañetik igaro bearko luteke.

Bi neskak elkarri begiratu eta algara egin dute:

— Zu, Tomas, orain ere beti bezelako xelebrea. Eta soldata, zenbat nai zenuke?

— Ni ez nintzake zu zaintzera diru-trukjoango; maitasunak zugana bultzatzen nauelako baizik.

— Egia esaten al duzu, Tomas?

— Egi-egia.

— Itz politak dituzu.

— Oraindik politagoak baditut, egunen batean entzun nai badituzu.

— Entzuteko zaletasuna izaten badut, esango dizut.

Andresi Santa Cruz'era joan bearra gertatu zaio. Denbora berean komisarioarengana joan da, Kaxildaren gertakizunak esatera: matreroeri iges egin eta egun batzutan mendian galduta ibillia dala, eta indio gazte batek etxera etortzen lagundu diola.

Komisarioak:

— Oraintxe ateratzekoak giñan beraren billa. San Julian'en iru edo lau miliko agindu zizkidaten, Río Gallegos'en ere beste ainbeste, eta egun gutxi barru *batida* bat emango genuen mendi alde oietan.

— Bai; pizkorrak zaudete zuek. Zuengatik, or inguruko emakume guztiak eramango dituzte. Gañera, mendi alde ortan ibillitakoak diotenez, matreroak nunai omen dira. Eta lasai omen daude, zuen beldurrik ez daukate eta. Orrela uzten bazaiote, laixter estanzietara jetxiko dira eta nai dituzten gauza guztiak arrapatuko dituzte.

— Guk zer egitea nai duzu, ba?

— Zuek, nun diran badakizute eta segituan beuretara joan eta astiñaldi bat eman. Ez, nai duten guztia egiten utzi.

— Orain beñepein ez gera joango.

— Ez; obe duzute orain entzuten ari zerraten *tango* polit oietakoak entzuten egon. Ez, aietara joan eta zeuen bizia arriskatu.

Andresen artaldea urtetik urtera ugaltzen ari da. Orrela gertatzen da, emeak aurrerako uzten badira eta zikiroak bakarrik frigorifikora saldu. Beste eremu batzuk artu ditu Andresek, puesto eta guzti, bañan estanziatik urbil.

Andresek, bere mutillak bakoitza bere tokian ipintzen ditu. Pacheco'ri ere lana eman dio, eta Nemesio eta biak urrutieneko puestoan, matreroak Kaxilda eraman zuten tokian. Jorje eta Marta, berriz, orain artu dituen eremu berri oietan, ango puestoan, estanziatik alde xamar. Estanzian, Martin, Josetxo, Alejandro eta Tomas geldituko dira.

EZTAIETAN

Andres ere urtetan aurrera dijoa eta bere ordezeko bat utzi nai luke. Ordezko ori Jose txo izango da, estanziako gorabera guztiak ondo dakizkiena eta Andresek begi onez ikusten duena.

Josetxo eta Alixi ezkontzera dijoaz. Jakiñaren gañean jarriak dira Kaxildaren guraso zarrak, eta Martiñenak ere bai.

On Ramon ere, ainbeste lagundutako apaiz zintzo eta jatorra, oso zartuta dago. Denbora batean baserriz baserri eta etxerik etxe daneri lagunduaz eta konseju onak emanaz ibiltzen zan apaiz agurgarri ori, orain etxe-zokoan dago, Jaunaren deiaren zai.

Josetxo eta Alixiren eztaietara ez da Euskalerritik iñor etorriko; bañan bai Bahía Blanca eta Buenos Aires'tik: Elena, Aurora, Bartolo eta Joxepantoni joango dira.

Inguruko estanzietako jabeak eta Andresen lagunak erregaloakin datoz. Oietan batzuk eztaietan izango dira.

Elena, Aurora, Bartolo eta Joxepantoni, elkarrekin abioian datoz. Josetxo bera joan zaio-
te billa eta San Jose'ra eraman ditu.

Bartolo eta Joxepantoni, beñere Patago-
nia'n izan gabeak, emengo eremu izugarriak iku-
si eta arrituta daude.

Danak beren erregaloekin etorri dira. Gau-
txoak ere al dutena egin dute beren aldetik.

Etorri berri oiek or dabilta San Jose in-
guruak ikusten. Elena bakar-bakarrik dabil, eta
Tomas eta Nemesiok txurliatzeko gogoia dau-
kate. Tomasek:

— Nola ez duzu zure gizona ekarri, Elena?

— Nere gizonak ez dauka ibiltzeko gogo-
rik. Gañera, abioiak kalte egiten dio. Ez bai-
tauka osasun ona.

— Nola, ba, Elena, orrenbeste denboran
ezkongai egon eta miñez dagoen gizon batekin
ezkondu zifan?

— Min zeukanik ez nekielako.

— Eta zer modu ezkonduen bizimodua?

— Ezkonduen bizimoduak, lendabiziko egun
eztitsuak igaro ezkeru, gauza partikularrik ez
dauka.

Nemesiok:

— Orrekin zer esan nai duzu? Egun atse-
giñak gutxi irauten dutela?

— Bai. Jaungoikoak saria aurretik ematen
du, artu nai dutenentzako. Bañan ori, gero or-
daintzeko izaten da.

Tomasek:

— Nola ordaintzen da ori?

— Sakrifizio, sufrimentu eta naigabe askorekin.

— Orduan obe dugu, Nemesio, zorretan sartu gabe, gauden bezela egon.

— Nik uste, bai.

Elenak:

— Bi mutilzar malizioso ederrak zaudete zuek. Emen zatozte neregana inoxente itxurak egiten. Bañan ezagutzen zaituztet. Azeri zar batek baño malizi eta pikardi geiago daukazute zuek, naiz batek eta naiz besteak.

Elenak berriz ere:

— Aizu, Nemesio: Adalak eskumuñak eman dizkit zuretzat.

— Eskerrik asko. Eta zer dio?

— Antxe ura bere dendarekin eta zutaz oroituaz. Berak dionez, zu ezagutu ezkerro maiteminduta dago eta gau askotan ezin du lorik egin.

Nemesiok:

— Gaixoa! Pena ematen dit emakume batek neregatik loa galtzeak. Bañan zuk, Elena, badakizu ez naizela emakume orrengana joango. Lenago ere esan nizun zergatik. Esan bear diuzu, alperrikako ametsik gabe, lo lasai egiteko.

Estancia San Jose'n mobimentu aundiak dira. Eztaietako eguna gañean dute eta joan-etorri aundiak dabilta.

Gautxoak ere joan bear dute eta arropa berriak egin dituzte. Oiek, ain gutxitan jazten dituzten traje oietakoak jantzi bearra daukate.

Eta, lepoan ibiltzen duten pañuelo aundiaren tokian. korbata jarri bear.

Andresek danak eramango lituzke. Bañan estanzian norbait bear da eta Alejandro eta Pacheco geldituko dira. Oeri bazkari on bat utziko diote.

Elenak eta Aurorak emakumeak antolatuko dituzte. Gero gautxoengana joango dira, ea doctore jantzi diran ikustera.

Marta ere, Jorjeren emaztea, gautxoen antzekoa da; mendian jaio eta mendian bizitakoa, eta orrelako boda batean beiñere izan gabea.

Eskerrak Elenak apainketarako bear diran gauzarik geienak ekarri dituela. Bera lan ortan oituta baitago, emakume guztiak orraztu eta txukundu ditu.

Egun aundi ori iritxi da. Danak jeiki eta antolatzen ari dira.

Josetxo, zer egualdi dagoen begiratzera aterra da. Itxura ona dauka. Gautxoak argiak piztuta dauzkatela ikusten du. *Mate* artzen ari dirala badaki, eta, goizero gautxoekin *mate* artze-ko oitura baitauka, an dijoa beurengana. Exeri eta lasai dago.

Kaxilda, Josetxo falta dala konturatu da eta onela dio:

— Apustu egingo nuke, gure mutil ori *mate* artzera joan dala. Orrek ditu gibelak! Joan zaite, Martin, eta aurrean ekarri zazu. Berandu egingo zaigu bestela.

Aitak deitu du eta joan da Josetxo. Amak esaten dio:

— Ori duk lasaitasuna, ori! Laixter atera bear eta *mate* artzen!

— Ni bereala jantzita nago. Zuek zerate beti arrastaka ibiltzen zeratenak.

Emakumeak jantzita daude. Elena eta Aurora, gautxoak nola diran ikustera dijoaz. Tomasek:

— Elena, korbata edo lepoko trapu-puxka au ipiñiko al didazu?

Elena korbata ipintzen asi zaio, bañan Tomas ez da geldirik egoten. Elenak onela dio:

— Geldirik zaude, gizona! Zer da berriz au onelakoa?

Nemesiok:

— Orri ori jartzea, motxal bati lazoa jartzea bezela da. Ez al dakizu, ba, au ere mendian jaioa dala eta lepoa lasai nai duela?

Tomasek:

— Elena, ezin al diteke ori bolsilloan eraman eta, elizara baño len, bertan ipiñi?

— Nola asiko naiz, ba, eliza-atarian lotsagarri zuri korbata jazten? Egun batekoarengatik etzera itoko.

— Ez; bañan ez da nik nai orduko igaroko gaurko eguna.

Auzokoak etortzen asi dira. Laixter atera bear dute. Gautxoak ere atarian dira, beren korbata eta guzti, errira joateko prest. Etxean gelditu bear dutenak ere, Alejandro eta Pacheco, begira daude.

Andres eta Kaxilda dira aitautxi eta amautxi. Andres, Kaxilda, Josetxo eta Alixi aurretik atera dira; ondotik, beste guztiak.

Santa Cruz'era iritxi eta segituan elizara. Apaiza etorri da. *Patrifilioak* berealaxe egin ditu eta Josetxo eta Alixi ezkondata daude.

Binaka atera dira: Tomas Elenarekin eta Nemesio Aurorarekin. Tomas, bazter guztietara begira dioa, ia geldituan, eta Elenak besotik tira egiten dio.

Elizatik ateratakoan, argazki edo erretratoak. Gero, ezkonberrieri zorionak opa dizkiote.

Bazkaltzera abiatu dira. Tomas, Elena, Nemesio eta Aurora elkarrekin dijoaz. Elenak onela dio:

— Aizu, Tomas: ezagun da bakan edo beñere elizara etortzen etzerala.

— Zergatik, ba?

— Sarreran eta ateratzerakoan, bazter guztietara begira eta ezin karreatu. Edozeñek antzemango zion.

— San Jose'tik oneraño nola etorriko naiz, ba?

— Ori ala da. Bañan zure eztaietara noiz etorri bear dugu?

— Nere eztaietara ez dut uste iñor etorriko danik.

— Zer ba?

— Ezkontza orrek ere baditu bere kontuak: elizako buelta ori, apaizak galdetzen dituenak erantzun, fotoak dirala eta abar. Ni,

gauza oietarako oso lotsatia naiz eta mutilzar gelditu bearko dut.

Bazkaldu dute. Arratsaldean, ezkonberriak, Bartolo eta Joxepantoni, Elena eta Aurorak, abioia artuko dute, Buenos Aires'era joateko.

Gaua bertan igaro eta Josetxo eta Alixi Bahía Blanca'ra, Elenaren etxera, joango dira. Gero, andik Mar de Plata'ra. Urrengo saltoa, Chaco aldera. Gero, Paraguay. Andresen anai bat or dauka Alixik eta ura ikustera joango dira. Eta, buelta ori egin ondoren, berriz ere San Jose'ra.

Emen amaitzen dira Martin, Kaxilda eta Josetxoren gertaerak.


ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.^a Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.^a Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*)
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (*Aitua*).

25. A. P. Iturriaga: Jolasak. (Aitua).
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zala-partak. (Aitua).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (Aitua).
28. B. A. Mogel: Ipui onak. (Aitua).
29. T. Alzaga: Burruntziya. (Aitua).
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria. (Aitua).
31. M. Soroa: Baratzen. (Aitua).
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza. (Aitua).
33. M. Elizegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak. (Aitua).
34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua. (Aitua).
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara.
37. A. Cardaberaz: Euskeraren berri onak. (Aitua).
38. S. Salaverria: Neronek tirako nizkin. (Aitua).
39. Bertsolariak: Amar urteko bertso-paperak. (Aitua).
- 40-41. J. R. Zubillaga: Lardasketa. (Aitua).
42. Uztapide: Noizbait. (Aitua).
43. Bertsolari-txapelketa. (1-I-1965). (Aitua).
44. P. Larzabal: Hilla esposatu. (Aitua).
- 45-46. J. M. Satrustegui: Bordel bertsolaria. (Aitua).
47. P. M. Urruzuno: Iru ziri. (Aitua).
48. P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe: Teatro zaarra. (Aitua).
- 49-50. A. Zavala: Pello Errotaren itzala. (Aitua).
51. P. M. Urruzuno: Ur-zale baten ipuiak. (Aitua).
- 52-53. G. Anduaga: Bertso-bilduma.
54. A. Zavala: Pernando Amezketarra bertsolaria. (Aitua).
55. Basarri: Laugarren txinpartak. (Aitua).
56. A. Zavala: Udarregi bertsolaria. (Aitua).
- 57-58. C. Beobide: Asis'ko Lorea. (Aitua).
59. A. Zavala: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. A. Zavala: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (Aitua).
61. A. Zavala: Gaztelu bertsolaria.
62. A. Zavala: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. A. Zavala: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. J. M. Satrustegui: Luzaide'ko kantiak. (Aitua).
66. A. Zavala: Iru bertsolari. (Aitua).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (Aitua).
- 68-69-70. A. Zavala: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. A. Iturriaga: Ipuiak.
73. A. Zavala: Iru anai bertsolari. (Aitua).

- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*.)
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*.)
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*.)
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*.)
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*.)
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*.)
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*.)
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*.)
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*.)
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*.)
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*.)
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*.)
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*.)
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*.)
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*.)
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*.)
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.

129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J. M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (I).
144. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (II).
145. *J. J. Irazusta*: Nork bere bidea (III).



AUSPOA
LIBURUTEGIA